



EHIZAREN LIBURUA

EHIZATZEKO GAITASUN AZTERKETAKO GIDALIBURUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL
AGRICULTURA Y PESCA





EHIZAREN LIBURUA

EHIZATZEKO GAITASUN AZTERKETAKO GIDALIBURUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



► **EGILEAK**

Zuzendaritza: Mario Sáenz de Buruaga ¹

Felipe Canales ¹

Miguel Ángel Campos ¹

Alejandro Onrubia ¹



¹ Consultora de Recursos Naturales, S.L.
Kexaako Gaztelua, 11, 20 bul. – 01007, Vitoria-Gasteiz
c.r.natur@crn.euskalnet.net

► **DISEINUA**

2ados / Comunicación Global y Organización de Eventos

► **ARGAZKIAK**

Ramón Arambarri (ondoren aipatutakoak ezik)

Enrique Arberas, 71 or. (ezk., behea)

Javier Blanco, 45 or.

Miguel Ángel Campos, 27 - 40 - 50 - 54 (esk.) - 71. (ezk. goi.) or.

Felipe Canales, 30 - 54 (ezk.) - 57 (ezk. eta goi.) - 73 - 95 - 175. or.

IC Productores, S.L., 172. or.

Mario Sáenz de Buruaga, 39 - 43 - 60. or.

Roger Tidman/Nayadefilms.com, 93 - 110 - 111. or.

Tomero y Romillo, Servicios Ambientales, S.L., 136 - 139. or.

Nicolás Trujillo, 101. or.

► **IRUDIAK**

Joaquín Alegre (4. eta 7. kapituluetakoak)

Antonia Negral (2. eta 3. kapituluetakoak)

José Manuel Onrubia (5. kapitulukoak)

Iñaki Zorrakin (atzeko azalekoa)

► **KOORDINAZIOA**

Eusko Jaurlaritza (Jaime Feliú)

Arabako Foru Aldundia (Carlos Cabanas)

Bizkaiko Foru Aldundia (Javier Monge)

Gipuzkoako Foru Aldundia (Iñigo Mendiola)

► **ARGITARALDIA:** 1.a zuzenduta, 2014ko abendua

► **© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa**
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

► **ARGITARATZAILEA**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia


Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

► **FOTOMEKANIKA:** Reproducciones L'Arte

► **I.S.B.N.:** 84-457-2323-5

► **LEGE GORDAILUA:** VI 128-05



EHIZTARIAREN ESKULIBURUA

EHIZATZEKO GAITASUN AZTERKETAKO GIDALIBURUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL
AGRICULTURA Y PESCA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014



AURKEZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoak ehiztari-azterketa ezarri zuen 1990ean, Estatu mailan aitzindari gisa jokatuta. Beharrezkoa da gaitasun-proba hori gainditzea lehen aldiz ehiza-baimena eskuratzeko. Zerbait ezagutza frogatu behar direnez, funtsezkoa da oinarrizko eta beharrezko informazioa daukan argitalpen bat izatea, ehizan hasten direnek azterketa gaindi dezaten. Hala, 1991n, Eusko Jurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak horretarako lehen liburua argitaratu zuen.


Ordutik, aldaketa ugari sortu dira ehiza baldintzatzen edo arautzen duen araudian. Aldaketa horiek Ehiza-azterketarako Eskuliburuaren argitalpen eta bertsio berriak ekarri dituzte. Bestetik, baliabide informatikoek erraztu dute edukiak bizkorrago gaurkotzea, Eskuliburua Sailaren web-orrian argitaratzen baita, paperezko argitalpen beharrik gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ehiza-azterketarako Eskuliburua ez da bakarrik ehiza-azterketa gainditzeko tresna, baizik eta argitalpen interesgarria ehiza prestakuntza gaurkotua mantentzeko, gai horretan interesa duen edonorentzat.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	13
1.- EHIZA LEGERIA ETA INGURUMEN ARAUDIA	18
2.- EHIZA ARAUTZEA ETA EHIZA JARDUERA	29
4.- ESPE EHIZA ZIEAK	73
• Hegaztiak	75
• Ugaztunak	115
5.- IDENTIFIKATZEKO ARAZOAK	113
6.- EHIZAKO ARMAK ETA TXAKURRAK.....	156
7.- ETIKA, SEGURTASUNA ETA JOKAERA	173
GLOSARIOA	187







▶ HITZAURREA

Baliabide naturalak ustiatzeko, nahitaezkoa da planifikazioa. Euskadiko kasuan, helburu handinahia eta ingurulan mendearen erditik aurrera, landak eta inguruneak aldaketa handiak jasan dituzte, eta horrek faunaren dinamismo handi bat ekarri du, besteak beste. Hala, eta berez nabardura anitz dituen laburtzeak dakarren arriskuarekin, esan daiteke garai onak direla ehiza larriko espezieentzat, eta txarrak, ehiza xehekoentzat edo, gutxienez, espezie sedentarioentzat. Ustiaketan ere, erantzunak dinamikoa izan behar du: ez dute balio, ez arau finkoek, ez inertzian oinarritutako jarrera erosoek. Edonola ere, eta egoera geografiko bakoitzaren inguruko zer-nolak gorabehera, gauza bat eztaba daezina da: ehiza daiteke, bai, baina indarreko legeriak, ehiza-planifikazioak eta ehiztarien jokaerak osatzen duten sistema errespetatzen duen ehiza-jarduera baten barruan.

Batez ere 80. hamarkadatik aurrera izan du ehizak iraultza handi bat bere burua ikusteko eran, bereziki European. Baliabide naturalen partzela baten ustiaketa-jarduera gisa, ehiza, poliki-poliki, bera arautzen duten araudi berri batzuetara egokitu da, alde batetik, eta, gainera, gure gizarteak nahi duen garapen- eta aisialdi-eredua blaitzen duen asmora edo esparrura: jasangarritasunera. Euskadin, egin dira jadanik ahaletzen batzuk, ez bairik gabe, eta etorri dira emaitza batzuk ere. Kudeaketa-, kezka- eta konpromiso-urrats ugari hautematen dira naturarekin lotutako esparruetan.

Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) ehiza-azterketa dauka aurreikusita bere araudian orain 20 urtetik baino lehenagotik. Azterketa hori aspalditik dago errotuta Erdialdeko European eta Ipar European. Azken urteetan, Euskaditik Iberiar penintsula osora hedatu da poliki-poliki, eta EAE erreferentzia bat da haren aplikazioan. Ehiza-azterketa ehiza arduratsu bat hasteko abal bat baino ez da, oinarritzko ezagutza batzuen erakusgarria. Bere eskatu behar den gauza bat bezala onartu behar du sektoreak, eta hala egiten du. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzari eta foru aldundiei nahitaezkoa iruditzen zaie ehiztariak, eta bereziki ehiza-azterketa prestatu behar dutenek, argitalpen bat eduki dezaten, XXI. mendeko ehizarako oinarritzko eta praktikotasunik handieneko edukiekin.

Ingurune naturalean garatzen diren jarduera gehienek bezala, ondoko hauen mendeen dira ehiza eta haren ingurua: ekosistemen eta espezieen dinamika naturalaren mendeen, batetik, eta haien ondorioz poliki-poliki argitaratzen eta ezartzen diren zuzentarauen, legeen, dekretuen, arauen eta foru-aginduen mendeen, bestetik. Horregatik, eta nagusiki Euskadiko Ehiza Legea (2/2001 L., martxoaren 17koa) onartu zenetik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien laguntzarekin, edukien berrikuste eta eguneratze sakon batzuk egin nahi ditu 1991n argitaratutako eta 2005ean berrikusitako Eskuliburuan.

EAEk bi eskualde oso desberdin ditu, ikuspegi geografikotik begiratuta: bat atlantikoa, iparraldean, Kantauri itsasoak bustita, eta bestea, mediterranea, Ebro ibaiak eta haren adarrek zeharkatuta. Lehenengoan, klima leunagoa da, eta hezetasuna, handiagoa; basoak (pagadiak, pinudiak...), larreak eta itsasertza dira ohiko ekosistemak han. Euskadiko alde mediterraneoan, berriz, labore-nekazaritza, artadiak eta hariztiak dira nagusi. Ezaugarri geografiko horiek eragin handia dute, noski, faunari eta, jakina, ehizan, ehiza-espezieen presentziari edo gabeziari, eta haien ugartasunari dagokienez. Bizkaian eta Gipuzkoan (lurralderik atlantikoarenak), ia-ia migrazioak (usoak, oilagorak, birgarroak...) bakarrik dira ehiza xeheko espezieak; Araban (lurralderik mediterraneoena), aldiz, espezie sedentarioek (eperra, erbia, untzia...) dute indarrik handiena. Aise igar daitekeenez, administrazio-esparrua, ehiza modalitateak eta ehiza-idio-sinkrasia bera nahiko ezberdinak dira bi eskualdeetan.

Liburu hau, Euskadin ehizaz sekula egin den osoena, interes handikoa zaie ehizarekin lotutako guztiei, eta bi arrazoi nagusigatik, hori: lehenik, argitalpenak ehiza-liburutegia handitu eta, kasu batzuetan, abiatu nahi duelako, eta, bigarren eta nagusiki, ehiza-azterketa prestatzeko gida delako: ehiza-jarduerari ekiteko administrazioak gaintzea eskatzen duen proba prestatzeko erarik onena, zalantzarik gabe. Hala, ehizara lehenbiziko aldiz hurbildu nahi dutenek hasieratik ezagutzaz eta zorrotasunez ehizatze beharrezko informazioa aurkituko dute orrialde hauetan. Bestalde, ondoko hauei ere zuzendu zaie liburu hau: jadanik ehiztari direnei, eta ingurumenarekin eta/edo haren ustiaketarekin, kudeaketarekin eta kontserbazioarekin lotuta dauden beste sektore batzuei, hau da, administrazioetako langile teknikoei, natura-, ingurumen- eta baso-zientzietako ikasleei, nekazaritzako eta abelazkuntzako profesionalei, natura maite dutenei... Horientzat guztientzat da liburu hau, eta ikuspegi tekniko batetik eta dibulgazio-ikuspegi batetik da hala.



Eskuliburu hau zazpi kapitulutuan dago egituratuta:

1. kapitulua.- EHIZA LEGERIA ETA INGURUMEN ARAUDIA

Eskuarki, alde batera utzi ohi da edozein jarduera arautzen duen lege-esparrua irakurtzea. Izan ere, halako nagikeria bat izaten da legeekin eta arauekin lotutako testuak, maiz oso luzeak, irakurtzeko. Baina nola funtsezkoa baita arau-esparru horren oinarritzkoena ezagutzea, idazketa sinple eta ulergarri batean aldatu nahi izan da orrialde hauetara ehizari buruzko legeria. Ehiza-jarduerari nabarmenki eragiten dioten arau guztiak berrikusten dira, Europar Erkidegoaren esparrutik foru-esparruraino; arau bakoitza aipatzen da, haren edukia eta xedea laburtzen direla.

2. kapitulua.- EHIZA ARAUTZEA ETA EHIZA JARDUERA

Ehiza-jarduerarekin lotutako era askotako informazioak sartzen dira; honako hauek, besteak beste: ehiza kontzeptua eta ehizan jarduteko betekizunak, ehiza-trofeoen homologazioa, ehiza-lurren sailkapena, ehiza modalitateak, ehiztarien ordezkariak, eta ehizkien garraioarekin, salerosketarekin eta kontsumoarekin lotutako alderdi batzuk.

3. kapitulua.- EHIZA ANTOLAMENDUA

Ehizaren antolamendua oso zati garrantzitsua da, jakina, ezaugarri hauetako liburu batean. Logikoa denez, saiakera hau ez da guztiz osoa izango ehizak beregan biltzen dituen alderdi guztiez, baina bai, halere, haietako batzuen berrikusketa orokor bat. Horri esker, ehiztariak orientabide zehatzak aurkituko ditu, ehiza-antolamendua ez dadin izan soilik lege-betekizun bat, eta bai, aldiz, norberak aktiboki partekatzen duen ekimen bat.

4. kapitulua.- EHIZA ESPEZIEAK

Espezieak eta haien ezaugarriak oinarritzkoenak ezagutzea funtsezko abiapuntu bat da, ezbairik gabe, ehizan jarduteko. Izan ere, ezagutza horren mendean dira gero, dela ehizari berari buruz, dela espezien eta habitaten kudeaketaz, har daitezkeen ekimenak. Ondokoa da EAEko ehiztarien ezaugarri nagusi bat: maiz joaten dira beren ohiko inguruetik kanpora, ehizara. Horregatik, gure lurraldean eta estatuko gainerakoetan ehiza daitezkeen espezieak deskribatzen dira; ehiza-interesek ez dutenak (kaioak, kolinak...), aldiz, ez dira aipatzen. Aurreko eskuliburuko zerrenda gordetzen da, usapal turkiarra eta arabazozo beltza salbuetsita, gaur egun ez baitira ehiza-espezieak. Guztira, 45 espezie aztertzen dira, eta honako atal hauek ezarri dira haien buruzko informazioa emateko: a) Deskribapena, b) Elikadura, c) Biologia eta ohiturak, d) Habitata, e) Banaketa eta populazioak, eta f) Ehiza.

5. kapitulua.- IDENTIFIKATZEKO ARAZOAK

Segurutzat jo behar dugu ehiztariak badakiela ehiza ditzakeen espezieak ongi identifikatzen (bestela, itsuka ariko litza-teke ehizan). Espezie batzuekin, ordea, arazo batzuk sor daitezke: errazagoa da ehiza daitezkeenak eta ez daitezkeenak nahastea, edo elkarren oso antzekoak direlako, edo duten jokaeragatik edo okupatzen duten ekosistemagatik. Eus-kadin ehiza-gertakariak izaten diren kasu nagusietan barrena goazela, atal berezi bat eskaintzen zaie identifikazio-arazoei, eta horrek aski izan behar du, noski, eta betiere zuhur jokatzeko delako, nahaste-arriskuak ahalik eta gehien gutxitzeko: nahasteak ez dira onargarriak jadanik.

6. kapitulua.- EHIZAKO ARMAK ETA TXAKURRAK

Armei dagokienez, eta kontuan izanik badela azterketa espezifikoa bat arma-baimena lehenbiziko aldiz eskuratzeko, ez da sartu eduki tekniko gehiegirik; ikuspegi praktiko batetik heldu zaio gaiari. Txakurrez bezainbatean, ehizako arraza

nagusiak berrikusten dira, autoktonoak barne. Ohar batzuk eskaintzen dira haiek ehizarako duten egokitasunaz eta behar dituzten oinarrizko zainketez.

7. kapitula.- ETIKA, SEGURTASUNA ETA JOKAERA

Jokaera egokia izateko eta segurtasun-arauak errespetatzeko oinarrizko kode bat azaltzen da, oroigarri gisa, bereziki ehizan esperientziarik ez duten pertsonentzat. Nahiz eta edozein ehiztarik inongo arazorik gabe onartuko lukeen informazio hori, honako hau da egia, tamalez: ehizak berekin dakartzan segurtasun- eta jokaera-arauen gaineko arau-hausteengatik eta zabarkeriengatik etortzen dira, maiz, ehizan aurre egin beharreko estualdietako eta lege-arazoetako franko.

GLOSARIOA

Ehizarekin lotutako terminoen hiztegi txiki bat ere badakar Eskuliburuak. Ehiza-hiztegia ugaria da zinez; batik bat, ugari direlako, halaber, ehiza sektorearekin zerikusia duten pertsonen erabili beharreko biologia- eta ekologia-terminoak. Glosarioak azalpen praktikoa eta laster bat eskaintzen die, beti, Eskuliburuan aipatzen diren edo kontuan izatea komeni den terminoen irakurleak izan ditzakeen zailtasunak.

GALDETEGIA.

Bigarren liburuki edo separata batean, "test" erako 575 galdera dira, eta hiru erantzun, bakoitzarentzat, zeinetatik bakarra baita zuzena. Galdetegi horrek eraginkorki orientatuko ditu pertsonak ehiza-azterketa gaitzera; garbi utzi behar dugu, haatik, deialdi bakoitzerako eraturako azterketak ez dituela nahitaez galdera zehatz horiek berak izango.

Ehiza-azterketarako eskuliburu hau aberatsa da edukietan, irudietan eta ilustrazioetan. Tresna on bat izan behar du ehiza modernoa garatzeko. Daukan justifikaziorik bistakoena: legeak eskatzen duen azterketarako gida izatea. Baina eskuliburuaren edukiek eta helburuek askoz harago joan behar dute, hots, ehiza modernoa, espezieak eta haien habitata kontserbatzearekin bat egiten duen hura, ehundu behar dute. Iritsitzat ikusten bada helburu hori, argitalpen honen sustatzaileak eta egileak zeharo pozik geldituko dira.

Consultora de Recursos Naturales, S. L.





EHIZAREN LIBURUA

1. KAPITULUA

EHIZA LEGERIA ETA INGURUMEN ARAUDIA

► 1.- EHIZA LEGERIA ETA INGURUMEN ARAUDIA

Ehiza, ingurumenarekin lotutako beste jarduera guztiak bezala, lege eta arau multzo baten bidez dago araututa, eta bete egin behar dira horiek, herritarren eskubideak eta betebeharrak finkatzeko, eta fauna eta haren habitatak kontserbatzeko.

Ehizari buruzko eskumenak Estatutik erkidego autonomoetara daude eskualdatuta. Badira, gainera, nazioarteko zenbait itun eta hitzarmen, bai eta Europar Batasuneko zenbait zuzentarau ere. Horien artikuluetan, hainbat aipamen egiten dira ehiza-aprobetxamenduari, ehizatze metodoei eta beste gai batzuei buruz. Bada, beraz, arau multzo mailakatu bat, eta nazioarteko esparrutik autonomia erkidegoraino hedatzen da. Euskadiko kasuan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie ehiza-araudia betearaztea eta garatzea. Hiru erakundeek beren foru-arauak, -dekretuak eta -aginduak ematen dituzte, bestalde.

Jarraian, ehiza-jarduerarekin nabarmenkien lotutako lege-arauen eta -testuen edukia eta espiritua laburbiltzen da; arauok eta testuok ehiztariari eragiten diote bete-betean, hura baita baliabide naturalen partzela horren aprobetxamendua egiten duena. Esparru orokorrenetik abiatuta eta tokiko esparrurantz goazela egingo dugu azterketa hori.

1.1.- NAZIOARTEKO HITZARMENAK

Bernako eta Bonneko hitzarmenak dira nazioarteko itunik garrantzitsuenak flora eta fauna espezieen, eta, beraz, ehiza espezieen kudeaketari eta aprobetxamenduari dagokienez.



Bernako Hitzarmenak ikuspegi sendo bat du oinarrian: aberastasun naturaltzat jotzen ditu basa-flora eta -fauna, gorde beharreko eta ondorengo belaunaldiari transmititu beharreko ondaretzat. Bonneko Hitzarmenak aitortzen du, berriz, oso garrantzitsua dela espezie migratzaileak babestea, eta arreta berezia eskaini behar zaiela babes-egoera txarrean dauden espezieei.

Bernako Hitzarmena, Europako basabizitza eta naturaguneak babesteari buruzkoa

(Kontseiluaren 82/72/EEE Erabakia, 1981eko abenduaren 3koa, hartuta gehitu zen Europar Batasuneko araudira)

- Hitzarmenaren bitartez, estatuen arteko lankidetzat sustatu nahi da, basa-flora eta -fauna, eta haien habitat naturalak babestea bermatzeko, eta galzorian dauden espezie migratzaileak babesteko.

Bonneko Hitzarmena, basa-faunako espezie migratzaileak babesteari buruzkoa

(Kontseiluaren 82/461/EEE Erabakia, 1982ko ekainaren 24koa, hartuta gehitu zen Europar Batasuneko araudira)

- Espezie migratzaileak mundu mailan babestea du helburu.

1.2.- EUROPAR BATASUNEKO ZUZENTARUAK

Europar Batasunak aldarrikatutako bi zuzentarau daude, lehen deskribatutako nazioarteko hitzarmenetan oinarriturik, eta Europar Batasuneko estatu kideei dagozkie: "Hegaztiei buruzko Zuzentaraua" eta "Habitatiei buruzko Zuzentaraua".

Honako hau du oinarri Hegaztiei buruzko Zuzentarauak: Europako hegaztiak babesteko, kudeatzeko eta arautzeko beharra. Kontuan eduki behar da hegaztien herrialdeen arteko mugak igarotzen dituztela beren lekualdatzeetan, eta, horregatik, babesa eta kudeaketa herrialde bakoitzera mugatzea ez da aski hegaztien kontserbazioa bermatzeko. Habitatiei buruzko Zuzentaraua, berriz, kezka batetik sortu zen. Izan ere, ikusi zen habitat naturalak etengabe hondatzen ari zirela, eta flora eta fauna espezie zehatz batzuk mehatxupean zeudela.

Hala, Hegaztiei buruzko Zuzentaraua da Bernako Hitzarmenaren aplikazio-esparrua hegaztien fauna multzoari dagokionez, eta Habitatiei buruzko Zuzentaraua arduratzen da, berriz, hegaztiei buruzkoan sartzen ez diren basa-fauna espezieez, bai eta flora espezieez eta haien habitatez ere. Bi zuzentarauak helburu bat partekatzen dute: habitat naturalen eta basa-flora eta -fauna espezieen babesgune-sareak sortzea Europan.

Hegaztiei buruzko Zuzentaraua

(Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/EE Zuzentaraua, 2009ko azaroaren 30ekoa, Hegazti Basatien Kontserbazioari buruzkoa).

- Honako helburu hau du: **Europar Batasunean normalean basa-egoeran bizi diren hegazti espezie guztiak** (haien arrautzak, habiak eta habitatak barne) babestea, kudeatzea eta arautzea, bai eta espezie horien ustiapena arau-tzea ere.

Babes-erregimen bat ezartzen du Europako basa-hegazti guztientzat, eta zenbait espezie ehizatze baimena ematen du, baldin eta era orekatuan egiten bada, ehiza-garaiek migrazio- eta ugaltze-garaiek errespetatzen badituzte, eta erabilitako ehiza-metodoak selektiboak eta ez-masiboak badira. Espezie migratzaileen kasuan, agintzen du, halaber, ez direla ehizatuko ugaltzen ari diren garaian, ez eta habia egiteko lekura itzultzen ari direnean.

Zuzentarau horrek baliogabetu egiten du aurrekoa, 1979koa, zeina aitzindaria izan baitzen Europar Batasuneko naturaren kontserbazio orokorrari dagokionez, hegaztientzako babes bereziko guneen (HBBG) sarea sortuta.

Habitatiei buruzko Zuzentaraua

(Kontseiluaren 92/43/EE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturala eta basa-fauna eta -flora babesteari buruzkoa)

- Biodibertsitatea bermatzea du helburu, Europar Batasuneko habitat naturalak, eta basa-fauna eta -flora babestuta. **Natura 2000 Sarea** sortzea da Habitatiei buruzko Zuzentarauaren helburu nagusia. Europar Batasuneko esparruko habitat naturalen eta animalia eta landare espezieen zerrenda ezartzen du, hegaztiarena izan ezik. Horiek gordetzeko, beharrezkotzat jotzen da **babes-eremu bereziak (BEB)** izendatzea.

Bost urte geroago, Kontseiluaren 97/62/EE Zuzentaraua, 1997ko urriaren 27koa, aldarrikatu zuten, eta, haren bitartez, Habitatiei buruzko Zuzentaraua zientzia- eta teknika-aurrerapenera egokitu zuten, Europar Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen zerrendak eguneratuta.



Natura 2000 Sarea europar sare ekologiko bat da, eta helburu hau du: Europar Batasuneko biologia-dibertsitatea edo biodibertsitatea babestea. Honako hauek ditu osagai: **babes bereziko guneak, BEBak**, Habitatiei buruzko Zuzentarauaren irizpideen arabera ezarritakoak, eta **Hegaztientzako babes bereziko guneak, HBBGak**, Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren irizpideen arabera ezarritakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua. Horrek EAEko Naturagune Babestuen Sarean sartzen ditu Natura 2000 Sareko gune horiek, parke naturalekin, biotopo babestuekin eta zuhaitz bereziekin batera.

1.3.- ESTATUKO ARAUDIA

Estatuak autonomia-erkidegoetara transferituta ditu ehiza arloko eskumenak; arma-arloko eskumenak, berriz, Estatuari dagozkio.

2011n, 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena, onartu zen Euskadin. Ordura arte, honako hauek arautzen zuten ehiza-jardura: 1/1970 Legeak, apirilaren 4koa, eta haren Araudiak, 1971ko martxoaren 25ekoak (506/1971 Dekretua), eta horiek dira, oraindik ere, Estatuko indarreko lege-esparrua ehizaren arloan beren legeria ez duten autonomia-erkidegoetan.



Honako hau ezartzen du 2/2011 Legeak bere xedapen iragankorrean: Legea garatzeko arauzko xedapenak onartzen ez diren bitartean, 1970eko Ehiza Legea betearazteko Araudia aplikatuko da, Euskadiko Ehiza Legearen beraren aurka ez doan guztian.

Badira interesatzen zaizkigun beste arau batzuk ere: estatu-legerian Espainiak Europar Batasunera atxikitzean harturiko konpromisoak adierazten dituzten arauak, alegia, eta bereziki Hegaztiei eta Habitategi buruzko Zuzentzauei dagozkienak. Zehazki, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea, eta habitat naturalen eta basa-floraren eta -faunaren kontserbazioaren bitartez biodibertsitatea bermatzen laguntzeko neurriak ezartzen dituzten errege-dekretuak.

42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa

- Honako hau indargabetzen du: 4/1989 Legea, martxoaren 27koa, Naturaguneak eta Basa-flora eta -fauna Babestekoa. Habitategi buruzko Zuzentzauei jasotako hainbat kontzeptu ditu barne.

Lege horrek Espainiako natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko oinarritzko araubide juridikoa ezartzen du.

Babes Bereziko Erregimeneko Espezieen Zerrenda sortzen du, eta Arriskuan diren Espezieen Espainiako Zerrenda dago horren barnean. 42/2007 Legeak babeserako gutxieneko batzuk ezartzen ditu. Horri esker, autonomia-erkidegoek beren zerrendak eta katalogoak ezar ditzakete, eta, horietan, Estatuko legeak babestutako espezieak gehi ditzakete, eta haiek babesteko beharrezkotzat jotzen diren debekuak eta jardura osagarriak.

Lege horrek debekatu egiten ditu, zerrendako espezieei dagokienez, "haiek akabatzeko, harrapatzeko, jartzeko edo nekatzeko asmoz egindako ekintza guztiak, eta debekatu egiten du, halaber, haien habiak, zuloak, ugaltokiak, negutokiak edo atsedenekuak suntsitzea edo hondatzea ere". Halere, ezartzen du debeku hori indarrik gabe gera litekeela, autonomia-erkidegoak aurrez baimen administratiboa emanez gero, egoera zehatz batzuk gertatzen direnean, baldin eta ez bada beste irtenbide egokirik, eta baldin eta horrek kalterik egiten ez badio dagokion populazioaren kontserbazio-egoera mantentzeari. Honako hauek dira aipatu egoera zehatzak: debekuen ezarpenetik ondorio kaltegarriak etortzen badira pertsonen osasunerako eta segurtasunerako; aziendari, basoei, arrantzari eta uren kalitateari kalte garrantzitsuak gertatzea saihesteko; ikerketagatik, heziketagatik, birpopulazioagatik edo birsarpenagatik beharrezkoa denean, edo aipatu helburuetarako kumeak gatibutasunean hazi beharra dagoenean. Beste arrazoi bategatik ere gera daiteke indarrik gabe debekua: era zorrozki kontrolatua eta metodo selektiboen bidez Babes Bereziko Erregimeneko Espezieen Zerrendan ez dauden espezie jakin batzuk harrapatzen, atxikitzen edo beste edozein era zuhurretan ustiatzen uzteko, betiere kopuru txikitua eta haien kontserbazioa bermatzeko behar diren mugekin egiten bada, edo basa-flora eta -fauna eta habitat naturalak babesteko. Hegaztien kasuan, aire-segurtasunarekin lotutako istripuak saihesteko ere aplika liteke salbuespena.

Espezieen babesa arautzen du, ehizari dagokienez, eta dio ehiza baliabide natural garrantzitsu bat dela, bermatu beharreko baliabide bat, baina autonomia-erkidegoek ezarritako espazioetara, datetara, ehiza-metodoetara eta espezieetara mugatu behar dela. Autonomia-erkidegoek, berriz, inolaz ere ezingo dituzte sartu ehiza daitezkeen espezieen zerrendetan Interes Bereziko Espezieen Zerrendetakoak, eta ezingo dituzte baimendu, ezta ere, Europar Batasunak debekatutako metodoak edo espezieak.

PHonako hauek debekatzen ditu, ehizari eta arrantzari dagokienez: animaliak harrapatzeko edo hiltzeko prozedura masiboak edo ez-selektiboak edukitzea, erabiltzea eta salerostea, eta, bereziki, ondokoak: apeu gisa erabiltzen diren animaliaitsuak edo elbarrituak, grabagailuak eta magnetofonoak, gailu elektrokutatzailak, hil edo zozo dezaketen gailu elektrikoak eta elektronikoak, argi-iturri artifizialak, ispiluak, helburuak argizatzeko gailuak, gauez tiro egiteko irudi-bihurgailu edo irudi-handigailu elektroniko bat duten ikusgailuak, kargadorean bi kartutxo baino gehiago eduki ditzaketen arma erdiautomatikoak edo automatikoak, printzipioz edo erabileran selektiboak ez diren tranpak, sareak, lakioak (hegaztientzat bakarrik), zepoak, pozoiak, jaki pozoituak edo lasaigarriak, likak, lehergailuak, gas edo ke bidezko itotzea, baleztak, amuak (arrantzarako izan ezik).

Debekatu egiten du, modu orokorrean, hegaziak araldian eta ugaltzeko edo kumeak hazteko garaian daudenean ehizatzea, bai eta hegaziok ugaltokietara itzultzen ari direla ehizatzea ere, espezie migratzaileen kasuan, eta, horregatik, guztiz debekaturik dago hegazti migratzaileak ugaltokietara itzultzen ari direla harrapatzea ("kontrapasako" ehiza).

Maila biologikoko edo osasun mailako arrazoiak direnean, aldi baterako luzamenduak edo debeku bereziak ezarri ahal izango zaizkio espezieen ehiza-aprobetxamenduari. Orduan, Natura Ondareko eta Biodibertsitateko Estatu Batzordeak txosten batzuk egingo ditu, eta autonomia-erkidegoek erabil ditzakete aipatu luzamenduak edo debekuak zehazteko.

Autonomia-erkidegoek baimenduko dituzte harrapariak harrapatzeko metodoak, eta nazioarteko itunek finkatutako aukeraketako eta animalia-ongizateko irizpideen arabera homologatuko dira metodo horiek. Nolanahi ere, ez dira harraparitzat joko Babes Berezikoko Erregimeneko Basa Espezieen Zerrendan dauden espezieak.


Ehiza-lurra ixteko hesiak modu berezi batean egingo dira, ehizakoak ez diren espezieen zirkulazioa ez eragozteko, eta ehiza espezieen endogamia-arriskuak saihesteko; hesiok egiteko, bestalde, baimen administratiboa beharko da.

Debekatu egiten du, ehiza-jarduerari eta akuikulturari dagokienez, espezie aloktonoak sartzea, eta, halakorik inoiz ustekabeen edo legez kanpo sartuz gero, inolaz ere ezingo da baimendu beren ehiza-aprobetxamendua, eta espezieen kontrolerako neurri egokiak hartuko dira berak desagerrarazteko.

Administrazio publikoen eskumena izango da, beti, arretaz zaintzea ehiza espezieekin egindako askatzeak eta birpopulatzeak, horiek ez ditzaten arriskuan jar, ez beren kontserbazioa, ez beste espezie batzuen, maila genetikoan edo populazio mailan.

Debekatu egiten du ehiza- edo kirol-jardueretan beruna daukan munizioa erabiltzea, jarduera horiek Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei buruzko Konbentzioko Zerrendan, Natura 2000 Sarean eta babestutako naturaguneetan sartuta dauden zona hezeetan egiten direnean.

Xedatzen du Ehizako eta Arrantzako Espainiako Inbentarioak (Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurune Ministerioaren barnean dago) ahalik eta informaziorik osoena atxikiko duela baimenduta dauden ehiza eta arrantza espezieen populazioez, harrapaketez eta bilakaera genetikoaz, arreta berezia eskaintzen zaiela espezie migratzaileei.



42/2007 Legeak, abenduaren 13koak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak, debekatu egiten du hegazti migratzaileak, ugaltokietara itzultzen ari direnean, ehizatzea ("kontrapasako" ehiza).

1095/1989 Errege Dekretua, irailaren 8koa, ehizako eta arrantzako espezieak xedatzen dituen, eta haien babesteko arauak ezartzen dituen

- **Ehiza daitezkeen espezieen zerrenda bat eskaintzen da**, Naturaguneak eta Basa-flora eta -fauna Babesteko 4/1989 Legean ezarritakoaren arabera. Halaber, flora eta fauna espezie guztien babesa bermatzeko konpromisoa adierazten da. Aipatu espezieetako batzuk, gainera, era arautu batean aprobetxa daitezke, betiere populazioen tamaina, banaketa geografikoa eta ugaltze-tasa kontuan direla. Nahiz eta 4/89 Lege hori 42/2007 Legeak indargabetu zuen, azken hori ez dago guztiz garatuta bere alderdietako askotan, eta, beraz, indarrean dira oraindik aurreko legetik datozen hainbat errege dekretu..

1118/1989 Errege Dekretua, irailaren 15ekoa, saleros daitezkeen ehiza eta arrantza espezieak xedatzen dituen, eta horretarako arauak ezartzen dituen

- **Saleros daitezkeen espezieen zerrenda bat eskaintzen da**, 4/1989 Legean ezarritakoaren arabera, ehiza daitezkeen espezieek merkaturatze ez-egoki baten arriskurik izan ez dezaten, zeinak gehiegizko presioa eragin baitezake ale bizientzat nahiz hilentzat, bai eta haien eratorri ez-industrialentzat ere.

640/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, elikagaien higienaren, ekoizpenaren eta merkaturatzearen arloan Europar Batasuneko xedapenak aplikatzeko hainbat baldintza arautzen dituen

- 2044/1991 Errege Dekretua, urriaren 14koa, indargabetzen du, basa-ehizako animaliak hiltzeari eta haien haragia ekoizteari eta salerosteari ezar dakizkiekeen osasun-baldintzak eta animalia-osasuneko baldintzak finkatzen dituen..

Beharrezko neurriak ezartzen ditu, elikadura-produktuen eta bereziki animalia jatorriko produktuen higienari buruzko europar araudiak Espainian zuzen aplikatzeko.

ED horren 4. artikulua giza kontsumorako animaliak hiltzearekin eta haien haragia merkaturatzearekin dago lotuta, eta xedatzen du agintaritza eskudunak baimen dezakeela ehiztariak basa-ehiza kopuru txikiak edo basa-ehizako haragia zuzenean azken kontsumitzaileari saltzea, edota zuzenean azken kontsumitzaileari saltzen dioten txikizkako tokiko saltokiei saltzea, horretarako beharrezko betekizunak ezartzen direla.

Aldi berean, xedatzen du ezen, Trichinellak kutsatutako espezieen kasuan, trikina detektatzeko analisi bat egingo zaiela, metodo zehatz batzuk aplikatuta

1082/2009 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, zeinak animalia-osasuneko betebeharrak zehatz batzuk ezartzen baititu ehiza-ustategietako, akuikultura kontinentaleko, nukleo zoologikoetako eta, orobat, basa-faunako animalien mugimenduetarako

- Hauxe da Errege Dekretu horren helburua: animalia-osasuneko betebeharrak zehatz batzuk ezartzea ehiza espezieetako animaliekin ehiza-ustategietatik edo nukleo zoologikoetatik egiten diren mugimenduei, edo basa-faunako animaliekin naturagune hesituetatik edo nukleo zoologikoetatik egiten direnei, mugimenduok beste ehiza-ustategi edo -gune batzuetara egiten direnean.

Mugimendua egin aurretiko kontroleko eta laginak hartzeko metodoak ezartzen ditu, bai eta mugimendua egiteko baldintzak ere. Halaber, ehiza-ustategien Erregistro Liburu bat sortzeko premia sartzen du barne, eta nahitaez deklaratu beharreko gaitzak jakinarazi beharra xedatzen du. Erreferentziako laborategien zerrenda bat ere erantsen du.

139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Babes Bereziko Erregimeneko Basa Espezieen Zerrenda eta Arriskuan dauden Espezieen Estatuko Katalogoa garatzeko

- Errege Dekretu horrek 439/1990 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, indargabetzen du, zeinak Arriskuan dauden Espezieen Katalogo Nazionala arautzen duen.

Bai Babes Bereziko Erregimeneko Basa Espezien Zerrenda, bai Arriskuan dauden Espezieen Estatuko Katalogoa izaera administratiboko erregistro publikoak dira. Honako hauek daude sartuta lehenengoan: beren balio zientifikoagatik, ekologikoagatik, kulturalagatik, beren berezitasunagatik, bakantasunagatik edo arrisku-egoeragatik arreta berezi bat merezi duten espezieak, azpiespezieak eta populazioak, eta Espainiak berretsiko nazioarteko zuzentarauen eta hitzarmenen eranskinetan babestutako espezieetat ageri direnak.

Ondokoak dira barne, berriz, Arriskuan dauden **Espezieen Estatuko Katalogoan**: neurri espezifiko batzuk (kontserbazio-estrategiak, ekintza-planak...) martxan ipinita populazioen kudeaketa aktibo bat egitea eskatzen duten arriskupeko espezieak. Honako hauek dira Katalogoko arrisku-kategoriak: **"galzorian dauden espezieak"** eta **"espezie kalteberak"**.

630/2013 Errege Dekretua, 2013ko abuztuaren 2koa, zeinaren bidez arautzen baita espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa.

- 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritako espezie exotiko inbaditzaileen gaineko xedapenak garatzea da errege-dekretu horren xedea. Honako hauek arautzen ditu: espezieak katalogoan sartu edo kanpoan uzteko ezaugarriak, edukiak, irizpideak eta prozedurak; espezie horiek sartzeko saihesteko hartu beharreko neurriak, eta espezie horiek kudeatzeko, kontrolatzeko eta, ahal bada, desagerrarazteko estrategiak.

Ordurarte, 1118/1989 Errege Dekretuak, irailaren 15ekoak, arautzen zuen ehizarako espezie aloktonoak sartzeko, eta, beraz, ez ziren jasotzen 42/2007 Legearen espezifikazioak.

Espezie exotiko jakin batzuk daude sartuta Katalogoan; hots, bildutako informazio zientifikoaren eta teknikoaren arabera, espezie autoktonoentzat, habitatentzat edo ekosistementzat, agronomiarentzat edo natura-ondarearekin lotutako baliabide ekonomikoentzat arrisku larri bat direnak.

Errege-dekretu horretan ezartzen denaren arabera, espezie bat katalogoan sartzeko berekin dakar honako hauek debekatzea: espezie hori natura-ingurunean sartzeko, edukitzea, garraiatzea eta animalia bizi nahiz hilak salerostea. Espezie horiek harrapatu direnean, natura-ingurunera itzultzea ere debekatzen du. Horrek berekin dakar debekatuta dagoela, halaber, espezie horiek, hilda, jakitzat erabiltzea.

Espezie exotiko bat askatzeko lehen aldiz, Zerrendan edo Katalogoan ez badago ere, baimen administratibo bat beharko da aldeztu aurretik, eta baimen hori arriskuen azterketa batean oinarrituko da.

Ehiza-jarduerari dagokionez, eta, zehazki, 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, indarrean jarri aurretik legeztartutako ehiza espezieei dagokionez, Errege Dekretu horrek dio, betiere Katalogoan sartutako espezieentzat, espezie haiek ez daitezen egungo bizilekuetatik harago hedatu, ehizaren bitartez egin daitekeela haien kudeaketa, kontrola eta, are, balizko desagerraraztea ere.

42/2007 Legea indarrean jarri aurretik legeztartutako espezieentzat, eta legeztartutako baina ezarritako bizilekuetatik landa bizi direnentzat, ehiza-tresnak eta -metodoak erabili ahal izango dira haiek desagerrarazteko aurreikusitako jardueretan. Hau da, populazio horientzat ez da aurreikusten, ez ehiza-kudeaketarik, ez populazio-kontrolirik, baizik eta desagerraraztea soilik.

Era berean, ikusten denean, gairako zehazki sortutako batzorde zientifiko bati kontsultatu ondoren, ehiza-jardueraren ondorioz aipatu espezi exotiko inbaditzaileak beren egungo bizilekuetatik kanpora hedatzen direla, autonomia-erkidegoei jakinaraziko zaie, aprobeitxamendu hori eteteko neurriak har ditzaten.

Autonomia-erkidegoren batean ehizatu ohi diren bi espezie daude katalogoan, eta salbuespen bat ezartzen da errege-dekretu aplikatzean: arruia Murtziako herrian eta mufloia Kanarietan.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena

- Ingurumenaren aurkako delituetan, hiruk ehiza aipatzen dute, eta kartzela-zigorrek ere aurreikusten dituzte:

334. artikulua.

1. Norbaitek, basabereen babeserako legeak edo izaera orokorreko xedapenak urratuz, arriskuan dauden espezieak ehizaren edo arrantzaren bidez harrapatzen baditu, espezie horien ugalketa edo migrazioa eragozten edo zailtzen dituzten jarduerak egiten baditu, edota espezie horiek edo euren hondakinak trafikagai hartzen baditu edo horiekin merkataritzan aritzen bada, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.

2. Zigorra bere goiko erdian ezarriko da, baldin eta espezie edo azpiespezie horiek galzorian daudenen taldean sarturik badaude.

335. artikulua.

1. Norbaitek aurreko artikuluan zehazturikoez besteko espezieak arrantza edo ehizaren bidez harrapatzen baditu, eta eremu horretako arau bereziek beren-beregi baimentzen ez badute espezie horien arrantza edo ehiza, horrelakoetan, orduan, pertsona horri lau hilabetetik zortzi arteko isuna ezarriko zaio.

2. Norbaitek aurreko atalak aipatutako espezieak ehizaren edo arrantzaren bidez araubide bereziko inoren ehiza-lur publikoetan edo pribatuetan harrapatzen baditu, lur horien jabearen baimena izan gabe, orduan, pertsona horri lau hilabetetik zortzi hilabete arteko isuna ezarriko zaio, eta ehiza- edo arrantza-eskubidea egikaritzeko desgaitasuna berezia, urte batetik hiru urte artekoa, hori guztia artikulua honen 1. atalean xedaturiko delituarengatik legokiokkeen zigorrari ezer kendu gabe.

3. Aurreko jokabideek araubide bereziko ehiza-lurreko ehiza-ondareari kalte larriak eragingo balizkiote, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da horrelakoetan, eta ehiza- eta arrantza-eskubideak egikaritzeko desgaitasuna berezia, bi urtetik bost urte artekoa.

4. Zigorra bere goiko erdian ezarriko da, baldin eta artikulua honetan sailkatutako jokabideak hiru edo pertsona gehiagoko taldeek izaten badituzte, edo legez edo erregelamendu bidez debekaturiko arte edo baliabideak erabiltzen badira.

336. artikulua.

Norbaitek, legez baimenduta egon barik, arrantza edo ehizarako pozoia, lehegailuak edo animaliak suntsitzeko besteko eraginkortasuna duten tresnak edo arteak erabiltzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo zortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio. Eragindako kaltea garrantzi handikoa denean, aurretik aipatutako espetxealdi-zigorra bere goiko erdian ezarriko da.

137/1993 Errege Dekretua, urtarrilaren 29koa, Armei buruzko Erregelamendua onartzen duena

- Nahiz eta ehiza- edo ingurumen-arlokoa ez izan, arau hori aipatzen da hemen, zeinak erregelamendu bidez garatzen baitu 1/1992 Lege Organikoa, Hiri Segurtasuna Babestekoa, bera baita armak ekoizteari, salerosteari, edukitzeari eta erabiltzeari buruzko eskakizunak eta baldintzak arautzen dituena.

1999ko urtarrilaren 1ean, Barne Ministerioaren 1998ko urriaren 19ko Ebazpena jarri zen indarrean. Haren arabera, E (eskopetatarako) edo D motako (errifleetarako) arma-baimena lehen aldiz eskuratu nahi duenak, aurretik, **arrei buruzko azterketa teoriko-praktiko bat** gainditu beharko du.

6/2014 Legea, 2014ko apirilaren 7koa, zeinak aldatu egiten baitu trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunaren Legearen testu artikulatua; 1990eko martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Dekretuak onartu zuen lege hori.

- Lege horrekin, idazkera berri bat ematen zaio bederatzigarren xedapen gehigarriari, zeinak honela arautzen baitu trafiko-istripuetako erantzukizuna ehiza-espezieak harrapatzeagatik:


"Ehiza-espezieek bide publikoetan eragiten dituzten trafiko-istripuetan, pertsona edo ondasunei egiten zaien kaltearen erantzulea ibilgailuaren gidaria izango da, eta ezingo da eskatu bideetara sartu diren animalien balioa. Hala ere, trafiko-istripua egun berean edo istripua baino hamabi ordu lehenago egin den ehiza larriko espezie baten ehiza-ekintza kolektibo baten ondorio zuzena denean, pertsona edo ondasunei egindako kalteen erantzulea ehiza-aprobetxamenduaren titularra izango da, edo, horrelakorik ezean, lursailaren jabea.

Istripua gertatu den bide publikoaren titularra ere izan daiteke erantzulea, hala dagokionean, itxurako hesia dagokion epean ez konpontzeagatik, edo ibilgailuek animaliak jotzeagatik istripu asko egoten diren zatietan animaliak solte dabiltzala adierazten duen berariazko seinaleak ez jartzeagatik.

1.4.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

1.4.1.- AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

Ugari dira, autonomia-erkidegoan, ehizari dagozkion lege-testuak, bai ehizaren beraren alorrean, bai ehizan eragina duen ingurumen alorrean. Ehiza hutseko alorrean, 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena, da garrantzitsuen; ingurumen alorrean, berriz, 1/2014 Legegintzako Dekretua, 2014ko apirilaren 15ekoa, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen baitu.. Bestalde, ehizarekin lotura duten beste arau batzuk ere aipatzen dira jarraian.



Gainera, debekualdiei buruzko aginduak, ehiza-jardueretarako laguntzak eskatzeko deialdiak, etab. argitaratzen dira urtero lurralde historiko bakoitzeko aldizkari ofizialean. Araudi hori ez da xehe-xehe azaltzen argitalpen horretan, aldaketak izaten baitira denboraldi batetik hurrengora. Ondoko esteketan egin ditzakezu zeure kontsultak: <http://www.alava.net/botha>, Arabarako; <http://aplijava.bizkaia.net/BT00/>, Bizkairako, eta <https://ssl4.gipuzkoa.net/boletin/asp/index.asp>., Gipuzkoarako.

2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena

- Lege horrek ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan ehizan jarduteko arau-esparrua. Legea agertu zenetik, hura garatzeko 3 dekretu onartu dira, legean bertan aurreikusten den bezala, eta honako hauek dira:

216/2012 Dekretua, 2012ko urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzekoa.

369/2013 Dekretua, 2013ko uztailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza-trofeoak homologatzeko batzordearena, eta 160/2014 Dekretua, 2014ko uztailaren 29koa, ehiza-baimena eta ehizatze gaitasunaren azterketa arautzen dituenak.

Legeak xedatzen du bera erregelamendu bidez garatzea lurralde historikoetako foru-erakundeei dagokiela, EAE-ko erakunde komunei espresuki eman ez zaien guztian.

Lege honen xedeak dira: Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza arautzea; bertako ehiza-espezieak zaintzea eta sustatzea; ehizaren aprobetxamendua antolatzea iraunkortasun-printzipioen arabera eta ehizak natur ingurunearen bestelako erabilerekin izan ditzakeen bateragarritasun-printzipioen arabera; bai eta ehizak gizartearen sustraiak gordetzea eta garatzea eta ehiztariek natur ingurunearen kudeaketa iraunkorrean parte har dezaten lortzea ere.

I. tituluak, ehizan jarduteko bete beharreko baldintzak ezartzen dira, eta izaera orokorreko zenbait xedapen: adibidez, ehizaren definizioaz edo eskuperatutako aleen jabetzaz. Ehiza-baliabideak planifikatzeko beharra nabarmendu behar da.

II. tituluak ehiza espezieak sailkatzen ditu, eta III. tituluak, berriz, lurren sailkapena ezartzen du, ehizari dagokionez.

IV. tituluak ehizaren antolamendua eta kudeaketa arautzen ditu. V. tituluak ehiza-jarduera arautzen du.

VI. eta VII. tituluak, ehiza-haztegiak, garraioa, merkaturatzea, segurtasuna eta erantzukizun zibila jorratzen dira.

VIII. tituluak, azkenik, zaintza, arau-haustea, zehapenak eta kalteen konponketa xedatzen dira.

1/2014 Legegintzako Dekretua, 2014ko apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

- Euskal Autonomia Erkidegoan natura babestea eta kontserbatzea du helburu. Beharrezko oinarriko printzipioak eta tresnak ezartzen ditu, biztanleriak baliabide naturalak modu ordenatuan erabiliko dituela bermatzeko. Espezieen eta ekosistemen aprobetxamendu iraunkor bat ere bermatu nahi du, hala nola haiek lehengoratzeta eta hobetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Naturaguneen Sarea sortzen du, eta hiru babes-figura aurreikusten ditu: **“natura-parkeak”, “biotopo babestuak”, “zuhaitz bitxiak”** eta **“Natura 2000 Sarea”**.

Arriskuan dauden Baso eta Itsas Animalien eta Landareen Espezieen Euskal Katalogoa sortzen du.

160/2014 Dekretua, 2014ko uztailaren 29koa, ehiza-baimena eta ehizatze gaitasunaren azterketa arautzen dituen.

- Dekretu honek, Euskal Autonomia Erkidegoan lehen aldiz, ehiza-baimen bereziak (hegazti harrapari eta arku bidezko ehiza) eta aldi baterako ehiza-baimenak (ehiza-lehiaketetan edo beste jarduera zehatz batzuetan parte hartzeko). Era berean, ehiza urraketen erregistroa eta ehizatze gaitasunaren azterketa arautzen ditu, 1990an ezarritakoa.

167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basa eta Itsas Faunan eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa arautzen duena

- Dekretu horren bidez, Basa eta Itsas Faunan eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa osatzen duten espezieak finkatzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legeak sortu zuen Katalogoa.

2011ko urtarrilaren 10eko Aginduak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarenak, aldatu egiten du Katalogoa, nahiz eta aldaketek batik bat flora espezieei eragiten dien.

167/1996 Dekretuaren bitartez, espezie, azpiespezie edo populazio bat Katalogoan sartzeko edo hortik ateratzeko prozedura arautzen da; kudeaketa-planak egiteko eta onartzeko arauak ere ezartzen dira.

Katalogoa izaera administratiboko erregistro publiko bat da, eta lau mehatxu-kategoria dauzka bere baitan:


- **“Galzorian dauden espezieak”**: eragiten dieten faktoreak jardunean jarraituz gero, bizirauteko aukera gutxi dute.
- **“Kaltebera”**: haiengan edo haien habitatetan eragiten duten faktore txarrak zuzentzen ez badira, laster aurreko kategorian sartzeko arriskua dute.
- **“Bakana”**: populazio txikiko espezieak edo azpiespezieak sartzen dira hor; geografia-eremu txikietan edo sakanatuetan bizi dira, eremu handiago baten barnean, eta, egun, ez daude sailkatuta “galzorian dauden espezieak” edo “kaltebera” kategorietan.
- **“Interes berezikoak”**: aurreko kategorietan sartuta egon ez arren, arreta berezia merezi dutenak, balio zientifiko, ekologiko edo kulturala dutelako, edo beren berezitasunagatik.

1.4.2.- FORU LEGERIA

Ehizaren arloan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoek erakunde komunitatetik datozen arauak garatzeko eta betearazteko eskumena dute, Lurralde Historikoen Legeak aitortuta.

Faunaren arloaren barnean, lurralde historikoek ehiza- eta arrain-espezieen babeserako beharrezko zehaztapenak ezar ditzakete; adibidez, ehiza-babeslekuak deklaratzeko.

Naturagune Babestuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari dagokio gune horiek izendatzea eta gune horien antolamendurako tresnak ezartzea eta onestea. Naturagune horietan, lurralde historikoek beste sektore-eskumen batzuk dituzte; besteak beste, ehizari buruzkoak. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategia onartzen duen 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren eskumena da baliabide naturalak antolatzeko planak (BNAP) egitea eta onestea. Hala ere, prozedura horri hasiera emateko agiriak foru-aldundien aurretiko txostena izan behar du.



Arriskuan dauden baso- eta itsas -animalien eta -landareen espezieen Euskal Katalogoa arautzetik eratorritako eskumenei dagokienez, 167/1996 Dekretuak lurralde historikoei ematen die sailkatutako espezieen kudeaketa-planak onartzeko eskumena. Plan horiek Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta idatzi behar dira.

Foru-administrazioek arauak, dekretuak eta aginduak aldarrika ditzakete ehiza arautzeko; honako hauek, adibidez: Lurraldeko Ehiza Batzordearen osaketa, debekualdiei buruzko xedapen orokorrak, ehiza-jardueretarako laguntzak eskatzeko deialdiak, ehiza antolamendurako plan teknikoak, espezie jakin batzuen ehizarako eta/edo modalitate zehatz batzuetarako arau bereziak, etab. Ez da ematen hemen foru-aldundiek argitaratzen duten araudi espezifiko osoa eta urterokoa, baina garrantzitsua da haren jakinaren gainean egotea beti.

Lurralde historikoetako bakoitzak debekualdien foru-agindua argitaratzen du urtero. Horrek ehiza arautzen du denboraldi bakoitzean, eta honako eduki hau izan behar du gutxienez:

- Ehizan jarduteko egunak.
- Ehizan jarduteko orduak.
- Ehiza daitezkeen espezieak, ehiza larriko eta ehiza xeheko espezieak bereizita. Horien barruan, halaber, hegazti migratzaileen eta ur-hegaztien zerrenda bana sartuko da.
- Merkatura daitezkeen ehiza-espezieak.
- Aginduan zehaztutako ehiza-espezie bakoitzari dagokion araudi zehatza, beti ere horien populazioen bideragarritasuna eta iraupena bermatuz dagokion lurralde historikoan.
- Baimen berezia behar duten ehiza modalitateak eta, bereziki, ehiza larria uxaldien seinaleztapenari eta segurtasunari dagokienez arautzen duena.
- Dagokion ehiza-denboraldian fauna babesteko egoki jotzen diren arau zehatzak.
- Zehapenen zenbatekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen aldaketak kontuan hartuta.

8/2004 Foru Araua, ekainaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoaren Ehizari buruzkoa

Arabako ehiza-jarduera arautzea du helburu, honako printzipio hauen arabera:

- a) Saiatzea ehiza bateragarria izan dadin ingurumenaren beste erabiltzaile batzuen jarduerekin, espezieen jasagarritasunarekin eta ekosistemek orekari eustearekin.
- b) Kontuan hartzea ehiza Arabako gizartean eta kulturen erroturiko jarduera bat dela, eta hiriko zein nekazaritzako inguruneetan mugimendu ekonomiko garrantzitsua sortzen duela.
- c) Ehizaren kudeaketaren ardura ehiztariekin eta haien elkarteekin banatzea, haiek baitira ehiza-fauna babesteko interesik handiena dutenak.
- d) Ehizaren antolamendu egoki baten barruan, interes zinegetikoko espezieen aprobetxamendua planifikatzea, kontuan hartuz ondare naturalaren zati direla.
- e) Ehizarako eskubide arautuaren ginetik, ehiza espezieak dauden ingurunea, hango baliabideetako bat direnez gero, kontserbatzeko eta hobetzeko gizarte-funtzioari lehentasuna ematea.

1.4.3.- EHIZA NATURAGUNE BABESTUETAN



Espazioak eta espezieak gordetzea ezinbesteko baldintzak dira naturagune babestuetako ehiza-jarduerarako. Leku horietara bisitari ugari joaten denez, beharrezkoa da erabilera publikoa eta ehiza-erabilera antolatzeke neurriak ezartzea, eta horiek bateragarri egitea.

Inertziatz, uste izan ohi da nolabaiteko babesaren duten espazioetan ehiza debekatuta dagoela. Hala ere, gehienetan ez da horrela izaten, eta, beraz, horri buruzko araudia ezagutu behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, honako honi dagokio babes-neurriak ezartzea: 1/2014 Legegintzako Dekretua, 2014ko apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Baliabide naturalak antolatzeke planak (BNAP) eta antzeko beste batzuk dira naturagune babestu guztietarako oinarritzko plangintza-tresnak, oinarritzko antolamendu-irizpideak ezartzen dituztenak. Horien edukien artean, dagokigun kasuan, honako hauek dira azpimarragarrienak: erabilerak eta jarduerak mugatzea, espazioen eta espezieen biziraupena eta lurraldearen zonakatzea kontuan hartuta; eta ekonomia-jarduera publikoen nahiz pribatuen (ehiza barne) sektore- eta antolamendu-politiken jarraibideak ezartzea.

Erabilera eta kudeaketa zuzentzeke planak (EKZP) dira naturagune babestu bakoitzeko kudeaketa-tresna, eta BNAPko oinarritzko irizpideen arabera egiten dira. Haien edukien artean, naturagune babestuaren barnean egiten diren ekonomia- eta aisia-jarduerak (ehiza-jarduera agertzen zaigu berriro hemen) antolatzeke eta kudeatzeko arau, ildo eta irizpide orokorrak daude.

Naturagune babestutzat jotako lurak edo nazioarteko legeriak babestutako eremuak ehiza-araubide bereziko lurtzat jotzen dira. Lur horietan ehizan aritzeko, kontuan hartu behar da gune bakoitzaren erabilera arautzen duten xedapenetan eta lege honetan eta hura garatzen dutenetan jasotakoa.



Beraz, ehiza ez dago debekatuta lur horietan, baizik eta naturaguneko faunaren babesera eta kontserbaziora egokitu behar da, eta ardura hartu behar da horrek ez dezan haren erabilera publikoa oztopa. Beraz, ehiztariak naturagune babestuetan indarrean dauden planetan ezarritako baldintzak ezagutu behar ditu.





EHIZAREN LIBURUA

2. KAPITULUA

EHIZA ARAUTZEA ETA EHIZA JARDUERA

► 2.- EHIZA ARAUTZEA ETA EHIZA JARDUERA

2.1.- ZER DA EHIZATZEA?

Hona zer den ehizatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2011 Legeak, martxoaren 17koak, Ehizarenak, definitzen duen bezala: "Ehizatzea da gizakiak, arte, arma, animalia edo bestelako modu homologatuen bidez animaliak bila-tzea, erakartzea, esestea edo jazartzea, azken buruan, animalia horiek hiltzeko edo harrapatzeko asmoz, edo besteren batek harrapa ditzan errazteko asmoz. Ehizatza jotzen dira aurreko horiek egiteko beharrezko prestatze-lanak egitea ere".



Legearen arabera, ez da beharrezkoa su-arma bat eramatea, ez eta ehizaki bat botatzea ere, ehizan aritzeko.

2.2.- EHIZAN ARITZEKO BETEBEHARRAK

Hamalau urtetik gorako edonork du ehizan aritzeko eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoan, baldin eta azterketa bat gainditzea beharrezkoa den autonomia-erkidegoetako gaitasun-frogak gainditu baditu, eta ehiza-baimen bat badauka.

Baina gauza bat da Euskal Autonomia Erkidegoan ehizan jarduteko baimen bat edukitzea, eta beste bat, berriz, ehizara joatea; une horretan, izan ere, ehizan ari denak zenbait agiri eraman behar ditu berekin nahitaez:

- Nortasun-agiri nazionala (NAN).
- Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza-baimena.
- Baimenari dagokion urteko tasaren ordainketaren frogagiria.



- Nahitaezko aseguru eta indarrean dagoen ordainagiria.
- Arma-baimena eta zirkulazio-agiria (armarik badarabil).

Ehiza ehiza-barrutietan egiten denean, gainera, guztiz beharrezkoa da aprobetxamenduaren titularraren baimen pertsonal eta besterenezina edukitzea.

Eraman behar da bestelako dokumentaziorik ere, hala dagokionean: adibidez, armak edota baimen berezia behar duten bestelako baliabideak erabiltzeko baimena, ehiza-txakurraren osasun-kartila eta identifikazioa, hegazti harrapari bidezko ehizan jarduteko lizentzia edo baimen berezia, arkuarekin ehizatzea, etab.



2.2.1.- EHIZA AZTERKETA

Ehiza-azterketa Europako beste herrialde askotan ipini zen martxan Espainian baino lehenago, eta ehizara lehendabizikoz joateko oinarritzko eta jakin beharreko ezagutzak egiaztatzeko balio du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 124/1990 Dekretuak ezarri zuen ehiza-azterketa, eta aitzindaria izan zen estatuan; hori gaitzartzea ezinbestekoa da, lehen aldiz ehiza-lizentzia bat lortu nahi duten guztientzat. Gaur egun hori arautzen duena 160/2014 Dekretua da, 2014ko uztailaren 29koa, zeinak ehiza-baimena eta ehizatze gaitasunaren azterketa arautzen baititu. Dekretuak baliozkotzat aitortzen ditu beste autonomia-erkidego edo estatu batzuetan emandako gaitasun-ziurtagiriak, Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza-lizentzia eskuratzeko.

2.2.2.- EHIZA BAIMENA

Ehiza-baimena agiri pertsonal eta besterenezin bat da. Beharrezkoa da hura edukitzea, ehizan jarduteko. EAEn, foru-aldundi bakoitzeko dagokion zerbitzuak ematen du; balio-epe mugagabea du, eta, urtero, tasa bat ordaindu behar da harengatik, denboraldian zehar ehizan jardun ahal izateko.

Autonomia-erkidego batzuetan, baimen mota berezi batzuk daude ezarrita, ehiza modalitate jakin batzuk egiteko: ehiza larria, abata bidezko eper-ehiza, txakur talde bidezko ehiza, galgo bidezko erbi-ehiza, etab. Gainera, armak edo beste bitarteko lagungarri batzuk (su-armak, arkuak, txakurrak, ehiza-hegazti harrapariak –hegazti harrapari bidezko ehiza–, hudoak...) erabiltzeko, beharrezkoa da horiei dagozkien edukitze- eta/edo erabiltze-baimenak edukitzea.



EAEko ehiza-baimena

2.2.3.- NAHITAEZKO ASEGURUA

2011ko Ehizaren Legeak ezartzen du ehiztariak aseguru-kontratu bat egin behar duela nahitaez, ehizan jardutean sortzen ditzakeen kalteak estaltzeko. Ehiztariaren Erantzukizun Zibileko Nahitaezko Aseguruaren Erregelamenduak arautzen du gai hori (63/1994 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa). Haren arabera, nahitaezkoa da aipatu aseguruak kontratatuta edukitzea. Erregelamendu horren arabera, honako hauek guztiak estaltzen ditu aseguruak: ehizaren ondorioz pertsonengan eragindako gorputzeko kalteak, ehizan armak nahi gabe tiro eginda eragindako kalteak eta ehiza-garaian atseden hartzeko tarteetan sortutakoak (baldin eta ehiza-lurraren barruan izan badira), eta, gainera, armaren zein haren mekanismoen edo munizioen akatsengatik, hausturengatik edo hutsengatik eragindakoak.

Erregelamenduak aurreikusten du aseguru-konpainiak honako kalte hauengatik ordaindu behar izan dituen kopuruak eskatu ahal izango dizkiola asegurututako pertsonari:

- a) Honako egoera hauetakoren batean ehizan aritzeagatik sortutakoak: dagokion lizentzia atera gabe edo hark baliarik ez zuela, debekatutako armekin, debekualdian, edota alkoholaren edariaren, droga toxikoen nahiz substantzia sorgogarrrien eraginean.

- b) Segurtasun-eremuetan ehiza-armak ausarkeriaz erabiltzeagatik sortutakoak.
- c) Kaltea eragin duenak laguntzarik ez emateko delitua egiten badu.

2.3.- EHIZA DAITEZKEEN ESPEZIEAK


Ehizarako lege izendatuta dauden espezieak bakarrik ehiza daitezke, hau da, ehiza-espezieen zerrendan agertzen diren animalia basatiak; horiek onartzen dituena 216/2012 Dekretua da, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzen baitu; gainerako espezie guztiak ehiza ez daitezkeen espezieetat hartu behar dira. Inolaz ere ezin da hartu ehiza espezieetat babestutako espezierik. Era berean, debekualdien aginduetako ehiza espezieen zerrendak murriz dezake, lurralde historiko bakoitzerako, EAEko zerrenda, baina sekula ez handitu.

Legez debekatuta dago animalia basatiak nahita hiltzea, asaldatzea edo artelatzea. Halaber, debekatuta dago haien bizirik harrapatzea eta haien arrautzak edo kumeak harrapatzea, bai eta animalia biziak edo hilak eta haien gorpuzkinak edukitzea, salerostea edo haiekin trafikitzea, dela estatuan bertan, dela atzerrian. Ehiza espezieei dagokienez, debekatuta dago haien umetze-zuloak eta habiak suntsitzea, eta haien arrautzak edo kumeak urteko edozein garaitan biltzea. Ehiza-garaitik kanpo, debekatuta dago, halaber, ehiza espezieok ehizatzea, harrapatzea, jazartzea (edozein eratan) eta atxikitzea.

Ohituraz, ehiza espezieak **“ehiza larri”** eta **“ehiza xehe”** gisa sailkatu izan dira. Ehiza xeheko espeziea, aldiz, **“ileduna”** edo **“lumaduna”** izan daiteke. Honako hauek dira ehizaki xeheak: ehiza-hegazti guztiak (**“lumadunak”** dira horiek), eta azeria baino txikiagoak edo azeriaren tamaina berekoak diren ehiza-ugaztunak (azeria, erbia eta untxia, zeinak **“iledunak”** baitira). Azeria baino tamaina handiagoko ehiza-ugaztunak dira ehizaki larriak.

Sailkapen hori debekualdien aginduetan islatuko da; aginduotan, halaber, eta ehizaki xeheen barruan, migratzaileak bereizi beharko dira, eta, modu berezitan, ur-hegaztiak.

Nolanahi ere, ehizan jarduteko, ongi ezagutu behar dira denboraldi eta lurralde bakoitzeko ehiza espezieen zerrendak. Kontuan izan behar da espezie jakin bat izan litekeela ehiza espezie denboraldi jakin batean, eta, beste batean, berriz, beharbada ez.; halaber, espezie bera izan liteke ehiza espezie lurralde historiko edo autonomia-erkidego batean, eta, beste batean, nahiz eta ondoan egon, ez.



Azeriada ehiza xeheko ehizaki handiena.

Ehizakien jabetza

Ehiztariak animalia hiltzean edo harrapatzean “eskuperatuta” lortzen du ehizakiaren jabetza. Ehiza-lur baten aprobetxamenduaren titularrak barnean dauden ehiza espezieen aprobetxamendurako eskubidea du, baina ez da haien jabea. Ehizakiak lege res *nullius* gisa hartzetik dator haien jabetza lortzeko era hori.

Ehiztariak ehizaki bat zauritzen badu ehizan jardutea baimenduta daukan lur batean, hura jasotzeko eskubidea du, nahiz eta ehizakia beste lur batean sartu. Lur itxia baldin bada, jabearen edota titularraren baimena behar du. Baldin eta pertsona horrek ez balu emango sartzeko baimenik, zauritutako edota hildako ehizakia entregatzeko eska dakiok, betiere hura topatzen eta harrapatzen badute. Dena dela, arma irekita edo deskargatuta duela eta txakurra lotuta daramala sartu beharko du ehiztariak haren bila.

Zalantzak direnean ehizakiaren jabetzaz, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, ehizakiaren mailaren arabera:

- **Ehizaki larria:** lehendabiziko zauria (lehendabiziko odola) eragiten diona izango da jabea.
- **Ehizaki xehea:** ehizakia hiltzen duena izango da jabea (hegan doazen hegaztien kasuan, botatzen dituen).

2.4.- EHIZA LURREN SAILKAPENA

Atal honetan, ehiza-jardunerako diren lur motak deskribatzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren Legeak hiru ehiza-lur mota bereizten ditu: **ehiza-lurrak**, **ehizarako ez diren lurrak** eta **ehiza-araubide bereziko lurrak**. Honako hauek daude lehen multzoan: aprobetxamendu erkideko lurrak, zainpeko ehiza-eremuak, ehiza-barrutiak eta ehiza-txakurrak trebatzeko edo ehiza-jarduerak egiteko eremuak. Ondokoak dira, berriz, ehiza-araubide bereziko lurrak: naturgune babestuak, bitarteko internazionalen babestutako guneak eta segurtasun-guneak. Azkenik, honako hauek ez dira ehiza-lur: faunaren babeslekuak eta debekatutako guneak.

2.4.1.- EHIZA LURRAK

2.4.1.1.- Aprobetxamendu erkideko ehiza lurrak

Aprobetxamendu erkideko ehiza-lurrek 100 hektarea jarraitu izan behar dituzte, gutxienez; halere, hegazti migratzailerak ehizatzekeko lerroak atxiki ahal izango dira, azalera horretako lur batean ez egon arren. Debekualdien aginduetan finkatu beharko dira espezie bakoitza ehizatzekeko kupoak, hegazti migratzaileen kasuan, eta espezie bakoitzaren ehiza arautzen duen foru-araudian, gainerako espezieen kasuan.

Mota horretako ehiza-lurrei dagokien, aipatu behar da ez dela halakorik Arabako Lurralde Historikoan; izan ere, Arabako Lurralde Historikoaren Ehizari buruzko Foru Arauak (8/2004 Foru Araua, ekainaren 14koa) ezartzen du ehiza-lur aitortu eta seinaleztatueta bakarrik ehizatu ahal izango dela, baldin eta luraren azalera jarraituak hango ehiza-aprobetxamenduak planifikatzen uzten badu.

2.4.1.2.- Zainpeko Ehiza Eremuak

Ondokoetan eraten dira **zainpeko ehiza-eremuak**: ehiza-aberastasuna babesteko, zaintzeko, sustatzeko eta modu antolatuan ustiatzeko arrazoiengatik ehiza espezieak harrapatzeko plangintza-arau espezifikoak ezartzea eskatzen duten lurretan.

Zainpeko ehiza-eremuak sustatzea eta aprobetxamendu erkideko ehiza-lurrak murriztea da gaur egungo joera.

Dagokion foru-aldundiak kudeatuko ditu zuzenean zainpeko ehiza-eremuak, edo, bestela, aintzatetsitako erakunde laguntzaileek egingo dute, harekin hitzarmen bat egin ondoren.

Era berean, foru-aldundiek (FFAA) eta toki-erakundeek zainpeko ehiza-eremuak susta ditzakete, ukitutako lurren izaera publikoa edo pribatua gorabehera.

Administrazioak zehaztuko du, administrazio-ebazpen baten bitartez, zenbat denboran izango den eremu bat zainpeko ehiza-eremu. Denbora hori sekula ez da izango hamar urtetik gorakoa.

Zainpeko ehiza-eremu bat eratzeko, dagokion foru-aldundiak **ehiza antolatze plan tekniko bat** onartu behar du aldezturik. Baldin eta erakunde laguntzaile bat arduratzen bada kudeaketaz, gizarte-erantzukizuneko aseguru-kontratu bat eta ehiza-zaindegiko kontratu bat eduki beharko ditu.

Zainpeko ehiza-eremuaren gutxieneko azalerari doakionez, foru-erakunde eskudunak ezarriko du hura; edonola ere, aipatu eremuaren gutxienez % 10 erreserba-eremu izango da. Erreserba-eremu hori faunaren babeslekutzat hartuko da.

Bestalde, zainpeko ehiza-eremuak eratzen diren toki-erakundearen edo -erakundearen udal-lurralde osoa bildu behar dute, eta udalerririk ezin izango da beste ehiza-lurrik izan, txakurrak trebatzeko eta ehiza-jarduerak egiteko eremuak salbu.

Zainpeko ehiza-eremuak gero eta ugariagoak dira; hona, jarraian, 2011-2012 denboraldian Bizkaiko Lurralde Historikoko izendatutakoak: Orozko, Zeberio, Zeanuri, Sopuerta, Dima, Ispaster, Urdaibai, Mañaria, Morga eta Turtzioz. Zainpeko ehiza-eremuetan ehizan jarduteko baimenak Bizkaiko Foru Aldundiaren ehizako eta lehorreko arrantzako bulegoan ematen dituzte, eta Nekazaritza Sailak lurralde historiko osoan dauzkan eskualdeko nekazaritza-bulegoetan.

Gipuzkoan, honako zainpeko ehiza-eremu hauek izendatu dituzte 2011-2012 denboraldian: Debabarrena, Urola Kosta, Donostialdea, Bidasoa-Oarsoaldea, Debagarria, Urola Erdia, Tolosaldea, Goierri, Zegama-Segura-Zerain-Mutiloa, Idiazabal, Ataun eta Usurbe-Irimo. Gipuzkoako Ehiza Federazioari esleitu zaio haien kudeaketa. Ehiza larria da eremu horietan araututako modalitatea, eta onartu diren ehiza antolatze planetan oinarritzen da haren kudeaketa.

2.4.1.3.- Ehiza barrutiak

Ehizarako erabil daitezkeen lur-azalera jarraituak dira ehiza-barrutiak, baldin eta foru-organismo eskudunak izendapen hori eman badie. Ehizarako aprobetxa daitezkeen landa-lurak dira, bada, eta lur bakar batez edo helburu horretarako batutako zenbait lurrez daude osatuta.

Ehiza-barrutietan ehiza daitezkeen ehiza espezie guztien aprobetxamendua titular bakarrarena izango da, edo titular horrek baimendutakoarena. Gainera, bada ehiza-aprobetxamendu jakin batzuk beste bati alokatzeko aukera ere, aurretik berariaz eskatuz gero, eta dagokion foru-erakunde eskudunak horretarako ezarritako baldintzetan.

Zainpeko ehiza-eremuen kasuan bezalaxe, foru-aldundiek (FFAA) eta toki-erakundeek ehiza-barrutiak susta ditzakete, ukitutako lurren izaera publikoa edo pribatua gorabehera, betiere lurron % 90en jabeen baimena baldin badute.

Ehiza-barrutia udalaz gaindikoa izan daiteke, baldin eta erakunde sustatzaileek aurrez hitzartzen badute ustiatzeko modua, lur osoa lurralde historiko bakarrean badago eta foru-aldundiek ezarritako baldintzak betetzen baditu. Honako hauek kudea dezakete ehiza-barrutia: hura sustatu duen edo duten toki-erakundeek, ehiza-federazioek, esleipendun gertatzen den elkarteak edo banakoak, edo tokiko ehiza-elkartearen batek.

Foru-aldundiek izendatzen dute ehiza-barrutia, eta hura hamar urtez egoten da indarrean. Ehiza-barrutia izendatzeko, barrutia eratzeko eskaerarekin batera, ehiza antolatze plan tekniko bat ere aurkeztu beharko da, eta hobekuntzak, inbestimenduak, ehiza kupoak eta abar jasoko dira han. Dena dela, ehizak babestuta eta sustatuta egon beharko du, eta era ordenatuan ustiatzen dela.

Ehiza-barruti guztiek matrikulatuta eta erroldatuta egon behar dute, lurralde historikoko organismo eskudunak horretarako daukan erregistro ofizialean.

Ehiza-barrutien titularrek legeak eskatutako moduan seinaleztatu behar dituzte barrutiak, berariazko oholtxo edo kartel batzuen bidez. Ehiza-seinaleztatzenari buruzko atalean daude horiek deskribatuta.

Ehiza xeheko barrutiek gutxienez 500 ha jarraitu izango dituzte, eta ehiza larrikoek, berriz, 1.000 ha. Neurketa horretatik kanpora geratuko dira herriguneak eta ehizatzea debekatuta duten eremuak. Halaber, ehiza-barruti guztiek eremu osoaren gutxienez % 10 erreserba gisa bideratu beharko dute. Eremu hori faunaren babeslekutzat hartuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren Legeak dioen moduan. Erreserba-gune horren kokapena eta konfigurazioa erregelamendu bidez egongo dira zehaztuta.



Ehiza-barrutien barruan dauden ehiza-erreserbak behar bezala seinalatzatu behar dira perimetro osoan eta sarbide guztietan.

Bestalde, foru-erakunde eskudunak zerrenda bat osatuko du ehizan jardun nahi duten baina barrutirik ez daukaten pertsonekin; hala, zozketa bidez banatuko dituzte ehiza-barrutietan libre dauden postuak. Horri dagokionez, foru-erakundeak erregelamendu bidez zehaztuko du zenbat plaza bideratuko dituzten horretarako barruti bakoitzean; zozketaren baldintzak eta parte hartu nahi dutenek bete beharko dituzten baldintzak ere zehaztuko ditu.

Ehiza-barrutien artean, ororentzako ehiza-barrutiak eta ehiza industrialeko eremuak bereizi behar ditugu. Atal espezifiko banatan daude deskribatuta:

2.4.1.4.- Ororentzako ehiza barrutiak

Ororentzako ehiza-barrutiak nahi duten herritar guztiei ehizan egiteko eskubide bera eskaintzeko asmoz eratzen dira. Ororentzako ehiza-barrutien titularitatea foru-aldundiei dagokie. Kudeaketa irabazi asmorik gabekoa izango da, eta foru-aldundiek hartuko dute beren gain; bestela, berriz, erakunde laguntzaileek, foru-aldundiekin sinatutako hitzarmen baten bidez.

Ororentzako ehiza-barrutiak foru-aldundien ehiza-titulartasuneko lurretan sor daitezke, edo beste barruti mota bat eratzeko aukera eskaintzen duten baina horretarako erabili ez diren lurretan.

Zozketa bidez emandako baimen batzuekin egiten da ehiza. Ororentzako ehiza-barrutia dagoen lurralde historikoko ehiztariak baimenen % 50 dute erreserbatutik; kupo hori bete ezean, soberan geratzen diren postuak kanpokoei esleitu ahal izango zaizkie.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ororentzako bi ehiza-barruti izendatu dira 2011-2012 denboraldian: Karrantzako Ororentzako Ehiza Barrutia (Bizkaia) eta Kuartangoko Ororentzako Ehiza Barrutia (Araba).

2.4.1.5.- Ehiza industrialeko eremuak

Ehiza industrialeko eremuak ehiza-barrutien barruan egoten dira kokatuta. Ondokoan dago oinarrituta ehiza-ustiapeneko erregimena eremuotan: baimendutako ehiza-haztegi berezi batzuetan itxian hazitako eta berehala ehizatzeoko ehizak batzuk aldiaren behin askatzean.

Foru-erakundeek zehaztuko dituzte jarduera hori garatzeko baldintzak; bereziki, hura sustatzeko baimena ematen zaien pertsona fisikoei eta juridikoei dagozkienak, eta genetika- eta osasun-kontrolei, baimendutako espezieei, ehizak askatzeko baldintzei, modalitatei, ehizaldiei eta gainerakoei dagozkienak.

Horri doakionez, ehizari buruzko foru-arau batek xedatzen du honako hauek bakarrik sustatu ahal izango dituztela ehiza industrialeko eremuak Araban: ehiza-barruti bateko lurren jabetza edo haren erabileraren titularitatea dutenek, baldin eta merkataritza-enpresa gisa eratzten badira eta jarduera ekonomiko hori garatzeko lege ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Arau horrek ezartzen du ustiapen horiek 100 ha izan behar dutela gutxienez, eta 1.000 ha, gehienez, eta ehiza xeherako bakarrik izango direla. Era berean, lurralde historiko horrek foru-dekretu bat du (48/2011 Foru Dekretua, ekainaren 28koa), eta harek arautzen du ehiza-lur horien funtzionamendua (erregistroa, kokapena eta azalera, ehiza espezieak, genetika- eta osasun-kontrolak, eta abar).

2.4.1.6.- Txakurrak trebatzeko eta ehiza jardueretarako eremuak

Ehiza-jardueretarako eremuak ehiza-ibilbideak (baina ehizakia hil gabe), hegazti harrapari bidezko ehiza-erakusketak eta antzeko jarduerak antolatzeko erabiltzen dira. Foru-aldundien gain izango da eremu horiek sortzea edo abian jarzea baimentzea. Honako hauek xedatuko dituzte, zehazki, erakundeok: aipatu eremuen azalera eta mugak, baimendutako ehiza-jarduerak eta jarduera horietako bakoitza egiteko epealdiak (baliteke horiek bat ez etortzea urteko debekualdiei buruzko foru-aginduekin).

Horrekin loturik, aipagarria da Arabako Lurralde Historikoko 48/2011 Foru Dekretua, ekainaren 28koa. Txakurrak trebatzeko eremuak arautzen ditu, besteak beste.



Mota horretako ehiza-lurretan, galeperra, faisaia eta eper gorria ehizatzen dituzte, besteak beste.

Ehiza lurren ezaugarrien laburpen taula
(honako honen arabera: 2/2011 legea, martxoaren 17koa, ehizarena)

Ezaugarriak	Aprobetxamendu erkideko lurak	Zainpeko ehiza eremua	Ehiza barrutiak	Ororentzako ehiza barrutiak	Txakurrak trebatzeko eta ehiza jardueretarako eremuak
Azalera jarraitua	≥ 100 ha	Foru-aldundiek erregelamenduz ezarria. Eremu osoaren % 10 erreserba-eremu izango da.	<i>Ehiza xeheko barrutiak:</i> ≥ 500 ha. <i>Ehiza larriko barrutiak:</i> ≥ 1.000 ha. <i>Eremu osoaren % 10 erreserba-eremu izango da.</i>	<i>Ehiza xeheko barrutiak:</i> ≥ 500 ha. <i>Ehiza larriko barrutiak:</i> ≥ 1.000 ha. <i>Eremu osoaren % 10 erreserba-eremu izango da.</i>	Foru-aldundiek erregelamenduz ezarria.
Titularitatea	—	Publikoa.	Publikoa edo pribatua.	Publikoa.	Publikoa edo pribatua.
Aprobetxamendua	Ehiza-dokumentazioa indarrean duten ehiztariak.	Esleipendun elkarteak eta zozketatutako baimenen titularrak.	Titularra eta titularrak baimendutako pertsonak. Ehiza-poltsa.	Zozketatutako baimenen titularrak.	Baimendutako pertsonak.

2.4.2.- EHIZA ARAUBIDE BEREZIKO LURRAK

Ehizaren Legearen (2/2011 Legea) arabera, babestutako naturguneak eta segurtasun-eremuak dira araubide bereziko ehiza-lurak:

2.4.2.1.- Babestutako naturguneak

Babestutako naturguneak eta nazioarteko legedi bidez babestutako guneak ehiza-araubide bereziko lurak dira. Gune horietan, gune bakoitzaren erabilera eta gozamena arautzen duten tresnetan ezarritakora egokituko da ehiza-jardueira, eta, tresnok aurreikusten ez dituzten kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren Legea aplikatuko da.

2.4.2.2.- Segurtasun eremuak

Pertsonak eta ondasunak behar bezala babesteko asmoz neurri bereziak ezartzea eskatzen duten eremuak dira **segurtasun-eremuak**. Segurtasun-eremu baten barruan, erabat debekatuta dago armekin ehizan aritzea, salbu eta foru-aldundien organo eskudunek jadanik ezarritako eta aintzatetsitako ehiza-postu finkoetatik.

Honako hauek hartzen dira segurtasun-eremutzat:

- Ibilbideak eta herri-erabilerako bideak eta trenbideak, bai eta horien ertzak eta zortasun-eremuak ere, hesiz itxita daudenean.
- Bidegorri eta bide berde izendatutako bideak.
- Herri-urak, uren ibilgua eta ur-bazterrak barne.
- Hiriguneak eta landaguneak, nekazaritza-turismoko etxeak edo landa-etxeak, isolatutako eraikin bizigarriak, kanpalekuak, aire zabaleko kirolguneak, parkeak, instalazio militarrek eta aireportuak eta horien inguruak, nukleo zoologikoak, fabrika- edota industria-instalazioak.



e) Aldian-aldian jendea hartzen duten tokiak.

f) Itsasertzeko eremuak.

Jarraian, segurtasun-eremu bakoitza nola mugatu deskribatzen da. Eremuotako bakoitzetik ezarritako distantziak ere ematen dira.

a) ibilbideak eta herri-erabilerako bideak eta trenbideak

Honako hauek hartzen dira herri-erabilerako bidetzat: autobideak, autobiak eta errepideak edo bideak, edozein dela ere duten izena edo kategoria: Estatukoak, probintziakoak edo udalerrikoak. Trenbideak, berriz, mota guztietako trenak ibiltzeko ezarritako bideak dira. Haien mugei dagokienez, bidearen edo errepidearen zabalera hartuko da aintzat, eta 50 metroko tarte bat, haien albo banatan, lur-berdinketaren kanpoko ertzetatik neurtuta. Bideok hesiturik egonez gero, distantzia hori haien ertzetatik eta zortasun-eremuetatik neurtuko da. Zabalean 2 metro baino gutxiago duten bideen kasuan, ez da segurtasun-distantzia hori aplikatuko, baldin eta ehizan ari denak 250 metrora ikus badezake bidearen noranzko bakoitzean.

b) Bidegorriak eta bide berdeak

Aisialdirako eta kirolerako eremuak dira. Bideotan, segurtasun-distantzia 20 metrokoa izango da, lur-berdinketaren kanpoko ertzetatik neurtuta. Zabalean bi metro baino gutxiago diren bideen kasuan bezala, bide berdeen kasuan ere, ehiztariak bidearen noranzko bakoitzean 250 metrora ikusiz gero, ez da aplikatuko adierazitako segurtasun-distantzia.

c) Herri urak (uren ibilgua eta ur bazterrak barne)

Jabetza publikokoak herri-urak dira; hauek, zehazki: lehorreko urak —lurrazalekoak nahiz lurpeko ur berriztagarriak—; ur-korrente naturalak —jarraituak nahiz jarraipenik gabeak—; aintzirak, urmaelak eta urtegiak; baita lurpeko akuiferoak ere.

Herri-uretarako ezarritako segurtasun-distantzia zortasun-eremua da, eta dagokion lurralde-plan sektorialak xedatzen du eremu hori kasu bakoitzean.

d) Hiriguneak eta landaguneak

Hiri- eta landa-nukleoak (hiriak, herriak, herrixkak) dira, eta, aurreko maila hori eduki ez arren, biztanleak dituzten beste batzuk (baserriak, nekazaritza-turismoko etxeak, kanpalekuak, etab.); baita aire zabaleko kirolguneak, parkeak eta aisialdiguneak ere. Kategoria horretan sartzen dira, halaber, lehentasunezko nekazaritza-ustategiak, nukleo zoo-logikoak edota fabrika- eta industria-instalazioak.

Eremu horietarako segurtasun-distantzia 200 metro izango da norabide guztietan. Isolatutako eraikin bizigarriak (baserriak) dira salbuespena; horietan, 100 metro izango da segurtasun-distantzia ehiza xehean, eta 200 metro, kartutxo metalikoak erabilia egiten den ehiza larrian.

Kategoria horretakoak dira, era berean, instalazio militarrek, aireportuak eta haien inguruak. Kasu horretan, azpiegitura horiek arautzen dituen araudian egongo da finkatuta segurtasun-distantzia.

e) Aldian-aldian jendea hartzen duten tokiak

Aldian-aldian jendea hartzen duten tokiak ere, jendea bertan dagoen bitartean, segurtasun-eremutzat hartuko dira; honako hauek, esate baterako: erromeriak, azokak, kontzentrazioak, etab. Baita jabeak edota haiek baimendutako pertsonak dauden tokiak ere, baldin eta lanean ari badira bertan (baso-lanak, nekazaritza-lanak, etab.), horretarako gaituta daudela. Kasu horretan, segurtasun-distantzia 50 metro izango da norabide guztietan.

f) Itsasertzeko zortasun eremua

Honako hau hartzen da segurtasun-eremutzat: 20 metroko zerrenda bat, itsasertzeko barneko mugaren zortasunetik zenbatzen hasita; zortasun-eremu hori sei metrokoa da, lehor aldera neurtuta.

Segurtasun eremuetan armak erabiltzeko mugak

- Oro har, debekatuta dago segurtasun-eremuetarantz tiro egitea, ez bada toki horien eta ehiztariaren artean jaurtigaia ez iristeko moduko tartea dagoela, edo tartean den lur zatiak segurtasun-eremuak babesten dituen elementuak eraistea eragozten duela.
- Segurtasun-eremuetan postu finko berriak jarri ahal izateko, foru-aldundiko organo eskudunak dagokion lurraren eta ondokoen jabeen baimena eduki beharko du, proiektuak ondoko etxeak edo nekazaritza- eta abeltzaintza-instalazioak ukitzen dituenean.
- Erabilera publikoko bideak eta errepideak**, trenbideak, bidegorriak, bide berdeak edota ur publikoak ehiza-lur batean daudenean, armekin ehizatu ahal izango da aipatu eremuetan, baldin eta ehiza-aprobetxamendua- ren titularrak hala eskatzen badu, ehiza antolatzeko planean aurreikusita badago eta foru-erakunde esku- dunak aurrez baimentzen badu.
- Salbuespen gisa, pertsonak arriskuan jartzea edota ne- kazaritzan, abeltzaintzan, basoetan edo basa-faunan kalteak saihesteko, ehiza-ekintza zehatz batzuk baimen daitezke segurtasun-eremuetan.



Segurtasun-eremuaren seinalea.

Segurtasun eremuen laburpen taula

Segurtasun eremua	Segurtasun eremua mugatzea
Erabilera publikoko bideak eta errepideak	50 m
Trenbideak	50 m
Bidegorriak eta bide berdeak	20 m
Herri-urak	Lurraldeko plan sektoriala
Hiriguneak eta landaguneak	200 m
Nekazaritza-turismoko etxeak edo landa-etxeak	200 m
Isolatutako eraikin bizigarriak (baserriak)	100 m (ehiza xehea) 200 m (metalezko kartutxoak erabilia egindako ehiza larria)
Kanpalekuak	200 m
Aire zabaleko kirolguneak, parkeak eta aisialdiguneak	200 m
Lehentasunezko nekazaritza-ustategien instalazioak eta nukleo zoologikoak	200 m
Fabrika- edota industria-instalazioak	200 m
Instalazio militarrik, aireportuak eta haien inguruak	Araudi berezia
Aldian-aldian jendea hartzen duten tokiak	50 m
Itsasertzeko zortasun-eremua (6 metro, itsasertzeko barneko mugatik neurtuta)	20 m

2.4.3.- EHIZARAKO EZ DIREN LURRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2011 Legeak, Ehizarenak, dioenez, **ez dira ehiza-lurtzat hartzen** faunaren babeslekuak eta debekatutako guneak. Lur horietan, foru-aldundiek, salbuespen gisa, ehiza espezieetako ale jakin harrapatzeko baimena eman dezakete, zientziari lotutako arrazoiak direla medio, edo pertsoneri, laboreei edo faunari egin dakizkiekeen kalteak saihesteko.

2.4.3.1.- Faunaren babeslekuak

Foru-aldundiek eratzen dituzte faunaren babeslekuak, biologikoaren, zientziaren edo hezkuntzaren arloko arrazoiengatik espezie jakin batzuen biziraupena bermatu behar denean, eta debekatuta dago edozein ehiza-jarduera babeslekuotan. Gainera, faunaren babesleku izango dira azaleko ur-masak eta haien inguruak ere. Arau bidez arautuko dira haien azalerak.

Bestalde, 2011ko Ehizaren Legearen aurretik ezarritako ehiza-babeslekuak faunaren babesleku izatera igaroko dira. Hala, honako fauna-babesleku hauek izendatu dira 2011/2012 denboraldian Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan:

2011-2012 Denboraldiko faunaren babeslekuak

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
• Zuatza uhartea eta Zamukoa mendia. • Gasteizko Goi Mendiak (Berroztegieta ingurua). • Arreoko/Kaizedo Behekoako aintzira. • Laiaza (Guardia). • Maroñoko urtegia.	• Mundakako itsasadarra. • Serantes (Santurtzi eta Abanto-Zierbena udalerrriak). • Karrantza haraneko babeslekua (zirkulu bat, zentroa El Carpín-eko eraikin nagusian duena eta 500 metroko erradioa daukana). • Saldropoko hezegunea eta Undurragako urtegia. • Lea ibaiaren bokalea. • Gorlizko Abeletxea. • Aixolako urtegia.	• Aralar. • Laurgain-Altzola. • Aloña-Mendi. • Erkaitz-Aparrain-Sarobe. • Soraluze. • Krutxitxiki. • Etxezarreta. • Ipuliño. • Aizeleku. • Udalaitz. • Añabaso. • Añi. • Urkulu. • Leintz. • Gatzaga. • Errotaran. • Barrendiola. • Aixola.



Arreoko/Kaizedo Behekoako aintzira da Arabako fauna-babeslekuetako bat.

2.4.3.2.- Ehizarako debekatutako guneak

Ehizarako debekatutako guneak dira ehiza-lur, araubide bereziko eremu edo faunaren babesleku gisa deklaratuak ez direnak, bai eta legez aurreikusitako beste zehaztapenen bidez debekua ezarriko zaienak ere.


Ehizarako debekatutako gune izango dira, era berean, hormaz, hesiz, heskaiz edo edonolako obrak nahiz dispositiboak itxitako lurrak, baldin eta itxitura horiek pertsonen eta animalien sarrera (eta bertako animalien irteera) eragozteko edo debekatzeko eraikita badaude. Lurrok beti irekita dauden sarbideak edo erraz sartzeko moduak badituzte, ehizarako debekatutako gune izateko, sartzea debekatuta dagoela adierazi beharko da.

2.5.- EHIZA SEINALEZTAPENA

2/2011 Legeak, Ehizarenak, agintzen du ehiza-lur guztiek, aprobetxamendu erkidekoek salbu, behar bezala seinaleztatuta egon behar dutela, lurron barruti-izaera adierazten duten kartel eta seinale batzuen bitartez. Aprobetxamenduaren titularrari dagokio ehiza-lurraren inguru osoa eta sarbideak seinaleztatzea.

Foru-erakundeek deskribatuko dituzte, erregelamendu bidez, kartelen eta seinaleen ereduak. Gaur egun, kartelek mezu bat eta lur mota bakoitzerako ikur normalizatu batzuk ageri dituzte. Ehiza-barrutien kasuan, matrikula-zenbakia ageri duen xafra ere eduki behar dute. Seinalearen iraupena eta zurruntasuna bermatuko duen edozein material erabiliko da hura egiteko. Egun, kartelak 33 cm dira luze, eta 50 cm, zabal; letrak, berriz, beltzak dira, hondo zuri baten gainean. Seinaleak, berriz, ikur normalizatu batzuk dira (20x30 cm-ko laukizuzenak, zeharretara bi zatitan banatuta: goiko eta eskuinaldeko zatia, zuria, eta behekoa eta ezkerreko zatia, beltza), edota haitzetan eta hormetan idatzitako mezu normalizatu batzuk.

Modu zehatz batean ipini behar dira, haietako baten ondoan dagoen pertsonak hurbileneko beste bi ikus ditzan; kartelen artean gihenez ere 600 metroko tartea egongo da, eta seinaleen artean, berriz, 100 metrokoa.



Ehiza-barrutietako identifikazio-seinaleak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2011 Legeak, Ehizarenak, dio foru-erakundeek erregelamendu bidez ezarri behar dituztela uxaldi bat egin behar den ehizaguneetarako bideak, erabilera publikoko bideak eta sarbideak seinaleztatze neurriak, bai eta tiro-lerroetatik eta ehiza-postu finkoetatik hurbil diren eremuak ere.



Basurde-uxaketak eta uso-postuak identifikatzeko seinaleak Araban.

2.6.- KALTEEN ERANTZUKIZUNA

Egoera ugari daude basa-animalia batek eragiten dituen kalteen erantzukizunen inguruan. Oro har, ehiza-aprobetxamenduen erakunde titularrak dira ehiza-lurretatik datozen ehizakiek eragiten dituzten kalteen erantzule. Hor, **nekazaritzan** (laboreak eta larreak) eta **abeltzaintzan** eragindako kalteak daude barne.



Ehizaki larriek sekula baino zirkulazio-istripu gehiago eragiten dute gaur egun.

2014ko apirilaren 7ko 6/2014 Legeak aldatu egiten du trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunaren Legearen testu artikulatua; 1990eko martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Dekretuak onartu zuen lege hori. 6/2014 Legeak aldatu egiten du, halaber, 17/2005 Legeak sartutako 9. xedapen gehigarria, zeinak trafiko-istripuetan ehiza-espezieak harrapatzeagatiko erantzukizuna arautzen duen. Xedapena honela geratu da:

“Ehiza-espezieek bide publikoetan eragiten dituzten trafiko-istripuetan, pertsona edo ondasunei egiten zaien kaltearen erantzulea ibilgailuaren gidaria izango da, eta ezingo da eskatu bideetara sartu diren animalien balioa. Hala ere, trafiko-istripua egun berean edo istripua baino hamabi ordu lehenago egin den ehiza larriko espezie baten ehiza-ekintza kolektibo baten ondorio zuzena denean, pertsona edo ondasunei egindako kalteen erantzulea ehiza-aprobetxamenduen titularra izango da, edo, horrelakorik ezean, lursailaren jabea. Istripua gertatu den bide publikoaren titularra ere izan daiteke erantzulea, hala dagokionean, itxiturako hesia dagokion epean ez konpontzeagatik, edo ibilgailuek animaliak jotzeagatik istripu asko egoten diren zatietan animaliak solte dabiltzala adierazten duen berariazko seinaleak ez jartzeagatik.

Bestalde, Arabako Lurralde Historikoaren Ehizari buruzko Foru Arauak (8/2004 Foru Araua, ekainaren 14koa) erantzukizunak ezartzen ditu, kaltearen kokapenaren eta inplikaturako espeziearen arabera:

Basa faunak araban eragindako kalteak*

Kaltearen kokapena	Kaltea eragiten duen espeziea			Erantzulea
Ehiza-lurra (Ehiza-barrutiak, zainpeko ehizako gunek, ehiza-erreserbak...)	Ehiza daitekeen espeziea (EIE)	Ehiza antolatzeko planean (EAP) sartuta		Aprobetxamenduaren titularra (subsidiarioki, luraren titularra)
		Ehiza antolatzeko planean(EAP) ez sartua	Titularrak erabakita eta nahita	
			Titularrak erabaki eta nahi GABE	Autonomia-/foru-administrazioa
Ehizarako EZ den lurra (Faunaren babeslekua, ehiza debekatutako gunek...)	Ehiza EZIN daitekeen espeziea (EB)			Lurra ehiza-aprobetxamendutzat eratzea sustatzen duen titularra
	Ehiza daitekeen espeziea (EIE)			

Erabilitako laburduraK:

- EIE: ehiza-intereseko espeziea (urteko ehiza-aginduen arabera ehiza daitekeena)
- EB: espezie babestua (ehiza ezin daitekeena)
- EAP: ehiza antolatzeko plana.



Gainera, foru-arau horrek ezartzen du berariaz salbuetsita geratzen direla, eta ezin zaizkiela leporatu aprobetxamenduaren titularrari edota administrazioari, honako kalte hauek:

- a) Erruagatik, zabarkeriagatik edo nahiagatik kaltetuari edo beste hirugarren bati lepora dakizkiokeenak (hori zenbait trafiko-istriputan aplika daiteke, adibidez).
- b) Ustiapen industrialetan edo modu artifizialean edo ez-basotarrean hazitako ehiza-intereseko espezieek eragindakoak.
- c) Foru-agindu bidez izurrite izendaturiko espezieek eragindakoak.
- d) Lur-lantzearen eta nekazaritzako bestelako ohiko tekniken edo ohituren bidez landu ez diren laborantza-lurretan eragindakoak.
- e) Nekazaritza- eta baso-bideetan eragindakoak.

Hala, bada, ehizakiek eragindako kalteen erantzukizuna gai tirabiratsua da betidanik, eta, maiz, justizia-epaitegiek hartu behar izan dituzte gertaeron inguruko erabakiak. 2011ko Ehizaren Legeak ezartzen duenez, ehiza-aprobetxamendu baten erakunde titularrak ezingo du hura ustiari, ez baldin badauka erantzukizun zibileko aseguru-kontrataturik.

2.7.- EHIZA MODALITATEAK

Hainbat modutan ari daiteke ehizan, espezie bakoitzak eta haren habitatak eskaintzen dituzten aukeren arabera. Horri esker, ehiza-eskaintza zabala dago, eta ehiztariak bere baldintza pertsonaletara eta nahietara ongien egokitzen den modalitatea aukera dezake. Jarraian, ehiza modalitate hedatuak deskribatzen dira.

2.7.1.- EHIZA LARRIKO MODALITATEAK

Monteria

Iberiar penintsulan ehiza larrian aritzeko erarik ohikoena eta ezagunena da; batez ere, erdialdean eta hegoaldean. Uxaldia egin behar den mendi-eremua edo ehizagunea ehiztari-postuz inguratzen da, ehiztariak taldeka edo armadaka antolatuta direla. Batzuetan, armadak ehiza-gunearen erdian kokatzen dira, eta ez inguruan; halakoetan, trebesak deitzen zaie. Ehizagunea txakurren laguntzaz (rehalak deituriko txakur taldeak) arakutzen da, animaliak postuetarantz bultzatzeko. **Monterian, oreinak eta basurdeak ehizatzen dira batez ere;** toki batzuetan, adarabalak eta mufloiak ere bai.

Autonomia-erkidego batzuetan, monteria eta **gancho** izeneko modalitate bat bereizten dituzte, armadunen eta txakurren kopuruak kontuan hartuta. Gaztela eta Leonen, esate baterako, monteria ehiza larriko ehizaldi bat da, 20 ehiza-postu eta rehala bat baino gehiago dituena; gancho modalitatean, aldiz, hogeitaz ehiztari edo gutxiago aritzen dira —25 lagun, gehienez, ehiztariak eta uxatzaileak kontatuta—, eta, txakurrei dagokienez, berriz, baimendutako txakurren gehieneko kopurua rehala batekoa da.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eta kantauiar zerrendako gainerako lekuetan (Nafarroa barne), ez da monteriarik. Ehiza larriko eta ezaugarri horietako ehiza mota bakar bat aurreikusten da: **uxaketa**.

Uxaketa

Modalitate horretan, uxatzaileek ehiza-postuetarantz bultzatzen dituzte ehizakiak, eta, batzuetan, txakurrek laguntzen diete. Euskal Autonomia Erkidegoan, uxaketa gehienak ehiza modalitate horretako ehizakirik kutunena dute helburu: basurdea; egiten dira orkatza eta oreina harrapatzeko uxaketak ere, betiere baimena izanez gero. Gaur egun, Araban eta Bizkaian, oreinak ehizatzen dituzte modalitate horren bitartez, Gorbeia mendigunean.

Muga batzuk ezartzen dira, lurralde historiko bakoitzean, ehiztarien kopuruan eta uxaturiko azaleran. Datu horiek urte-tik urtera alda daitezke, eta, beraz, urtero kontsultatu behar da Urteko Ehiza-agindua. Bizkaian, esate baterako, gehienez ere 35 ehiztari ari daitezke uxaketetan; Araban, berriz, ehizagunearen azalera ezin da izan 160 hektareatik gorakoa; ehiza-postuen kopuru txikiak eta handiak 12 eta 45 dira, hurrenez hurren; uxatzaileak 6 izango dira gutxienez, eta txakurrak, 10.



Uxaketak egiteko, beharrezkoa da administrazio eskudunaren baimena izatea eta gutxieneko segurtasun-neurri batzuk betetzea: (1) uxaketa aurretik, **seinaleak** jarri behar dira, natur inguruneke beste erabiltzaileei horren berri emateko; (2) bestalde, ehizan ari diren guztien segurtasuna babesteko, postuetako ehiztariak nahiz uxatzaileak **erraz ikusteko moduko** **jaka islatzaileak** eraman behar dituzte jantzita.

Bakar ehiza

Kasu horretan, bakarrik edo gidari batekin ateratzen da ehizakiaren bila, eta txakurrik gabe. Ehiztariak inguruneaz eta espeziearen jokabideaz dakienaren mende dago, erabat, bilaketaren arrakasta. Ez da tirorik egin behar harik eta animaliaaren ezaugarriez ziur egon arte; hala, aukeraketa-irizpideak aplikatuko dira, funtsezkoak baitira ehiza larriaren kudeaketan. Oreina, orkatza, sarrioa eta basahuntza ehizatzen dira, nagusiki, bakar-ehizan.

Erronda

Ehiztariak ehiza larriko espezieen ohiturei buruz dakiena aprobetxatzen du modalitate horrek. Horri esker, animalien eguneroko bizitzako toki estrategiko batzuetan egoten da itxaroten ehiztaria. Ondokoak dira itxaroteko lekurik ohikoenak: edanlekuak, basurdeen bainu-lekuak, eta igarotze- eta elikatze-eremuak. Oro har, kalteek behartutakoan bakarrik baimentzen da **erronda**.

2.7.2.- EHIZA XEHEKO MODALITATEAK

Jauzi modalitatea

Ehiza xeheko ohiko modalitate bat da. Ehiztaria bakarrik edo txakur batekin edo birekin ("txakur bidezko ehiza") ibili ohi da ehizakien bila. "Ehiza galaia" ere deitzen zaio. Lur-ohiturak dituzten hegaztiak ehizatzen dira, adibidez, jauzi modalitatean: eper gorria, oilagorria eta galeperra; baita untzia eta beste espezie batzuk ere.

Talde ehiza

Aurreko modalitatearen modukoa da, baina ehiztari ugari parte hartzen dutenean. Ehiztariak lerro batean zabaltzen dira ehiza-lurrean, elkarren artean tarte bera utzita, eta guztiek batera egiten dute aurrera. Hala, handitu egiten da ehizaren eraginkortasuna, eta gehiago, txakur egoki batzuen laguntza izanez gero, askoz hobeto aprobetxatzen baitira "taldeko" edozeinek altxatzen dituen ehizakiak botatzeko aukerak. Talde-ehizan, eper gorria ehizatzen da nagusiki.

Postu finkoko ehiza

Ehiza modalitate hori ehiza xeheko espezie ugari ehizatzeke erabiltzen da; baita ehiza larrian ere. Funtsean, "postu" batean itxaroten zaio ehizakiari. Postua ezkutaleku xume bat izaten da, eta era askotako materialekin (adar lehorrak, aldamiok, etab.) egiten dute, ahalik eta gutxi nabarmen dadin. Postu finkoetan, hegazti migratzaileak (pagausoak, birigarroak...) ehizatu ohi dira; bai eta ur-hegaztiak (antzara hankagorritzak, basahateak...) eta beste hainbat hegazti espezie ere. Postuetatik ere egiten da "uxaketa-ehiza". Kasu horretan, uxatzaileen laguntza behar izaten da, ehizakiak tiro-lerroetarantz bultzatzeko. Modalitate horretan, bereziki eperrak eta faisaiak ehizatzen dituzte.

Horrekin loturik, aipatu behar da 2/2011 Legeak, Ehizarenak, debekatu egiten duela uxaketa ehiza xehean.

Euskal Autonomia Erkidegoan, uxaketa modalitatean ehizatzen da basurdea. Ehiztariak taldeka aritzen dira, txakur miaztaileak edo "sokakoak" lagun dituztela. Basurdeak gauean etzalekura zihoazenean utzitako arrastoan askatzen dituzte txakurrok. ►



Jauzi modalitatea da ehiza xeheko euskal ehiztariak gehien praktikatzen dutenetako bat. ►



EAEko ezaugarri geografikoak egokiak dira udazkeneko migrazio-garaietan pagausoak eta birigarroak ehiatzeko. ►





Uxaketa

Modalitate hori maizago erabili ohi da ehiza larrian; halere, ehiztari talde espezializatu batzuek azeria ehizatzen erabiltzen dute. Azeria da, hain zuzen ere, ehizak xeherik handiena.

Usoa, txabolatik

Tradizio handiko modalitatea da Arabako alde batzuetan. Ehiztariak zinbelen bidez erakartzen dituzte migrazioko uso taldeak. Hegaztiak zuhaitzetan geldituta daudenean egiten dute tiro ehiztariak, ezkutatuta dauden txaboletatik. Zinbela mugitzen duenaren trebezia erabat garrantzitsua da, ehiza arrakastatsua izan dadin. Ez da, ez legezkoa, ez etikoa, hegan doazela tiro egitea usoei txabola batetik; ezta zinbelaz baliatzea ere, usoen ibilbidea desbideratzeko eta une horretan taldeei tiro egiteko.

Usoa, sareaz

Oso aspaldiko ohitura da; Nafarroan (Etxalarren, adibidez), bizirik daukate oraindik. Migrazioa mendi-lepoetatik igarotzean harrapatzen dituzte usoak, sare bertikal handi batzuen bitartez. Horretarako, sareetarantz bultzatu behar izaten dira usoak. Helburu hori iristeko, hegazti harraparien presentzia itxuratzen da, tresna berezi batzuk erabilita. Haien siluetek beherantz eragiten diete taldeei, eta haiek, babes bila doazela, sareetan erortzen dira.

Erbia, arrasto txakurraren bidez

Hor, txakurra da protagonista nagusia. Hark larreleketan hartzen du lehen arrastoa, eta, hari jarraituz, erbiaren etzalekura eramango du ehiztaria. Ehiztari gutxi batzuek hartzen dute parte, eta amaiera aldean bakarrik nabarmentzen dira; hau da, ehizakia akabatu behar denean. Oso hedatuta dago modalitatea kantauriar eskualdean, eta untxaria da gehien erabiltzen den txakur mota.

2.7.3.- BESTE MODALITATE BATZUK

Zenbait ehiza-modalitatetan, ehiza-baimenaz gain, beharrezkoa da beste baimen berezi eta zehatz batzuk ere edukitzea. Honako modalitate hauek aipa daitezke: basurdearen, orkatzen eta oreinaren ehiza; otsoaren kontrola; hegazti harrapari bidezko ehiza eta arku-ehiza, eta hudo bidezko ehiza (Arabian).

“Silbestrismoa” dugu kasu berezi bat, hau da, hegazti kantariak (fringilidoak) harrapatzea eta kioletan edukitzea. Modalitate horretan, txorizaleen elkarrekin edo ornitologia-elkarrekin kideak bakarrik ibil daitezke, eta, horretarako, dagokion baimena izan behar dute. Horri dagokionez, adierazten da debekatuta dagoela Euskal Autonomia Erkidegoan harrapaturiko aleak merkaturatzea. Beste autonomia-erkidego batzuetan harrapatutakoak edo baimendutako haztegiatan hazitakoak, berriz, dagozkien albitari-gida eta ehiza-baimena izan behar dituzte.

Arku bidezko ehiza

Arku bidezko ehizan aritzeko, ezinbestekoa da ehiza-baimena edukitzea; bai eta beste baimen berezi bat edukitzea ere, lurralde historiko bakoitzean ezarritako araudiaren arabera. Halaber, beharrezkoa da ehiztariaren nahitaezko aseguruia edukitzea, han arku ehiza-arma dela adierazten dela.

Arkuarekin, “jauzi” modalitatean egiten da ehiza xehea (azeriarekin izan ezik); azeriaren ehiza eta ehiza larria, berriz, errondan edo bakar-ehizan.

Hegazti harrapari bidezko ehiza

Ondokoa da hegazti harrapari bidezko ehiza: hegazti harrapariak ehizarako trebatzea eta erabiltzea. Oso jende gutxi jarduten du horretan; azken urteotan, halere, zaleen kopurua ugartu egin da. Hegazti harrapari bidezko ehizak ahal-ekin eta sakrifizio handi bat eskatzen du, bai hegaztia egoera onean atxikitzeko, bai harentzako instalazio egoki batzuk edukitzeko.



Hegazti harrapari bidezko ehizak hegazti harraparia zaintzeko ahalegin handi bat eskatzen du, eta, askoren iritzian, ehiza modalitate hori arte bat da: "hegazti harrapari bidezko ehizarren artea".

Funtsezkoa da hegaztiak egoera fisiko egokian edukitzea; pisua kontrolatu behar zaie, eta entrenamendu-saioak egin behar dira haiekin. Instalazioek "hagak" eduki behar dituzte. Hagak kokaleku batzuk dira, hegaztiaren hatzaparrak egoera onean atxikitze bidez diseinatuak. Gainera, garrantzitsuak dira hegaztiekin erabiltzen diren tresnak: txanoak, belatz-uhalak, eskularruak eta abar.

Hegazti harrapari bidezko ehizan aritzeko, beharrezkoa da ehiza-baimena edukitzea; baita beste baimen berezi bat edukitzea ere, lurralde historiko bakoitzean ezarritako araudiaren arabera.

Hegazti harrapari bidezko ehizan, jauzi modalitatean eta txakurren laguntzaz ehizatzen dira ehizaki xeheak (eper gorria, erbia, untzia, faisaia, galeperra...); txakurrik gabe ere ehizatzen dira espezie batzuk; mikak eta usoak, zehazki. Hegazti harrapari handiekin (esaterako, arrano beltza), ungulatu basatiak ehizatzen dira. Siberiako eta Mongoliako herri batzuek otsoak ere ehizatzen dituzte arranoekin.

Bestalde, erabat debekatuta dago edozein hegazti harrapari (baita haien gorpuzkiak edo naturalizazioak ere) ehizakiak erakartzeko edo abata gisa erabiltzea.

2.8.- DEBEKUAK, DELITUAK ETA ARAU-HAUSTEAK

2.8.1.- DEBEKUAK

2/2011 Legeak ehizatzeko hainbat debeku ezartzen ditu oro har. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da izan litezkeela beste hainbat debeku ere, geroago onartutako erregelamenduen edo araudien arabera (arreta berezia ipini behar zaie, horri dagokionez, lurralde historikoetako foru-araudiei).

Ehizan, debekatuta dago hauek erabiltzea:

- **Balezta, tiragomak** eta airez edo bestelako gas konprimituz eragiten diren armak.
- 22ko kalibreko hatz bidez kolpekatzeko su-armak, edota su-arma luze marratuak, 5,6 milimetrokoak.
- **Injekzio anestesikoko** armak edota gerra-armak.
- **Postak** (hau da, 4,5 milimetrotik gorako diametroko perdigoiak). Debekatuta dago halakoak edukitzea ere, ehizan ari garen bitartean.
- **Perdigo-kartutxoak, ehiza larrian** (balak bakarri erabil daitezke kasu horretan). Debekatuta dago halakoak edukitzea ere, ehiza larrian (uxaketak, bakar-ehizak, etab.) ari garen bitartean.
- Lakioak, amuak, lika, tranpak, zepoak, lehergailuak, ibilgailu motordunak, ontziak eta mota guztietako sareak.
- **Abata** biziak edo naturalizatuak; salbuespen gisa, "zinbela" erabiliko da uso-ehizan, foru-aldundiek aldeztu aurretik baimenduta. Ezingo dira erabili animaliaitsuak edo elbarriak.
- **Mota guztietako abatak, eta elektrikoak, elektronikoak, digitalak edo mekanikoak sartzen dira hor**, grabazioak barne.
- Elektrokutatzeko edo paralizatzeko gailuak.
- **Isilgailuak, faroak, linternak edota argiztatzeko beste gailu batzuk**, eta irudia bihurtzeko edo handitzeko gailu elektroniko bat duten ikusgailuak ere.
- **Mota guztietako beita edo substantzia pozoitsuak**, gasak edota substantzia axfisiagarriak, geldiarazgarriak, lasaigarriak, erakargarriak edo uxagarriak.
- Bi kartutxo baino gehiagoko kargadoreak dituzten arma erdiautomatikoak edo automatikoak. Beraz, kargatutako arma batek, hiru kartutxo eduki ditzake gehienez (bi kartutxo, kargadorean, eta beste bat, errekarararen), eta erabat debekatuta dago kartutxo bat sartzea kargadorearen eta errekarararen artean.

- **Hudoak**, horretarako baimen berezi bat ez bada.
- **Ezin da ehizatu elurra den egunetan**, baldin eta zorua elurrez erabat estalita badago, edo elurragatik ehizakiek beren burua defendatzeko ahalmena urrituta badaukate.
- **Ezta fortuna-egunetan ere**; hau da, hotzagatik edo laino, sute, epizootia, uholde, lehorte edo antzeko arrazoiengatik animaliak beren burua defendatzeko gai ez direnean edota toki jakin batean biltzera behartuta daudenean.
- Lainoagatik, elurteagatik, keagatik edo beste arrazoi batzuegatik **250 metrotik aurrera ondo ikusten ez denean**.
- Ezin da ehizatu oilagorra erronda eta jauzi modalitateetan, ehiza-txakurrik gabe.
- Debekatuta dago baimendu gabeko armak edukitzea, ehizan dihardugun bitartean.
- Debekatuta dago beruna duen munizioa edukitzea ehizan jardutean, baldin eta ehiza hori naturgune babestuetako eta nazioarteko erakundeek babestutako eremuetako hezegune katalogatueta egiten bada.
- Debekatuta dago, halaber, kartutxo erabilien zorroak eta bestelako hondakinak botata uztea; baita ehizakien hondarrak botata uztea ere.
- **Debekatuta dago ibilgailu batean ibiltzea arma zorrotik aterata**, ehizatzea baimenduta dagoen lur baten barruan bada ere.

Debekatuta daude, halaber:

- **Debekualdian edo ehizan aritu ezin daitekeen egunetan edo orduetan** edozein ehiza-lurretan ibiltzea, baimenik gabe, ehiza-armekin, nahiz eta zorroan sartuta eraman armok, edo airez edo bestelako gas konprimituz eragiten zaian **ehiza-armekin**.
- Traktoreetan edota nekazaritzako gainerako makinetan armak garraiatzea, zorroan bada ere, nekazaritza-lanak egitean eta haietara joatean.



“Fortuna-egunek” garai batean horrelakoetan ehizaki asko harrapatzen zelako daukate izen hori. Egun horietako baldintza klimatiko gogorrek oso egoera ahulean jartzen dituzte animaliak, eta, horregatik, debekatuta egoten da ehiza.

- **Usoei beren ohiko urasketan tiro egitea**, edota arauzko markak dituzten uso mezulariei edota kirolariei tiro egitea; baita behar bezala seinalizatuta dagoen usategi industrial batetik 1.000 metro baino gutxiagora ehizatzea ere.
- Postuen artean **armak zorrotik aterata ibiltzea**, paseko usoak eta birgarroak ehizatzean.
- **Gibel-lerroko ehizan jardutea**, dela ehiza larrian, dela zein xehean. Xede horretarako, honako hauek dira gibel-lerroak eta gibel-postuak: hurbileneko eskopeta-lerrotik 500 metrora baino gutxiagora daudenak, ehiza larrian, eta 250 metrora baino gutxiagora daudenak, ehiza xehean.
- Uxaketa bat egiten ari den ehizagunetik **500 metrora baino gutxiagora ehizatzea**.
- **Ehizakiak ikaratzea, beldurtzea, aztoratzea** edo haien berezko joerak aldatzea, edota ehizakiak erakartzea edo izutzea bilatzen duten jarduerak, hala nola lehergailuak, klaxonak, seinale kulunkari nabarmenak, etab. erabiltzea.
- Indarrean dagoen **legedian ezarritako edozein agindu edo muga ez betetzea**.

Gainera, **laboreak babesteko** eta nekazaritzako kalte saihesteko, indarrean den legediak hainbat murrizketa jasotzen ditu ehizarako; esate baterako, ezingo da ehizatu uztia jasotzeko dagoen lurretan.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza-araudiak debekaturik dauka berotegietarantz edota kalteturik gerta daitekeen beste edozein instalaziotarantz tiro egitea; baita ganaduarenganantz edo haren inguruetara tiro egitea ere.

2.8.2.- FLORA, FAUNA ETA ETXKO ANIMALIAK BABESTEAREN AURKAKO DELITUAK

Ehizaren alorreko delituak Zigor Kodean daude jasota; haren IV. Kapituluak, (332 eta 337 bitarteko artikulua) flora, fauna eta etxeko animaliak babestearekin lotutako delituak daude jasota. Hiru artikuluk aipatzen dute ehiza, eta, isun handiak ez ezik, ehiza-baimena bost urterako erretiratzea ere aurreikusten dute; kartzela-zigorrak ere aurreikusten dira, **arriskuan dauden espezieak** ehizatzen dituztenentzat edota haien ugalketa zein migrazioa galarazten dituztenentzat (334. artikulua), ehiza-araubide bereziko ehiza-lur bateko **ehiza-ondareari kalte larriak egiten dizkiotenenentzat** (335. artikulua), edota **baimenik gabe baliabide suntsigarriekin** –pozoia, lehergailuak, etab.– ehizan aritzen direnentzat (336. artikulua).

Era berean, isun handiak eta kartzela-zigorrak aurreikusten ditu **arriskuan diren flora espezieak** eta haien habitatak kaltetzen dituztenentzat (332. artikulua), eta **landare zein animalia espezie ez-autoktonoak** sartzen edota askatzen dituztenentzat (333. artikulua).

337. artikulua hiru hilabete eta urtebete bitarteko kartzela-zigorra aurreikusten du **etxeko animaliak hiltzen edota larri zauritzen dituenarentzat**. Ehiza-txakurren kasuan aplika daiteke hori, jakina.

2.8.3.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Ehizako arau-haustea, 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena, aplikatu behar da.

Legearen VIII. tituluak honako hauek dauzka bere baitan: zaintzari eskainitako kapitulu bat (54. artikulua); arau-hausteei lotutako beste bat (55.etik 57.era bitarteko artikulua); isunei eta zehatzeko prozedurari eskainitako hirugarren bat (58.etik 64.era bitarteko artikulua), eta kalteei eta kalte-ordainei eskainitako laugarren bat (65. eta 66. artikulua).

Ehiza zaintzeaz, hiru kategoriatako pertsonak arduratuko dira: alor honetan eskumena duten foru-aldundietako funtzionarioak; segurtasun-indarrak, eta zaintzaile gisa kontratatutako langileak (zaintzaile partikularrak).

Egun indargabetuta dagoen 4/1989 Legeko arau-hausteen inguruan, oso gutxi hartu dira oso larritzat. Honako hauek nabarmentzen dira: ehiza-lurren edo -aprobetxamenduen titularrak diren pertsonak edo erakundeak epizootien eta zoonosien berri ez ematea, bertan bizi den ehiza-faunari eragiten diotenean, eta haiei aurrea hartzeko edota haien aurka borrokatzeko ematen diren aginduak ez betetzea.

Honela zigortuko dira Legean jasota dauden arau-hauste larriak eta oso larriak: ehiza-baimena baliogabetuta; gainera, hura berriz eskuratzeko, urtebetetik bost urtera bitarteko epea itxaron beharko da, arau-haustearen larritasunaren arabera.

59. artikulua ("zehapen osagarriak") berrikuntza bat du 2. paragrafoan: bi urteren barruan hiru arau-hauste oso larri egiten dituztenek ehizan jarduteko gaitasun-proba gainditu beharko dute berriro, desgaitasun-aldia igaro ondoren.

Artikulu bereko hirugarren paragrafoan zehazten da zer egingo den jasotzen diren legez kanpoko baliabideekin, baina ez da zehazten modu kautelarrean jasotako gainerako ondasunak nora joango diren. Izan ere, haien jomuga eta, hala badagokio, haiek berreskuratzeko mekanismoak era askotakoak izan daitezke: animaliak berreskuratzeko zentroak, administrazioaren biltegi bat edo, maiz, Atzemandako Armetarako Guardia Zibilaren Biltegia.

60. artikuluan, berriz, esku-hartzean agintaritzaren agenteek edo zaintzaile partikularrek har ditzaketen kautela-neurriak arautzen dira. Neurri horiek proportzionaltasun-irizpide batekin hartu behar dira.

Txakurren eta hegazti harraparien kasuan, konfiskatu beharrean fidantza bat jarriko da.

Arau-hausteren bat egiteko erabili badira bakarrik konfiskatuko dira armak. Arma emateari uko egitea delitu izango da.

2/2011 Legeak arau-hauste batean esku hartu duten pertsonen erantzukizun solidarioa zehazten du, bakoitzaren partaidetza-maila zehaztu ezin den kasuetan. Kontuan izan behar da Legean oso larritzat jotako arau-hauste batzuk (esaterako, arriskuan diren espezieak ehizatzea edota baimenik gabe ehiza bizia garraiatzea zein askatzea) 200.001 eta 2.000.000 euro bitarteko isunekin zigortuko direla, baldin eta arau-hausteei eragindako kalteak 100.000 eurotik gorakoak badira. Arau-hausteei lotutako informazio guztia aipatu Legean dago jasota.

Edozein pertsonak, ehiza-elkartek, ehiza-federaziok edota agintaritza-agentek sala ditzake ehizako indarreko araudian egindako arau-hausteei.

Oso arau-hauste larria da ehiza-zorroaren edukia, erabilitako munizioa, ibilgailuaren barnea, atoiak, ehiza-baliabideak eta ehizarekin lotutako ekipamendu osagarriak edo instalazioak erakusteari uko egitea; baita alkoholaren edo drogen kontrolari uko egitea ere. Ehiza zaintzen aritzen diren agintariei edo agentei hesitutako lurretan ez sartzen uztea ere arau-hauste larria da.

2.9.- EHIZAKIAK GARRAIATZEA, MERKATURATZEA ETA KONTSUMITZEA

Estatu mailan, honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta merkatura daitezkeen espezieak (1118/1989 Errege Dekretua, irailaren 15ekoa): erbia, untxia, azeria, basurdea, oreina, orkatza, basahatea, eper gorria, fisaia, pagausoa, txoloma eta galeperra. Merkatura daitezkeen ehiza-espezieak ~~probintzia~~ bakoitzeko debekuen aginduetan ezarritakoak izango dira, eta ezingo da orokorrean edo estatu osoan baimendu gabe dauden espezieak merkaturatzeko baimenik eman. Era berean, baliteke zerrenda hori urte batetik bestera aldatzea. Horregatik, merkatura daitezkeen ehiza espezieen zerrenda ez da beti bera izango hiru lurralde historikoetan.

Kasu ugari gerta daitezke horri dagokionez, eta arau desberdinak aplikatzen zaizkie; hala, ez da gauza bera ehizarako garraiatzea eta merkaturatzea (trofeoak, populazio-berritzeak, ehiza-barruti industrialak, etab.) edo kontsumorako egitea (haragia); ez da gauza bera animalia biziak edo hildako animaliak eta haien zatiak izan daitezen; eta ez da gauza bera debekualdia edo ehiza-garaia izan dadin. Gainera, alde handia dago ehiztariak berak, haren familiak edo lagunarteak kontsumitzeko garraioa izan, edo dirua irabazteko asmoz merkaturatzeko garraioa izan.



Basurdea eta erbia tentu handiz manipulatu behar dira, eta ezinbestekoa da albaitariak azter ditzan, trikinosiaren eta tularemiaren transmisioa saihesteko.

2.9.4.-EHIZA GARAIA HILDAKO EHIZAKIA (KONTSUMORAKO)

Lehenik eta behin, argitu behar da ehizaki-haragia kontsumorako egokia dela bermatzeko ardura haren merkaturatze-prozesuan esku hartzen duten guztiei dagokiela: bai ehiztariari, bai jatetxe batean hura zerbitzatzen duenari, bai hura merkaturatzen duenari.

Arreta berezia eskaini behar zaio **640/2006 Errege Dekretuari, elikagaien higieanean, ekoizpenean eta merkatura-tzean Europar Batasuneko xedapenak aplikatzeko baldintzak zehazten ditu eta**. Nahiz eta testu hori ez zaion aplikatzen ehiztariak berak eta haren familiak edo lagunarteak kontsumitu behar duen ehiza-haragiari, haragi horrek ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak arintzeko, Administrazioak gomendio batzuk ematen ditu ehizatutako ehizakiak manipulatze, eta ohartarazten du komenigarria dela haien haragiari **post mortem albaitari-azterketa bat egitea**; zehazki, trikinosiarena, basurdeei, eta tularemiarena, erbiei.

Gozatu ehizaz, arduraz jokatuta

- Ez kontsumitu ehizarik, albaitariak ikuskatu gabe. Basurdeak trikina kutsa dezake; horregatik, ezinbestekoa da analisi bat egitea.
- Ez manipulatu hilik edo gaixorik dauden edo ohiz kanpoko jokabidea duten animaliak. Eman halakoen berri agintaritzak eskudunari.
- Erabili eskularruak animaliak larrutzean eta haiek ondoren manipulatzeko.
- Erbiak manipulatzeko, eskularruak eta maskarak erabili behar dira. Tularemia kutsa dezake.
- Ez eman errai gordinik txakurrari; gaixotasunak kutsa ditzake.
- Ez edan osasun-kontrolik gabeko urik. Arreta handiz jokatu jantziekin, eta erabili intsektuak uxatzeko produktuak.
- Kapar bat finkatuta daukazula ohartzen bazara, joan osasun-zentro batera, ken diezazuten.
- Basa-animalien haragia behar adina kozinatuta kontsumitu behar da. Haragia izozteak ez du kutsadura-arriskua urritzen.
- Animalia hilak edo lesioak nahiz ezohiko jokabideak dituztenak ikusten baditugu, ehizako eta animalia-osasuneko agintari arduradunei abisatu behar zaie.

Ehiztarien esku da aholku horiei kasu egitea. Hala ere, gauza bat zehaztu behar da: kontuan harturik zein ondorio kaltegarriak izan ditzakeen egoera txarrean dagoen haragia kontsumitzeak giza osasunerako, elikagai-higie-neko neurri horiek ez hartzea zabarkeriatzat har liteke, eta erantzukizun-falta horretatik datozen ondorioei aurre egin beharko zaie gero.

2.10.- BESTE ALDERDI INTERESGARRI BATZUK

2.10.1-ORDEZKARITZA

Lurraldeko ehiza batzordeen bitartez dago legez ezarrita ehiztariak lurralde historiko bakoitzeko ehiza-administrazioarekin harremanak izateko ordezkaritza. Batzordeak kontsulta organoak dira, eta ehiza alorreko organo eskudunei aholkularitza ematea eta proposamenak egitea dituzte eginkizun nagusiak. Oro har, batzordeok urtean behin biltzen dira.

2.10.2.- TROFEOAK HOMOLOGATZEA

Honako hauek **hartzen dira ehiza-trofeotzat**:

- **Garezurrari edo garezurraren zati bati atxikitako adarrak:** oreinarenak, orkatzarenak, basahuntzarenak, sarrioarenak, mufloiarenak edota amotraguarenak.
- **Basurdearen zorroztaginak eta letaginak.**
- **Otsoaren garezur osoa** (jakina, animalia ehiza espeziea den tokian).

EuEuskal Autonomia Erkidegoko 2/2011 Ehizaren Legearen aurretik, Ehiza Trofeoak Homologatzeko Espainiako Batzordeak homologatzen zituen. Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza-trofeoak homologatzeko batzordearen 2013ko uztailaren 2ko 369/2013 Dekretuak ezartzen ditu batzordearen eraketa eta funtzioak eta baita ehiza-trofeoak homologatzeko prozedura eta baldintzak ere. Hala ere, trofeoen balioa neurtzean estatuko sailkapenean lehenengoen artean daudela aurreikusten direnak ehiza-trofeoak homologatzeko batzorde nazionalera bidaliko dira, haien puntuazioa egiaztatuz.

Homologazio-formulak bat datoz Ehizaren Nazioarteko Batzordearekin (CIC). Ziurtagirietan, honako hauek jasoko dira: eskualdea, ehizakia bota zen tokia eta eguna, homologazioaren eguna eta lortutako puntuazioa. Alderdi guztietan legezkoa den ehizaldi batean harrapatutako animalien trofeoak bakarrik homologa daitezke. Inola ere ez dira homologatuko ezohiko trofeoak, neurtzekoa den zatiren bat aldatuta daukatenak eta jatorria egiaztatu ezin zaienak. Ez dira homologatuko, orobat, zerbidoen trofeoak eta bertakotuta dauden otsoen burezurak, eta ezta sei urte baino gutxiagoko sarrioen trofeoak.



Orkatzaren, basurdearen eta otsoaren trofeo homologagarriak.



EHIZAREN LIBURUA

3. KAPITULUA

EHIZA ANTOLAMENDUA



Ehiza-antolamendua tresna egoki eta onuragarri bat bezala ikusi behar da, bai espezieentzat, bai ehizan jardun behar den lurretarako.

3.- EHIZA-ANTOLAMENDUA

Gaur egun ehiztaria izateko, duela 20 edo 30 urte eskas ehizan hasitako ehiztariak zutena baino zaletasun handiagoa izan behar dela esan dezakegu. Dagoeneko ohikoak ditugu sasoi haietako eper, erbi edo oilagorren oparotasunari buruz eginiko gogoetak. Ehiza larriko ehiztariak dira nostalgia topiko horretatik at geratzen diren bakarrak; izan ere, gure aurreko arbasoek ez zuten inondik ere ezagutu gaur egun diren basurde, orkatz eta oreinen ugaritasuna.

Arrazoi bat baino gehiago aurki dezakegu ehiza xehearren beherakada azaltzeko: pestizidak, suteak, harrapariak, isileko ehiza, etab. Inork ez du ahaztu behar, ezta ere, 1960an 300.000 inguru ehiza-baimen inguru zirela Estatu osoan, eta 90eko hamarkadaren hasieran, berriz, milioi eta erdi inguru zeudela. Baina guztiok onartzen dugu gauza bat: ezin daiteke jardun edozein modutan ehizan.

3.1.- POPULAZIOEN FUNTZIONAMENDUA

Ehiza-espezieek gorabehera ugari izaten dituzte urtean zehar, eta horien **heriotza-tasaren** beste faktore bat da ehiza, espezie horien kudeaketaren egoera orokorrean ulertu beharrekoa. Urteko ekoizpenaren eta urteko galeraren arteko oreka bermatzea da oinarrizko helburua.

Espezieek urtetik urtera izan dezaketen populazio-hazkundearen eragilea **ugaltze-arrakasta** da. Halaber, ugaltzaileen kopuruak eta hazkuntza-baldintzek baldintzatzen dute umealdi horien nolakotasuna, hala nola janaria lortzeko aukeak, eguraldiak, ugalketarako leku egokiak izateak, amen adinak eta gorpuzkerak, harraparitzak, gaixotasunak, eta abarrek. Azken bi arrazoi horiek espezieetako ale gazte eta ahulenei eragiten diete, eta, kopuru normaletan gertatzen badira, ekosistemen prozesu naturalaren parte dira, eta oso baliagarriak, ale onenen “hautespen naturala” egiteko.

Immigrazioa eta emigrazioa garrantzia handirik gabeko faktoreak dira espezie sedentarioen urteko kopuru-aldaketari dagokionez. Hala ere, ohikoa da ale gazteenak eta ugaltze adinean sartutakoak sakabanatzea (jaiolekuak uztea), eta, horren bidez, askotan, animalia lurraldekoien bajak orekatzen dira.

Urteko galerei dagokionez, hauek dira **espezieen populazio-galerak eragiten dituzten faktore nagusiak**:

- **Harraparitza**: harrapakinaren kopuruari egokitzen zaio harraparien populazioa, eta ez da arrisku handia harrapakinentzat, haien arteko ale ahulenei eta eskuragarrienei (gazteak, ahulak, gaixoak edo zaharrak) eragiten baitie.

- **Ehiza:** ez bada ehizak populazioen gain egindako presioa kalkulatzeko eta kontrolatzeko, arriskua izan daitezke.
- **Gaixotasunak:** bereziki arriskutsuak dira erraz kutsatzen eta heriotza-tasa handiak eragiten dituzten patologia infekzioso larriak; esaterako, untxien mixomatosis eta pneumonia hemorragiko birikoa.
- **Pozoia:** nekazaritzarako erabiltzen diren zenbait produktu kimiko oso arriskutsuak dira dosi jakin batzuetan; ez badira behar bezala erabiltzen, heriotza ugari eragin ditzakete tokian-tokian.
- **Eguraldia:** espezieak beren bizilekuko klimara egokituta daude, eta aparteko egoerek (hotz-bolada, elurte, uholde, lehorte, etab.) soilik eragiten die haien biziraupenari.
- **Emigrazioa:** hegazti migratzaileetan izan ezik, ez da espezieen kopuruan eragin handia duen faktorea, eta ale gazteen eta ugaltze-adinean sartutako aleen sakabanatze-prozesuekin lotuta dago.


Eper populazio baten urteko bilakaera

Ehiza amaitutakoan diren aleak	100		
Negua amaitutakoan diren aleak	70	30	
Ugalketaren ondorengo ale teorikoak	70		300
Ugalketaren ondorengo aleak	170		200
Debekualdia bukatutakoan dauden aleak	140	30	
Ehiza garaia	100	40	

Eper populazioaren dinamikaren eredu logiko baten adibidea:

Ehiza-barrutian ehiza-garaia amaitutakoan 100 eper gelditu direla suposatzen da. 100 horietatik 30 neguan hil edo desagertu egiten dira. Teorikaz, ar eta emeen kopurua berdina bada (zaila), udaberria datorrenean bizirik dauden 70 eper horiek 35 bikote sortzen dute (hori ere zaila da), 35 habi egingo dituzte eta 300 arrautza edo txita aterako dira. Hala eta guztiz ere, harrapakaritza, egurialdia eta abarrekokoak direla eta arrautza eta txita asko galdu edo hil egiten dira, arrautza produkzioaren bi heren gutxi gorabehera (200); hortaz, ugalketaren ondoren, 170 geldituko lirateke. Ondoren, ehiza-garaia hasi aurretik, harrapakarien, gaixotasunen eta abarrekoen eraginez beste 30 eper hilko lirateke. Horrela, bada, ehiza garaia hasterakoan 140 eper izango genituzke. Negua amaitutakoan zikloak aurrera egiteko nahiko eper izatea nahi badugu, urte horretarako ehiza-planak 40 eperreko kuota ezarri beharko luke.





Antzarek eratu ohi duten ohiko formazioa.

3.1.1.- MIGRAZIOA

Migrazioa animalia batzuek erabiltzen duten estrategia bat da. Estrategia horren barruan, joan-etorriko bidaiak egiten dituzte, urte-sasoaren arabera, elikadura- eta eguraldi-baldintza onuragarrienak dituzten lekuetara. Hegaztiek egiten dituzte migrazio ezagunenak, baina badira beste espezie migratzaile batzuk ere; esaterako, ugaztun handiak (elur-oreinak, altzeak, Afrikako sabanako belarjalek, fokak, etab.), arrainak (izokinak, sardinak, antxoak, hegaluzeak, aingirak, etab.), saguzarrak eta intsektuak (tximeleta-mota batzuk).

Inguruko hegaztiek egindako migrazioaren helburua, beraz, goi-latitudeko eta latitude ertaineko lurren urte-sasoi emankorrenak aprobetxatzea da. Horrenbestez, hegazti migratzaileak udaberrian eta udan ugaltzen dira, urte-sasoi horietan izaten baita baliabide gehien ingurunean. Horrela jokatuta, hobeak dira ugalketa-jardueren emaitzak. Hazkuntza-garaia amaitzean, izkin egiten diote negu gorriari, eta hegoalderantz jotzen dute, baliabide gehiagoko leku beroagoetara. Hala ere, bidaiatzeko erabaki zentzudun horrek badu eragozpen bat: migrazioak ahalegin fisiko handia eskatzen du, eta horrek heriotza-tasa handiak eragiten ditu. Estrategia hori gorabehera, espezie migratzaileen berritze-tasa (ugalkortasun-tasa) sedentarioena baino handiagoa da.

Bi multzotan bana ditzakegu Europan ugaltzen diren hegazti migratzaileak, negua non igarotzen duten aintzat hartuta: "Saharaz aurrekoak" (ibilbide laburrekoak) eta "Saharaz haraindikoak" (ibilbide luzeak).

- **Saharaz aurreko hegazti migratzaileak:** Erdialdeko eta Iparraldeko Europan ugaltzen dira, eta Sahara basamortua baino gora-goko lurraldeetan igarotzen dute negua (Mediterraneo inguruan, batik bat), eta, ondorioz, gure lurraldean izaten dira ehiza-garaian. Horien arteak ditugu oilagorrak, pagausoak, birigarroak, anatidoak (ahateak), hegaberak, eta ehizatzeak ez diren beste espezie ugari. Badira espezie horietako batzuetako ale sedentarioak Iberiar penintsulan, eta horien populazioa handitu egiten da migrazioetatik etorritako aleekin. Europan egiten duen neguaren gogortasunak erabakiko du etorriko diren aleen kopurua. Urri-azaro inguruan joaten dira negutokietara, eta otsail-martxo inguruan itzultzen, berriaz, umeak hazteko tokietara.



Ehiza hegaztien migrazioa.

- **Saharaz haraindiko hegazti migratzaileak:** Europa osoan izaten eta hazten dituzte umeak, eta espezie gehienek Afrika erdian igarotzen dute negua, Sahara basamortutik hegoaldera. Debekualdi erdiko espezie nagusiak aurki ditzakegu horien artean; esaterako, galeperra eta usapal arrunta, baita txori intsektujale ugari ere, janari faltagatik gure lurraldetik joan beharra dutenak (enarak, sorbeltzak, etab.). Lehen multzokoak baino lehenago joaten zaizkigu, abuztu-irail aldera; baina geroago etortzen dira, apiril-maiatza inguruan iristen baitira umeak hazteko eremuetara.

3.2.- EHIZA ALDIAK

Autonomia-erkidegoek urtero argitaratzen dituzte beren aldizkari ofizialetan urteko ehiza-aginduak, debekualdi-aginduak edo debekualdi-agindu nagusiak izenekoak (horien izendapena aldatu egiten da lurraldetik lurraldera). Arau horiek foru-aldundiek ematen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horien egitekoa ehiza nola egingo den arautzea da. Antolamendu hori lurralde eta epe jakin baterako izaten da, eta ehiza daitezkeen espezieak, baimendutako ehiza-modalitateak eta -eremuak eta ehizarako baimendutako epeak zehazten ditu.

Zergatik ehizatu behar da epe jakin batzuetan? Eta zergatik aldatzen dira epe horiek espeziearen arabera? Bi arrazoi daude ehiza espezieak ehizatzeo aukera hil gutxi batzuetara mugatzeko: lehen arrazoia ehiza-populazioen gehiegizko aprobetxamendua egitea galaraztea da, eta bigarren arrazoia, eta nagusia, espezieen jokabidea eta bizi-zikloa errespetatzea, ez baitira berdinak espezie guztietan. Hegazti batzuk sedentarioak dira, eta beste batzuk, berriz, migratzaileak. Espezie migratzaileetako batzuek udaberrian izaten dituzte kumeak gure lurraldean; beste batzuk, berriz, neguan etortzen zaizkigu, eta, azkenik, beste batzuk oso noizbehinka ikusten ditugu, igarotzean. Ugaztun guztiek, halaber, ez dituzte ezaugarri biologiko berdinak, zikloi dagokienez (araldiak, adajea erortzea ala ez erortzea, kume kopurua, etab.). Hori guztia irudikatzeko, untxiek eta basurdeek izan ditzaketen desberdintasunei begiratzea besterik ez dugu, edo azeriek eta oreinek dituztenei.

Penintsula mailan, zenbait ehiza-aldi bereizten dira:

	Ehiza aldian		Baimendutako ehiza aldia (hilak)
Ehiza xehea	Denboraldi edo debeku-altxaldi orokorra		Udazkena-negua: urr., aza., aben., urtarr.
	Udako denboraldia edo debekualdi erdia		Uda: abuzt.-irail.
	Denboraldi bereziak	Pasea	Udazken hasiera: irail.-urr.-aza.
		Eperra apezuz	Negu amaiera: ots.-martx.
		Untxiaren deskastea	Uda: ekain.-uzt.-abuzt.
Ehiza larria	Denboraldi edo debeku-altxaldi orokorra		Udazkena-negua: irail.-urr.-aza.-aben.-urtarr.-ots.
	Arretarako zelata-ehizako denboraldia (Orkatza, Sarrioa, Basahuntza)		Udaberria-uda hasiera: Martx.-apir.-maiatz.-ekain.-uzt.
	Denboraldi bereziak	Oreinareen marrualdia	Uda amaiera-udazken hasiera: irail.-urr.
		Adarabalaren orroaldia	Udazken hasiera urr.-aza.
		Basurdea, zelatan	Urte guztian (mugatua udaberrian)
		Otsoa kontrolatzea	Urte guztian (mugatua udaberrian)



Oro har, debekatuta dago espezieen ugaltze- eta hazkunde-garaian ehizatzea. Denbora-epe horiei debekualdi esaten zaie, eta horien helburua basa-faunako espezieei ahalik eta kalte gutxien eragitea da. Ondorioz, debekualdi horietan ezin da ehizatu, eta ezin da mendia txakurrek lagunduta "miatu", jarduera horrek errunaldiak, txitak eta kumeak kalte baititzake. Debekualdiak, gainera, landatutakoa hazi eta heldu bitarteko garaian izaten dira, eta ez da komeni horietan sartzea uzta bildu arte.

Hala ere, salbuespenez, badago debekualdian ehizatzeo aukera, baldin eta "neurrizko" ehiza modalitateak erabiltzen baditugu; esaterako, zelatako ehiza, edo pagauso-ehiza, zeina postu finkoetatik egiten den «pase-garaian». Bada zenbait espezie (basurdea, azeria, otsoa, untxia, etab.) kontrolatzeko aukera ere, haien kalteak saihesteko edo murrizteko. Baina udan untxiaren deskastea egiten duten lekuetan ere, debekatuta dago txakurrak abutzua baino lehenago erabiltzea.

Ehiza xeheko denboraldia edo debeku-altxaldi orokorra udazkeneko hiru hiletan eta negu-hasieran izaten da. Espezieen hazkuntza osatzeko debekatzen da urria baino lehenago ehizatzea, eta urtariletik aurrera, berriz, neguan espezieei traba ez egiteko eta haiek ez ahultzeko. Gainera, neguaren bigarren zatian izaten da zenbait espezieen – eper gorria, esaterako – araldia, eta untxi eta erbi ugari kumeak egiteko izaten dira sasoi horretan. Neguaren bigarren erdian itzultzen dira, halaber, hegazti migratzaileak beren ugaltokietara. Sasoi horri "kontrapasa" deitzen zaio; orduan, ugaltu ondorengo migrazioetik eta negutik bizirik irtendako aleak Erdialdeko eta Iparraldeko Europarantz joaten dira ugaltzera, eta debekatuta dago haiek ehizatzea.

Bada salbuespenik ere, hala nola debekualdi erdia: hilabeteko epea izaten da, udan, batik bat galeperrak eta usapalak ehizatzeo. Bi espezie horiek Saharaz haraindiko migrazioak egiten dituzten ehiza-hegaztiak dira; udaberrian etortzen dira Iberiar penintsulara kumeak izan eta haztera, eta uda-amaieran joaten dira berriz ere Afrikako basamortu horretatik behealderantz. Horregatik, zaila da espezie horiek aurkitzea ehiza-denboraldi orokorrean.

Ehiza larriko denboraldi edo debeku-altxaldi orokorrak ehiza xeheko denboraldiak baino hilabete gehiago irauten du; izan ere, hamabost egun lehenago hasten da, irail-amaieran edo urri-hasieran, eta hamabost egun geroago amaitzen, otsailaren erdira edo amaiera aldera. Horren arrazoia aurrekoaren antzekoa da: alde batetik, espezieetako ale gazteak behar bezala haztea eta ehiza-txakurrek heldu gabe dauden aleak ez harrapatzea, eta, bestetik, kalterik ez eragitea neguaren bigarren zatian eta ugaltze- eta hazkunde-garaian. Horrez gain, kontuan izan behar da oreinei eta adarabalei adajea (trofeoa) erortzen zaiela negu-amaieran.

Goian adierazitako ehiza-denboraldiari dagokionez, esan daiteke espezie batzuk (basurdea, oreina, adarabala, mufloia eta otsoa) uxaldian eta monterian ehizatzeo soilik baimentzen dela; izan ere, orkatza ehizatzeo garaia urrian amaitzen da, haiei adajea erortzeko garaia iritsi baino zertxobait lehenago. Sarrioaren eta basahuntzaren ehiza, berriz, animalia aukeratu batzuk (trofeoak ez, normalean) zelata-ehizan ehizatzea mugatzen da, udazken-neguetako sasoi horretan.

Irailaren erdialdetik urriaren erdialdera, trofeoko orein arren ehiza baimenduta dago zenbait tokitan, animalia araldian edo marrualdian. Ehiza-aldi hori adarabalarenaren araldiaren edo orroaldiaren antzekoa da, eta oreinaren araldia amaitutakoan hasten da.

Ehiza-aldi bat baimentzen da udaberrian eta udan, orkatza, sarrioa eta basahuntza ehizatzeo. Ehiza-aldi horretan, arrak soilik ehiza daitezke, zelata-ehizako modalitatean. Orkatza ehizatzeo denboraldia udaberriaren hasieran hasten da –ordurako, osatuta du adarra, eta galdua, berriz, haren azala–, eta araldia hastean amaitzen (uztaila eta abutzua bitartean). Sarrioa ehizatzeo denboraldia ekainean hasten da –gailurretako elurak urtu eta animaliak erditu ondoren–, eta basahuntza ehizatzeo denboraldia, berriz, negua igaro ondoren..



Ehiza-egutegia

	URT		OTS		MAR		API		MAI		EKA		UZT		ABU		IRA		URR		AZA		ABE	
Antzara hankagorritzta																								
Anatidoak																								
Kopetazuri arrunta																								
Istingorrak																								
Hegabera																								
Oilagorra																								
Eper gorria			Apeua																					
Galeperra																								
Faisaia																								
Pagausoa																								
Txoloma																								
Haitz usoa																								
Usapala																								
Birigarroak																								
Korbidoak																								
Erbiak	E	E	E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A	A	A	A	A	A	A-E	E	E	E
Untxia	A	A	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	A-E	Deskastea								A	A	A	A	A
Azeria	A	A	A	A	E	E	E	E																A
Otsoa	A	A	A	A	A	A	E	E	E	E	E													A
Basurdea	A	A		E	E	E	E	E	E	E									A	A	A	A	A	A
Oreina				D	D	D	D		E	E	E		T	T	T		A		Marrua	A				
Adarزابala					D	D	D	D	E	E	E	E		T	T	T			A		Orroa	A		
Orkatza					T	T	T		E	E	E			A	A	A				D	D	D		
Sarria								E	E	E	E									A	A	A		
Basahuntza							E	E	E	E	E										A	A	A	
Mufloia	A						E	E	E	E											A	A	A	
Amotragua					E	E	E	E										A	A	A	A			
	URT		OTS		MAR		API		MAI		EKA		UZT		ABU		IRA		URR		AZA		ABE	



Debeku-altxaldi orokorra



Debekualdi erdia



Beste ehiza aldi batzuk

A Araldia
E ErditzeaD Zerbidoen adar-galtzea
T Trofeoa (adajea) guztiz garatua, azala galduta



3.3.- ZERTARAKO ANTOLATU BEHAR DA EHIZA?

Ehizatzea naturako baliabideak (ehiza-fauna) erabiltzea da. Baliabide horiek naturan daude, eta, horrenbestez, lotura handia dute ekosistemaren gainerako osagaiekin; esate baterako, beste animalia batzuekin, landareekin, inguruaren beste erabilera batzuekin, eta abarrekin.

Beharrezkoa da ehiztariak hau izatea gogoan: eperrak, erbiak, oilagorrak eta basurdeak gogoko ehizakiak dira ehiztarietzat, baina, espezie horiek, berez, eta ehizarako duten balioa alde batera utzita, ezinbestekoak dira naturaren prozesuek beren bidea egin dezaten. Ehizaren plangintza oinarritzko baldintza horretatik abiatzen da, eta ondoko egiteko hauek ditu helburu:

- **Ehiza iraunkorra edo neurrizkoa ziurtatzea**, hau da, irizpide sendoak ezartzea gaur egungo ehiza-jarduerak geroa hipotekatu ez dezan edo, beste era batera esanda, gure ondokoek zer ehizaturik izan dezaten.
- **Ehizaren antolamendu desegokiak aberastasun ekologikoari** –hau da, ehiza espezieei nahiz naturako gainerako elementuei– eragiten dizkien kalteei aurre egitea.
- **Ehiza eta lurraldeen gainerako erabilerak** (nekazaritza, abeltzaintza, mendi-ibilaldiak, ingurumeneko heziketa, etab.) bateragarri bihurtzea edo, behintzat, elkarren eragozle izan ez daitezen lortzea.
- **Ehiza naturako baliabideen beste kudeaketa-jarduera bat izan dadin ahalegintzea.**

Asmo horiek guztiak betetzeko bitarteko nagusia ehiza-planak dira. Ehiza-plan horiek estatuko eta autonomia-erkidegoetako araudietan beste izen bat har dezakete (ehizarako plan, plan tekniko...), baina denek antzeko helburuak dituzte. Euskadin, ehiza-antolamendurako plan teknikoak (EAPT) deitzen zaie plan horiei. Horiexek zuzentzen dute ehiza-aprobetxamendua barrutietan eta zainpeko ehiza-eremuetan, biodibertsitatea eta ehiza-baliabideen iraunkortasuna bermatzeko. EAPTek 5 urteko indarraldia dute; langile tekniko adituek egiten dituzte, eta dagokion foru-aldundiak onartu behar ditu. Haietan, aztertzen da, beste beste, zer egoera duten animalia-populazioek lur bakoitzean, eta, horren ondorioz, haiek aprobetxatzeko baldintzak ezartzen dira.

EAEan, EAPTez gainera, ehiza-antolamenduko plan bat duen lur bakoitzaren Ehiza Jarraipeneko Planak egingo dira urtero.

Plan horiek betetzea derrigorrezkoa dela alde batera utzita, adierazi ditugun helburuak lortzeko ezinbestekoak direla ulertu behar du ehiztariak; besteak beste, lehen esan bezala, gure ondorengoek ere ehizatzeko aukera izan dezaten.

3.4.- NOLA EGITEN DA EHIZA PLAN BAT?

Ehiza-plan bat egiteko orduan, hiru aldi bereiz daitezke: inbentarioa, planifikazioa eta jarraipena.

- A. Inbentarioa:** oro har, aztergai dugun espeziearen ale kopuruari eta bizi den ingurunearen kalitateari buruzko ahalik eta informaziorik zehatzena jasotzen da.
- B. Plangintza:** animaliak harrapatzeko plan bat ezartzea du helburu, kontserbazioaren eta aprobetxamenduaren arteko konpromisoa atxiki ahal izateko; bestalde, ingurunea eta kudeaketa hobetzeko beharrezko neurri guztiak ezartzen dira, nahi diren helburuak lortzeko.
- C. Jarraipena:** animalien populazioen eta harrapaketa kopuruen bilakaera zein izan den jakitea du helburu, bai eta egindako hobekuntzen emaitzak ezagutzea ere, eta, horren ondoren, emaitzei erreparatuta, kudeaketan aldatu beharrekoa finka daiteke.

EAPTek eta jarraipen-planek profesional tekniko baten laguntza behar dute. Alabaina, plangintzak alferrikakoak dira, ehiztariak ez badituzte benetan aintzat hartzen. Ehiztariak egitekoak asko eta askotarikoak dira; batzuetan, ezinbestekoak: erroldak egitea, ehizaldien jarraipena, ehiza-planaren aplikazioa, etab. Ehiztariak inguruneari buruz duten ezagutza (habitatik gogokoenak, kopuruen azken bilakaera, etab.) oso informazio-iturri garrantzitsua izaten da balioespen teknikoak osatzeko.

Azkenik, zaindaria ere gero eta garrantzitsuagoak dira ehiza-planak prestatzeko eta betearazterako, bai eta emaitzen jarraipena egiteko ere. Ingurumen-kudeaketari buruzko berariazko prestakuntza bat izatea lagungarri gertatuko da zaintza-lan hutsa gainditzeko, eta zaindaria izango da ehizaren kudeaketa moderno baten funtsezko osagaietako bat.

3.4.1.- A FASEA.- INBENTARIOA

A.1.- Nola jakin zenbat ehiza dagoen?

Ehiztariak eta kudeatzaileek ezinbestekoa dute jakitea zenbat buruk edo alek osatzen dituzten ehizatzeak diren animalien populazioak, espezieak gordetzeko eta iraunarazteko beharrezkoak diren aprobetxamendu-planak egiteko.

Errolda fidagarria egin ahal izateko, bate-tik, aurretik lana egoki taxutu behar da, eta, bestetik, aztertuko den ingurua eta erroldatu beharreko espeziearen jokaera ondo ezagutu. Animaliak toki batetik bestera ibiltzen dira, eta, gehienetan, ezkutuan; eta animalien kopuruek gorabeherak izaten dituzte urte-sasoien eta habitaten arabera. Animaliei buruzko azterketak egiteko, honako hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: inguruko landaretza nolakoa den; zer eguraldi dagoen; eguneko zein ordutan ari garen, eta animaliak zenbatzen ari diren pertsonen gaitasuna. Hortaz, lana behar bezala egiteko, ez da nahikoa "ibilal-ditxo bat egitea", geure eskarmentuak esaten digunari erreparatzea edota beste batzuek esandakoa sinestea.



Interesgarria da ehiztariak ere antolamenduaren fase guztietan parte hartzea, inbentariotik (erroldak) jarraipenera arte.

Erlatiboak deitzen zaien errolda-metodoren bat aukera daiteke, esate baterako: erroldatu beharreko eremuaren sektorerik adierazgarrienak aztertzen dira, eta, gero, datu horiek eremuaren osotasunera estrapolatzen. Halaber, azterketak errepikatzea, batez besteko kopuruak lortzeko, eta metodo bat baino gehiago erabiltzea ere estrategia interesgarriak dira. Are behatzeko zailak diren espezieetan ere, animalia horiek utzitako aztarnak (arrastoak, gorotzak, etab.) erabil daitezke, gutxi gorabehera zenbat ale dauden jakiteko.

Ehizaldiak ere oso argigarriak izaten dira kopuruak zehazteko; datuak biltzeko metodo egokia izanez gero, betiere. Zenbait ehiza modalitate –esate baterako, basurde-uxaldia– oso egokiak dira datu demografikoak jasotzeko; dena den, ehizaldi guztiak zaizkigu baliagarri informazioa eskuratzeko.

A.2.- Zer egin dezake ehiztariak ehiza erakuskariak jasotzen laguntzeko?

Ehiztariak oso era aktiboan har dezakete parte ehiza-erroldetan, baina, batez ere, garrantzitsua da laguntzeko gogoia izan dezaten, eta oso modu errazean lagun dezakete: beren ehizaldiei buruz ahal duten informazio guztia emanaz. Horri dagokionez, maiz halako mesfidantza bat izaten da ehiza-jardueretako datuak eskaintzeko. Ehizatutakoaren berri ematea ehiza-jarduera zaintzeko eta kontrolatzeko bakarrik egiten dela pentsatzea oso ikuspegi murrizta da, bestelakoa izan behar baitu ehiztarien eta ehiza-kudeatzaileen arteko harremanak, ehiza modernoaren eta haren iraunkortasunaren artekoak.

Ehizatutako animalia bakoitzak informazio aparta eta paregabea eskaintzen du dagokion populazioari buruz: adinak, sexuak, ugaritasuna, osasun-egoera, etab. oso datu garrantzitsuak dira, eta ehiztariak bost minutuan betetzen dituen ehiza-fitxa batzuen bidez bil ditzake horiek, ehiza-eguna amaitutakoan.

Ehiztari eta talde bakoitzak bere ezaugarrietara egoki ditzake ehiza-fitxak, ehizaldi bakoitzerako. Ehiza-denboraldia amaitzean, ehiza-fitxak talde-koordinatzaile bati, ehiza-barrutiko koordinatzaile bati edo teknikari bati ematea besterik ez da egin behar. Egoera batzuetan, interesgarriagoa litzateke arlo edo ehiza-barruti jakin batean (esaterako, basurde-

ehizaldietan) diharduten ehiztari guztiek aldian fitxa bakarra betetzea, eta, gero, zaindariak edo ehiztari taldearen arduradunak informazio hori jasotzea

Adierazitako fitxa horiek era askotakoak izan daitezke, baina laburrenak izaten dira erabilgarrienak; esaterako, informazio hau jasotzen dutenak:

- Eguna
- Ehizaldia non izan den
- Zenbat ehiztari eta txakur izan den
- Zer ehiza modalitate erabili den
- Ehizaldiak zenbat iraun duen
- Zenbat animalia ikusi diren
- Zenbat animalia harrapatu diren
- Zer habitatan egin den ehiza (basoa, larrea, soroa, etab.)

Oinarrizko datu horiez gain, ehiztariak beste datu garrantzitsu batzuk jakinaraz ditzakete, baina, horretarako, ahalegin eta ezagutza handiagoa izan behar dute. Datu horien artean ditugu, besteak beste, harrapatutako animalien sexuari eta adinari buruzko informazioa, eta ikusitako beste ehiza espezie batzuei buruzkoa. Hori da, hain zuzen, ehiztari modernoek ezaugarria: espezieei eta haien ezaugarri biologikoei buruz gehiago jakiteko grina izatea eta XXI. mendeko ehizatze moduarekiko konpromisoa izatea.

A.3.- Zergatik da garrantzitsua habitata?

Ehiza-espezie bat bizi den **ingurunearen kalitateak** baldintzatzen du espezie horrek izango duen ale kopurua eta, beraz, baita espezie hori harrapatze aukera ere.

Ehiza xeheko gune nagusiak, labur esanda, bitan bana daitezke: batetik, nekazaritzako eremuetan kokatutakoak daude, eta, bestetik, sastrakadi edo zuhaitzetan kokatutakoak. Lehenengoak, oro har, lur lauak izaten dira, eta neka-



zaritza-lanak ehizakiak bertan izan ditzakeen baliabideak baldintzatzen ditu (janaria, landare-estaldura...). Bigarrenak malkartsuak izaten dira; hor, nekazaritza bigarren mailako jardura izaten da, eta abeltzaintza eta basogintza dira nagusi.

Ehiza xeheko espezie gehienak ondo egokitzen dira nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuetara, baldin eta ustiapen intentsibokoak ez badira. Eperrek, galeperrek edota erbiek janari ugari izaten dute lur-soroetan eta, oro har, ongi moldatzen dira gizakiak bizi diren tokietan. Giza jardueraren pentzura bizi ez diren espezieek ere, hala nola oila-

gorrak edo birigarroak, beren beharretako batzuk asetzeko baldintza egokiak aurkitzen dituzte gizakiak moldatutako hainbat ingurutan: oilagorrek, zizarek betetako larreak; birigarroak, landazabaletako sailak mugatzeko jarritako heskaiak (landare biziz egindako hesiak); eta abar.

Ehizaren eta nekazaritzaren arteko auzia nekazaritza intentsiboarekin batera sortutakoa da; izan ere, nekazaritza mota horrek deuseztatu egiten ditu nekazaritza tradizionalari ehizarako balioa ematen zioten ezaugarriak: urritu egin dira landu gabeko lur-eremuak, mugak, heskaiak eta hazkuntza moteleko landareak; halaber, ugaritu egin dira pestizidak, makineria, etab.

Illo horretan, sasiak eta zuhaitzak nagusi diren eremuen balioa, ehiza xeheari dagokionez, bertako ustiapenen intentsitatearen arabera izaten da. Ingururik egokiak ustiapen estentsiboko tokiak dira, hau da, eremu berean paisaia mota ezberdinak, mosaikoen antzera, biltzen dituztenak. Landutako lur-eremu txikiak, zuhaixkaz inguratutakoak eta



abereek larratzean garbitutako sasitzak dituztenak dira, seguruenik, eperrentzako, erbientzako eta untxientzako ingururik egokienak.

Paisaia-mota horretan izan daitezkeen arazoak elkarren artean kontrajarrita dauden bi gertaeratan dute sorburua. Batetik, oso antzekoak izaten dira nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ustiapenak ugaritu dituzten eskualdeetan sortutako arazoak eta nekazaritza-eskualdeetan sortutakoak. Baina mendiko aprobetxamendu tradizionalak bertan behera uzteak ere ondorio oso kaltegarriak ditu ehizaren aberastasunerako: landare-estaldura handitzea eta sasi-aniztasuna urritzea, landatutako partzelak desagertzea, etab.

Gaur egun, ehiza larriko espezieek ez daukate, oro har, ehiza xeherako laburbildu ditugun habitat-arazoak. Goi-mendialdeetako harkaiztietan bizi diren ehiza-espezieei (basahuntza, sarria) oso onuragarri zaie halako inguruneen egonkortasuna. Bestalde, basoko espezie ugarien eta zabalduenak (basurdea, orkatza, oreina) oso ondo egokitu dira mendi ertainetako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren gainbeherak sortutako egoera berrira. Aitzitik, prozesu horrek berak oso eragin kaltegarria izan du ehiza xeheko espezieengan.

Egoera onuragarri horretan, jakina, badira espezie horientzat kaltegarri gertatzen diren ingurumen-gabezia batzuk ere. Esate baterako, ugaritzen ari diren espezieetan, animalia kopurua inguru horrek har dezakeena baino handiagoa bada, basoko habitataren kalitatea urritu egiten da; horren ondorioz, ehizako trofeo txarragoak eskuratzen dira, eta areagotu egiten, berriz, animalia horiek zuhaitzietan, belardietan eta soroetan eginiko kalteak.

3.4.2.- B FASEA. PLANGINTZA

B.1.- Nola jakin zenbat animalia harrapatu?

Ehiza-plangintza modernoak ahalik eta aurreikuspenik zehatzenak egin behar ditu, denboraldi bakoitzean ehizatu beharreko animalia kopurua kalkulatzeko. Kalkulu hori egiteko, informazio hau bildu behar da: hildakoen kopurua, jaiotza kopurua, ugaltzaile kopurua eta ehiza-denboraldia hasi baino lehenagoko kopuruak. Datu horietako batzuk berariaz tokian bertan bildu beharrekoak dira; beste batzuk, berriz, beste iturri batzuetatik (beste antolamendu-lan batzuk, azterlanak, etab.) eskura daitezke.

Kalkulua egiteko sistema gorabehera, gure helburua gaur egungo dentsitatea edo animalia kopurua atxikitzea bada, arau nagusi bat bete behar da: jaiotzen eta heriotzen arteko aldea da urtero ehiza daitekeen kopurua.

- **Ehiza xeheari dagokionez**, ugaltze-emankortasunaren mende da, zuzenean, urtean ehiza daitekeen animalia kopurua. Esaterako, kume asko jaiotako urte batean ale gehiago harrapa daitezke; populazioaren dentsitatea ugartu nahi bada, ordea, harrapaketak gutxitu beharko dira, gazteak hazteko eta ugaltzaile bihurtzeko aukera izan dezaten.
- **Ehiza larrian** ere, populazioetako heriotzen eta jaiotzen arteko batez bestekoak erabakiko du harrapa daitekeen ale kopurua; populazio-desoreka larriak sortu nahi ez bada, halere, ehiza-planak behar bezala banatu beharko ditu animaliak, bai adinaren arabera (gazteak, helduak, zaharrak), bai sexuaren arabera (arrak eta emeak). Horri dagokionez, garrantzitsua da kupo horiek betetzea, plangintzaren helburuak bermatzeko, betiere zorrotz errespetatzen direla harrapatu beharreko aleen adinari eta sexuari dagozkienak.

Berez, espezie bakoitzerako kalkulatu behar da ehiza daitekeen ale kopurua; hala ere, ehiza xeheko espezieei dagokionez, orientagarria zaigu eragiketa hau egitea: espezieko ale gazteak zati ale helduak (horien kopurua mendian zenbatutakoa edo lehen ehizaldietan azaldutakoa izango da); eragiketa horren emaitza 1,5 baino txikiagoa bada, ez da komeni denboraldi horretan ehizatzea. Izan ere, jaiotze-tasa txikiko urtea dela adierazten digu datu horrek, eta jaiotakoen eta hildakoen arteko aldea ez dela oso handia.

3 inguruko adin-zatiduretarako (hiru gazte, heldu bakoitzeko, edo sei gazte, bikoteko), ehiza xeheko espezie gehiengotik ehiza-denboraldiaren aurreko kopuruaren %40-50eko harrapaketa-kopurua onartzen da, betiere dentsitateari eustea baldin bada plangintzaren helburua. Dentsitateak handitzeko programa batean bagaude, harrapaketak gutxitu beharko dira; are gehiago, kume asko jaio den urteetan, datozen urteetarako ugaltzaile gehiago izan dadin.

Bestalde, ezarritako harrapaketak ehiza-egun guztietarako eta eskualdean ehizan aritzen direnen artean banatu behar dira. Zentzuak agintzen du, halaber, kupo pertsonalak haiek beteko diren hipotesiaren pean ezarri behar direla; ez da logikoa ehiztariko eta eguneko kupo handiak jartzea, eta haiek pilatuta, berriz, denboraldiko kupo orokorrak gainditzea.

Badira ehiza-presioa orekatzeko beste baliabide batzuk ere:

- Ehiza erabat debekatzea.
- Aldi baterako edo txandakako debekualdiak, edo soilik espezie jakin batzuentzakoak (fauna-babeslekuak).
- Ibilgailuz sartzeko debekatzea (autoak aparkatzeko lekuak ezartzen direla).
- Ehiza-ordutegiak mugatzea.

B.2.- Zer egin dezakegu habitata hobetzeko?

Habitaten kalitate-galeraren arrazoiei buruz egin dugun eskema laburrak argi eta garbi adierazten digu zer jarduerak bete behar ditugun habitaten kalitatea hobetzeko.

Lehendabizi, azpimarratu behar dugu ehiztariak, edo bere burua ehiztaritzat duenak, natura zaintzen lagundu behar duela. Lehenago azaldu dugunez, natura-ingurunearen degradazio globalarekin dator bat ehizako habitataren degradazioaren arazoa. Horregatik, are ikuspegi oso interesatu batetik ere, ehiztariak beren lan bat bezala ikusi behar dute natura babestea, eta ez zerbait arrotza edo ehiza-interesen aurkakoa gisa.


Batzuetan, esate baterako, esku-hartze batzuk egiten dira hondatutako eremuetan halako ehiza-gaitasun bat berreskuratzeko; ehiza xeheari dagokionez, janaria, edaria eta babeslekuak bermatzera jotzen da. Hala, ondokoak dira neurriak arruntenak:

- Partzela txikiak landatzea, faunari begira.
- Zuhaixkak landatzea lur-mugetan edo bertan behera utzitako lurretan.
- Sasitzak bakantzea.
- Edanlekuak jartzea.
- Janlekuak jartzea.

Untxiari dagokionez, eta prebentzio-neurri gisa, habiak desinfektatzen dira, edo untxi-zulo berriak egiten.

Ehiza larriari dagokionez, habitata hobetzeko neurriak beste helburu batzuk ere badituzte (trofeoak hobetzea, kalteei aurre hartzea), eta ehiza-plan egoki bati lotuta egon ohi dira, beraz:


- Elikadura-osagarriak jartzea (esaterako, gatz-harriak).
- Laboreak edo bazka-landareak ereitea.
- Sasitzak bakantzea.



Janlekuak eta edanlekuak ezartzeak ezinbesteko mantentze-lan bat dakar berekin. Ur eta janari usteltzen hasiek gaixotasunak sor ditzakete, eta haiek zabaltzen lagun dezakete.

- Larreak edo bazkalekuak ongarriztatzea.
- Janlekuak jartzea (belar ondus, artoz, patataz, erremolatxaz eta abarrez hornituta).

Ehiza xehearekin gertatzen denaz bestela, ehiza larria inoiz baino ugariagoa da gaur egun, eta horrek kalteen ugartze bat ekarri du berekin. Ondokoetan izaten dira kalteak, zehazki: soroetan eta baso-berritzeetan (basurdeek, orkatzek, oreinek eta abarrek eraginda), aziendetan (otsoak era-



Hona uztak eta aziendak babesteko Euskadin erabili ohi diren bi metodo: hesi elektrikoa eta artzakurra.

sota, nahiz eta harrapari hori ez den ehiza espeziea EAEn gaur egun) eta istripuen forman, non aurreko guztiak izaten baitira tarteko. Horrek protagonismo handia eman die kalteen prebentzioko teknikiei ehizaren kudeake:

- Populazioen kontrola: ehiza-presioa eta kalteak eragiten dituzten espezieen harrapaketak handitzen dira kalteok izaten diren lekuetan.
- Ondasunak babestea: neurri honen bidez, kalteak izan ditzakeen ondasunetara heltzeko aukera galarazten zaie ehizakiei; hori lortzeko, zenbait bide erabil daitezke; esaterako, errepideetan eta soroetan hesiak egitea; baso-berri-tzeetan banako babesgarriak ezartzea, eta artzakur-arrazako zakur zaindariak jartzea artaldeei
- Beste batzuk: aurrez azaldutako neurriak nahikoak ez badira, edo neurri osagarri gisa, disuasio-bideak erabil daitezke: ehizakia uxatzeko usainak; halaber, seinaleak jartzen dira eta baimendutako abiadura mugatzen da ehizakia harrapatzeko arrisku handia den errepide-zatietan.

Azkenik, ez da ahaztu behar hobekuntzak ehiza-antolamenduaren zati direla, eta bat etorri behar dutela gainerako neurriekin; adibidez, zertarako balio du ingurunea hobetzeko eta ehiza-dentsitateak lehengoratzeko inbestimendu handi batek, baldin eta harrapaketa-planak denboraldi bakar batean agortzen badu epe ertain-luze baterako zena?

B.3.- Bateragarriak al dira harrapariak eta ehiza?

Seguruenik, harraparien, ehiza espezieen eta ehiztarien arteko gatazka izaten da ehizari buruzko solasaldietan gehien eztabaidatzen den gaia. Gaiak, maiz, muturreko iritziak sortu ohi ditu: garai batean ohikoa zen ehizarik ez izatearen arrazoia "arranoak", "beleak" eta azeriak zirela entzutea, eta, baldin eta erbiak edo eperrak eduki nahi badira berriro, "piztia" haiek akabatzea komeni dela. Auzi horretan, beste batzuetan bezala, hitz egiteko moduak garrantzi handia dauka, egoera zertan den argi eta garbi adierazten duelako. Aurreko paragrafoan komatxoaren bidez adierazitako hitzek okerreko ustirik arruntenak adierazten dizkigute.

Animalia-izen generiko horiek ematen zaizkie, izan ere, askotariko espezieak biltzen dituzten taldeoi: (1) ehiza-harrapariak; (2) inoiz ehiza-espezieak kontsumitzen dituztenak; (3) ehizarik inoiz jango ez duten animaliak; (4) legez ehiza daitezkeen espezieak, eta (5) espezie babestutako (izan ere, belea bera eta "arrano" guztiak zorrozki babestutako espezieak dira). Arazoaren konponbidea, gainera, ezin da aurkitu muturrera jota ("akabatu"), ez eta animalia batzuei "piztia" deituta ere, garai batean egiten zen bezala, non dirua ordaintzen baitzen, zoritxarrez, egun aurkitzen zailak diren zenbait animalia akabatzeagatik.

Baina beste batzuegan ere ikusten dira muturreko jarrerak eta informazioz eza. Horiek, izan ere, ez dakite ehiza espezieen hondamena eragin duen habitataren aldaketak berak onura ekarri diela gizakia bizi



Garrantzitsua da gune "beltzak" seinalez adieraztea, trafiko-istripuak saihesteko.

den inguruneetan ugaltzen diren harrapari "orojale" eta "oportunista" batzuei. Harrapariok, gainera, askotariko baliabideak erabiltzen dituzte. Horien artean ditugu, besteak beste, azeria, mika eta belea. Azterketa zientifiko ugari adierazten digute harrapari horiek eragin kaltegarria dutela basa-faunako zenbait espezierengan, zeinetako batzuk ehiza espezieak baitira. Animalia espezie ugari "jaten dute ehiza"; horietatik, ordea, gutxi jar dezakete kolokan ehiza-populazioen etorkizuna.

Hortaz, ehiztariak eta harrapariak zeharo bateragarriak dira. Harrapariak, gainera, oso kontrol positibo bat gauzatzen dute espezieen gainean: animaliarik ahulenak aukeratzen dituzte, eta ihes egiteko gaitasuna bultzatzen dute animalien gainean, eta, horri esker, ehiza gero eta harrapagaitzago bilakatzen da: gauza erakargarria, benetan, kirol onena edo ehizarik zailena maite duenarentzat.

Harrapari batzuek eragiten dituzten kalteei aurre egiteko, kontrol-metodo selektiboak eta ez-masiboak erabiltzen ditu ehiza-planak; betiere, kontu handiz, kontrolatu nahi ez den animaliarik hiltzea gerta ez dadin. Jakina, ehiza bera, zentzuz eginez gero, kontrol-metodo egokia izan daiteke espezie batzuen kontrola egiteko; azeriaren kontrolerako, esate baterako. Animalia horren ehiza, gainera, oso erakargarria gerta daiteke. Beste kasu batzuetan, hala nola mikarenean edo belearenean, eskopeta bidezko kontrola beste teknika batzuen osagarri ere izan daiteke.

Kontrol-metodo horiek ehizaren antolamenduan sartu behar dira beldurrik gabe; betiere, neurrizkoak, selektiboak eta ez-masiboak badira, eta dagokion erakunde eskudunak aurrez homologatu baditu. Edonola ere, emaitza egokiak lortzeko eta beste espezie batzuei kalterik ez egiteko, baldintza batzuk bete behar dira: pertsona prestatuek eta baimenduek erabiltzea metodoak; elkarren ondoan dauden lur-eremuen arteko koordinazioa, behar besteko eraginkortasuna ziurtatzeko; erabilera-protokolo zorrotzak (eguneroko azterketak, harrapaketa-txostenak, ikuskaritzak, etab.), eta emaitzen etengabeko balorazioa.

B.4.- Zertarako balio dute birpopulatzeak?

Birpopulatze bat egitean, animalia kopuru bat askatzen da; haztegieta hazitakoak izaten dira normalean animalioi, edo beste gune batzuetan landan harrapatutakoak (untxiaren kasua da ia bakarrik). Gune jakin bateko populazioak indartzeko egiten da birpopulatzea. Pentsatu behar da birpopulatzea beste tresna bat gehiago dela ehizaren kudeaketan, eta ez dela antolamenduaren irtenbidea edo helburua.

Horri dagokionez, oso ongi ezagutu behar dira birpopulatze teknikarik onenak, horiek dituzten arazoak eta espero daitezkeen emaitzak. Horri esker, erabaki zuzena har daiteke kasu bakoitzean, eta ez uste oker batean oinarritutakoa. Honela labur daiteke aipatu uste oker hori: "askatu, beti geratuko da zerbait eta". Birpopulatzeak gaizki egitetik arrisku larri ugari datoz: osasun-arazoak eta kutsadura genetikoak sortzea, populazio basatien hondamena eragitea, ekimena gauzatu duten pertsonen erabilitako dirua galtzea, etab. Horri guztiari frustrazioa gehi dakioke, eta ez nolana-hikoa; izan ere, ez da oso atsegingarria izaten animaliak askatu, eta, handik gutxira, ia guztiak hilda ikustea.

Kontua ez da ehiza-planetatik birpopulatzeak erabat bazterte, baizik eta egoera bakoitza kontu handiz aztertzea, eta, ondoren, populazioa berritzeko erabakia hartzea; betiere, jakina, populazio basatiak egungo aprobetxamendua jasan ezin badu, epe arrazoizko batean berez onera etortzerik ez badu, edo duen dentsitate urriagatik espeziea galzorian badago.

Halakoetan, honako jarraibide hauen arabera egin behar dira birpopulatzeak:

- **Lehenik, berezko populazioaren gainbeheraren arrazoiak aztertu.** Inguruneari eta espezieei eragiten dieten arazoei beren horretan badiraute, haztegieta hazitako populazioek ezingo dute aurrera egin.
- **Ez da hibridorik sartuko, eta askatu beharreko animalien osasun-egoeraren eta jatorri genetikoaren agiriak eskatu dira.** Administrazio eskudunak baimendutako haztegieta erosiko dira beti animaliak, eta ehiza-salmentan espezializatutako enpresei.
- Animaliak askatzeko teknikak animaliak ingurunera egokitzen lagundu behar dute. **Oso lagungarriak izaten dira karioletako edo itxituretako aklimatazioak, bai egokitze hori laguntzeko, bai animaliek osasun-arazoren bat duten ikusteko.**

- **Askatutako animalia guztiak markatzea dugu emaitzak kontrolatzeko eta geure esperientzietatik ikasteko era bakarra.** Marka jartzea animalia baten kostu osoaren zati txiki bat besterik ez da; animalia identifikatzea, hura ehizatu ondoren, berriz, oso informazio interesgarria.
- Ehiza-plangintza birpopulatzearekin batera egokitu behar da, eta errealistak izan behar dugu espero daitezkeen emaitzekin, bereziki harrapaketak kalkulatzeko. Birpopulatzek, behar bezala eginez gero, oso garestiak izaten dira; horregatik, inbertsioari etekinik atera nahi bazaio, ugaltzaile kopurua areagotzea lortu behar da, hobekuntza-plan koordinatuen bidez, harrapari batzuk kontrolatuz eta ehiza mugatuz (besteak beste, aldi baterako debekualdiak ezarri, eta, hala badagokio, askatutako animaliak ehizatzea debekatuz).

Praktika horri dagokionez, aipatu behar da Arabako Foru Aldundiak foru-dekretu bat onartu duela (48/2011 Foru Dekretua, ekainaren 28koa), lurralde historiko horretako ehiza espezieen ekoizpenak, birpopulatzek eta askatzek arautzeko. Gai ugari xedatzen ditu Dekretuak: birpopulatu eta askatu behar diren espezieak, horretarako behar diren osasun- eta genetika-baldintzak, animaliak ekoizteko eta garraiatzeko baldintzak, etab.



Ehizatutako animalia bakoitza datu-iturri bakar eta paregabekoa da animalia horren populazioari buruz.

Bestalde, eta birpopulatzeko erabilitako aleen markatzeari dagokionez, aipagarriak dira azken urteetan erabili diren irratitelemetria ekimenak. Izan ere, oso teknika eraginkorra da hori, bai aleen banaketa ikusteko, bai haien biziraupen-tasa ezagutzeko, eta, horregatik, oso lagungarria, birpopulatzearen arrakasta balioesteko.

3.4.3.-C FASEA. JARRAIPENA

C.1.- Nola egiten da jarraipena?

Datuak biltzen dira, funtsean, hiru aldagai mota hauez:

- Ehiza-populazioen bilakaeraz.
- Antolamendu-jardueren emaitzez (habitataren hobekuntzak, harraparien kontrola, birpopulatzek, etab.).
- Ehiza-aprobetxamenduaren emaitzez (harrapaketak).

Ehiza antolatzekeo planetan, jarraipen-programa batzuk diseinatzen dira. Kasurik gehienetan, ez dute behar profesionalik, betetzeko, ehiztariak berek betetzen baitituzte. Hona, jarraian, ehiztariaren eskura dauden ehiza-jarraipeneko ekimen batzuk:

- Ehiza-fitxa bakun bat betetzea, ehizaldi bakoitzean gertatutakoa jasotzeko: ikusitako animaliak, harrapatutakoak, horien ezaugarriak...
- Populazioen bilakaera zein den ezagutzeko beharrezko diren errolda-lanetan laguntzea.
- Basora (ibiltzera, perretxikoak biltzera, txakurrak trebatzera...) doazen guztietan, ehiza-egutegi bakun batean edo elkarrekin egin ditzaketen fitxa batzuetan, idatziz jasotzea ehizako animaliei buruzko datu orokorrak nahiz bereziak (animalia gaixotuak, faunaren jokaera bitxiak eta abar).
- Ehiza espezieei buruz lurraldean, autonomia-erkidegoan, estatuan nahiz nazioartean egiten diren azterketetan aktiboki parte hartzea, datuak proiektu bakoitzean erabiltzen den metodologiaren arabera eskainita. Halaber, oso garrantzitsua da aurkitutako hegazti eraztundunen berri ematea (eraztuna daraman ehiza espezie bat ehizatzea ez da arau-hauste; egia esan, ehizak informazio garrantzitsua eskaintzen du hegazti migratzaileak ezagutzeko, berreskuratutako eraztunen berri ematen bada). Ehiza-elkarteetara eta Administrazioako organo eskudunetara zuzen daiteke informazio hori.
- Natura babesteko eta gordetzeko beste edozein jardueratan laguntzea. Natura-ingurune ongi zaindu bat da ehiza-jarduera gogobetegarri bat izateko bermerik onena. Plangintzaren eta jakintzaren bidez kudeatutako ehizaren alde egitea da, ezbairik gabe, ehizaren aurka azaltzen direnei eman dakiekeen erantzunik egokiena.



C.2.- Garrantzitsua al da ehiztariak ehiza jarraipenean parte hartzea?

Bai, oso garrantzitsua; areago, esan daiteke ehiztarien parte hartzea funtsezkoa dela ehizaren jarraipena egiteko. Izan ere, ehiztariak egiten dituzte ehizaldiak eta harrapatzen dituzte animaliak; haiek eskaintzen dute informazioa. Eta bi-tartekoen ekonomiagatik da horrela, lehenik eta behin: ez ekimen publikoak, ez pribatuak, ezin dute beren gain hartu eremu guztietan egindako ehizaldien emaitzen kontrol sistematikoa. Bigarrenik, parte-hartze hori garrantzitsua da ehiztariak kudeaketan duen benetako eginkizuna egiaztatzeko: ulertezina da gizarteari edo administrazioari ehizaren egoera hobetzeko ardura handiagoa eskatzea, baldin eta ehiztaria guztiaz ahanzten bada ehizakia lortu duenean.

Zorionez, ehiztarien elkarte eta talde ugari ari dira jadanik parte-hartze maila hori eskatzen, eta beren kideen formakuntza laguntzen ari dira, gainera, haiek natura-inguruneke ehizaren "notario" bihur daitezten. Eta bide horri jarraituz soilik, hau da, ehiza-antolamendua beren gain hartuta eta horretan lagunduta lor dezakete ehiztariak baimenik funtsezkoena: ehizan jarraitzeko zilegitasuna, ehiza-jarduera ingurunearekin eta espezieen zaintzarekin bateragarria dela esateko eta frogatzeko zilegitasuna.





EHIZAREN LIBURUA

4. KAPITULUA

EHIZA ESPEZIEAK



► 4.- EHIZA ESPEZIEAK

Eskuliburu honetan, Penintsula mailan ehiza daitezkeen espezieen oinarritzko ezaugarri fisikoak eta biologikoak adierazten dira. Garrantzitsua da, hasiera-hasieratik, argi eta garbi azaltzea espezieei emandako kalifikatiboari (babestuak, ehiza espezieak...) buruzko legezko semantika zuzena, kontzeptu bakoitzari zer dagokion zehatz-mehatz jakiteko

Natura Ondareari buruzko Legeak debekatu egiten du “basa-animaliak hiltzea, kaltetzea, gogaitzea edo artelatzea, edozein dela ere erabilitako metodoa edo haien ziklo biologikoko fasea”, nahiz eta debekuok ez diren aplikatuko ehizan. Hura, berriz, autonomia-erkidegoek xedatutako espezieengan bakarrik egin ahal izango da. Ehizatze modukotzat izendatutako espezieetan, ordea, inolaz ere ezingo dira sartu Babes Berezikoko Erregimeneko Espezieen Zerrendan daudenak, ez eta Europar Batasunak debekatutakoak.

Beraz, debeku orokor bat dago basa-animaliak ehizatze. Berariaz ehizatze moduko espezieetat izendatutakoengan bakarrik egin daiteke ehiza, eta izendapen horietan ezin daitezke sar espezie babestuak.

2011ko Ehizaren Legeak dio “Eusko Jaurlaritzak arau bidez ezarritako dituela ehiza daitezkeen espezieak, azpiespezieak, basa-fauna eta basatutako abereak. Debekualdiei buruzko foru-aginduetako espezieen zerrendak urri dezake, baina ez handitu, lurralde historiko bakoitzean ehiza daitezkeen espezieen kopurua.

Espezie bat, beraz, ehizatze modukoa izan daiteke lurralde edo denboraldi batean, eta ehiza ez daitekeena hurbileko beste toki batean edo beste denboraldi batean. Hala, lehen galdera sortzen zaigu: zer espezie sartu behar ditugu argitalpen honetan? Galdera horrek erantzun bat baino gehiago du: (1) EAEn dauden espezie ehizagarriak bakarrik; (2) horiez gain, beste autonomia-erkidego batzuetan ehiza daitezkeenak eta Euskadin ez daudenak; (3) horiez gain, autonomia-erkidego batzuetan ehiza daitezkeenak eta beste batzuetan ez.

Izan ere, hauxe da euskal ehiztariaren bereizgarria: sarritan ateratzen da EAetik ehizatzea. Alde horretatik, Euskadik ehiztariak esportatzen ditu inguruko autonomia-erkidegoetara (ugariagoak dira EAetik kanpo ehizatzen duten Euskadiko ehiztariak, EAEn ehizatzen duten ehiztari kanpotarrak baino). Hori kontuan izanik, ukazina da ehiztariak Estatuko autonomia-erkidego guztietan ehiza daitezkeen espezie guztiak ezagutu behar dituztela. Horrek, gainera, ehiztariaren kultura eta ehiza-prestakuntza handituko ditu.

Beraz, eta hurrengo orrialdeetan egiazta daitekeenez, eskuliburu honetako espezieetako batzuk ez daude egun EAEn (sarría, basahuntza, amotragua, mufloia, eper afrikarra); debekualdi-aginduetan agertzen ez diren beste batzuk (ahate gorritza, esate baterako), berriz, ehiza daitezke beste leku batzuetan, hala nola Gaztela eta Leonen, Errioxan...

Horrekin batera, egun lege-egoera konplexuagoa duten espezie batzuk ere sartu dira; otsoa, esate baterako, babesturik baitago Duero ibaiaren hegoaldean, baina ehiza daiteke, adibidez, Galizian, Kantabrian eta Gaztela eta Leonen.

Argitalpen honetan, ez dira ageri beste zenbait espezie (uroiltoa, zozoa, hegatzabala, eskinosoa, etxe-txolarrea, hainbat fringilido espezie –kardantxiloa, txirriskila...–, gari-berdantza, trikua, erbinudea, katajineta, lepazuria, katagorria). Ez daude babestuta, baina ez dute ehiza-interesik, edo horiek sartzeak nahasmena sor lezake antzekoak diren eta kontserbazioa arriskuan duten beste batzuekin.

Lurralde jakin batean ehizatu ahal izateko, funtsezkoa da ehiztariak dagokion debekualdi-agindua (Urteko Ehiza Agindua) irakurtzea, urtero ehiza daitezkeen espezieak zein diren jakiteko eta, horrela, gaizki ulerturik eta egoera korapilatsurik izan ez dadin.

Argitalpen honetan, espezieen azterketaren esparru orokorrak bost informazio multzo ditu, eta haien ezaugarriak garrantzitsuenak azaltzen dira, honako banakapen honen arabera: Deskribapena, Elikadura, Biologia eta Ohiturak, Habitata, Banaketa eta Populazioa, eta Ehiza. Espezie bakoitzari buruz ematen da informazioa, eta nahikoa izan behar du ehiza-azterketan eska daitezkeen ezagutzak aurkitzeko. Informazio multzo horietako bakoitzean, espezieari buruzko daturik adierazgarrienak eskaintzen dira, edo hura beste espezie batzuetatik bereizteko argibideak. Dena den, ehiza espezieen eta ehizatze moduko ez diren artean egon daitezkeen nahasketak hobeto argitzea, ehiztariak eskuliburu honetako “Identifikatzeko arazoak” atalera jo dezake.

Honako datu hauek eskaintzen dira espezie bakoitzeko: argazki bat; sexua, adina, etab. identifikatzeko irudi espezifikoak, eta Penintsula nahiz Balear Uharteak hartzen dituen banaketa-mapa bat, non hiru kolore desberdinen bidez erakusten den espeziearen fenologia:

- **“HORIA”**: kumeak hazteko edo ugaltzeko eremua; espeziea ugaltzeko ohi den gunea. migratzaileak ez diren espezieengan, ugalketa-eremua bat dator urte guztiko bizilekuarekin (esaterako, ehiza-ugatzunak).
- **“URDINA”**: negua igarotzeko eremua; espezie migratzaileek negua igarotzeko aukeratzen duten lekua. Leku horiek espezieen migrazio-ibilbideak azaltzen dituzte.
- **“URDIN ILUNA”**: negua igarotzeko lekurik garrantzitsuenak edo animalia ale gehien biltzen dutenak erakusten dira.



ANTZARA GORRITZA

Anser anser

Ánsar común / ganso



DESKRIBAPENA. Tamaina handiko (75-90 cm; 2,5-4,1 kg) hegaztia. Laranja koloreko moko handi bat dauka, eta hanka gorritzak ditu. Hegoen aurrealdea oso argia du, eta arraun-lumak belzkarak ditu. Ez du sexu-dimorfismorik, hau da, arrak eta emeak antzekoak dira; arrak handiagoak izan ohi dira, halere. Lehen urteko antzarek beren lumaje pikardatuagoa eta bular nahiz sabelalde zuriak dituzte bereizgarri, eta ez dituzte ageri helduen ildo beltzak.

ELIKADURA. Batik bat landareak: zingiretako landareak (lezka eta kastañuela) zein lehorrekoak; askotan, soroetako zerealak eta lekadunak. Ur meheetan eta putzu txikietan jaten du.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Iberiar penintsulan, neguan besterik ez da ageri. Oso taldekoiak dira. Udazkenean, V formako talde zaratatsutan bilduta zeharkatzen dituzte mendebaldeko Pirinioak eta Euskal Herria. Otsail-martxora arte egoten dira Penintsulan, eta, gero, iparraldean dituzten ugaltokietara itzultzen. Monogamoak dira, eta beren familia-kohesioa atxikitzen dute taldeetan.

HABITATA. Habia egiteko, padurak, putzuz betetako txilardiak, uharteak eta aintziretako ur-bazterrak hartzen dituzte. Neguan, larreetan, soroetan, estuarioetan eta aintziretan ibiltzen dira.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. EAEn, oso ugaria da migrazio-aldian, batik bat udazkenekoan (urrian eta azaroan); izan ere, udazkeneko migrazio-aldian gehienak mendebaldeko Pirinioetatik eta euskal itsasertzetik sartzen dira. Neguan, talde txikiak eta ale bakanak aurki ditzakegu itsasertzeko paduretan eta estuarioetan, eta barnealdeko urtegietan eta soroetan.

Iberiar penintsulan, 100.000 ale inguru biltzen dira neguan; batik bat, Guadalquivir ibaiko paduretan eta Villafáfila gatzagetan (Zamora), eta, kopuru txikiagotan, berriz, ipar-mesetako hainbat hezegunetan, Portugalgo itsasertzean eta Ebroko deltan. EAEra heltzen diren hegaztiak Eskandinaviako eta Erdialdeko Europako ugaltokietatik datoz.



EHIZA. Antzara ez da ehiztariek gehien ehizatzen duten hegazti-tako bat, ez baita erraza tiro barruan edukitzea. Batzuetan, aleren bat ehizatzen da postu finkotik hegaztia migratzen ari denean, eta negua igarotzen duten lekuen inguruan ere ehiza-saioak antolatzen dira. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeo garaia.



BASAHATEA

Anas platyrhynchos

Ánade azulón / ánade real / azulón

2



DESKRIBAPENA. Ezagunena eta ohikoena da, baita ehiza daitekeen ahaterik handienetako bat ere (50-65 cm eta 0.9-1.6 kg). Ahate gehienek bezalaxe, sexu-dimorfismo nabaria du: arren burua eta lepoaren erdia berde distiratsuak dira; lepoko zuri mehe bat dute, eta bularra, gaztaina-kolorekoa. Sabela, saihetsak eta bizkarra zuri-grisaxkak dira, eta isats alde zuri-beltza da, bi luma kizkur ageri dituela isatsaren gainean; mokoa horixka-berdexka du, eta hankak laranja-kolorekoak ditu. Emea ez da hain nabarmena; lumaje homogeenoa, arre eta marraduna dauka gorputz osoan. Bai arrek, bai emeek, urdin koloreko laukizuzen deigarri bat (ispilua) ageri dute hegoetan. Uda-amaieran, arrek jantzi arre bat ageri ohi dute (eklipsea), emeenaren antzekoa.

ELIKADURA. Landareak (haziak batik bat) dira basahatearen neguko dieta; udan, aldiz, dieta hori zabalagoa da, landareak eta haziak uretako animalietxoekin aldizkatzen baitira, zeinak igerian dabilela, burua murgilduz edo, inoiz, urpean igeri ibilita harrapatzen baititu.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Era askotako lekuetan (soro, lezkadi, zuhaitzetako zulo...) egiten du habia, baina beti landarediak ongi babestutako eta eremu hezeetatik hurbil diren lekuetan. Lurrean jartzen da habia, eta errunaldia, urtean bakarra, 6 eta 12 arrautza bitartekoa izaten. Emeak 27-28 egun ematen ditu arrautzak txitatzen. Txitak nidifugoak dira, eta emea arduratzen da haien zaintzaz.

Kumeak hazi ondoren, eta landare-estaldura trinkoko hezeguneetan, talde handiak eratzen dituzte, mikaldirako (hegan egiteko gaitasuna galtzen duten lumaberritze-garaia). Haren ondoren, udazken-neguetako sakabanaketa gertatzen da, eta urte-hasierako araldiarekin amaitzen. Basahateek hezeguneetako etzalekuetan ematen dute eguna; gaua, aldiz, era askotako janlekuetan, batzuetan etzalekutik oso urrun.


HABITATA. Mota guztietako uretako ekosistemetan bizi ohi da; elikatzeko landareak dituzten ur masa mehe eta geldietan, batez ere.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Gutxitan egiten du habia EAEko isurialde atlantikoan, eta nahiko arrunta da Araban, ehun bikote inguruk egiten baitute habia hango urtegietan, aintziretan eta ibai batzuetako ur geldietan. Kopuru handitan ematen du negua Arabako Uribarri Ganboako eta Urrunagako urtegietan, 3.000 ale ere zenbatu baitira han, nahiz eta normalean 600 inguru izaten diren; itsasertzean, aldiz, oso gutxitan ikusten da.

Ondo zabalduta dago Penintsula osoan eta Balear Uharteetan, eta populazio indigena sedentarioa da. Neguko populazioa ugaria da, eta Europatik etorria; baina aldakorra, eta handitzeko joera ageri du



EHIZA. Ia ez da ehiza-egun espezifikorik hura ehizatzeke EAE; Araban, ordea, ohikoa da basahatea ehizatzea; atse-denlekuetatik janlekuetara doazen aleak botatzen dituzte normalean, baina "saltatzean" ere bai, batzuetan, ubide eta erreka txikietan. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetan, ahateak ehizatzeke saioak antolatzen dira. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeke garaia.



DESKRIBAPENA. Oso ahate txikia (34-38 cm), hegada azkar eta arinekoa. Arrek gorriztak dituzte burua eta lepoa; begiaren inguruan, marra zuri batez apaindutako zerrenda berde bat dute. Moko beltza dute. Saihetsetan eta bizkarrean, zizare-antzeko marra grisak dituzte, eta hegoetan, zerrenda zuri bat dute. Txoparen behealdea beltza da, eta alboetan, berriz, triangelu formako orban horixka bat dute. Emea arrea eta zuriz pikardatua da; sabelaldea, berriz, zurixka du. Bi sexuengan, ispilua berde distiratsua da, eta beltza du ingurua.

ELIKADURA. Ur meheetan dauden uretako landareak, haziak eta ornogabeak jaten ditu, batez ere gauez, oinez nahiz igerian dabilela, edo burua murgilduta, ura eta lokatza mokoaz iragaziz.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Landare artean eta uretatik hurbil egiten du habia. Urtean, 8-11 arrautzako errunaldi bakarra egiten du. Emeak 21-23 egun ematen ditu arrautzak txitatzen, eta, ondoren, txitak zaintzen ditu.

Taldekoa da, ugaltzeko garaian izan ezik. Loaldiak egiten ditu egunez toki irekietan, eta gauez elikatzen da, toki lohi-tsetan.

HABITATA. Habia egiteko, ur masa txiki eta landarez inguratuak ditu gustuko. Neguan, aldiz, era guztietako urak (putzu, padura, ibai, estuario...) bisitatzen ditu.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Paseko hegaztia da eta ohiko negutarra EAEko hezeguneetan, bereziki barnealdeko urtegietan eta aintziretan. Iberiar penintsulan, oso leku zehatzetan hazten ditu kumeak, eta noizean behin bakarrik. Alabaina, oso ugaria da neguan; bereziki, Guadalquivir ibaiko paduretan eta Ebroko deltan. Edonola ere, negutarren kopuruak gorabehera handiak izaten ditu, Iparraldeko eta Erdialdeko Europako eguraldiaren arabera. Azken urte hauetako neguetan, 80.000 zertzetatik gora izan dira Penintsulan; ekaitz handiak direnean, ordea, kopuru hori bikoiztu egiten da.




EHIZA. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetan antolatzen diren ehizaldietan ehizatzen dira batez ere zertzetak, eta, nahiz eta inoiz saltatzean edo pasean bota daitekeen bakarren bat, oso gutxitan harrapatzen dira EAEn. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzekeo garaia.

UDAKO ZERTZETA

Anas querquedula

Cerceta carretona

4



DESKRIBAPENA. Ahate txikia (37-41 cm) eta liraina. Arrek bekain zuri ikusgarri bat dute bereizgarri, zeinak kontraste handia sortzen baitu buru eta lepo arreekin. Saihetsak grisak ditu, eta sabelaldea zuria du. Sorbaldan, nabarmenak dira sorbalda-luma edo luma eskapular luze eta biribilduak, alboetarantz eroriak; beltzak eta gris-urdinxkak dira, eta zerrenda zuri bat dute luzera osoan. Emeen lumajea zertzeta arruntarenaren antzekoa da, eta aurpegiko diseinuaren kontraste handiagoagatik bereizten da. Ispilua berdea da; ez oso distiratsua, eta zuriz inguratua.

ELIKADURA. Uretako landareak, arraintxoak, intsektuak, krustazeoak, moluskuak, etab. kontsumitzen ditu. Mokoaz iragazten du janaria.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Lurrean egiten du habia, uretatik hurbil, landaretza trinkoaren erdian. Emeak 8-11 arrautzako errunaldia egiten du urtean behin; berak txitatzen ditu arrautzak eta zaintzen ditu txitak.

HABITATA. Habia egiteko garaian, landare-estaldura handiko ur gezatan ikus daiteke, ia beti ur gaineke edo uraren gainera irteten diren landareak diren uretan. Migrazio-garaian, edozein motatako hezeguneak erabiltzen ditu, baina ur azpiko landare ugari ur meheak ditu gogoko.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Euskadin, migrazio-paseetan (batez ere, udaberrikoan) soilik aurki daiteke, eta bakan. Penintsulan, paseko hegatzia da nagusiki, nahiz eta bikote batzuek Penintsulako leku batzuetan (barnealdean zein kostaldean) egiten duten habia noizean behin; oso negutar gutxi dira Penintsulan (100 ale baino gutxiago, guztira). Erdialdeko Afrikan dituzte negua igartzeko lekuak.

EHIZA. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetan antolatzen diren ehizaldietan ehizatzen dira batez ere zertzetak, eta, nahiz eta inoiz saltatzean edo pasean bota daitekeen bakarren bat, oso gutxitan harra-patzen dira EAEn. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeeko garaia.



▶ 5

IPAR-AHATEA

Anas strepera

Ánade friso



DESKRIBAPENA. Basahatea baino txikiagoa eta finagoa (46-56 cm). Arrak lumaje grisa du, eta txopa, beltza; mokoia, berriz, belzkara. Emea basahate emearen antzekoa da, baina lirainagoa eta argiagoa; mokoia iluna du, eta ertzetan, horixka. Bai arrek, bai emeek, ispilu zuri-beltz bat dute hegoetan, eta sabelaldea, zuria. Oso nabariak dira horiek, hegaztia hegan doanean.

ELIKADURA. Egunez jaten du; burua uretan murgilduz lortzen dituen landareak, batez ere. Batzuetan, haziak ere jaten ditu soroetan.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Toki zingiratsuetako uhartetxoetan egin ohi du habia, uretatik hurbil beti. Lurrean jartzen du habia, landarez ondo estalitako lekuetan. Emeak 8-12 arrautzako errunaldi bakarra egiten du, eta 24-26 egunez txitatzen ditu arrautzak. Txitak nidifugoak dira. Emea arduratzen da haien zaintzaz.

Taldekoia eta zakar samarra da. Etzalekuak edo lo-tokiak elikatzeko lekuetatik hurbil egon ohi dira.

HABITATA. Kumeak hazteko, ur masa zabalak aukeratzen ditu, ur azpiko larre zabalak dituztenak. Neguan, barnealdeko ur lasai eta geldiak (padura, urmael, urtegi, etab.) atsegin ditu.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. EAEn, paseko hegaztia eta negutarra dugu; nahiko urria (100-200 ale). Kopuru txikitik ugaltzen da Penintsula osoan ongi banatutako leku batzuetan (Guadalquivir ibaiko padurak, Ebroko Urtegia, Ebroko delta, Mantxa hezea, Arabako Urizarri Ganboako urtegia, etab.). Ibilbide laburreko migratzailea da, eta neguan ikusten ditugun aleak Erdialdeko Europako eta Europa hego-mendebaldeko populazio habiagileetatik etorriak dira. Batez besteko negutarrak 8.000 inguru dira.

EHIZA. Ipar-ahateak beste anatido batzuk (adibidez, basahateak) ehizatze-ko antolatutako ehizaldietan harrapatzen dira bereziki. Migrazio-garaian, aurki daiteke, saltatzean, ipar-ahateren bat, tamaina handi samarreko erreketan eta ubideetan. Urritik urtarrilera da haiek ehizatze-ko garaia.



AHATE TXISTULARIA

Anas penelope

Silbón europeo / ánade silbón

6



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko (41-51 cm) ahatea, moko laburra eta buru biribila dituen. Arrek gaztaina-kolore gorritakoak dituzte burua eta lepoa; kopeta eta pileoa, krema-kolorekoak; bularra, gaztaina-arrosa; saiheesak, grisak, eta, hegoak eta txopa, beltzak. Emeak arreak dira, baina tonu gorritak dituzte; sabelaldea zuria dute, eta mokoa, gris-urdinxka. Bai arrek, bai emeek, ertz beltzeko ispilu berde bat daukate hegoetan, eta zerrenda zuri zabal bat, hegoetako eraso-ertzean.

ELIKADURA. Belarrak eta lekadunak jaten ditu lehorrean, eta uretako landareak, urak erdi itotako lurretan eta ur meheetan; uretako animalia txikiak ere jaten ditu, inoiz.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Putzuetan, paduretan, ibaietan eta antzekoetan hazten ditu kumeak, landaretzaren erdian ongi ezkutaturik. Errunaldia 7-9 arrautzakoa izaten da. Emeak 24-25 egun ematen ditu arrautzak txitatzen, eta, gero, txiten zaintzaz arduratzen da.

Oso hegaldi arina du; hego-ukaldi indartsuak ditu, eta horrek sortzen du haren "txistu" berezia. Oso taldekoa. Egunez lo egiten du, eta gaez elikatzen da.

HABITATA. Kumeak hazteko, ur masa gezak, irekiak eta meheak aukeratzen ditu, hondoan landare ugari dutenak. Neguan, nahiago ditu barnealdeko hezegune zabalak eta, batez ere, itsasertzeko eremu hezeak (padurak, estuarioak eta itsasadarrek).

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. EAEn, ugaria da migrazio-paseetan, bai eta negutar gisa ere itsasertzeko estuarioetan; horregatik, bera da euskal itsasertzeko ahaterik arruntena eta ugariena.

Oso negutar arrunta (75.000 ale baino gehiago) da Iberiar penintsulan eta Balear Uharteetan; latz aldatzen dira kopuruak, halere, haren jatorrizko eskualdeetan (Eskandinavia, Errusia eta Islandia) urte horretan den eguraldiaren arabera. Oso ugaria da Guadalquivir ibaiko paduretan, Ebroko deltan, Levante aldeko hezeguneetan, Galiziako itsasadarretan eta Portugalgo estuarioetan.

EHIZA. Ahate txistularia ugaria da euskal itsasertzean, baina ez da izaten hura ehizatzeke egun espezifikorik EAEn; halere, ohikoa da hura ehizatzea. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetan, ahateak ehizatzeke saioak antolatzen dira. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeke garaia.





DESKRIBAPENA. Ur gaineko ahate dotore eta liraina (51-66 cm); lepo luzea du, eta buztan zorrotza. Arrak gaztaina-kolore ilunekoak ditu burua eta eztarria, eta zuria du bularra; bularreko orban zuria lepoaren erdiraino heltzen da, eta hortik, berriz, bi ziriren forman luzatzen, lepoaren bi aldeetan. Mokoa grisa da, eta lerro beltz bat du gainaldean. Grisak ditu bizkaraldea eta saihetsak; isatsa (lema-lumak), berriz, beltza da, ertz zuriz apaindua; horko erdiko bi lumak oso luzeak dira, gainera. Emea arre-gorritza da, eta pikardatu ilunagoa du bizkaraldean eta saihetsetan; isats zorrotza dauka. Hegoetako ispilua berde metalikoa da; beltzago bilakatzen da barnealderantz, eta ertzak kanela-kolorekoak ditu barnetik, eta zuriak, kanpotik.

ELIKADURA. Jateko, burua murgiltzen du, edo hura murgilduta joaten da igerian, uretako landareen, moluskuen, intsektuen, harren eta abarren bila.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Uretatik hurbil egiten du habia, landareetan ongi ezkutatuta. Errunaldia 7-9 arrautzakoa izaten da. Emeak 22-24 egun ematen ditu arrautzak txitatzen, eta kumeak zaintzen aritzen da gero.

Ahate mesfidatia da; gauez jaten du, eta egunez lo egiten. Taldeak osatzen ditu, baina ez oso trinkoak. Hegan doala, haren hegada ez oso sakonek txistu isil bat sortzen dute.

HABITATA. Habia egiteko, ur masa irekiak dauden hezeguneak aukeratzen ditu batik bat. Neguan, ur meheko eta landaredi urriko putzu zabalak ditu gustuko.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. EAEn, paseko hegazia da, eta negutarra, halaber, talde txikitan, bai itsasertzean (Urdaibai, Txingudi...), bai barnealdeko uretan (Arabako urtegiak).

Iberiar penintsulan hazten ditu kumeak noizean behin, non paseko hegazi eta ohiko negutar gisa jokatzeko duen; 20.000 banako izaten dira batez beste, eta Guadalquivir ibaiko paduretan, Valentziako albuferan eta Ebro behe-erako arroz-soroetan biltzen dira.




EHIZA. Ahate buztanluzeak Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetako ehizaldietan ehizatzen dira nagusiki, eta, nahiz eta inoiz saltatzean edo pasean bota daitekeen bakarren bat, oso gutxitan ehizatzen dira EAEn. Katalunian ere ehiza daiteke; ez, ordea, Nafarroan, Errioxan edo Kantabrian. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeeko garaia.

AHATE MOKOZABALA

Anas clypeata

Cuchara común / Pato cuchara

8



DESKRIBAPENA. Ahate handi eta mozkotea (44-52 cm); moko handi eta espatula formako bat du ezaugarri nagusi. Arrek kontraste handiko lumajea dute: gaztaina-kolorekoak edo gorritak dituzte sabelaldea eta saihetsak; zuria dute bularraldea; berde iluna, burua, eta urdinxkak dauzkate sorbaldak. Emeek, berriz, kolore arre-gorritza arrunt bat dute. Bai arrek, eta bai emeek, ispilu berdea daukate.

ELIKADURA. Haren moko berealdiko tresna da ur meheetako edo lokaztietako elikagaiak iragazteko; uraren arrasean jartzen du hura, ohiko jarrera batean. Animalia txikiak (intsektuak, moluskuak, krustazeoak) eta uretako landareak (haziak, algak) jaten ditu.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. BIOLOGIA ETA OHITURAK

Landareen artean ezkutatzen du habia, uretatik hurbil. Errunaldia 7-14 arrautzakoa izaten da, eta emeak 25-27 egun ematen ditu arrautzak txitatzen. Txitak nidifugoak dira.

Oso ahate taldekoa da, eta erabat ezberdinak ditu eguneko joerak eta gauekoak.

HABITATA. Kumeak hazteko, landarez inguratutako sakonera txikiko zingirak bilatzen ditu, eta, haietan, landaretxa handiko txokoak aukeratzen. Neguan, ugaria da hondo lohitsuaren duten ur masa mehe eta zabaletan. Urria, aldis, itsasertzean.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Euskadin, arrunta da paseko garaian eta neguan, bereziki Araban, Uribarri Ganboako eta Urrunagako urtegietan, 1.500 negutar adina ere biltzen baitira haietan inoiz. Kumeak hazten ere ikusi dute Uribarrin eta Salburuan.

Penintsulan, hainbat lekutan egiten du habia, baina ez beti beretan; maiz etortzen da negua igarotzera (60.000 inguru, batez beste, urtean), eta populazioak hazteko joera ageri du, bereziki Guadalquivir ibaiko paduretan, Ebroko deltan, Valentziako albuferan eta Portugalgo toki batzuetan. Populazio negutarrak Erdialdeko eta Ipar Europatik etortzen dira, eta Europako ipar-ekialdetik



EHIZA. Ahate moko zabala ugaria izan daiteke EAEn ehiza garaian; hala ere, ez da ahate horiek harrapatzeko ehizaldirik antolatzen, eta gutxitan ehizatzen dira. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetan, ahateak ehizatzekeo saioak antolatzen dira. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzekeo garaia.



DESKRIBAPENA. Ahate murgilari eta mozkotea (40-47 cm). Arrak beltza du jantzia, eta zuriak ditu saiheitsak eta sabelaldea; motto bereizgarri bat du buruan, eta mokoa urdinxka eta mutur beltzekoa da. Emearen itxura gehiago aldatzen da; arre-iluna du bizkarraldea, eta argiagoak ditu saiheitsak eta sabelaldea; mottoa arrena baino laburragoa izaten da, eta banako batzuek orban zuri bat dute mokoaren oinarrian. Hegan dabiltzala, hegoan duten zerrenda zuria nabarmentzen da.

ELIKADURA. Era askotako animaliak (bereziki moluskuak, baina baita krustazeoak eta intsektuak ere) jaten ditu, eta landareak (haziak, nagusiki). Hiru edo lau metroraingo murgiltzen da uretan, hondoan jana bilatzeko.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Ur-bazterretako landaretzaren erdian egiten du habia. Emea arduratzen da errunaldiko 6-14 arrautzak 25 egunez txitatzen; hark zaintzen ditu txitak ere, emantzipatzen diren arte.

Oso taldekoia da. Oro har, egunez jaten du, eta uretan egiten du lo, tokiz aldatu gabe, beti leku berean egoteko joera baitu. Urpean nahiko hondoratuta ibiltzen da igerian, eta mugimendu berezi batez murgiltzen da.

HABITATA. Kumeak hazteko garaian, hezegune gezak aukeratzen ditu, inguruan landaretza handia dutenak. Neguan, aldiz, nahiago ditu ur masa zabalak eta sakonak, hala nola urtegiak, ibailetako ur geldiak, aintzirak, estuarioak...; hondoan landaretzarik bada, batez ere.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. EAEn, presentzia urria du; negutar bakana da itsasertzeko estuarioetan, eta ugariagoa, aldiz, barnealdeko ur gezetan (Arabako urtegietan eta ureztatze-putzuetan).

Orain arte, frogatu da Cáceresko Sierra Brava urtegian bakarrik hazi dituela kumeak, eta Zamorako Villafáfila-ko urmaeletan; negua igarotzera, berriz, 3.000 bat banako etortzen dira, eta Galiziako itsasadarretan eta iparraldeko urtegi batzuetan (Uribarri Ganboako urtegian, adibidez) biltzen dira talderik handienak. Negutarrok Baltikoaren inguruko lurretatik, Eskandinaviatik eta Errusiako iparraldetik etortzen dira.




EHIZA. Ustekabeen bakarrik ehizatzen da murgilari mottoduna EAEn; Penintsulako gainerako lekuetan ere, ez da maiz ehizatzen. Gaztela eta Leonen, ehiza-espezia da; Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian, aldiz, ez. Urritik urtarilerara da haien ehizatzeeko garaia.

MURGILARI ARRUNTA

Aythya ferina

Porrón europeo / Porrón común

10



DESKRIBAPENA. Murgilariak ahate urpekariak dira; itxura trinkoa eta hondoratua dute bereizgarri, eta isatsa urari erantsita eramaten dute. Lasterraldi labur baten ondoren uretan plisti-plasta joanda aireratzen dira. Hego motzeko ahateak dira, hegaka bizi eta ozena dutenak. Arrek buru arre-gorritza dute, eta mokoa, beltza, erdialdean zerrenda urdinxka batekin; bularra eta txopa beltzak dituzte, eta gorputza zuri-grisaxka dute. Emeek jantzi arre-horixka daukate, ez oso nabarmena. Hego grisak dituzte, eta ez daukate ur gaineko ahateen ohiko ispilua.


ELIKADURA. Jateko, burua murgiltzen du, edo hura murgilduta joaten da igerian, uretako landareen, moluskuen, intsektuen, harren eta abarren bila.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Ur-bazterretako landareetan egiten du habia. Emeak 6-11 arrautzako errunaldi bakarra egiten du urtean, eta 24-28 egun ematen ditu arrautzak txitatzen. Txitak nidifugoak dira, eta emeak zaintzen ditu. Taldekoia da, eta talde trinkoak osatzen ditu.


HABITATA. Kumeak hazteko, inguruan landaretza handia duten ur masak bilatzen ditu. Ugaltzeko garaitik kanpo, sakonera ertaineko eta uretako landare askoko uretan ibiltzen da.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Ahate murgilaririk arruntena da. Euskadin, paseko hegaztia da, eta ohiko negutarra, Arabako urtegietan, non 5.000 banako ere zenbatu baitira inoiz; azken erroldak, halere, 900 ingurukoak dira. Oso urria da itsasertzeko uretan. Batzuetan, Arabako Errioxako hezeguneetan eta Laukarizko urtegian (Mungia) egiten du habia.

Kopuru txikitik ugaltzen da Penintsula hegoaldean eta erdialdean, eta Aragoira eta Kataluniara ere heltzen dira. Urte askotan negutarren kopuruak gora egin edota bere horretan eutsi ondoren, 1981tik aurrera behera egin du, batez ere Gallocantako aintzirak (Zaragoza-Teruel) gero eta aukera urriagoak eskaintzen dituelako. Ondokoak ditu negua igarotzeko toki nagusi batzuk: Guadalquivir ibaiko padurak, Valentziako albufera eta Arabako Ulibarri Ganboako urtegia. Azken hamar urtean, 50.000 hegazti negutar zenbatu dira batez beste.



EHIZA. EAEn, uretako espezieen ehiza ez da oso nabarmena, eta murgilari arrunta oso noizbehinka harrapatzen da. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetan, ahateak harrapatzeko ehizaldiak antolatzen dira, eta murgilari arruntak ere botatzen dituzte. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeo garaia.



DESKRIBAPENA. Gorpuzkera sendoko ahatea, ahate urpekarien eta ur gainekoen artekoa. Sexu-dimorfismo nabaria ageri du. Ar helduak iris eta moko gorriak ditu; burua eta eztarria, gaztaina-kolore gorritza nabarmenekoak; bularra, lepoa eta txopa, beltzak; hiru horiek, gainera, sabeleko luzetarako zerrenda batez daude elkarrekin loturik, zeinak saihetsetako bi orban obalatu zuriak bereizten dituen. Emea arre argia da, eta bi kolore nagusitzen zaizkio buruan: txapela gaztaina-kolore ilunekoa, eta masailak eta eztarria, berriz, zuri-grisaxkak; irisa arrea du, eta mokoa, belzkara eta mutur arrosakoa. Bai arrek, bai emeek, hego nabarmenak dauzkate: luzetarako zerrenda zuri batekin apainduak, eta arre-gaztainakarak, aurretik.

ELIKADURA. Urpeko landareak (bereziki algak), gramineoak eta, hein txikiago batean, ornogabe txikiak jaten ditu. Murgilean igeri eginda edo burua murgilduta elikatzen da, lokatza iragazten duela; inguruko landetan ere jaten du.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Udazkenetik hurrengo udaberrira arte eratzen dira bikoteak, eta orduan izaten dira es-talketak. Emeak aintziren ertzetako landaretzan egiten du habia, eta urtean 8-12 arrautzako errunaldi bakarra egiten; gero, 25-28 egun ematen ditu arrautzak txitatzen, eta berak zaintzen ditu txitak ere. Haiek, berriz, jaio eta 40-50 egunera hasten dira hegana, eta amaren ondoan egoten dira hurrengo negura arte.

Oso hegazti taldekoa da, bereziki neguan eta lumaberritze-garaian (maiatza-abuztua). Arratsaldean eta gauean aritzen da batez ere janari bila, eta egunaren erdiko orduak baliatzen ditu lo egiteko.

HABITATA. Ur masa ireki eta sakonera askotakoak nahi izaten ditu, urpeko landaretza oparoa daukatenak. Barnealdeko zein itsasertzeko paduretan, aintzira gazietan, ibaietako ur geldietan eta urtegietan ibiltzen da.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Iberiar penintsulak aterpetzen du Mendebaldeko Europako populaziorik handiena; milaka bikote habiagile biltzen dira Penintsulako hegoaldean eta ekialdean. 10.000 eta 50.000 bitarte banakok igarotzen du negua Penintsulan; batez ere, Valentziako albuferan, Ebroko deltan, Gallocantan (Aragoi) eta Mantxan (Tablas de Daimiel, Taray-ko aintzira).

EAEn, oso hegazti ugaria da eztei-ondoko sakabanatzean eta migrazio-paseetan; bereziki, Arabako urtegietan, non 300 hegazti baino gehiago biltzen baitira lumak berritzeko, ekaina eta urria bitartean. Negutar gisa, oso bakana eta urria da.

EHIZA. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko hezeguneetan antolatutako ehizaldietan ehizatzen da nagusiki ahate gorritza; EAEn, ugaria izaten da batzuetan, baina ez da espezie ehizagarria. Gaztela eta Leonen, eta Kantabrian, bai. Urritik urtarilerara da haiek ehizatze garaia.




KOPETAZURI ARRUNTA

Fulica atra

Focha común

12



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko espezie urtarra (38-45 cm); mozkotea, igerilaria eta urpekaria. Aise bereizten da, lumaje beltzaren eta moko nahiz kopeta zurien konbinazioagatik. Gazteek arreagoa dute gaina, eta oso argiak dituzte masailak eta behealdea.

Hegan hasiera doazenean, aise ikusten zaizkie hatz luze lobulatuak, ur gainean plista-plasta, aireratzeko lasterraldian. Hegan doazenean, hankak isatsaren atzetik ageri zaizkie, eta hegoek laburrak eta biribilak dirudite.

ELIKADURA. Era askotako jakiak jaten ditu: landareak (algak, uretako landareak eta soro-landareak), animaliak (moluskuak, intsektuak, etab.) eta, are, hondakinak. Egunez jaten du ia beti, murgilean ibilita edo urpeko landaretzan bazkatuz.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Kopa-itxurako habia bat egiten du; edo lurrian, edo uretako landareen artean, uraren gainean. Urtean, 5-9 arrautzako bi errunaldi egiten ditu. Arrak eta emeak 21-24 egunez txitatzen dituzte arrautzak, eta biek zaintzen dituzte txita goiztiarrak ere.

Oso taldekoia da. Ez da oso hegalaria; igerian edo oso behean hegan eginda egin ohi du ihes, hegoak bizkor astinduz eta hankak zintzilik dituela.

HABITATA. Mota guztietako hezeguneak atsegin zaizkio, nahiz eta nahia-go dituen tamaina ertaineko edo handiko gune zingiratsuak, hala nola padurak, aintzirak, urtegiak, etab., beti landaretza ugarikoak. Habia egiteko, zingiretako landaredi itxia aukeratzen du.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. EAEn, 300 bikotek baino gehiagok egiten dute habia, batez ere Arabako hezeguneetan; ugariagoak dira, halere, neguan; Uribarriko urtegia nabarmentzen da maila horretan, 9.000 bat hegazti biltzen baitira han (negua EAEn igarotzen duten guztietatik % 80 inguru).

Iberiar penintsulako eta Balear Uharteetako leku askotan egiten du habia. Sedentarioak dira, edo transhumanteak, oso joan-etorri motzak egiten baitituzte. Neguan, Europako beste herrialde batzuetatik datozen migratzaileak gehitzen zaizkie. Guztira, 55.000tik gora izaten dira kopetazuri negutarrak, baina urritzeko joera dute 1982tik. Guadalquivir ibaiko paduretan, Ebroko deltan eta Alacanteko El Hondo-n biltzen dira talderik handienak.

EHIZA. Ehiza-interes txikiko espeziea da EAEn eta Penintsula iparraldean; Penintsula hegoaldean, aitzitik, oso estimatua dute: maiz egiten dituzte kopetazuri arruntak ehizatzeo ehizaldiak Espainia hego-ekialdean. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeo garaia.





DESKRIBAPENA. Hegazti mozkotea (34-36 cm); moko luzea du, eta sigi-saga aireratzen da, ihesi doanean. Lumaje mimetikoa du; gaztaina-kolorekoa eta zerrenda beltzekin, bizkaraldean; tonu okrez eta zerrenda mehez osatua, azpialdean.

Oilagorren adina jakiteko, hegoetako luma handien (arraun-luma primarioak) higadurari begiratu behar zaio, eta luma horiek estaltzen dituzten lumen koloreari. Gazteengan, arraun-luma primarioen muturrak higatuta eta zorrotzak ageri dira; lumok biribilak eta berriak dira helduengan, eta horien luma estaltzaileek lumaren gainerakoa baino kolore argiagoa zerrenda mehe bat ageri dute.

ELIKADURA. Oso hegazti jatuna; egunez eta gauzez elikatzen da. Zizareak jaten ditu, batez ere, baina baita intsektuak, haziak, belarrak, larbak eta beldarrak ere. Bere moko luze eta sentibera erabiltzen du horretarako.


BIOLOGIA ETA OHITURAK. Otsailetik uztailera bitartean da kumeak hazteko garaia. Arrak eztei-hegaldi berezi horiek egiten ditu krepuskulan. Emeak lurrean egiten du habia, baso ez oso itxietan. Errunaldia 4 arrautzakoa izan ohi da, eta emeak 20-23 egun ematen du arrautzok txitatzen. Txitak nidifugoak dira, eta jaio eta bi astera hasten dira hegati.

Hegazti bakartia eta behatzen zaila, dituen mimetismoagatik eta ohiturengatik. Jarduera krepuskularra du; egunez, gune zuhaitzuetan babesten da, eta iluna hurbil denean abiatzen, janlekuetara; normalean, inguruko zelaietara eta larreetara.

Migratzaile gautar bat da, eta kumeak hazteko, negua igarotzeko eta pasea egiteko toki berak aukeratzen ditu urtez urte. Nahiz eta 13 urteko oilagorrek ere ezagutu diren, oilagorrek urtebete ere ez du irauten bizirik gehienetan, gazte-tan duen hilkortasun handiagatik.

HABITATA. Ingurune mota asko okupatzen ditu, baina basoa du ohiko bizilekua, baldin eta basoak soilguneak eta basope landaretsua baditu..

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Oso noizean behin hazten ditu kumeak Penintsulako ipar-herenean, Galiziatik Kataluniaraino; baita Erdialdeko eta Iberiar sistemetako gunen bakan batzuetan ere. EAEn, gutxitan egiten du habia, baina orain arte uste izan den baino gehiagotan, agian. Bizkaiko eta Gipuzkoako konifero-baso zabalak eta hiru lurraldeetako hostozabal-basoak babesleku eta elikatoki egokiak dira oilagorrentzat. Erdialdeko eta Ipar Europako oilagor andana handi bat Iberiar penintsulara etortzen da negua igarotzera; kopuru aldakorretan, ordea, eguraldiaren eta urteko ugaltze-arrakastaren arabera. Iparraldeko oilagorrok urritik Eguberrietara bitartean heltzen dira, eta martxora arte egoten, hemen. EAEn berreskuratutako banakorik gehienak eskandinaviarrak edo errusiarrak dira.



Oilagorraren adina asmatzea, arraun-luma primarioen eta luma estaltzaileen ezaugarriei begiratuta.

EHIZA. Oilagorra da Euskadin zaletasunik handienetako bat sortzen duen espeziea, eta gure oilagor-ehiztari batzuk benetako espezialistak dira haren ehizan. Zaletasun hori Kantauri osora eta Pirinioetara hedatzen da, eta Penintsula erdialdean eta hegoaldean ere geroz eta ohikoagoa da oilagorrek ehizatzea. Oilagorrek saltatzean ehizatzen dira, txakur erakusleen laguntzaz. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeke garaia. Itxarote modalitatea eta txakurrik gabeko saltatze-ehiza guztiz debekatuta daudeai.



DESKRIBAPENA. Ehiza xeheko ehizaki noblea; tamaina ertainekoa (25-28 cm) da; kolore arre mimetikoa du, eta oso moko luzea; sigi-saga aireratzen da, garrasi zorrotz bat eginez. Kontraste handia ageri du, sabelalde zuri arinki marra-tuaren eta zerrendaz betetako bizkarralde arrearen artean.

ELIKADURA. Harrak jaten ditu nagusiki; baita intsektuak, moluskuak eta hazi batzuk ere. Toki lohitsu, heze eta landaretza apalekoetan bilatzen ditu guztiak, bere moko luzeaz.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Lurrean egiten du habia, belar-landaretzaren babesean. Emeak 4 arrautzako errunaldi bakarra egiten du urtean, eta emeak bakarrik txitatzen ditu arrautzok 18-20 egunez. Txitak nidifugoak dira.

Ez da oso taldekoia; bakarrik, bikoteka, hirukoteka edo talde txikitik agertzen da. Oso ezkutakorra da, eta ohitura krepuskularrak ditu.

HABITATA. Kumeak hazteko garaian, ihitzak edo belardi hezeak atsegin ditu; sastrakadiak ere bai, inoiz; pasean edo negua emateko, berriz, zelaiak, landaretza apaleko ibai- eta aintzira-bazterrak, ihitzak, arroz-soroak edo padurak.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. IEAEn, oso arrunta da pasean eta neguan, eta nabarmenki hazten dira populazioak hotz-bolada handiak direnean. Penintsulan, Portugalgo iparraldean eta Espainia erdialdeko eta iparraldeko toki jakin batzuetan egiten du habia. Oso ugaria da pase-garaian eta neguan toki egoki batzuetan, bereziki Kantauri ertze-ko eskualdeetan. Iberiar penintsulako neguko errolda mila istingor arruntetik gorakoa da. Erdialdeko eta Ipar Europatik etortzen dira.

EHIZA. Saltatzean ehizatzen da, txakur erakusleen laguntzaz, putzuz betetako larreetan eta belardietan, horiexek baititu babesteko eta elikatzeko tokirik gogokoena. Urritik urtarilerak da haiek ehizatze-ko garaia. EAEn, noizean behin bakarrik ehizatzen da; nagusiki, urez betetako gunee- tan, beste espezie- ren baten ehizan jardutean.



ISTINGOR TXIKIA

Lymnocyrtes minimus

Agachadiza chica / Percaza

15



DESKRIBAPENA. Istingor txikia (19-22 cm); istingor arruntak bezalako morfologia eta kolore-diseinua ditu; baina txikiagoa da, eta moko motzagoa du. Gure latitudeetan azaltzen diren hiru istingor motak bereizteko, hona metodorik onena: sigi-sagako hegaldia eta garrasiak abiatzean (istingor arrunta); hegaldi zuzena eta isila, istingor txikia (tamaina txikia) edo istingor handia (tamaina handikoa, ehizatzen ez dena).

ELIKADURA. Zizareak, moluskuak eta intsektuak jaten ditu, eta hazi batzuk ere bai.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zizareak, moluskuak eta intsektuak jaten ditu, eta hazi batzuk ere bai.

HABITATA. Lur lohitsu eta urtsuak ditu gustukoen, normalean landaretza jorikoak.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Maiz ikusten da migrazio-paseetan, nahiz eta istingor arrunta baino kopuru txikiagotan; gutxi batzuek ematen dute negua, toki egoki batzuetan, Penintsulan. Espainiara heltzen diren hegaztiak Suediatik, Norvegiatik eta Errusiatik etorri ohi dira. EAEn, urria da, bai pasean, bai negutar gisa.

EHIZA. Saltatzean ehizatzen da, txakur erakusleen laguntzaz, larreetan eta zelai urtsuetan; istingor arruntarekin nahastuta botatzen da gehienetan. Saihestu egin behar da nahasketa hori, zeren toki batzuetan (adibidez, Nafarroan, Kantabrian eta Errioxan) ezin baita ehizatu istingor txikia. Urri-tik urtarrilera da haiek ehizatzeke garaia.





DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko (30-31 cm) zangaluze bat da, eta motots tente berezi bat du. Beltzak ditu paparra, bizkarra, eztarria eta buru gaina (txanoa), distira berdexka batekin, eta, haiekin kontrastean, zuria du azpialdea; isatseko luma estaltzaileak, berriz, gaztaina-kolorekoak ditu.

Hegan doala, irudi nahastezina du, bere hego zabal eta biribilengatik; hegaka geldoa du, eta ibilbide nahasia; tximeleta-mugimendu batzuk eta kontraste zuri-beltza nabarmentzen dira haren hegaldian.

ELIKADURA. Intsektuak jaten ditu nagusiki, eta, haiekin aldizkatuta, moluskuak, zizareak, araknidoak, krustazeoak eta landare batzuk. Lurrean elikatzen da, egunez.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Kumeak kolonietan hazten ditu, lurrean eginiko habia batean. Emeak 4 arrautzako errunaldi bakarra egiten du urtean, eta bi gurasoek 24-29 egun ematen dute arrautzok txitatzen. Txitak nidifugoak dira. Bi gurasoek zaintzen dituzte; emeak lan handiagoa egiten du, halere.

Oso taldekoiak dira, eta, batzuetan, talde handiak eratzen dituzte. Taldeok egunez mugitzen dira. Mesfidatiak eta zakarrak dira gizakiaren aurrean. Hegaberek 3 urte eta erdiko adina dute batez beste, baina 22 urtera arte ere bizi daitezke.

HABITATA. Padura- eta aintzira-ertzetan egiten du habia, larre hezeetan. Neguan, zelai hezeetan, soroetan eta toki zingiratsuetan pausatzen dira, beti leku ireki eta lauetan.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. EAEn, ugaria da pasean eta neguan (irailetik martxora), baina dezente aldatzen dira kopuruak, eguraldiaren arabera. Kalkulatu da 1.000 bikotetik gorakoa dela Penintsulako populazio ugaltzailea. Oso sakabanatuta daude bikoteok; hegoaldeko eta erdialdeko hezeguneetan, nagusiki. Neguan, Penintsulako populazioa nabarmen hazten da Erdialdeko eta Ipar Europako talde handiei esker. Bi eskualde haietan, habiagile arrunta da hegabera. Hegaberek oso sentiberak dira ekaitzen aurrean. Modu masiboan ihes egiten dute European neguan izaten diren hotz-boladetatik, eta haien presentzia oso estimatua da orduan Euskadin.



EHIZA. Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldean ehizatzen dira batez ere, neguko ekaitzetatik ihesi iristen direnean. Urritik urtarrilera da haiek ehizatzeo garaia.

FAISAI ARRUNTA

Phasianus colchicus

Faisán vulgar

17 ◀



DESKRIBAPENA. Tamaina handiko (65-90 cm) eta isats luzeko galinazeoa. Arrak oso lumaje ikusgarria du; buru berde ilun distiratsua eta begiaren inguruko karunkula gorri biziak nabarmentzen zaizkio; maiz, lepoko zuri mehe bat ere izaten du. Emeeak ere isats luzea dauka, baina lumaje hitsagoa, tonu arre eta beltzekoa.

ELIKADURA. Harrak jaten ditu nagusiki; baita intsektuak, moluskuak eta hazi batzuk ere. Toki lohitsu, heze eta landaretza apalekoetan bilatzen ditu guztiak, bere moko luzeaz.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. BIOLOGIA ETA OHITURAK

Arrak eme batekin baino gehiagorekin batzen dira (poligamoak). Lurrean egiten du habia, landareen artean ezkutaturik. Urtean, 7-15 arrautzako errunaldi bakarra egiten du; emeek 23-27 egun ematen du arrautzok txitatzen, eta hark zaintzen ditu, halaber, txita nidifugoak.

Hegazti zakarra, hegaldi zatratsu eta astunekoa. Maiz pausatzen da zuhaitzetan..

HABITATA. Mota askotako inguruneak okupatzen ditu: basoak eta sastrakadi bakanduak, larrez eta soroz osatutako eta heskaiz edo zuhaitz bakanez bereizitako lurrak, eta ibai-bazterrak.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Espezie exotikoa da gure lurraldeetan.

Asiako hego-ekialdean du jatorria. Gaur egun, ehiza-helburuekin askatzen dira maiz. Batzuetan, aske irauten dute banako batzuek. Nahiz eta kopuru handitan askatzen diren, oso gutxi irauten dute basati gisa; ez dira maiz ugaltzen, eta txiten iraupena oso laburra izaten da.

EHIZA. EAEn, saltatzean eta talde-ehizan ehizatzen dira, txakur erakusleen laguntzaz, berehala ehizatzeo askatutako haztegiko hegaztiak; barruti sozialetan edo ehiza industrialeko guneeetan egiten da hori; gainera, ihes egindako banako batzuk edo basoan hazitako batzuk ere harrapatzen dira noizean behin. Modalitate horietan dira erabilienak Penintsulako gainerako tokietan ere. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeo garaia.





DESKRIBAPENA. Hegazti mozkote eta txikia (16-19 cm); tonu arre eta hondar-kolorekoak ditu. Aise entzun daiteke arraren hiru silabako txio ozena; egunez eta gauzez egiten du. Adina ere erraz kalkula daiteke, arraun-luma primarioen higadura mailari behatuta. Honelakoak izaten dira lumok, zehazki: mutur oso eta berrikoak, gazteengan, eta zirtzilduak eta maiztuak, helduengan. Arrek eztarri zuria dute, aingura-itxurako orban beltz batekin; bularra, berriz, horail iluna, marratxo zuriz betea. Emeek eztarri zuria daukate, ondo eraturako aingurarik gabe; bularra, berriz, horail iluna, orban arre edo belzkara ugariz beteta.

ELIKADURA. Dieta begetarianoa du, hazietan eta belarretan oinarritua; ornogabeak ere jaten ditu.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Afrikako negutokietatik itzultzean (apirila edo maiatza) hasten da ugaltze-zikloa. Ohikoa da poligamia; arrak eme batekin baino gehiagorekin batzen dira, beraz. Emeen ardura da habia egitea, arrautzak txitatzea eta txitak zaintzea. Lurrean egiten du habia, landare artean ezkutatuta. Emeak 7-12 arrautzako errunaldi bakarra egiten du urtean (maiatzean edo ekainean, normalean), eta 18-21 egunez txitatzen ditu arrautzok. Txitak nidifugoak eta goiztiarrak dira, jaio eta 20 egunera hasten baitira hegan.

Hegazti bakartia eta ezkutakorra da; araldian edo migrazio-bidaian bakarrik elkartzen da beste batzuekin. Oso lurrekoa da; ez du atsegin hegan egitea.

HABITATA. Leku irekiak; normalean, belarra oso gora edo trinkoa ez den tokiak (soroak, larreak, zelaia), baina beti lur freskoetan.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Hegazti udatiarra da EAEn; urria eta toki jakinetakoa, eskualde atlantikoetan (Gipuzkoan eta Bizkaian), eta ugarria edo ohikoa, Arabako soro irekietan; bereziki, urte oparoetan. Iberiar penintsulan eta Balear Uharteetan, habiagile arrunta da; urria, haatik, negutar gisa.

Uda-hondarrean alde egiten dute ugaltokietatik, eta Saharaz hegoaldeko negutokietarantz abiatzen dira talde txikitan. Orduan, eztei-ondoko pasea (ehiza-pasea) egiten dute iberiar populazioek. Erdialdeko Europatik eta Hego Europatik datozen hamarna milaka batzuk gehitzen zaizkie. Oso populazio-dinamika ezezaguna eta aldakorra du; Europako galeperren % 30-60k urritze gogor bat jasan du, itxura denez, azken 20 urtean.



AR HELDUA


AR GAZTEA
EME HELDUA



AR GAZTEA



BEREZI GABEKO GAZTEA


Eztarren ohiko koloreak, galeperren sexuaren eta adinen arabera.

EHIZA. "Debekualdi erdian" ehizatzen da, abuztua eta iraila bitartean; saltatzen ehizatzen da, txakur erakusle ezinbesteko laguntzaz. Debekualdi erdia eta, oroz gain, galeper-ehiza dira ehizan hasten diren eta ehiza-txakurkumeen eskola nagusia.



DESKRIBAPENA. Hegazti mozkotea (33-38 cm); motzak eta biribilak ditu hegoak eta isatsa, eta gorriak, mokoa eta hankak. Bekain zuri luze bat dauka, eta kolore bera du eztarrian ere, beltzez azpilduta. Grisaxkak ditu saihetsak, zerrenda marroi, zuri eta beltz ugarirekin. Oso lurterra da; arin-arin ibiltzen da oinez, eta, maiz, lurrean uzurtzen, arriskuan denean. Hegaldi bizkor eta indartsua du, hegokadak eta planeatzeak aldizkatzen dituela.

Ehiza-garaian, gazteak eta helduak bereizteko, hegoetako bi lumarik kanpokoenen muturrak aztertzen dira, eta hone-lakoak izan ohi dira: krema-kolorekoak eta zorrotzak, gazteengan, eta biribilak eta krema-koloreko muturrak gabeak, helduengan. Sexua hanketako ezproietatik igartzen da: gazteen kasuan, emeek ez dituzte; helduengan, berriz, arrek oinarri zabaleko ezproi trinkoak dituzte, eta emeek, aldiz, zorrotzagoak eta ez hain nabarmenak, edo batere ez.



Eper gorri arren eta emeen ezproien itxura, adinaren arabera.

ELIKADURA. Landareak (belarrak eta haziak) jaten dituzte nagusiki; hori osatzeko, intsektuak ere bai, udan. Animalia-osagai hori funtsezkoa da txiten garapenean. Horregatik da hain negatiboa sailen arteko mugak kentzea eta nekazaritza intentsiboan intsektizidak eta pestizidak erabiltzea; bereziki, sail-bazterretako mugetan eta muinoetan.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Ugaltze-garaia otsail-martxoan hasten da, bikoteak eratzearekin, eta orduantxe hasten dira arren garrasiak, jazarraldiak eta borrokak. Habia landare-hondarrez jantzitako sakonune txiki bat izaten da, mulu baten edo belar batzuen babesean kokatua. Errunaldia 7-17 arrautzakoa (12-15, batez beste) izaten da, eta emeak txitatzen ditu arrautzok. Txitak 22-24 egunera jaiotzen dira; jaio eta berehala uzten dute habia, eta gurasoei jarraitzen diete. Zenbaitetan, emeek bi errunaldi egiten dituzte aldi berean bi habia desberdinetan; orduan, arrak txitatzen ditu habia bateko arrautzak.

Hilkortasuna oso handia da bizitzako lehen hiletan; bikote bakoitzaren produkzio erreala 4-6 kumekoa izaten da, ehiza hasi aurretik, eta 7-9koa, urtea ona bada.

HABITATA. Hegaztia lur ireki eta lehorretan bizi ohi da: soroak eta txarak nahasten diren tokietan, mahastietan, etab., bai ordeketan, bai mendi-hegaletan eta toki menditsuetan.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Sedentarioa da. Iberiar penintsularen zatirik handienean eta Balear Uharteetan bizi da; kopuruak dezente aldatzen dira (eper bat hektareako, leku onetan), habitataren nolakoaren eta ehiza-presioaren arabera. Kantauri aldeko zerrendan duen presentzia nukleo bakartu batzuetara mugatzen da, eta horiek birpopulatzeetatik etorri dira.

EAEan, Arabako lur zabaletan egiten du habia; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, ia ez da eper gorri.



EHIZA. Askoren ustez, eper gorria da ehiza xeheko espezie nagusia. Ehiza modalitate anitz onartzen ditu; "saltatzean" eta "talde-ehizan" ehizatzen da; txakur erakusleen eta txakur jasotzaileen laguntzaz, normalean. Penintsula erdialdeko eta hegoaldeko autonomia-erkidego batzuetan, "eper-ehizaldiak" antolatzen dira, eta uzten da "apeu bidez" ehizatzen. Nola espezie sedentario bat den, eta nola haren habitata maiz nahiko hondaturik dagoen, garrantzitsua da muga batzuk ezartzea: ordutegiak eta ehiza kupoak, normalean. Ehiza industrialeko eremuetan, ohikoa da haztegiko eperrak askatzea, berehala ehizatzeke; ardura berezi bat hartu behar da orduan: animaliek genetika egoki bat eduki behar dute, landan aska ditzaten. Urritik urtarrilera da haiek ehizatze-garaia; Araban, berriz, azarotik urtarrilera..



DESKRIBAPENA. Eper gorriaren antzeko tamaina eta itxura ditu, eta honako hauek ditu harekiko aldeak: lepoko gorrixka bat, puntu zuriz betea, eta askoz aurpegi zurbilagoa, ez baitauka eper gorriaren zerrenda beltza begiaren inguruan. Goiko aldeak arreak ditu; sorbaldako lumak, berriz, urdinxkak, gorritz azpilduta.

ELIKADURA. Haziek eta fruitu txikiek osatzen dute, funtsean, haren dieta; hura osatzeko, berriz, intsektuak eta beste animalia txiki batzuk jaten ditu.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Lurrean egiten du habia. Urtean, 8-16 arrautzako errunaldi bakarra egiten du, eta emeak 21-24 egun ematen du arrautzok txitatzen. Txitak nidifugoak dira.

HABITATA. Leku irekiak; txarak, lur etzeak, soroak... aukeratzen ditu; ura eta behar besteko landare-estaldura badi-tuzte, betiere.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Sedentarioa da. Kanariar Uharteetan egiten du habia. Ehiza-helburuekin sartu dute toki batzuetan. Penintsulan, Gibraltarren hazten ditu kumeak; baita Cadizen ere.

EHIZA. Espeziea toki malkartsu eta izaera bolkanikokoetan bizi da; horregatik, "saltatzean" eta "talde-ehizan" ehizatzen da, eta ezinbestekoa da txakur erakusleen laguntza. Urritik urtarilerara da haiek ehizatzeo garaia.



PAGAUSSOA

Columba palumbus

Paloma torcaz

21



DESKRIBAPENA. Uso sendoa (41 cm). Orban zuri bat du hegoetan eta lepoaren bi aldeetan. Lumajea gris-urdinxka da bizkarrean, eta ardo tonu bat du, bularrean. Gazteak tonu arreak ditu, eta ez dauka orban zuririk lepoan.

ELIKADURA. Lurrean jaten du, eta haziz, zereal alez, lekalez, belarrez eta landare-begiz elikatzen da; udazkenean eta neguan, ezkurak eta pagatxak jaten ditu, batik bat.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Apiriletik abuztura hazten ditu kumeak; inoiz, irailean. Bi errunaldi ateratzen ditu aurrera orduan; batzuetan, hiru. Zuhaitz batean egiten du habia; plataforma xume bat osatzen du adar mehe-mehe batzuez, eta emeak 2 arrautza zuri ezartzen ditu han. Txitaldiak 17 egun irauten du, eta bi gurasoen artean egiten dute. Kumeak nidikolak dira, eta 30-35 egunera hasten dira hegana.

Taldekoa da; talde handiak eratzen ditu migrazio-garaian eta negualdian, eta lolekuetan biltzen dira. Bizi-bizi joaten da hegana, hegada ozenak eta sakonak eginez.

HABITATA. Mota guztietako zuhaiztietan (parkeak, ibar-basoak, basoak...) bizi da. Kumeak hazteko garaitik landa, toki irekiak ere bisitatzen ditu maiz, hala nola soroak, larreak, etab.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Europako tamaina ertaineko hegaztirik ugarienetako bat da. EAEn, oso hegazti ugaria da pase-garaian, bereziki Gipuzkoan eta Araban, udazkenean Pirinioetako mendebaldetik sartzen diren Europako pagausoen migrazio-bide nagusian baitaude lurraldeok. Habiagile gisa, urria da alderik iparraldekoenean, eta arrunta, hegoaldekoenean.

Egunez migratzen du, eta oso taldekoia da. Irailetik azarora bitartean, hegazti-pase nabari bat izaten da; lpar eta Erdialdeko Europatik etorri ohi dira, eta urriaren bigarren hamabostaldian ikusten dira kopururik handienak. Talde horietan, milioika pagauso joaten dira, nahiz eta alde handiak izaten diren kopuruetan urtetik urtera. Penintsulako hego-mendebaldeko larreetara joaten dira guztiak, negua igarotzera. "Kontrapasa" edo udaberriko pasea martxoan izaten da; ez da udazkenekoa bezain nabarmena, eta, bai, segur aski, bizkorragoa eta ekialdeagotik.



EHIZA. Pagausoek zaletasun handia pizten dute EAEn eta Nafarroan, eta arrazoi batek laguntzen du horretan: hegaztiaren udazkeneko migrazioaren Iberiar penintsulako sARBIDEAN daude kokatuta bi lurraldeak. "Pasean" ehizatzen dira pagausoak, batez ere bi lurraldeotan, eta postu finkoetatik; eta antzera, Burgosko, Soriako eta Errioxako mendi-lerroetan. Modalitate espezifiko ugari dira haiek ehizatzeak: "txabolatik" eta apeuaz baliatuta, non behin pausatu denean ehizatzen baita hegaztia; "postu finkotik", Penintsulako hego-mendebaldeko larreetako lolekuetara eta janlekuetara sartzeko tokietan, edota "saltatzean". Aipamen berezi bat merezi du Nafarroako Etxalarko mendietan pagausoak sare bertikalekin harrapatzeak dagoen ohiturak. Ohiko pasabideetan, irailtik azarora bitarteko "pasean" ehizatzen da; ehiza-garai orokorra, berriz, urritik urtarilera da. Debekualdi erdian (abuztua-iraila) ere, ehiza-espezia da. Aitzitik, pagausoaren "kontrapasako ehiza" edo hegaztia ugaltokietarako bidean ehizatzea ez dago baimenduta.

HAITZ USOA

Columba livia

Paloma bravía

22



DESKRIBAPENA. Txolomaren heinekoa da tamainan, eta ondokoek bereizten dute harengandik: hegoetako bi zerrenda beltzek, mokoko zeroma zuriak, eta bizkarralde gris-urdinxkarekin kontrastea sortzen duen ipurtxuntxur zurixkak. Etxeko usoaren jatorria da; etxe-usoek diseinu edo kolore ugari ageri ohi dituzte: basatiaren antzekoak dira batzuk, eta arreak, zuriak, edo beltzak, beste batzuk.

ELIKADURA. Haziak eta belarrak jaten ditu gehienbat; ornogabeak ere bai, inoiz edo behin.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Talde txikitik egiten du habia, normalean. Zuloetan, leizeetan eta arrakaletan kokatzen du habia; urtean bizpahiru errunaldi egiten ditu: bi arrautza, aldiko. Bi gurasoek 17-19 egun ematen dute arrautzak txitatzen. Txitak nidikolak dira.

Ez da oso taldekoia; bakarka, bikoteka edo talde txikitik ikus daiteke. Gutxitan pausatzen da zuhaitzetan. Harkaizti-tako erlaitzetan eta lurlean bilatzen du janaria.

HABITATA. Itsaslabarrak eta barnealdeko harkaiztiak atsegin ditu habia egiteko. Janari bila aritzeko, berriz, toki irekiak eta basoak.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Espezie sedentarioa da; ongi banatuta dago Penintsula osoan eta Balear Uharteetan basati-egoeran, nahiz eta kopuru txikitik izan. Dena dela, banaketa hori oso nahasia da, baliteke-eta haitz-uso asko etxe-uso basatuak izatea. EAEn, Artzena eta Kantabria mendilerroetako hegoaldeko isurialdean hazten ditu kumeak; itsasertzeko hainbat itsaslabarretan eta uhartetxotan ere bai, inoiz. Haren nahaste eta etxekotze mailek zailago egiten dute, egiazki, espezieak basati irautea.

EHIZA. Ez da espezie bereziki interesgarria ehiztarientzat, baina bai ohikoa, haien zakutoetan. EAEn, "saltatzean" ehiza daitezke batzuk; bai eta "txabolatik" eta apeuaz ere. Normalean, etxeko uso basatuak ehizatzen dira. Usategiak dauzkaten eraikinek segurtasun eremu bat dute inguruan, eta ezin da tirorik egin han. Arreta handiz ibili behar da beti, identifikazio-markak dituzten uso mezulariei tirorik ez egiteko. Debekualdi erdia (abuztua-iraila) eta urritik urtarrilera bitarteko ehizaldi ireki orokorra sartzen dira ehiza-denboraldian.



DESKRIBAPENA. Pagausoaren antzekoa da; ondokoek bereizten dute harengandik: tamaina txikiagoak (30-33 cm); hegaldi bizkorrago eta zuzenagoak, non isatsak motzagoa dirudien, eta lumaje ilunago eta marka zuririk gabeak. Tonu berde metalikoko orban bat du lepoan, baina ez da halakorik hegazti gazteengan.



ELIKADURA. Lurrean jaten du, haziak, aleak, belarrak eta ornogabeak bilatuta. Neguan, ezkurak jaten ditu nagusiki.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zuhaitz-zuloetan, harkaiztietan eta eraikin-hondarretan hazten ditu kumeak. Emeak bizpahiru errunaldi egiten ditu urtean, eta bi arrautza, aldiko. Bi gurasoek 16-18 egunez txitatzen dituzte arrautzok. Txitak nidikolak dira.

HABITATA. Zuhaitz zaharrez osatutako basoak; maiz, ibar-basoak eta baso txikiak. Maiz ibiltzen da leku irekietan ere, hala nola soroetan eta larreetan, eta janleku gisa erabiltzen ditu.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Espezieak behar-kada demografiko nabarmena izan du Europan. EAEn, ia guztiz falta da Gipuzkoan eta Bizkaian, eta urria da Araban; nolahi ere, ugarriagoa da migrazio-paseen garaian. Abuztuaren hondarretik azarora bitartean igarotzen dira txo-



loma; Hego, Erdialdeko eta Ipar Europatik etorri ohi dira, talde bakartuetan, edo pagausoekin nahasita, eta Penintsulako hego-mendebaldeko eskualdera jotzen dute negua ematera. Kontrapasa edo eztei-aurreko migrazioa otsailean eta martxoan izaten da, baina ez da hain nabaria. Iberiar penintsulan habia egiten duen populazio urria sedentarioa da.

EHIZA. Ehizatutako txolomak oso urriak dira Euskadin, pagausoaren kasuarekin alderatuta. "Postu finkotik" ehizatzen da, migrazio-garaian, edo Penintsulako hego-mendebaldeko larreetako lolekuetara eta janlekuetara igarotzeko lekue-tan; baita "txabolatik", "apeuaz" eta "saltatzean" ere. Urritik urtarrilera da haiek ehizatze-garaia.

USAPALA

Streptopelia turtur

Tórtola europea / Tórtola común

24



DESKRIBAPENA. Uso txikia (28 cm) da, eta tonu arreak ditu. Bizkarra hondar-kolorekoa dauka, orban beltz batzuekin, eta paparra, arrosa. Marra zuriz eta beltzez osatutako orban bat du lepoan, baina gazteek ez dute. Isatsa beltza da, eta zuriak ditu ertzak.

ELIKADURA. Lurrean elikatzen da; haziak jaten ditu nagusiki, eta, inoiz, animalia txikiren batzuk (moluskuak, etab.).

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Ugaltzeko garaia maiatzaren erdialdetik abuztuaren hondarrera da, eta bi errunaldi ateratzen ditu aurrera normalean. Adartxo osatutako habia xume bat egiten du lurretik ez oso gora, sastraketan edo garaierako txikiko zuhaitzetan. Normalean, bi errunaldi egiten ditu urtean, eta bi arrautza, aldiko. Bi gurasoek txitatzen dituzte arrautzok. Handik bi astera jaiotzen dira txitak. 18-21 egun ez egoten dira habian, bi gurasoek zainduta. Oso produktibitatea apala ageri du urteko: 1,6 kume, bikote bakoitzak.

Taldekoia da, eta janleku eta edanleku beretara joan ohi da beti.

HABITATA. Zuhaitzi mota askotan (ibar-basoak, basoak, sastrakadiak) ibiltzen da; soroetatik eta larreetatik hurbil, beti.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Sahara zeharkatzen du migrazioan. Basamortutik hegoaldera dagoen zerrenda idorrean ematen du negua. Udako espezie bat da; maiatzetik irailera bitartean ikusi ohi da. Apiriletik maiatzera bitartean izaten da udaberriko pasea, eta udazkenekoa, berriz, abuztuko bigarren hamabostaldetik urriaren hasierara bitartean. Penintsula osoan eta Balear Uharteetan egiten du habia, eta mendebaldeko eta hego-mendebaldeko eskualdeetan ageri du dentsitate handiena. EAEn, urria da Bizkaian eta Gipuzkoan; ugariagoa, Araban.



Gainbehera demografiko handia ari da jasaten Europan, baina alde handiak dira herrialde batetik bestera. Ondoko hipotesi hauek aipatu dira gainbehera horren kausa gisa: kumeak hazteko tokietan nekazaritza handitu izana, migrazioan jasaten duten ehiza-presio handia, negutokietan izan diren lehortek.

EHIZA. Nola Penintsulan izaten den udan, galeperrarekin partekatzen du protagonismoa debekualdi erdian, abuztutik irailera; "saltatzean" ehizatzen da orduan, baina, batik bat, postu finkotik, hegaztiak janlekuetara eta edanlekuetara doazenean.



DESKRIBAPENA. Txori ertaina (21-23 cm). Tonu arreak ditu bizkarreko lumajean, eta pikardatuak, bularra eta sabela. Ezaugarri berezi bat: saihetsetan eta hegoen azpian duen kolore okrea.

ELIKADURA. Ornogabeen (intsektuak, zizareak eta barraskiloak) kontsumoan oinarritzen da; fruitu mota asko jaten ditu, gainera, udazkenean eta neguan.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zuhaitz askoko lekuetan egiten du habia. Zuhaitzetan, zuhaixketan edo aihen-belarretan jartzen du habia; eraikinetan ere bai, batzuetan. Adartxo osatutako kopa bat izaten da, barnetik goroldioz, hostoz eta lokatzez jantzia. Urtean, bizpahiru errunaldi egiten ditu, eta 3-6 arrautza, aldiko; emeak txitatzen ditu arrautzok, 11-15 egunez. Txitak nidikolak dira, eta bi gurasoek zaintzen dituzte. Jaio eta handik 15-20 egunera hasten dira hegan txitok.

Oso taldekoia da neguan. Batik bat gauean egiten dute migrazioa; talde txikitik joaten dira, eta maiz deitzen diote elkarri. Atsedenaldiak egiteko eta jateko erabiltzen dute eguna. Zenbaitetan, "ingudeak" aurkitzen ditugu landan, hots, barraskiloen maskorra hautsi eta edukia jateko birigarroek baliatzen dituzten harri handiak.

HABITATA. Sastrakadiak eta zuhaiztiak aukeratzen ditu habia egiteko; ugaria da baso hostoerorkorretan eta ibar-basotetan. Neguan, leku ireki eta inguruan zuhaitzak dituztenak bisitatzen ditu; maiz ikusten da olibadietan.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Habiagile gisa, arrunta da Penintsulako ipar-herenean (Kantauriar mendikatea, Pirinioak, Katalunia, Iberiar sistema eta Ebro Garaia); badirudi, halere, hegoalderantz eta Mediterraneorantz ari dela hedatzen bere bizilekua. EAEn, ugaria da iparraldean, eta urriagoa eta toki batzuetara mugatua, hegoaldean.

Iberiar penintsulako populazio ugaltzailea sedentarioa da; ez, ordea, Erdialdeko eta Ipar Europakoa, Mediterraneo itsasoaren arriorantz joaten baita masiboki, negua igarotzera.

EHIZA. Penintsulan eta Balear Uharteetan gehien harrapatzen den ehiza xeheko animalia da. Nahiz eta "saltatzean" ere ehizatzen den, gehienak "postu finkotik" botatzen dira, bai migrazioaren unean, uso-postuetatik, bai lolekutara eta janlekutara (mahastiak, olibadiak..) heltzen ari direla. Ohiko pasabideetan, irailetik azarora bitarteko "pasean" ehizatzen da; ehiza-garai orokorra, berriz, urritik urtarrilera da.

EAEn, foru-aldundiek arautzen dute ehiza ohiko pasabideetan, urteroko foru-aginduen bidez; horregatik, komenigarria da ehiztariek araudi hori denboraldi guztietan aztertzea.



GARRAZTARROA

Turdus viscivorus

Zorzal charlo

26 ◀



DESKRIBAPENA. Birigarro sendoa (27 cm). Grisa edo oliba-kolorekoa du bizkarra, eta tanto lodi batzuk ageri ditu bularrean eta sabelean. Baditu birigarro arruntetik eta birigarro txikitik bereizten duten ezaugarri batzuk: tamaina handiagoa, dei karrankatsua eta hegoaren azpi zuria, zeina ederki ikusten baita hegan doala. Kolore uniformeoa du bizkarrean eta isatsean, eta horri esker bereiz daiteke durdularengandik, hark kontraste handiagoko koloreak baititu.

ELIKADURA. Baiak eta beste fruitu batzuk ditu dietaren oinarri; zizare eta intsektu kopuru handi batekin osatzen du hura. Nola oso gogoko dituen mihuraren fruituak, landare bizkarroi berezi hori hedatzen laguntzen du.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zuhaitz askoko leketan egiten du habia, beti kopa-itxurakoa, eta zuhaitz-urkiletan kokatzen du. Urtean, bi errunaldi egiten ditu, eta 3-5 arrautza, aldiko. Emeak soilik txitatzen ditu arrautzok, 12-15 egunez. Txitak nidikolak dira, eta bi gurasoek zaintzen dituzte. Jaio eta 20 egunera hasten dira hegan txitok.

Hegazti zakar samarra da, eta zeharo taldekoa: talde handiak eratzen ditu neguan.

HABITATA. Arras basozalea da ugaltzeko garaian; baso irekiak okupatzen ditu orduan, landare txikiko soilguneak dituztenak. Udazkenean eta neguan, leku irekietan ikusten da, hala nola zelaietan, soroetan eta eremuetan.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Sedentarioa da gure eskualdeetan, baina transhumantea. Penintsula osoan egiten du habia, nahiz eta kopuru desberdinetan; espezie menditarra da Penintsulako hego herenean. Erdialdeko eta Ipar Europako populazioek Iberiar penintsulan eta Balear Uharteetan eman ohi dute negua, bereziki Penintsulako ipar-ekialdean. Oso sentikorak dira negu gogorren aurrean. EAEn, espezie arrunta da baso gehienetan; hariztietan, batik bat.



EHIZA. Nahiz eta "saltatzean" ere ehizatzen den, gehienak "postu finkotik" botatzen dira, birigarro arrunta bezala; bai migrazioaren unean, usategietatik, bai loleketara eta janleketara (mahastiak, olibadiak...) sartu-irtenak egitean. Ohiko pasabideetan, irailetik azarora bitarteko "pasean" ehizatzen da; ehiza-garai orokorra, berriz, urritik urtarilerara da.

Aurreko espeziearen kasuan adierazten den bezala, foru-aldundiek arautzen dute ehiza ohiko pasabideetan EAEn, urteroko foru-aginduen bidez; horregatik, komenigarria da ehiztariak araudi hori denboraldi guztietan aztertzea.



DESKRIBAPENA. Garraztarroa baino pitin txikiagoa, eta birigarro arrunta eta birigarro txikia baino sendoagoa. Aise bereiz daiteke buruko eta ipurtxuntxurreko herrauts-kolore grisagatik, kontraste handia sortzen baitu bizkar arrearekin eta isats belzkararekin. Tanto ilun batzuk ditu bular hori-gorrixkan. Zuria du hegoaren azpia (okrea eta gorria dira birigarro arruntarengan eta birigarro txikiarengan); garraztarroak baino hegaldi zuzenagoa egiten du, ohiko uhindurekin, eta hark hegoen ertzetan ageri dituen ertz zuriak falta zaizkio.

ELIKADURA. Intsektuak, armiarmak, zizareak, fruituak eta haziak jaten ditu.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Birigarro zakar eta taldekoia; neguan bakarrik izaten da Iberiar penintsulan. Jokabide nahasia ageri du hemen, eta taldeak eratzen ditu baso-ertzetan kokatutako loleketan.

HABITATA. Neguan, leku irekietan ibili ohi da, hala nola zelaietan, soroetan, sailen arteko landaredietan, etab.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Ez du kumerik hazten Penintsulan eta Balear Uharteetan, baina jasotzen dituzte Ipar Europako (Eskandinaviakoak, nagusiki) negutar batzuk bi horietan; ugariagoa da Penintsulako ipar-herenean eta Balearretan, eta bakanagoa, hegoalderago. EAEk antzeko negutar talde bat izaten du negu guztietan. Oso espezie sentikorra da hotz-boladen aurrean, eta garaiz kanpoko agerraldiak edo ihesak egiten ditu eguraldiak behartutakoan.

EHIZA. "Saltatzean" ehizatzen da, eta "postu finkotik", bai migratzeko unean, postuetatik, bai loleketara eta janleketara (mahasti, olibadi...) sartu-irtenak egiten dituztenean; gainerako birigarroak baino kopuru txikiagotan harrapatzen dira. Ohiko pasabideetan, irailetik azarora bitarteko "pasean" ehizatzen da; ehiza-garai orokorra, berriz, urritik urtarilera da.



EAEan, foru-aldundiek arautzen dute ehiza ohiko pasabideetan, urteroko foru-aginduen bidez; horregatik, komenigarria da ehiztariek araudi hori denboraldi guztietan aztertzea.

BIRIGARRO TXIKIA

Turdus iliacus

Zorzal alirrojo

28



DESKRIBAPENA. Birigarro txikia (21 cm). Hiru hauek bereizten dute gainerako birigarroetatik: tamaina txikiagoak, saiheks eta hego-azpi gaztainakara-gorritzek (okrea, birigarro arruntarengan, eta zuria, garraztarroarengan eta durdu-larengan) eta bekain zuri nabarmenak (gainerakoek ez baitute).

ELIKADURA. Lurrean elikatzen da; zizareak, barraskilo txikiak, intsektuak eta basa-fruitu ugari jaten ditu; oliba-jale handia da Penintsula hegoaldean.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Ez du kumerik hazten Penintsulan eta Balear Uharteetan. Taldetan bildu ohi da; neguan, janlekuak (zuhaitz formazioak, zuhaixka formako landareak, zelaia, baratzeak, etab.) eta lolekuak (baso trinkoa) al-dizkatzen ditu, jokabide nomada erakusten duela.

HABITATA. Neguan, leku irekiak, soilgune ugari basoak eta, inoiz, zelaia eta hiri-parkeak okupatzen ditu. Oso gogoko ditu basoko zuhaixka formako landareak.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Espezie hertsiki negutarra dugu Penintsula osoan. Izan ere, era masiboan etortzen dira Ipar Europako (herri baltikoak, Islandia...) birigarro txikiak, nahiz eta alde handiak izaten diren kopuruetan eguraldi-baldintzen arabera. EAEn, paseko hegazti arrunta eta ohiko negutarra da Bizkaiko eta Gipuzkoako landetan; urriagoa, ordea, Arabako zelaian eta basotxoetan.

EHIZA. Gehien ehizatzen den bigarren birigarro mota da, birigarro arruntaren ondoren; "saltatzean" ehizatzen da, hura bezala, eta, oroz gain, "postu finkotik", bai migrazioan, usategietatik, bai lolekuetara eta janlekuetara (mahastiak, oli-badiak...) egiten dituzten sartu-irtenetan. Ohiko pasabideetan, irailetik azarora bitarteko "pasean" ehizatzen da; ehiza-garai orokorra, berriz, urritik urtarilerara da.



EAEn, gainerako birigarroen kasuan bezala, foru-aldundiek arautzen dute ehiza ohiko pasabideetan, urteroko foru-aginduen bidez; horregatik, komenigarria da ehiztariek araudi hori denboraldi guztietan aztertzea.



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko (20-22 cm) hegatzia. Tantz jositako lumajea ageri du: gorriak dira bizkarrean, eta zuriak, sabelean. Hegaldi zuzena eta bizkorra, non hegada bizkorrak eta planeatzeak aldizkatzen diren.

ELIKADURA. Batez ere lurrian elikatzen dira; intsektuak, zizareak eta barraskilo txikiak jaten dituzte udaberrian eta udan, eta haziak eta fruituak, neguan.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zuhaitz-zuloetan, harkaitzetan, okilen habietan eta giza eraikinetan –harresiak, teilatuak– egiten dute habia. Bi errunaldi egiten dituzte urtean, eta 5-7 arrautza, aldiko; 10-15 egunez txitatzen dituzte arrautzok bi gurasoek. Txitek 20-22 egun ematen dute habian, bi gurasoek zainduta.

HABITATA. Leku irekiak okupatzen dituzte, hala nola soroak, uztondoak, zelaiak, etab.; betiere, habia jartzeko moduko baso txikiak, ibar-basoak eta herriak badira tartean. Olibadiak eta mahasiak oso erakargarriak zaizkie.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Hedatzen ari da espeziea; egun, Europako hegatzirik ugarienetako bat da. Kantauri itsasertzeko ekialdeko erdian, Pirinioetan eta Katalunian hazten ditu kumeak, non arabazozo beltzarekin bizi baita, zeina ehiza ez daitekeen espezieetat baitago jota egun.

EAEn, arabazozo pikarta habiagile urria da, eta ipar-erdian bizi da, sakabana-tuta. Iberiar penintsulan, espezie sedentarioa da; halere, Erdialdeko Europako eta Baltiko inguruko arabazozo pikartak ere Penintsula osora etortzen dira negua ematera, kopuru handitan.



EHIZA. Ehiza-interes txikia pizten duen espezie bat da, eta eragiten dituen kalteak kontrolatzeko ehizatzen da batik bat; hain zuzen ere, arrazoi horregatik bakarrik ehiza daiteke autonomia-erdegoko batzuetan. "Saltatzean", "postu finkotik" eta "falkoneria" modalitatean ehizatzen da, bai debekualdi erdian (abuztua-iraila), bai ehizaldi ireki orokorrean (urria-urtarrila). EAEn, ehizaldi ireki orokorrean egiten da haren ehiza baimendua.

MIKA

Pica pica

Urraca / Picaraza

30



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko hegaztia (42 cm). Nahastezina da, daukan kolore zuri-beltzagatik; irisazio metalikoak ditu, gainera, lumajea, eta isats luzea dauka.

ELIKADURA. Omniboroa da ia-ia, eta askotariko baliabideak aprobetxatzen ditu: bai animaliak (intsektuak, zizareak, barraskiloak, ornodun txikiak eta sarraskia), bai landareak (fruituak eta aleak), bai gizakiak sortutako zaborrak eta hondakinak.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zuhaitzetan eta zuhaixketan egiten du habia; handia, zarbatsua eta kopa-itxurakoa, estalki moduko batez osatua. Urtean, 5-8 arrautzako errunaldi bakar bat egiten du, eta emeak txitatzen ditu arrautzok, 17-18 egunez. Txitak nidikolak dira, eta bi gurasoek zaintzen dituzte, 3-4 aste bete arte.

Oso hegazti artega eta aktiboa da, jokabide nabarmenak dituena; astiro eta zuzen joaten da hegan, hegoei bizkor eraginez. Loleku komunetan biltzen da, eta, neguan, talde handiak era ditzake.

HABITATA. Zuhaitz bakan batzuk edo sastraka handiak dituzten lur irekiak atsegin zaizkio. Soroak, zelaia, parkeak...; habia egiteko leku egokirik bada, betiere. Uko egiten die zona goiei eta baso handiei.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Sedentarioa da. EAEn, urria da Kantauri aldeko isurialdean, eta ugariagoa, uren banalerrotik hegoaldera. Gora egin du neguko populazioak itsasaldeko zerrendan; barnealdeko hegaztien transhumantziaren ondorioz, segur aski.

Penintsulan, maiz ikusten da ia alde guztietan, baina bakana da hego-ekialdean, eta toki batzuetara mugatua, mendiguneetan. Ez dago Balear Uharteetan.

EHIZA. Ez du interes handirik pizten ehiztarien artean, eta, gehienetan, ehiza xeheko beste ehizaldi batzuetan botatzen dute ("saltatzean", "postu finkotik", "talde-ehizan"...), bai debekualdi erdian (abuztua-iraila), bai ehizaldi ireki orokorrean (urria-urtarila). Baimen bereziak ematen dira mikaren kopuruak kontrolatzeko, are ehiza-garaitik kanpo ere. Falkonari batzuek mikak ehizatzen dituzte beren hegazti harrapariekin.

EAEn, 2011-2012 ehiza-denboraldian, debekualdi erdian ehizatzen da mika Araban eta Bizkaian; ez hala, Gipuzkoan. Hiru lurralde historikoetan, ehiza xeheko espezie gisa hartzen da ehizaldi ireki orokorrean. Horrek uzten du agerian zein garrantzitsua den denboraldi bakoitzeko debekualdien foru-agindua aztertzea.





DESKRIBAPENA. Korbido txikia (30-31 cm). Beltza da, oro har; zurixka du irisa, eta lepagaina, grisa. Hegazti zaratat-sua da; dei nahastezin bat egiten du; ibilera espasmodikoa dauka, eta hegaldia, berriz, bizkorra eta hegada askokoa.

ELIKADURA. Omniboroa da; intsektuak, barraskiloak, zizareak, ornodun txikiak, hiri-hondakinak, fruituak eta haziak jaten ditu. Zoru soiletan jaten du.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zuhaitz-zuloetan, eraikinetan, ezpondetan eta harkaiztietan egiten du habia, kolonia handiago edo txikiagotan. Emeak 4-6 arrautzako errunaldi bakarra egiten du urtean, eta 17-18 egunez txitatzen ditu arrautzak. Bi gurasoek zaintzen dituzte txitak, eta jaio eta hilabetera hasten dira hegan haiek.

Hegazti taldekoa da, eta ez dio muzin egiten beste espezie batzuen (arabazozo, bele, hegabera, etab.) laguntasunari

HABITATA. Kumeak hazteko, era askotako tokiak aukeratzen ditu: harkaiztiak, ibai-ezpondak, ibar-basoak, zuhaitz zaharrak dauzkaten larreak, hiri eta herrietako eraikinak eta dorre zaharrak. Janleku gisa, berriz, leku irekiak (soroak eta zelaia) maite ditu, eta zaborteziak.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Hegazti sedentarioa da; oso arrunta, Iberiar penintsula ia guztian, nahiz eta urria eta okerrago banatua, iparraldean eta ekialdean. Neguan, Ipar Europatik datozen hegaztiak jasotzen ditugu, non hein batean migratzailea baita espeziea. EAEn, Araba okupatzen du, nahiz eta kopuru txikitik; oso bakana da, berriz, Bizkaian eta Gipuzkoan.

EHIZA. Ez da interesgarria ehiztarientzat, eta banako gutxi ehizatzen dira, bai debekualdi erdian (abuztua-iraila), bai ehizaldi ireki orokorrean (urria-urtarrila); ez dago sartuta ehiza espezieen zerrendan Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan. Baimenak ematen dira korbido kopurua kontrolatzeko, baina bele txikia ez da, jaten duena kontuan hartuta, kaltegarria beste ehiza espezie batzuentzat.



BELABELTZA

Corvus corone

Corneja

32



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko korbido beltza (43-47 cm); isats karratua du, eta ahots berezi bat. Lumajea beltza da, eta distira berdexkak eta purpurak ditu. Zuzen hegan egiten du; normalean, behe samarrean, eta hegada geldo eta erregularrez.

ELIKADURA. Lurrean jaten du, leku irekietan; hor, intsektuak, barraskilotxoak, harrak eta ornodun txikiak atzematen ditu; sarraskia eta landare-materialak (haziak eta fruituak) ere jaten ditu.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Zuhaitzetan, zuhaixketan eta harkaiztietan egiten du habia, eta, inoiz edo behin, argindar-harien zutoinetan; oso goian, normalean. Errunaldi bakar bat egin du urtean, eta 4-6 arrautza, aldiko. Emeak 18-20 egun ematen du haiek txitatzen. Bi gurasoek zaintzen dituzte txitak, eta jaio eta 28-35 egunera ekiten diote hegan haiek.

Ez da oso hegazti taldekoia; bikoteka edo hirukoteka azaldu ohi da; nekez, talde txikitik. Inoiz, talde handitan elkartzen da lolekuetan. Arrunta da bide- eta errepide-bazterretan; ibilgailuek zapaldutako hegaztien edo ugaztunen bila ibiltzen da.

HABITATA. Mota guztietako leku irekiak atsegin zaizkio; betiere, zuhaitzak badituzte inguruan (ibar-basoak, basoak edo zuhaitz bakan batzuk). Lotura estua du giza inguruneekin, eta haiei zor die, hein batean, daukan oparotasuna.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Sedentarioa da. Ia Iberiar penintsula osoan hazten ditu kumeak; ez berdin, toki guztietan, eta ugariagoa da ipar-erdian. Ugaria da EAEko eremu azpikantauriar osoan, eta urriagoa, Arabako Errioxan eta isurialde kantauriarrean.

EHIZA. Mikak bezala, ez du interesik ehiztariantzat, eta, gehienetan, ehiza xeheko beste ehizaldi batzuetan botatzen dituzte ("saltatzean", "postu finkotik", "talde-ehizan"...), bai debekualdi erdian (abuztua-iraila), bai ehi-zaldi ireki orokorrean (urria-martxoa). Baimen bereziak ematen dira, batzuetan, haren kopuruak kontrolatzeko.

EAE, 2011-2012 ehiza-denboraldian, debekualdi erdian baimendu zuten haren ehiza Araban eta Bizkaian; ez, ordea, Gipuzkoan. Ehizaldi ireki orokorrerako, ehiza daitezkeen espezien zerrendan sartzen dute hiru lurraldeek. Horri dagokionez, bereziki garrantzitsua da debekualdien foru-aginduak kontsultatzea denboraldi bakoitzean.





DESKRIBAPENA. Gorputz zapala dauka. Luzeak ditu atzeko hankak; luzeak eta dantzariak, belarriak, eta isats motza du. Ezaugarri batzuek bereizten dute untxiarengandik: tamaina handiagoak; isats zuri-beltzak, eta atzeko hanka eta belarri luzeagoak; belarriok beltza dute, gainera, muturra. Ilaje arre-gorritzta edo arre-grisaxka du, eta zuria, sabela. Adina eta sexua untxiarenak bezalaxe bereizten dira.

Iberiar penintsulan, hiru erbi espezie dira: europarra (*Lepus europaeus*), iberiarra (*Lepus granatensis*) eta gisatsekoa (*Lepus castroviejoi*).

EAEn, bi bizi dira: erbi europarra, handiena (3,7 kg batez beste), eta iberiarra, txikiena (gutxitan heltzen da 3 kg-ra), zeinak orban zuri nabarmen bat ageri baitu aurreko hanken goian.

ELIKADURA. Belarjalea da; belarrak, haziak eta baiak jaten ditu, eta kimuak eta zurezkoen azalak (neguan, bereziki).

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Otsailetik azarora izaten da araldia, martxoan eta apirilean direla gailurrak. Bikoteak eratu aurretik, limurketa eta arren arteko borrokak izaten dira. Otsaila-apirila eta ekainazuztaila inguru horietan izaten dira eme ernari gehien. Normalean, 3-4 umealdi izaten dituzte urtean, bakoitza 1-3 er-

bikumekoa, eta erbikumeak 42-44 eguneko ernaldiaren ondoren jaiotzen dira. Amak edoskiarazi egiten die, eta, hila-betera, erbikumeak guztiz independenteak dira. Urtebete inguru daukatenean heltzen dira sexu-heldutasunera.

Bakartia eta gautarra da; etzanda ematen du egun gehiena, sakonune txiki batean, belar artean gordeta, eta alde egiten du, ezerk beldurtzen badu. Bere mimetismoa eta sigi-sagako arineketa bizia ditu defentsarik onenak.

HABITATA. Leku irekietan bizi da, hala nola zelaietan, larreetan edo nekazaritza-lurretan, edota sastrakadietan eta baso bakanduetan, 1.700 m-raino.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Hiru erbiek banaketa argi eta garbi desberdina daukate. Gisatseko erbia Kantauriar mendikateko mendebaldean soilik bizi da, hau da, Asturiasen, Kantabrian, Leonen, Palentzian eta Lugon; beste biak, berriz, gehiago banatuta daude.

Erbi europarra penintsulako ipar-herenean bizi da, Asturiastik Kataluniaraino, Ebroko haranak markatzen duen lerro batetik gora. EAEn, guztiz galdu da ipar-isurialdeko gunee zabal batzuetan; ditugun datuen arabera, pestiziden eta ongarrien erabilera handiagatik, tokiko ehiza-presio handiagatik eta bazter askotan kanpoko koniferoez ordeztu direlako hango landareak.

Arabian, arrunta da ingurune ugartan, eta, Arabako lautadatik behera, erbi iberiarrarekin partekatzen du habitata. Erdi iberiarra Mallorcan eta ia Iberiar penintsula osoan bizi da, Kantauri isurialdean, Katalunian eta Ebroko haranetik gora kokatutako Burgosko, Nafarroako, Aragoiko eta Kataluniako lurretan izan ezik.



Berdea: erbi iberiarra.


Horia: erbi europarra.

Urdina: gisatseko erbia.

EHIZA. Erbia era askotan ehizatzen da; Euskadin, ordea, arrastoko txakurrekin, gehienetan, nahiz eta Bizkaian eta Gipuzkoan baimen berezi bat behar den horretarako; Gipuzkoan, gainera, 2010-2011 denboraldian, eta populazioen egoeraren arabera, gunee zehatz batzuetan baimentzen zen haren ehiza. Arabian, "saltatzean" ere ehizatzen da; beste espezie batzuk –esaterako, eper gorria– ehizatzeo ehizaldietan, normalean.

Lurretik hurbil hegan egiten duten falkoneria-hegaztien ehizaki bat da, eta, Nafarroako alde batzuetan, galgoen laguntzaz ehizatzen dute. Urritik urtarrilera da haiek ehizatzeo garai orokorra; Arabian, berriz, azarotik urtarrilera; ez hala, ordea, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Gainera, gogoan eduki behar da lurralde historiko bakoitzeko urteroko debekualdien foru-aginduetan xedatzen direla erbia ehizatzeo espezifikazioak, eta, horregatik, garrantzitsua da aginduok kontsultatzea.



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko (1-1,5 kg) ugaztuna; belarri luzeak ditu, eta buztan-motza da. Ilaje arre-grisaxka du; garondoa, berriz, kanela-kolorekoa, eta sabelaldea, argiagoa. Eskuz bereizten da untzien sexua, kanpoko genitalak aztertuta. Untxi gazteak (9 hiletik beherakoak) bereizteko, berriz, aurreko hanka haztatzen zaie, eskumuturraren gainetik: hantura txiki bat sumatzen bada kubituan (besaurreko hezur luzea), animalia gazte bat da.

ELIKADURA. Belar-landareak jaten ditu; nagusiki, gramineoak eta konposatuak; baita sustraiak eta zurezkoen azalak ere. Zekotrofia ageri du (baita erbiak ere): bere gorotza irentsi behar izaten du atzera, zelulosa digeritzeko.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. BIOLOGIA ETA OHITURAK. Ugaltzaile oportunista bat da: landare berdeen hazkuntzak markatzen du araldia. Urrian edo azaroan hasten da hura, eta ekainean amaitzen. Arrak poligamoak dira, eta hainbat eme estaltzen dituzte, eta haiek, 28-33 eguneko ernaldiaren ondoren, 3-9 kumez erditzen dira. Gero, hilabete inguru ematen dute haiei edoskiarazten. Arras ugalkorrek dira: eme batek 10-16 kume egin ditzake urtean. Gazteak hiru astera jartzen dira beren gain, eta 3,5-4 hil betetzean bihurtzen, berriz, ugalkor.


Krepuskularra eta gautarra, nagusiki. Oso taldekoia: zuloaren edo gordelekuaren inguruan eratzen diren kolonietan bizi da. Antolamendu sozial hierarkiko bat, non arrak baitira nagusita, eta alde egiten du, ezerk beldurtzen badu. Bere mimetismoa eta sigi-sagako arineketa bizia ditu defentsarik onenak.

HABITATA. Behar besteko babesa (lurpeko zuloak, landaretza...) eskaintzen duten lekuak, hala nola lur hareatsuak, txarak...; inguruan larreak edo soroak badira, betiere.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Funtsezko elementua da kate trofikoan, ehizaki garrantzitsua baita fauna iberiarreko 40 bat espezieren dietan. Iberiar penintsula osoan eta Balear Uharteetan bizi da; urria da, aldiz, Penintsula hegoaldean, Pirinioetan eta kantauriar zerrendan.

EAEEn, ongi banatuta dago uren banalerroaren hegoaldean; kantauriar isurialdean, aldiz, Gipuzkoako kostaldeko leku batzuetan eta Bizkaiko zenbait tokitan bakarrik bizi da, birpopulatzeen ondorioz.

Berrogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, bi izurrite jasan ditu: mixomatosis eta pneumonia hemorragiko birikoa (PHB). Triskantza handia egin dute biek ere unxi-populazioan, eta, nahiz eta zeharo galdu edo urritu duten hura toki askotan, ez dute garaitu lagomorfoaren ugaltzeko gaitasun ikaragarria.



Lagomorfo baten kubitua haztatzeko teknika, adina jakiteko. Behean erakusten da, eskema moduan, animalia erabiltzeko modua.

EHIZA. Untxi-kopuruaren beherakadak unxiak ehizatze saioen beherakada ere ekarri du berekin. Zenbait tokitan, ordea, unxia ugaria da oraindik. "Saltatzean" ehizatzen da, txakur erakusleen, txakur jasotzaileen edo arratoi-txakurren laguntzaz; baita arrasto-txakurren eta hegazti harraparien laguntzaz ere. Hudo bidezko ehiza, berriz, populazioen kopuruak kontrolatzeko bakarrik baimentzen da, hau da, unxiak kalteak egiten dituztenean; kasu horietan, deskaste-ehizaldiak baimentzen dira, bereziki udan. Urritik urtarilerara da haiek ehizatze garaia.

EAEEn, 2011-2012 denboraldian unxia ehizatze baimendutako modalitateak eta kupoak desberdinak dira lurralde historiko bakoitzean: Araban, ehiza-espezie gisa dago sartuta denboraldi orokorrean; Bizkaian, debekatuta dago hura ehizatzea, Urduñako barrutian izan ezik, eta Gipuzkoan, berriz, baimen berezi bat behar da. Horrek uzten du agerian zein garrantzitsua den denboraldi bakoitzeko debekualdien foru-aginduak aztertzea, urtero eta lurralde bakoitzean.



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko kanidoa. Itxura liraina du, eta muturra, luzea eta mehea; zorrotzak ditu belarriak, eta isats luze, iletsu eta harro bat dauka, punta zurikoa. Haren ilajea kanela-kolorekoa edo arre-gorritzat da; bularraldea eta sabelaldea, berriz, zurixkak ditu.

ELIKADURA. Dieta omniborua du, nahiz eta oso aldakorra, eskualdearen eta urtaroaren arabera: unxiak eta ugaztun txikiak jaten ditu gehienbat; ez ditu gutxiesten, halere, zaborrak, fruituak (udan eta udazkenean, bereziki) edo ornogabeak (zizareak, kakalardoak, etab.).

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Neguan izaten da araldia, zaunka-agerpen ugariarekin. Ernaldiak 51-60 egun irauten du, eta batez ere martxoan edo apirilean jaiotzen dira azerikumeak. Sabelaldia 3-6 kumeak izaten da. Kumeok 7-10 astera uzten dute azeri-zuloa, eta uda-hondarrean sakabanatzen dira. 9-10 hilekin heltzen, berriz, sexu-heldutasunera.

Krepuskularra eta gautarra da, normalean. Bikoteka edo ar batek eta beren artean ahaide diren eme gutxi batzuek osatutako taldetan bizi dira. Talde-antolamendu hierarkikoa dute, eta zorrotz seinaleztatzen eta babesten dute beren lurraldea. Banako alderria eta lurralderik gabek dago osatuta populazioaren zati bat.

HABITATA. Animalia guztiz oportunista da; mota guztietako inguruneetan bizi da bere banaketa-eremuan, hau da, itsasertzetik goi-mendietaraino, honako hauek direla tartean: basoak, landak, soroak eta, are, giza asentamenduen inguruak.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Iberiar penintsula osoan bizi da, eta eskualde gehienetan da ugaria. Nola ia edozer jaten duen, nola mugikortasun handia duen, aise egokitzen da mota guztietako inguruneetara (baita gizakiak bizi direnetara ere). Gainera, urritu egin dira beste harrapari eta lehiakide batzuk, eta, horregatik ere, sendo ugaritu da espeziea.

Azeria amorruren ohiko bektore edo kutsatzaile bat da, nahiz eta gaitz horrek ez duen gainditu oraindik Pirinioetako hesia. EAEn, ongi banatuta dago espeziea, ia ekosistema guztietan.

EHIZA. Uxaldian eta arrasto-txakurren laguntzaz azeriak ehizatzeak zale asko ditu EAEn eta kantauriar eskualde osoan. Horretan espezializatutako ehiztari talde ugari dira, hain zuzen ere. Ehiza modalitate anitz onartzen ditu: "uxaldia", "saltatzean", "zelata-ehiza", "itxarote-ehiza"... Azeria bere zuloan bertan eta terrier arrazako txakurren laguntzaz harrapatzea da gero eta gehiago erabiltzen den modalitate bat.

EAEn, debekualdi bakoitzeko foru-aginduek xedatzen dituzte baimendutako kupoak eta modalitateak.



Azeri-oinatza



DESKRIBAPENA. Txakur handi baten tamainako kanidoa, baina luzeagoak ditu hankak, eta handiagoak, oinak; animalia sendoa da (pisua: 20-35 kg). Otso iberiarrek ilaje arre-gorritzat dute; orban beltz ezagun batzuk dituzte, gainera, isatsean eta aurreko hanken aurrealdean. Udan, ilauna galtzen dute, eta itxura lirainagoa eta argalagoa hartzen. Arrak handixeagoak eta astunxeagoak dira. Adina asmatzeko, ebakortzen higadurari begiratu behar zaio. Zitori-loreak ren antzekoak izaten ditu hortzok 3-4 urte bete arte.

ELIKADURA. Nagusiki karniborua; badaki dieta aldatzen ere, urtaroen eta eskualdeen arabera. Apodunak (basatiak nahiz etxeokak), lagomorfoak eta ugaztun txikiak jaten ditu; baita sarraskia edo zaborrak ere.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Espezie monogamoa eta oso taldekoia. Neguan izaten da araldia: estalketen eta uluen garaia. Udaberrian jaiotzen dira otsokumeak (4-9), ongi babestutako gordeleku batean (leizeak, sastrakadi trinkoak...). Udaren hondarrean, otsokumeak helduekin joaten dira ehizara; taldea batuta egoten da negura arte, eta hierarkia eta harreman sare konplexu bat eratzen da.


Otsoen mugikortasuna harrigarria da, eta haien ibileren eremua, zabala: 100 km², gazteengan, eta 1.000 km²-tik gora, helduengan (650 km², batez beste). Nagusiki gautarra da, nahiz eta gazte banatuek edo heldu alderraeiek jardura handiagoa ageri, egunez.

HABITATA. Askotariko habitatak ditu; ingurune mota askotan ikus daiteke, bai menditsuetan, bai oso gizatiartuetan; baina landare-estaldura handiko tokiak ditu gogokoen, kumeak hazteko garaian; ur-tokiak hurbil dituela, beti.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. 1988an, otsoak 100.000 km² inguruko bizileku bat zeukan Iberiar penintsulako ipar-mendebaldean, eta 1.500-2.000 otso ziren; Gaztela eta Leonen, Galizian, Asturiasen eta Kantabrian, batik bat. Bizileku hori 120.000 km² da egun, eta Madril, Gaztela Mantxa, Errioxa eta Aragoi eskualdeak harrapatu ditu. Populazioa 2.000 burutik gorakoa da; bada populazio bakartu bat Andaluziako Sierra Morenan ere, eta hor dira, gainera, Italiatik Alpeak zeharkatuta Frantzia hegoaldera eta ekialdeko Pirinioetara (Katalunia) heldu diren otsoak.



Bistakoa da berezko hedatze-mugimendu hori EAEen ere, espeziearen lurraldearen ipar-ekialdeko mugan baitago aspalditik erkidegoa. Laurogeigarren hamarkadaren erditik aurrera, Euskadiko mendebaldeak (Ordunte mendilerroa, Karrantza harana eta Artzentales, Bizkaian, eta Salbada eta Gibijo mendilerroak, Araban) etengabe jasotzen ditu kanidoaren bisitak; Burgos iparraldeko otso nukleoetatik bereizi diren otso gazteen sakabanaketatik, nagusiki. 1996an, Gipuzkoan (Aralar) eta Nafarroan (Urbasa) ere detektatu zuten. Gaur egun, ia presentzia iraunkorra du otsoak Bizkaiko eta Arabako mendebaldean, eta hainbat alditan heldu da Gorbeia mendigunera.



Otso baten ebakortzen higaduraren bilakaera, haren adinaren (gaztea edo zaharra) arabera.

EHIZA. Otsoa ehiza espeziea da bizi den leku gehienetan; hala ere, Duero ibaiaren hegoaldean bizi diren populazioak babestuta daude. Andaluzian, ez da oso ugaria oraindik ere.

Irailetik otsailera edo martxora bitartekoa da hura ehizatze garaia, baina debekaturik dago apiriletik abuztura; hurre, altxa daiteke debeku hori batzuetan, otsoa aziendei kalte handiak egiten ari bada; zelata-ehizak edo uxaldiak antolatzen dira orduan, otsoa kontrolatzeko.



DESKRIBAPENA. Urde iletsu sendoa. Buru konikoa dauka; muturra irtena du, eta motzak ditu hankak. Arrek etengabe hazten diren kanino batzuk dituzte: babeserako arma ezin egokiagoak. Behekoei letaginak edo betortzak deitzen zaie, eta goikoei, zorroztaginak. Emeek txikiagoak izaten dituzte, eta, normalean, ez zaizkie ageri ezpainetatik kanpo.

Basurdekumeengan, ilajea marraduna da 6 hil bete arte (marradunak); kolore gorritzakoa (gorritzak), 6 hiletik 12ra bitartean, eta, urtea bete ondoren, ilundu egiten zaie pixkanaka. Adina zehatz jakiteko, arretaz aztertu behar zaizkie hortzak.

ELIKADURA. Basurdea omniborua da; landareak (fruituak, tuberkuluak, sustraiak...) dira nagusi haren dietan, eta ornogabeak, karraskariak, sarraskia, narrastiak eta abar jaten ditu, hura osatzeko; azken horien kopurua aldatu egiten da, ordea, urtaro batetik bestera. Udazkenean eta neguan, ezkurak, pagatxak eta gaztainak bilatzen ditu. Uxarrean jarduteko ohitura trofikoak kalte handiak eragiten ditu soroetan eta larreetan.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Araldi nagusia neguan izaten da. Umealdi bakarra izaten dute urtean, eta ernaldiak lau hil inguru irauten du. Denbora horren ondoren, eta udaberri-hasieran, 1-6 kume egiten dituzte. Basurdekumeek amarekin egoten dira hurrengo araldira arte, eta, orduan, egotzi egiten dituzte. Jaio eta bi urtera heltzen dira sexu-heldutasunera.

Gautarra da; ez da lurraldekoia, eta ohitura sedentarioak ditu ia urte osoan. Familia erako taldetan bizi ohi da; ar eta eme helduek, eta kumeek osatzen dituzte taldeak. Bi eta bost urte bitarteko basurdeak besteengandik bereizita bizi dira, urdaldetan. Ar zaharrak bakartiak dira. Araldian soilik elkartzen dira emeekin.

Lurralde zabalak esploratzen ditu janari bila, eta, batzuetan, oso joan-etorri luzeak egin ditzake.

HABITATA. Basoan bizi da; landarez ongi estalitako tokiak ditu gogoko, eta, gauez, irtenaldiak egiten ditu, larreetan eta soroetan elikatzeko.



BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Iberiar penintsularen zatirik handienean bizi da; basogabetutako aldeetan eta mendietako lekurik goienetan bakarrik falta da. Azken hiru hamarkadetan, gizakiak alde egin du landatik toki askotan, eta abeltzaintza estentsiboa ere urritu egin da. Horren ondorioz, landaretza jori eta trinko bat nagusitu da eskualde askotan, eta horrek basurdearen hedapena lagundu du.

EAE osoan dago banatuta, eta Araban da ugariena.

Haren populazioak dezente aldatzen dira urtetik urtera, ehiza-presioaren eta denboraldi bakoitzeko ugaltze-arrakastaren arabera; udazkeneko basauztaren –ezkurak eta pagatxak, batik bat– araberakoa izaten da, hein handi batean, arrakasta horin.



EHIZA. EAEan, “uxaldi” modalitatean ehizatzen da basurdea, arrasto-txakur-
rren (uhalarekin lotuta eramaten diren ehiza-txakurrak, normalean) laguntzaz. Modalitate hori kantauriar zerrendan, Gaztela eta Leonen, Pirinioetan eta Pirinioen aurreko mendialdeetan erabiltzen da. “Monteria” da aldaera mediterranea, eta basurdea menditik ateratzeko erabiltzen den txakur motan bereizten da beste aldaeratik; ehiza-txakurrak erabili beharrean, izan ere, podenkoak eta heltze-txakurrak erabiltzen dituzte, taldetan bilduta. Zenbait eskualdetan, “zelata-ehiza” eta “itxarote-ehiza” ere erabil daitezke (uzten aurkako kalteak saihesteko udako baimenetan); baita “talde-ehiza” ere.

Ehiza-denboraldia irailetik otsailera da, normalean, erditzeko garaitik kanpo; kalteak handiak direnean, halere, epe horretatik kanpo ere baimen daiteke ehiza, salbuespen gisa.



DESKRIBAPENA. Tamaina handiko zerbidoa. Arrek bakarrik ageri ditzen adaje adarkatua du ezaugarri. Gorritzat du ilea udan, eta grisaxka, neguan; krema-koloreko orban bat du ipurtaldean, kolore beltzeko gunek batez inguratuta. Martxoan edo apirilean erortzen zaio adajea, eta lau hilean eratzten, berria. Bien bitartean, gelditzen zaizkion pibotei esker bereiz daiteke arra emearengandik, eta beste irizpide batzuei (txiza egiteko modua, gorpuzkera, kimak, genitalak aztertzea...) esker. Adina jakiteko, gorpuzkerari –helduak sendoagoak dira– eta hortzei begiratu behar zaie, eta arren adarrei: adarrak ez 6 hil bete arte; pibotak, 6 hiletik 12ra bitartean; makilatxoak, urtebetetik bira bitartean, eta 2 urtetik 3 urtera, urkila handiak. Bi urtetik aurrera, beste irizpide batzuk hartu behar dira kontuan: Silueta, adarren oinarrien artean duen garaiera, etab. Gogoan izan behar da adajearen punten kopuruak ez duela zerikusi zuzenik animaliaaren urteekin.

ELIKADURA. Fitofagoa da. Belarrak, fruituak (ezkurak, nagusiki), hostoak eta zuhaitzen nahiz zuhaixken kimuak jaten ditu, larrean arituz edo adar-muturrak etenez.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Araldia edo marrualdia irailean edo urrian izaten da; orduan, ar nagusiek beren harenak babesten dituzte. Ernaldia 7-8 hilabetekoa izaten da. Maiatzean eta ekainean izaten erditzerik gehienak; kume bakarrekoak, normalean. Edoskitzaroak 3 hil inguru irauten du, eta oreinkumeak emeekin egoten dira lehenengo urtean. Bi urterekin iristen dute sexu-heldutasuna emeek, eta hiru urterekin, arrek.


Jarduera krepuskularra du. Taldekoia da; talde-egitura hierarkikoa eta konplexua du. Aralditik kanpo, arrek banatuta egoten dira kumeekin dauden emeengandik. Araldian, ar nagusiak "itxi" egiten du taldea. Erditu baino lehen, eme ernariak alde egiten dute taldetik, kumea egiteko.

HABITATA. Basoan bizi da; basotik larreetara diren tarteko lurrak aukeratzen ditu; ugaria da, halaber, sastraka handi eta trinkoko tokietan.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Iberiar penintsulako hainbat lekutan bizi da, baina elkarrengandik bereizitako nukleotan; nukleoon hedadura askotarikoa da, eta zabalagoak dira Penintsulako mendikate nagusietan: Kantauriar mendikatean, Iberiar sisteman, Erdialdeko Sisteman eta Pirinioetan. Gainera, badira populazio bikain batzuk Toledoko mendietan eta Andaluziako mendikate batzuetan, hala nola Sierra Morenan. Birpopulatze ugari egin dira, ehiza-helburuekin.



EAEn, XIX. mendearen hondarrean galdu zen oreina, gehiegizko ehizagatik; Gorbeia mendigunean birsartu zuten lehenik, eta, hurrena, Ordunte mendilerroan, Karrantza Haranean. 50eko hamarkadaren hondarrean, Toledotik ekarritako banako batzuk askatu zituzten Gorbeian; 1981ean sendotu zen populazio hura, Cazorla mendilerrotik (Jaen) beste banako batzuk ekarrita. Karrantzan, 1980an birsartu zen espeziea, eta 1989ra arte jarraitu zuten banako gehiago askatzen, Toledotik, Cazorlatik (Jaen) eta Gorbeiatik ekarritako animaliekin. Bata bestetik bereizitako nukleo horietan ez ezik, bada oreinik Gorbeia inguruko mendietan eta Leitzaranen (Gipuzkoan) ere; Nafarroa iparraldeko populazio handietatik etorritako banako batzuek bisitatzen dute Gipuzkoako harana.



Gorpuzkeraren aldaketa, oreinaren adinaren arabera.

EHIZA. EAEn, "uxaldietan" ehizatzen dira nagusiki; espeziearengana zuzendutako uxaldi espezifikoeetan, edo basurdeekin batera ehizatzen direnetan. Gainera, "zelata-ehiza" ere egiten da, baina beti banako zehatz batzuk aukeratzen direla (soberako arrak, emeak edo kumeak; akatsen bat duten animaliak, eta "trofeoko" arrak). Zelata-ehizako modalitate horretan, ehiztariak gidari bat izaten du lagun, eta gidari hori basozaina izan ohi da. Aipatu bi ehiza modalitateak erabiltzen dira Penintsulako gainerako lekuetan ere. Erdialdean eta hegoaldean, "monteria" modalitatean ehizatzen dute.

Ehiza-denboraldia urritik edo azarotik otsailera arte da, eta garai hori bat dator adajearen betetasunarekin, hau da, haren azala erortzetik adarrak erori arte.



DESKRIBAPENA. Oreinaren antzekoa da, baina txikiagoa; udan, ilajea tanto zuriz betea du, eta arren adarrek “pala” itxura dute. Orban zuri bat du ipurtaldean, hein batean alde beltz batez inguratua. Isatsa luzea eta beltza da, eta zuria, aldeetatik. Arrak martxo aldera galtzen du adajea, eta ekainean edo uztaillean osatzen, berria. Adarretako azala, berriz, abuztuan erortzen zaio.

ELIKADURA. Belarrez, hostoz, fruituz eta kimuz osatutako dieta herbiborua; halere, oreinak baino belar-landare gehiago jaten du.


BIOLOGIA ETA OHITURAK. Urrian edo azaroan izaten da araldia edo “orroaldia”, oreinaren marrualdiaren ondoren; neguan ere luzatzen da, inoiz edo behin. Ernaldiak 7,5-8 hil irauten du, eta, haren ondoren, emeek kume bat egiten dute maiatz-ekain aldera. Edoskitzaroa 9 hil ingurukoa izaten da, eta, kasu batzuetan, urte bateko kumeek bat egiten dute hurrengo urtekoekin. Urte eta erdi ingurura iristen dute sexu-heldutasuna.

Krepuskularrak eta gautarrak dira. Oreinaren bezalaxe, arrek harenak babesten dituzte, eta emeek, erditzeko lekuak. Taldekoiak dira; ar eta eme talde bereziak eratzen dituzte, eta ez dira bitxiak banako bakartiak. Araldian, talde mistoak eratzen dira, eta, haietan, arrek beren eme taldeak babesten dituzte. Ar gazteak bi urterekin egozten dituzte taldetik; emeak, aldiz, taldetan integratzen dira.

HABITATA. Mota askotako basoetan bizi dira; betiere, haietan zuhaixka ugari bada, eta inguruan leku irekiak (larreak, soroak, etab.) badituzte.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Aurreko mendearen hasieran galdu zen ia Iberiar penintsula osoan, gehiegizko ehizaren ondorioz. Gaur egun diren populazio nukleoek azken hamarkadetan askatutako adarzabalengan dute jatorria. EAetik hurbileneko populazioa, nahiz eta ez izan basatia, Nafarroako Kintokoa da. Banako gutxi batzuk bizi dira han.

EHIZA. Iberiar penintsulan, "zelata-ehizan", "uxaldian" eta "monterian" ehizatzen da adarzabala; urritik otsailera bitartean, normalean.



Ipurdiko orbanaren diseinuan diren aldeak, oreinaren, adarzabalaren eta orkatzen artean.



DESKRIBAPENA. Zerbido txikia; liraina, eta mugimendu bizkorrekoa; zaunka berezi bat egiten du, ezerk asaldatzen duenean edo lurraldea babesten ari denean. Jantzia arre-grisaxka da neguan, eta gorritzat eta laburragoa, udan. Isatsa motza dauka. Ipurdiko orbana zuria da; giltzurrun formakoa, arrarengan, eta bihotz alderantzikatu baten itxurakoa, emearengan: aise bereizten da basoan. Arrak hiru ziriko adaje motz bat du buruaren gainean, zeina urrian edo azaroan erortzen baita. Martxoan osatzen da adaje berriaren hazkundera.

Gorpuzkera, txiza egiteko modua edo genitalak dira sexua bereizteko beste era batzuk. Bost hil bete arte, orkaskumeek ilaje pikardatua ageri dute. Arrek, lehen urtean, pibot labur batzuk ageri dituzte abuztutik otsailera bitartean, eta makila zuzen batzuk, bigarren urteko maiatzetik azarora bitartean; hirugarren urtean iristen dute trofeo oso.

ELIKADURA. Herbiborua. Mota askotako belar-landareak jaten ditu, eta kimuak, hostoak eta zuhaitzen eta zuhaixken fruituak.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. BIOLOGIA ETA OHITURAK. Urrian edo azaroan izaten da araldia edo "orroaldia", oreinaren marrualdiaren ondoren; neguan ere luzatzen da, iUztailean eta abuztuan izaten da araldia. Enbrioiaren ezarpen geroratu ageri du animaliak; hau da, estalketa izan eta handik lau hilera gertatzen da. Horri esker, orkaskumeen jaiotza udaberriarekin (maiatza-ekaina) etortzen da bat, garai hobea baita haren garapenerako. Umealdi bakarra du urteko, eta bi kume egiten ditu normalean. Kumeok amarekin egoten dira hurrengo urteko erditze-garaira arte. Hamalau hilekin heltzen da sexu-heldutasunera.

Animalia krepuskularra. Bakarrik edo familia erako taldetan ikusten da. Oso lurraldekoiak dira araldian eta kumeak egiteko garaian, eta permisiboagoak, gainerakoetan. Arrak poligamoak dira, baina ez dute eratzen harenik.

HABITATA. Mota guztietako basoetan bizi dira, baina ugariagoak dira hostoerorkorretan. Soilguneak eta baso-bazterrak aukeratzen ditu.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Iberiar penintsulako ipar-zerrendan (Kantauriar mendikatea, Erdialdeko eta Iberiar sistemak, eta Pirinioetako nukleo batzuk) bizi da, eta hedatzen ari da guztietan. Hegoaldean, nabarmenki urriagoa da kopurua; baita daukan lurraldea (Toledoko mendiak, Sierra Morena, Cadizko mendiak...) ere.




EAEEn, galdua zen espeziea XX. mendearen erdirako; hirurogeita hamarreko hamarkadaren ondoren, ordea, birkolonizatzeko prozesu bat abiatu zuen Araba eta Bizkaia mendebaldetik, eta Gipuzkoa ekialdetik. Burgozko, Kantabriako eta Nafarroako kolonia oparoetatik zetozen animaliak, eta Bizkaian eta Gipuzkoan egindako birpopulatze batzuetatik. Gaur egun, ia lurralde osoan ageri da, eta, nahiz eta hedatzen ari den, urria da oraindik itsasaldeko zerrendan eta barnealdeko mendi batzuetan.

EHIZA. Orkatza "uxaldian" eta "zelata-ehizan" ehizatzen da. Udaberrian, "zelata-ehiza" selektibo bat egiten da "trofeo" arren gainean; udazkenean eta neguan, emeen ehiza selektiboa ere baimentzen da. Zenbait lekutan, "uxaldi" batzuk baimentzen dira udazkenean, bi sexuetako banakoak ehizatzeke.

Ehiza-denboraldia adajearen betetasunarekin dator bat, eta bi alditan banatzen da, tartean araldia (uztaila-abuztua) dela: (1) apiriletik ekainera edo uztailera, eta (2) abuztutik urrira (Gaztela eta Leongo kasuan). Emeen ehiza eta uxaldiak udazkenean eta neguan bakarrik egin daitezke.

EAEri dagokionez, lurralde historiko guztiek daukate jasota beren araudian orkatzaren ehiza arautzea, eta, horregatik, araudi hori kontsultatu behar da ehiza-denboraldi guztietan.



Orkatzaren sexua bereiztea, animaliaaren atzealdeari begiratuta; eskuinean, emea.



DESKRIBAPENA. Tamaina ertaineko ungulatua. Kolore-contraste handia ageri du aurpegian. Basahuntza baino txikiagoa eta lirainagoa da. Udako ilajea motza eta arre-gorritzat da; negukoa, berriz, luzeagoa eta ilunagoa. Adar motz eta ez-erorkorrak ageri dituzte bi sexuek; arrek, ordea, adarrok kakotuagoak, dibergenteagoak eta sekzio obalatuagokoak (emeek, berriz, sekzio zirkularragokoak) dituzte. Landan sexua bereizteko, honako irizpide hauek ere hartzen dira kontuan: txiza egiteko modua, gorpuzkera, kimak, eta zakil-zurdarik eta erraperik ageri duten. Gazteak txikiak eta lirainak dira. Haien adarrek ia ez dute kakorik lehen urtean, eta ez dute gaingitzen belarrien luzera laugarren urtera arte. Adin horretatik aurrera, animalia sendotu egiten da, eta beste irizpide batzuk (kimak, zakil-zurdak, aurpegi-diseinua lausotuta, etab.) agertzen dira. Animalia esku artean dugunean, oso irizpide fidagarriak dira, bai hortzak aztertzea, bai adarretako urtekako hazkunde-segmentuak zenbatzea.

ELIKADURA. Begetarianoa da. Mendiko gramineoak eta lekadunak jaten ditu nagusiki, eta kimuekin, fruituekin, hostoekin eta abarrekin osatzen du bere dieta.



BIOLOGIA ETA OHITURAK. Poligamoa da. Udazken-hondarrean izaten da araldia. Orduan, arrek gogor babesten dituzte beren harenak beste lehiakide batzuekiko, eta estalketak gertatzen dira. Ernaldiak 5-6 hil irauten du, eta kumeak udaberrian (apirila-uztaila) jaiotzen dira. Eme bakoitzak kume bakarra egiten du, eta hura hurrengo urtera arte egoten da amarekin.

Emeek eta gazteek taldeak eratzen dituzte, eta eme zahar eta esperientzia handiko bat izaten da taldearen buru. Arrek talde bereizi batzuk eratzen dituzte. Ar helduek, ordea, bizi independente eta bakarti bat eraman ohi dute, araldian izan ezik, orduan eme taldeekin elkartzen baitira.

HABITATA. Mendi goietan bizi da; mendietako harkaiztiekin eta larreekin loturik, beti. Neguan, ordea, basoetara eta haranetara jaisten da.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Bi subespezie dira Penintsulan, eta oso lurralde mugatua dute. Rebekoa (R. r. parva subespezia) Kantauriar mendikatean aurki daiteke, Lugoko Ancares mendietatik Kantabria mendebalderaino. Ason Garaiko mendietan (Kantabria ekialdean), bada beste talde bakartu bat. Bestalde, R. r. pyrenaica subespezia Pirinioetan bizi da, Nafarroa ekialdetik Girona mendebalderaino. Ez da bizi EAEn..

EHIZA. Sarria "zelatan" ehizatzen da, bi alditan: (1) apiriletik uztailera arte, arrek bakarrik, eta (2) irailetik azarora edo abendura arte, non araldia hasten baita eta bi sexuetako animaliak ehizatzen baitira. Zenbait lekutan eta populaziotan, sarriak babestuta daude; Nafarroan, esate baterako.





DESKRIBAPENA. Bobido sendo eta ilaje arre-grisaxkakoa. Arrak handiagoak dira, eta adar luzeagoak (aldakorrak, adinaren arabera) eta lodiagoak ageri dituzte. Adina jakiteko, “hazkariak” (urtebeteko hazkundera erakusten duten adar segmentuak) zenbatzen dira, eta, bestalde, hauek ere hartzen dira kontuan: adarren luzera, arren neguko ilajeko orban beltzen itxura, eta hortzak.

ELIKADURA. Mota guztietako landare-gaiak jaten ditu: belarra, hostoak, kimuak, fruituak, goroldioa eta likenak.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Araldia azaroan eta abenduan izaten da; orduan, arrak elkarren aurka borrokatzen dira, taldeetako emeak estali ahal izateko. Bost hileko ernaldiaren ondoren, udaberrian, basahuntzek ume 1-2 kume egiten dituzte. Kumeak 5-6 hil bete arte egoten dira amaren mendean. Amak, berriro ernari geratzen denean, kume emeak bakarrik atxikitzen ditu berekin; ar gazteak, aldiz, egotzi egiten dituzte.

Oso espezie taldekoia: emez eta kumez osatutako taldeak eratzen ditu, esperientzia handiko eme bat buru dela, eta ar taldeak. Arrak araldian soilik elkartzen dira emeekin. Ez dute lurralderik defendatzen, eta oso sedentarioak dira, nahiz eta beheragoko toki babestuetara jaisten diren neguan.

HABITATA. Mendialdeetan bizi dira, eta larreak, sastrakadiak, basoak eta harkaiztiak okupatzen dituzte.



BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Antzina, Iberiar penintsulako mendilerro eta mendi guztietan bizi zen. Gehiegizko ehizak eta bizilekuaren aldaketak galzorian jarri zuen XX. mendearen hasieran. Arrazoi horregatik, ehizarako erreserbak sortu ziren, espeziea babesteko.

Gaur egun, bi basahuntz subespezie dira; oso populazio handiak dituzte, bai Erdialdeko Sistemari (Gredosko mendilerroa, Batuecas... –*C.p. victoriae* subespeziea–), bai Andaluziako eta Levanteko hainbat mendialdetan (Beceite, Sierra Nevada, Ronda... –*C.p. hispanica* subespeziea–).

Kantauriar mendikatean, Galiziako zenbait tokitan eta Riañoako Ehizarako Eskualde Erreserban birsartu dute basahuntza. Ez da bizi EAEn.

“Bukardoa”, izen hori baitzuen Pirinioetako basahuntzak –*C. p. pyrenaica* subespeziea–, 2000n galdu zen betiko, Ordesako haranean (Huesca) bizi zen azken banakoa hil zenean.

Harraparirik ezak, beste unguatu batzuekiko lehiak eta kudeaketa txar batek janari-baliabideen agortzea eta gehiegizko populazioa ekarri dituzte. Horren ondorioz, gaitz kutsakorrak hedatu dira, hala nola hazteria, zeinek kalte handia eragin baitiete batzuetan Cazorla-Segurako eta Murtziako populazioei.

EHIZA. Arra, eta emeak ere bai, “zelata-ehizan” ehizatzen dira, bi alditan: (1) martxotik ekainera arte, eta (2) urritik abendura-urtarrilera arte.





DESKRIBAPENA. Ahari sendoa. Ilaje arrea du bizkaraldean, eta argia, sabelean eta hanketan. Arrek adar kiribilak dituzte; luzeagoak edo motzagoak, adinaren arabera. Neguan, orban zuri bat ageri ohi dute bizkarrean eta saihetsetan –zela–. Nabarmena eta handia izan ohi da mufloi zaharrengan. Emeak ez du zelarik. Haren adarrak, berriz, edo motzak eta meheak dira, edo ez ditu. Aurpegiko mozorro zuriaren hedadura irizpide erabakigarria da animaliaaren adina asmatzeko.


ELIKADURA. Herbiboroa. Gramineoen, hostoen, kimuen eta abarren kontsumoan oinarritzen da haren dieta.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Ugalitze-jokabide konplexua du, zeinak honako hauek baititu ezaugarri: banakoen promiskuitate handia, eta ar lurraldekoien eta ar alderraien baterako existentzia. Udazken-hondarrean eta neguaren hasieran izaten da araldia; taldeak eratzen dira, eta estaltzeak gertatzen. Ernaldiak bost hil irauten du. Erditzeak apirilean edo maiatzean izaten dira. Kume bat edo bi jaiozen dira, eta amak 5-6 hilez edoskiarazten die, hurrengo araldira arte. Mufloiek 2-3 urterekin iristen dute sexu-heldutasuna.

Sedentarioak eta oso sozialak dira: emeek eta kumeek beren taldeak eratzen dituzte, eta ar taldeetatik bereizita egoten dira. Araldian, arrek, bakarrik nahiz elkarturik (2-3), lurraldeak ezartzen dituzte, edo noraezean ibiltzen dira, eme bila.

HABITATA. Baso-lurrak: artadiak, pinudiak, ibar-basoak, etab.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Ez da bizi EAEn. Korsikakoa, Sardiniakoa eta Ziprekoa da jatorriz, baina ehiza-helburuekin sartu dute europar kontinentean. Iberiar penintsulan, XX. mendearen erditsuan sartu zuten Cazorlan, eta, egun, kopuru desberdinetan bizi da Penintsulako hego-erdiko mendialdeetan: Extremadura ekialdean, Andaluzia iparraldean, Gaztela Mantxako hego-mendebaldean, Cuencako mendilerroan, Valentziako mendebaldean, etab. Cañadas del Teide izeneko tokian (Tenerife) ere bizi da. Beste herbiboro batzuekin janariagatik duen lehiak, hazteriarren bektore gisa duen eginkizunak eta Kanariar Uharteetako flora endemikoan duen eraginak zalantza handia sortu dute espeziea sartu izanaren egokitasunaz.



EHIZA. Mufloia “zelata-ehizan” eta “monterian” ehizatzen da, urritik otsailera bitartean.

AMOTRAGUA

Ammotragus lervia

Arruí

44 ◀



DESKRIBAPENA. Bobido sendoa. Kolore arre-hareatsua du; ile luze batzuk ditu kokospean, bularraldean eta aurreko hanketan, eta adar makur berezi batzuk. Arrek adar luzeagoak eta makurragoak dituzte, emeek baino; gainera, gorputz handiagoa dute, eta ile luzeagoa.

ELIKADURA. Herbiboroa da. Hostoak, fruituak eta zuhaitzetako nahiz zuhaixketako haziak ditu gogokoen; belarlandareak ere jaten ditu, baina gutxiago.

BIOLOGIA ETA OHITURAK. Poligamoa eta lurraldekoa da. Udazkenean (iraila-azaroa) izaten da araldia; orduan, arrek beren harenak defendatzen dituzte, eta estaltzeak gertatzen dira. 150-165 eguneko ernaldiaren ondoren, erditzeak izaten dira (udaberrian); bi kumeak, normalean. Amotraguek 18 hilera iristen dute sexu-heldutasuna.

Taldekoiak dira, aralditik landa. Emeek eta kumeek taldeak eratzen dituzte, eta ar helduetatik bereizita ibiltzen dira.

HABITATA. Saharar eskualdeko toki menditsu eta malkartsuetakoa da jatorriz; halere, ingurune basotsuagoetara egokitu da Iberiar penintsulan.

BANAKETA ETA POPULAZIOAK. Afrika iparraldeko mendietan bizi da. 1970ean, Murtziako Espuña mendilerroko Erreserba Nazionalean sartu zuten, eta, 1972an, La Palma uharterako (Kanariar Uharteak) Caldera de Taburiente ezagunean, ehiza-helburu hutsekin. Lurralde berrietara ongi egokitu eta gero, 2.000 amotragua baino gehiago dira gaur egun, eta Murtziako beste mendialde batzuetara ere hedatu da espeziea. Duela gutxi, Ciudad Realeko, Toledoko eta Cadizko ehiza-lur pribatu batzuetan ere askatu dituzte banako batzuk. Kalte handiak sortzen ditu landareetan (basogintza, soroak, landare endemikoen kontsumoa...). Horregatik, zorrotz kontrolatu behar dira haren populazioak.



EHIZA. Murtzian eta Andaluzian, "zelata-ehizan" ehizatzen da amotragua, urritik urtarrilera edo otsailera bitartean.



EHIZAREN LIBURUA

5. KAPITULUA

IDENTIFIKATZEKO ARAZOAK


► 5.- IDENTIFIKATZEKO ARAZOAK

Nahiz eta ehiztariak nahitaez ongi identifikatu beharra daukan ehizakia tiro egin aurretik, ez dugu ahaztu behar ehiza-ekintzak ez direla beti gertatzen ikusmen-baldintza egokietan, ez eta beharrezko giro lasaian. Hala, ez da ezohikoa nahi gabeko ondorioak dituzten gertakariak izatea maiz. Gertakariok larriak izaten dira batzuetan (ehiztari zaurituak eta hilak); beste batzuetan, berriz, ehiza ez daitezkeen eta galtzeko zorian diren espezieak botatzen dira. Azken horri dagokionez, tamalgarria da ikustea nola, ehiza-denboraldian, fauna sendatzeko zentroetan, oraindik ere tiroz zauritutako hegazti harrapariak, koartzak eta zikoinak jasotzen dituzten, arretarik edo konturik gabe –inoiz asmo txarrez ere bai– tiro egin dietelako. Esperientziak erakusten du, bada, zuhur jokatu behar dela, eta dagozkion ardura-neurri guztiak hartu behar direla. Honako hau izan behar dugu kontuan, batez ere: aurrean zer dugun ziur dakigunean bakarrik egin behar dugu tiro.

Iberiar penintsulak du Europako fauna-aberastasunik handienetako bat (118 ugaztun espezie eta 242 hegazti espezie). Euskadik berak ere, nahiz eta txikia (7.235 km²) izan eremuz, adierazitako espezieetako asko ditu (48 ugaztun espezie, saguzarrak kontuan hartu gabe _zeinak sekula ez baitira izango 14 baino gutxiago_, eta 156 hegazti espezie). Nola espezie sail handi horretan elkarren antzeko anitz diren, batzuk ehizagarriak, besteak ez, kapitulu honetan faunaren identifikazioan jarriko dugu arreta berezi bat, kontuan harturik ehiztaria ingurumen-baldintza ezberdinetan aritzen dela ehizan: postu finkotik egindako migratzaileen ehiza, itsasertzeko, hezeguneetako, basoetako, leku irekietako... ehiza. Kontua ez da eskopeta batekin edo errifle batekin bizi daitezkeen egoera berezi ugarien azterketa sakon bat egitea, baizik eta ehizan gabiltzanean topa ditzakegun zailtasunik ohikoenak azaltzea.

Gauza bat gogoraraztea komeni da: ehiza espezieen eta debekatutako espezieen zerrendak aldatu egiten dira ehiza-denboraldi batetik bestera, espezie bakoitzeko ale kopuruak edota ezagutzak nahiz esperientziak hala agintzen dutenean. Horregatik, gomendatzen da **Debekualdien Aginduan ageri den ehiza espezieen zerrenda aztertzea beti ehiza-denboraldiaren hasieran**.

5.1.-BASOKO EHIZA




“Basoko” ehiza da erakargarrienetako bat, esparru natural eder batean gertatzen baita; ehiza mota horretan, halere, ehiztariak oso denbora laburra izaten dute ehizakia identifikatzeko tiro egin aurretik. Edozein zailantza izanez gero, ez da tiro egin behar sekula.

Honako hau da **zelata-ehiza**: ehiztariak, bakarka, bere bizi-eremuan dabilen mendiko animalari –orkatza, oreina, sarrioa– jarraitzea edo jazartzea. Nola ehiza modalitate horretan ehiza hautatua edota trofeorik onena bilatzen den, eta nola ehizakia luzaz behatu behar den horretarako, ez dago ehiza ez daitezkeen espezie bati tiro egiteko arriskurik. Orduan, ikusitako animalien adina eta sexua ahalik eta zehatzen jakitea du interes nagusia ehiztariak.

Uxaldiak zailtasun handiagoa du, ohikoagoa baita orduan sastraka edo sasi artean ihesi doan animalari presaka tiro egitea. Basurdea da ehiza modalitate horretako ehizaki nagusia, eta, gehienetan, istant labur bat baizik ez da izaten animalia zuzen identifikatzeko. Horren ondorioz, nahi ez diren sexuko edo adineko animaliak botatzen dira maiz. Izan dira kasu muturreko eta tamalgarri batzuk Kantauriar mendikatean eta Pirinioetan, ihesean zihoan basurde bat hartz arre batekin nahastuta. Ondorioak zorigaitzokoak izaten dira hartzaientzat. EAEn, ondokoa da arriskurik handiena, ongi identifikatu ez den zerbaiti tiro egitea: erremediorik gabeko ezbehar bat sortzea beste espezie batzuegan, edo, are larriagoa dena, pertsonengan, errebotetzko jaurtigairen batek jo dituelako, edo axolagabeki beste postu batzuetarantz tiro egin dugulako.

Gauzez egiten den basurdearen zelata ez da ehi-za modalitate huts bat; babes-neurri bat ere bada, espezie horrek soroetan eta larreetan era-giten dituen kalteen aurka. EAEn, Araban ematen dira basurdeak hiltzeko baimenak maiz. Foru-aldundiak ematen ditu baimenok, basurdeek era-gindako kalteak egiaztatu ondoren. Bestela, kal-teak gertatu diren ehiza-barrutien jabeek edo esleipendunek egin behar diete aurre basurdeek eragindako kalte ekonomikoei. Udan egiten dira zelata-ehizok, eta orduan baimentzen, hau da, debekualdi-garaian. Ongi ez ikustearen zailtasun erantsia dakar horrek berekin, ehizaldiok gauzez edo krepuskuluetan egiten baitira. Beste behin ere, ezinbesteko araua errespetatu behar da: ezin da tiro egin, aurrean zer dugun ziur jakin arte.




Kontuz ibili behar da landaretza trinkoa dagoen tokietan, huts egin daiteke eta.

Oso erakargarria da, halaber, oilagorra **“saltatzean” ehizatzea** basoan; bi arrazoigatik, batez ere: txakurraren lanagatik eta ehiztariaren ahaleginagatik. Txakurrak oilagorra erakustean eta hark oinez eta sigi-saga hegan eginez ihesari ematean gertatzen da modalitate horretako unerik gorena. Ez da nahastu behar hegada hori urubiaren (harrapari gautarra eta gorpuzkera desberdinekoa) hegada isilarekin edo mozoloaren hegada uhindun bereziarekin.

Basoan, oso kontuan izan behar da hegazti batzuek antz handia dutela beste batzuekin: babestutako okil beltzak (buruan txano gorri bereizgarria duena) ehiza daitezkeen korbidoekin (belea, bereziki); lepitzuli izutiak eta okil handiak birigarroarekin; kukuak, zuhaitz-belatzak eta gabiraiak –gorputz lirainekoak– usoarekin. Kontuan izan behar da, hala-ber, bat-batean agertzen den eskinosoa. Bestalde, Kantauriar mendikatean eta Pirinioetan, aurreikusi behar da edozein unetan altxa daitekeela basoilar eme arre-gorritzat.



Oilagorra “saltatzean” ehizatzean, kontuan hartu behar da ehiza EZIN daitezkeen beste espezie batzuk izan daitezkeela inguruan. Goitik behera eta ezkerretik eskuinera: urubia, basoilarra, mozoloa eta oilagorra.





Eskinosoa babestutako espezie bat da, eta oso kolore bereziak ditu: tonu arrosak; ipurtxuntxur (isatsaren oinarria) zuria, eta luma urdin eta beltzak, hegoetan.

Baso-inguruneetan ohikoak diren espezieak. Goitik behera, usapalak, kukuak eta zuhaitz-belatzak hegatu duten itxura.



Goitik behera: azeria, azkonarra, igaraba, basakatua, bisoia eta erbinude zuria.

Harraparien (azeriak, nagusiki) deskastea egin behar denean, ardura handia hartu behar da babestuta dauden basoko beste ugaztun batzuk (basakatua, lepahoria, azkonarra eta katagorria) errespetatzeko. Nola oso populazio ahulak dituzten, gomendatzen dugu arreta berezia eskaintzeko EAEn arriskuan diren lau ugaztun haragijale hauei: ipurtatsari, erbinude zuriari, igarabari eta bisoi europarrari (azken biak galzorian daude).

5.2.- POSTU FINKOKO EHIZA



Uso-fronteek kokapen estrategiko bat izaten dute. Horri esker, espezie askotako milaka hegazti beha daitezke, eta nekez gertatzen da hori beste ehiza modalitate batzuetan. Horrek eskatzen du postu finko batean dagoenak espezieak ongi identifikatzen jakitea.

Udazkeneko uso talde handien "paseak" markatzen du ehiza-denboraldia mendateetan, mendilerroetan eta mendi-gainetan, haietan baitaude kokatuta, estrategikoki, uso-postuak. Pagausoan eta txolomen migrazio hori bat dator iparraldeko beste espezie askoren (kurriloak, antzarak, harrapariak eta txori txiki ugari) migrazioarekin. Hala, ehizan hasi aurretik, ongi ezagutu behar dira igarobide horietan biltzen diren hegazti guztiak.



Hegazti handien siluetak ikustean, ez da zailtasunik izan behar V formako antzara (ehizagarriak) talde zaratatsuak bereizteko, zeinak kurrilo eta ubarroi taldeen garai berean igarotzen baitira, ez eta koartza eta zikoina solteak (zorrozki babestuta, guztiak) bereizteko ere. Izan ere, koloreak eta gorpuzkerak bereizten dituzte ubarroiak gainerakoetatik; koartza hauskarak hegada geldoa ageri du, eta bilduta eramane ohi du lepoa; kurriloek eta zikoinek antzeko silueta dute (lepo zuzena), baina zikoinengan hankak nabarmentzen dira isatsa baino luzeago, eta haien koloreak (zuriak izaten dira gehienak, eta beltzak, bakan batzuk).

Goitik behera: antzara, kurriloa, koartza, ubarroi eta zikoina.



Zorrotz errespetatu behar da, beti, miruen, arrano sugezaleen, arrano txikien, zapelatz liztorjaleen eta beste hegazti migratzaileen planeatze bakartia. Halere, gabiraia, zuhaitz-belatza, belatz gorria eta belatz txikia nahasten ditugu maizenik, eta, horregatik, lehenbailehen identifikatu behar ditugu haien siluetak eta hegaketa eta planeatzeak aldizkatzen diren hegadak.

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: gabiraia, belatz gorria, pagausoa, miru gorria, zapelatz arrunta eta pagauso taldea.

Usoak urri diren egunetan, **ehizaki txikiagoei egin ohi zaie tiro**; gehienetan, birigarroei eta arabazozoei. Oro har, gomendatzen da ez kasurik egitea txori txikienei, ehiztaririk eskarmentudunenak ere nekez ezagutzen dituenek, espezie franko baitira talde handi horretan: alaudak, kardantxiloak, tarinak, txokak, txorruak, txirriskilak, txontak, buztanikarak, txirtak, berdantzak eta beste mordo bat.



Ezkerretik eskuinera: txirta, txonta, alauda eta birigarroa.

5.3.- EREMU HEZEETAKO EHIZA

Inolako zalantzarik gabe, eremu hezeetako ehizan erakutsi behar du ehiztariak, uso-postuetako ehizan bezala, ehizakia ongi identifikatzeko gaitasuna. Ingurune horietan batzen diren espezie ugariengatik (batzuk elkarren oso antzekoak) komeni da hori. Gagozkion kasuan, bada, zaleak prestakuntza teoriko eta praktikoa izan behar du.

Oso baliotsua gertatzen da **ur gaineko ahateak eta ahate murgilariak** bereizten jakitea; lehenengoek (ahateak eta zertzetak) burua eta lepoa uretan murgilduta jaten dute; bertikalki aireratzen direlako ezagutzen ditugu urrundik, eta hegoak ispilu distiratsuz apainduta dituztelako. Ahate murgilariak (murgilaria) potoloxeagoak dira; jauzi batez murgiltzen dira uretan, elikatzeko; uretan lasterraldi luze bat eginda ekiten diote hegan, eta hego motzak, ispilurik gabeak eta oso atzean kokatuak dituzte; arrazoi horregatik, silueta berezi bat dute hegan.




Ehiza espezie, espezie babestu eta, bereziki, arriskuan diren espezie franko bizi dira hezeguneetan. Horregatik, babesleku gisa erabiltzen dira normalean lekuok; babes-neurri batzuk ere badituzte, baita nazioarte mailan ere. Ez zaio arrotza hori EAEri, eta gure hezegune eta urtegi garrantzitsuenak fauna-babeslekuak dira, eta ehiza-araubide bereziko tokiak.

Ahateen artean, badira ongi bereizi beharreko **espezie urri eta galzorian diren batzuk**: paita arrunta (ur gazikoa), ahate buruzuria (hegoalderago bizi da) eta murgilari arrea; azken hori migrazio-garaian ikusten da EAEko hezeguneetan; kolore arre homogeneoa du, eta orban triangeluar zuri bat, isatsaren azpialdean.

Hona ehiza ez daitezkeen eta hezeguneetan ahateekin, zertzetekin eta murgilariekin nahastuta ibili ohi diren **uretako beste espezie batzuk**, ongi bereizi beharrekoak: ubarroi handia (beltza eta sendoa); txilinporta txikia eta txilinporta lepabeltza (murgilari txikiak), eta murgil handia.


Maiz nahasten ditugu, oso antzekoak baitira biak, **kopetazuri arrunta (ehizatzekoa) eta uroiloa (babestua)**. Azken horrek moko gorri-horia du; gainera, triangelu zuri bat, isatsean, eta zerrenda zuri bana, saihetsetan, eta ezaugarriok bereizten dituzte kopetazuri arruntaren gorputz beltzetik eta moko zuritik. Elkarrekin halako antz bat duten beste hegazti batzuk: uroilanda handia (moko gorri luzea) eta uroilanda txikiak, guztiak ere lezkadietan eta ihitokietan bizi baitira.

Uretako ehiza espezie ehizagarri nagusiak ere, **antzara hankagorritak**, sortzen ditu buruhauste batzuk. Izan ere, badira haren oso antzeko beste antzara batzuk; urriagoak dira, ordea, eta ezin dira ehizatu. Antzara hankahoria oso ugaria izan zen behiala Penintsulan; askoz ilunagoa da, eta hankak laranja-kolorekoak ditu; mokoak, berriz, motza eta hori-beltza du. Honako hauek dira noizean behin agertzen diren beste antzara batzuk: antzara mokolaburra eta antzara muturzuria, eta brantak (musubeltza, musuzuria, kanadarra eta lepagorria).



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: murgilari arrunta, zertzeta, ubarroi handia, murgila, txilinporta, basahatea, murgilari mottoduna eta murgilari arrea.

Eremu hezeak **leku egoki-egokiak dira zangaluzeentzako**. Hegabera eta istingorrek ohiko biztanleak dira ur-bazter lohitsueta eta zelai hezeetan. Toki horietan, antzeko espezie ugari dituzte bizilagun, zeinak lirainagoak, hanka luzekoak eta moko luze zorrotzekoak baitira, eta bereziki babestuta baitaude: bernagorriak, kuliska txikiak, kurlintak, txirriak, txirritxoak, abozetak, etab. Halere, itxura mozkoteak, hanka motzek eta moko luzeak nahastezin bilakatzen dituzte istingorrek; berebat, bizkar berdexkak eta motots luzeak aise uzten dute bereizten hegabera.



Goitik behera eta ezkerretik eskuinera: uroiloa, kopetazuri arrunta, uroilanda handia eta uroilanda.



ISTINGORRA



KURLINTA HANDIA



BERNAGORRIA



KULISKAK



HEGABERA



TXIRRITXOA

5.4.- LEKU IREKIETAKO EHIZA



Nekazaritza-lurak eta beste lur batzuk nahasten diren leku ireki bat, non sastrakadia den landaretza nagusia.

Ehiza-ikuspegitik begiratuta, honako hauek dira leku irekiak: nekazaritza-lurak (soroak) eta beste batzuk (lur etzeak, lugorriak) dauzkatenak; horietan, sastraka txikia izaten da landaretza nagusia. Gizakiak sakonki eraldatutako ingurune horietan, estepetan bizi ohi diren eta gainerako habitatetan nekez aurki daitezkeen espezieak babesten dira.

Nahiz eta Bizkaian eta Gipuzkoan badiren zenbait gun e "atlantiko" ireki (zelaiak eta larreak), eskuliburu honetan Araban ohikoagoak diren gun ireki mediterraneoak aipatzen ditugu.

Honako hauek izaten dira, nagusiki, leku irekietako ehiza-praktikak: **"debekualdi erdiko" galeper-ehiza eta eper-, erbi- eta untxi-ehiza** orokorragoa. "Talde-ehiza" modalitatearen bidez, basoilo handia ehizatu ohi da Iberiar penintsulako lautada lehorretan, eta, beraz, oso aintzat hartzekoa da espezie hori. Hona hertsiki babestuta dauden eta ongi bereizi behar diren beste espezie batzuk: basoilo txikia, tamaina txikiko basoilo bat, punta beltzeko hego zuriak dituen;



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: eper gorria, atalarra, galeperra, ganga azpibeltza, basoilo txikia eta ganga azpizuria.

atalarra, eremu lehorretako eta eremuetako hankaluze txiki bat, eta gangak eta ganga azpibeltzak; hanka motzeko usoen itxurakoak, isats zorrotzekoak eta sabelalde zurikoak, gangak, eta beltzekoak, ganga azpibeltzak; eta bizkar gaztainkara ikusgarriak dituztenak, hurbiletik behatuz gero.

Negu mineko hiletan, ongi bereizi behar dira soroetan eta zelaietan maiz elkarrekin ibiltzen diren **hegaberek** (ehizatzeakoak), batetik, eta urre-txirri arruntak eta txirri grisak, bestetik. Bai txirriek, bai hegaberek, gorpuzkera trinkoa eta moko laburra dute, eta lurrean egoteko joera handia; txirriek, ordea, bizkarraldea horixka (urre-txirria) edo errauts kolorekoa (txirri grisa) daukate, kontraste handia egiten duela sabelalde zuriarekin; hegaberek, aldiz, bizkarralde berdea eta beren motto nabarmena dituzte bereizgarri.



Goitik behera eta ezkerretik eskuinera: erroia, ipar-belea, belatxinga, belea, bele txikia eta mika.

Korbidoak dira gure inguruneetan nahaste gehien sortzen dituzten hegaztietako batzuk. "Beleak" izendapenarekin, izan ere, tamaina ertaineko eta kolore beltzeko hegazti mota ugari biltzen ditugu. Itxura horren pean, ordea, sei espezie desberdin dira: haietatik bi, ehizagarriak (belea eta bele txikia), eta gainerako laurak, zorrotz babestuak (ipar-belea, erroia, belatxinga mokogorria eta belatxinga mokohoria). Ahalik eta ardurarik handienaz ibili behar da, beraz, okerreko espezieari tiro ez egiteko.

Belatxingak harkaitzetan bizi dira; hanka gorriak dituzte, eta moko mehe samarra eta apur bat kakotua daukate; edo horia (belatxinga mokohoria), edo gorria (belatxinga mokogorria). Azken hori ugariagoa da; talde zaratzatsutan agertzen da, eta intsektuak janez elikatzen, bizileku dituen harkaitzien inguruko mendi-mazeletan eta soroetan. Ipar-belea, berriz, neguko bisitaria da Iberiar penintsulan (kumeak hazteko Leon probintzian diren kolonia batzuetan izan ezik);



ARABAZOZO BELTZA



ZOZO ARRUNTA

halere, gero eta urriagoa da. Helduen mokoalde soil zuriagatik bereiz daiteke, eta galtza lumatsuengatik. Erroia handiagoa da; gainera, ahots karrankatsuagoa, moko sendoa eta isatsa ziri-tankerakoa ditu, eta, horiexei esker bereiz daiteke belearengandik. Eta bele txikiak usoen antzeko hegada bizkor bat du; garondo grisa eta iris zurixka ditu bereizgarri. Dena dela, ahotsak ere oso bereizgarriak dira.

Zozo arruntak eta arabazozoak ere beltzak dira, nahiz eta txikiagoak izan; horregatik, aise nahas daitezke espezie batzuk besteekin, baina haietako batzuk ezin dira ehizatu, hala nola arabazozo beltza. Bi espezieek —zozoak deitzen zaie— lumaje beltza edo arre iluna daukate, eta moko horixka. Arabazozoak taldetan biltzen dira, eta ondokoak dituzte ezaugarri: hegada zuzena, hegaketa bizkorra, isats motza, hego zorrotzak eta ahatearen antzeko ibilera. Zozo arrunta bakartiagoa da; hegada uhinduna du, eta isatsa, luzeagoa; hego biribilduak ditu; lurrian, berriz, jauzika edo lasterraldi txikiak eginez ibiltzen da. Lurralde batzuetan, zozo arrunta ehizagarria da oraindik, baina esan daiteke estatut hori aldatzeko joera dagoela. Aipamen berezia merezi du zozo paparzuriak (espezie babestua). Ohiko bisitaria da neguan toki goietan. Zozo arruntaren kopia zehatz bat da, bularrean duen orban zurian eta ezkatzen itxurako lumetan izan ezik.

Leku irekietako gainerako hegazti arruntak txikiak dira, eta honako hauek aipa daitezke: alaudak, txoriandreak, txirtak, kutturlioak, kalandriak, etab. Guztiak errespetatu behar dira, jakina.

Ez dira bata bestearekin nahastu behar ugaztunak ere, hala nola erbia eta untxia. Erbiaren tamaina handiagoa, isats zuri-beltza eta hanka zein belarri luzeagoak oso bereizgarri onak dira. Komeni da bi espezieak ongi bereizten jakitea; Euskadiko hainbat tokitan, izan ere, guztiz debekatuta egoten da maiz bietakoren bat ehizatzea.



ERBIA



UNTXIA

5.5.- ITSASERTZEKO EHIZA



EAEk Kantauri itsasoa du muga iparraldean; hirurehun kilometro dira itsasertz horretan, eta bazter ikusgarriak, non espezie anitz bizi baitira; gehienak, gainera, arriskuan. Halere, itsasertzeko zenbait gune —itsaslabarrak, hondartzak, padurak...— pobreak dira ehizakitan, eta, gainera, segurtasun-eremuen eta erreserben barnean daude, eta ezin da ehizatu haietan.

Autonomia-erkidego batzuetan, baimenduta dago antxeta mokogorriak eta kaio hankahoriak ehizatzea; EAEn, aitzitik, ez. Ehiza baimenduta dagoen tokietan, espezie horiek, nahiz eta oso ugariak izan eta ugaritzeko joera eduki, beste kaio urriago edo galtzeko arriskuan diren batzuekin (antxeta burubeltza, antxeta txikia, Audouin kaioa eta kaio iluna) nahas daitezke erraz. Horregatik, oso kontu handiz aztertu behar dira buruen, lumen, mokoan, hanken eta hegoen tamainak eta diseinuak.

Nola kaio guztien kumeak arreak diren, haien zuzen identifikatzea oso zaila da, are ornitologoan adituak direnentzat ere. Horregatik, gomendatzen da kaioei sekula tirorik ez egitea; eginez gero, berriz, beti hegazti helduei egitea; helduek, izan ere, ongi definituta izaten dituzte lumajea eta mokoaren nahiz hanken koloreak, eta, horri esker, babestutako espezieak botatzea saihesten da.


Kaioez gainera, hegazti espezie ugari biltzen dira itsasertzean (guztiak ez dira ehizagarriak). Haietatik, ubarroi motto-dunaren irudi beltza nabarmentzen da. Ubarroi horrek ia ura ukituz egiten du hegan uhinen artean, eta harkaitzetan pausatzea atsegin zaio. Neguan, ekaitzak direnean, itsas zabaleko espezie franko hurbiltzen da itsasertzera. Hala, zangak, gabaia, pottorroak, martinak eta ahatebeltzak ikus daitezke orduan itsasertzean. Batzuetan, zerra ertainak, paita arruntak, branta musubeltzak, aliotak eta, noizean behin, beltzargak ere heltzen dira babes bila estuario eta itsasadar gordeenetara. Berariaz aipatzen ditugu espezie horiek hemen, zeren maiz entzuten baita brantak edo beste itsas hegazti batzuk tirokatu dituztela ehiztari zabarren batzuek.

EAEn, hegazti migratzaileak itsasertzetik igarotzen diren garaia bereziki minberak dira; izan ere, gehiegizko ehiza-presioa, babestutako espezieei tiro egitea, eta habitataren eta/edo beste hegazti batzuen gaineko distortsioak gerta daitezke orduan. Gizalegez jokatzeko eskatzen diegu ehiztariei, era horretako egoera tamalgarriak gerta ez dadin.



Neguan itsasertzeaz azaltzen diren eta ehiza ez daitezkeen hegaztiak: 1) beltzargak, 2) pottorroa, 3) paita arrunta, 4) ubarroi mottoduna, 5) branta musubeltzak, 6) aliotak, 7) zerrak, 8) zangak.

Aipamen berezia merezi du alderdi horrek EAEn: erabateko errespetua agertu behar zaie Europako hotz-bolada handietatik ihesi itsasertzera heltzen diren hegabera eta oilagor ugariei. Une horietan, oso kalteberak dira hegaztiok; egun horietan (fortuna-egunak), beraz, ez dago baimendurik ehiza. Gauza bat egiaztatu da, izan ere. Espezie horiek, hotzaldi gogor baten ondoren, bizpahiru urte behar izaten dute beren kopuruetara itzultzeko, baldin eta hotzaren ondoren ehiza-presio handi bat jasan badute.





EHIZAREN LIBURUA

6. KAPITULUA

EHIZAKO ARMAK ETA TXAKURRAK

► 6.- EHIZAKO ARMAK ETA TXAKURRAK

Espainian izaten diren ehiza-gertakari ia guztiek amaiera bera izaten dute: tiro egiten zaio ehizakiari su-arma (eskopeta edo errifle) batez; ehiza-arkuak, berriz, oso gutxitan erabiltzen dira. 1999tik hona, arma-azterketa bat gainditu behar da su-armen baimena edo lizentzia eskuratzeko. Eskuliburu honek, beraz, ez du askoz gehiago esaten ehizan hasi nahi dutenek jadanik azterketa horretan gainditu behar dituzten alderdiez.

Ehiztariak, ordea, ez ditu armak soilik erabiltzen; gehienetan, txakurrak izaten ditu ondoan: ehiza aurkitzeko, uxatzeko eta tiro barruan ipintzeko (txakur erakusleak, ehiza-txakurrak, podenkoak...); botatako ehizakiak aurkitzeko eta ekartzeko (txakur jasotzaileak, odol-txakurrak...); eta, are, txakurraren jabeak altxatu duen ehizaki bati jazartzeko eta hura harrapatzeko (galgoen kasua). Horregatik, ehiza-txakur arraza arruntenak aztertuko ditugu.



6.1.- ARMAK ETA MUNIZIOAK

Arma-araudiak bi motatan sailkatzen ditu ehizako su-armak: arima leunekoak (eskopetak) eta arima marratukoak (errifleak). Bai eskopetak, bai errifleak, arma luzetzat hartzen dira, pistolen eta errebolberren aurrean, zeinak arma motzak baitira eta debekaturik baitaude ehizan.

6.1.1.- ARMA KATEGORIAK

Honako kategoria hauetan sailkatzen dira ehiza-armak:

- 2.2 kategoria.- **Su-arma luze marratuak.** Kategoria horretakoak dira ehiza larrian erabil daitezkeen armak, bai eta metalezko kartutxoetarako errekamara edo ganbera duten ehiza-eskopetetarako egokitu daitezkeen kanoi ildaskatuak ere; betiere, kasu batean nahiz bestean, gerra-armatzat sailkatuta ez badaude.
- 3.2 kategoria.- **Eskopetak eta arima leuneko gainerako su-arma luzeak,** baldin eta gerrako armak ez badira, eta beruneztatzea errazteko kanoi marratua duten beste batzuk, baldin eta arauzko saiakuntza-bankuek ehiza-eskopetaren eztenaz markatu badituzte.
- 5.1 kategoria.- **Arma zuriak** eta, oro har, ebakitzeko edo ziztatze xafra dutenak, debekaturik ez badaude.

- 7.1 kategoria.- **Anestesia injeztatzeko armak**, animaliak aldi batez anestesiatzeko edo sorgortzeko jaurtigaiaik botatzen dituztenak. 7.2 kategoria.- Balezta. 7.5 kategoria.- Arkuak edo uztaiak, arrantza-lerroak jaurtitzeko armak, eta geziak edo arpoiak jaurtitzeko urpeko arrantza-fusilak, arrantzakoak nahiz kirolekoak.

6.1.2.- ARMA BAIMENAK, ETA ARMAK ERABILTZEA ETA EDUKITZEA

Erriflez eta eskopetaz ehizatze, bi arma-lizentzia edo -baimen mota desberdin behar dira: "D" arma-lizentziarekin, 5 ehiza-errifle eduki eta erabil daitezke, gehienez; "E" arma-lizentziarekin, berriz, 6 ehiza-eskopeta eduki eta erabil daitezke, gehienez. Bi lizentziek 5 urteko indarraldia dute, 60 urtez azpiko ehiztariantzat.

60 eta 70 urtetik gorakoentzat, arma-lizentzien indarraldia gainerako ehiztariena baino laburragoa da. 60 urtetik gorakoen kasuan, iraunaldia 2 urtekoa izango da, eta urtebetekoa, 70 urte betetzen direnean. Beraz, bi urtez edo urtebetez behin, adina zein den, pertsona horiek beren arma-lizentzia berritzeko eskatu beharko dute. Betebehar hori pixka bat arintzeko, adin horretako pertsonentzat hobariak ezarri dira ordaindu beharreko tasetan, bai lizentzia berritzeko, bai ateratzeko.

14 urtetik 18ra bitartekoentzat, eta adin-nagusitasunera arte, baimen bereziak ematen dira armak erabiltzeko. Haiei esker, arma luze marratuak eta arma luze leunak erabil daitezke, baina eduki ez. Baimen hori dutenek ehizatze edo "junior" mailako kirol-lehiaketetan parte hartzeko soilik erabil ditzakete armak, eta, beti, adinez nagusia den eta D, E edo F lizentzia duen pertsona baten ardurapean, eta arduradunok ehizaldi edo kirol-ekitaldi bakoitzean gasteak laguntzeko eta zaintzeko konpromisoa hartu behar dute.

ARMAK IKUSKATZEA

Egun, arma-lizentziak berritzean egiten da ehiza-armen ikuskapena ere. Ikuskapenak Guardia Zibilaren arma-ikuskatzailetzan egingo dira, lizentzia berritzea dagokion hilaren barruan, eta ehiztariak bere armak guztiak eta haiek agiriak daramatzala joan beharko du hara.

ARMAK ZAINTEZA

1998tik aurrera, su-arma luze marratuak (errifleak) jabearen etxean egon behar dute gordeta, kutxa gotorretan edo ganbara korazatueta (armategi homologatuak). Arma-zaintzan espezializatutako enpresen edo erakundeen baimenarekin ere gorde daitezke.

ARMAK MAILEGATZEA ETA TITULARRA ALDATZEA

Bai espainiarrek, bai Espainian bizi diren atzerriarrek, beste pertsona batzuei mailega diezazkietek beren ehiza-armak, baldin eta pertsona horiek ehiza-lizentzia eta arma-lizentzia –ehiza larrirako arma luze marratuena (D) edo eskopetena (E), kasua zein den– badituzte. Horretarako, idatzizko baimen bat egin beharko diete, sinatuta eta datarekin, eta baimen horrek 15 eguneko balioa izango du, gehienez ere. Armak beren jabetza-gidekin batera mailegatuko dira beti.

Arma bat beste pertsona bati saltzeko edo emateko, erosleak edo armarekin gelditzen denak hura erabiltzeko beharrezko lizentzia eduki behar du. Jabetzaren aldaketa Guardia Zibilaren arma-ikuskatzailetzan egingo da, eta hark saltzailearen jabetza-agiria baliogabetuko du, eta agiri berri bat egingo dio erosleari.

ARMA ZURIAK

Egun indarrean dagoen arma-araudiak 5.1 kategorian sartzen ditu arma zuriak. Kontuan izan behar da arma zuri guztiak ez daudela baimenduta; halatan, bastoi-estokeak, era guztietako sastakaiak eta labana automatikoak daude debekatuta (honako hauek dira, zehazki, sastakaiak: 11 cm-tik beherako, bi ahoko eta punta zorrotzeko arma zuriak).

SU ARMEN EUROPAR TXARTELA

Su Armen Europar Txartela agiri pertsonal bat da, eta adierazten du zer su-arma dauzkan edo erabiltzen dituen haren jabeak. Europako Batasunean (Espainian barne) zehar armekin ibiltzea errazten du aipatu txartelak. Poliziaren eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak ematen du txartela, interesdunak aurrez eskatuta. Espainian bizi diren, eta

Espainiako lurraldean dagozkion armak edukitzeko eta erabiltzeko beharrezko agiriak dituzten pertsona guztiek eska dezakete hura. Txartelaren indarraldia 5 urtekoa da, eta babesten dituen armen jabetzak dirauen artean berri daiteke.

6.1.3.- SU ARMA ETA MUNIZIO MOTAK

ESKOPETAK

Ehiza-eskopeta aukeratzean, honako hauek izan behar dira kontuan, besteak beste: arma erabiliko duenaren ezaugarri fisikoak eta egingo den ehiza modalitatea. Arma mota horixe, eskopeta, da ehiza xeherako armarik egokiena, eta munizio anizkuna (perdigioizko kartutxoak) erabiltzen du. Ehiza larrian ere erabil daiteke eskopeta, betiere balazko kartutxoak erabiltzen bada.

Horri dagokionez, gogorazi behar dugu debekaturik dagoela ehiza larrian perdigoiak erabiltzea, eta postak edozein kasutan erabiltzea (2,5 gramoko edo gehiagoko perdigoiak dira postak). Postei doakienez, kontuan izan behar da, halaber, autonomia-erkidego zehatz batzuetan, hala nola Euskadin, guztiz debekatuta dagoela, ez soilik haiek erabiltzea, baizik eta baita ehizan dihardugun bitartean haiek edukitzea ere, Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen arabera.

Errepikapen-eskopeta ezaguna da eskopeta mota oso hedatu bat. Arma-araudiaren arabera, arma erdiautomatiko bat da, zeren, “behin munizio-gailua kargatu eta lehenengo kartutxoak errekamara sartutakoan, aski baita katuari eragitea tiroak bata bestearen ondoren jaurtitzeko”. Errepikapen automatikoko armekin, katua sakatuta edukita errepika daiteke tiroa, baina armok debekatuta daude ehizarako.

Eskopeta mota horri dagokionez, gogoan eduki behar da haren barnean hiru kartutxo –bat errekamara eta bi kargadorean– baino gehiago eramateko debekua. Nahiz eta askotan arma automatikoak deitzen zaien, errepikapen-eskopetak arma erdiautomatikoak dira berez.

Normalean, bi kanoiko ehiza-eskopetei izen generiko bat ematen zaie, kanoien kokapenaren arabera: paraleloak edo itsatsiak, kanoiak horizontalki kokatuta badaude, eta gainjarriak, baldin eta kanoiak bata bestearen gainean badaude.



Lau dira eskopetaren funtsezko atalak: ipurdia, baskula, esku-babesa eta kanoiak.

Ingeles libra bat berunekin egin daitezkeen bala biribilen kopuruaren arabera da eskopeten kalibrearen izendapena. Hala, 12 kalibreak berunezko 12 bala esan nahi du; 16 kalibreak, berunezko 16 bala; etab. Horrek azaltzen du itxurazko kontraesan bat, hau da, 12 kalibrea 20a baino handiagoa da, zenbakiek adierazten dutenaren aurka.

Eskopeta-kalibreen baliokidetasuna, mm-tan

Kalibrea	4	8	10	12	16	20	24	28
Milimetroak	23,75	21,2	19,7	18,5	16,8	15,6	14,7	14,0

Ehizan, funtsezkoa da kasu bakoitzerako kartutxo egokia aukeratzea, eta, horregatik, komenigarria da eskopeten zenbait ezaugarri tekniko ezagutzea:

- Katua sakatzean, tiro egiteko mekanismoaren bidez kolpekariak kartutxoaren fulminantearen kapsula jotzen du, eta, horren ondorioz, bolborazko karga nagusiak, su hartzen. Prozesu hori guztia oso bizkor gertatzen da. Su-hartze horrek gas kopuru handi bat sortzen du, eta gasok perdigoiak bultzatzen dituzte, takoaren eraginez, zeinak karga zigilatzen eta bultzatzen baitu.
- Bistakoa da eskopeten errekamarak gas-presio neurri jakin bat jasateko daudela eginda. Presio hori errekamaran behar da, eta ezergatik ere ezin da gainditu ezarritako muga; bestela, eskopeta leher daiteke. Horregatik, ardura berezia izan behar da ondokoetan:
 - Sekula ez erabili luzera jakin bateko kartutxorik errekamara motzago batean; izan ere, kartutxo luze batek kalibre bereko kartutxo motzago batek baino sutauts-karga handiagoa –potentzia handiagokoa– izaten du, eta, hortaz, presio handiegia sortzen du errekamaran.
 - Sekula ez erabili eskopetarena baino kalibre txikiagoko kartutxorik.
- - Potentzia handiko kartutxoek inpaktuaren energia handitzen dute distantzia luzera –bultzatze-abiadura handiagoa, perdigoiak pisu bera izaki–, eta armaren atzerakoa ere areagotu egiten dute, sutauts-karga handiagoa daukatelako.

Kartutxo barneko **perdigoien neurriak** ez du zerikusirik eskopeta-kalibrearekin. Halatan, hamarreko perdigoiak ere berdin jaurti daitezke 12, 16, 20 eta abarretako eskopetez. Eskopetaren kalibreekin gertatzen denaren antzera, zenbat eta handiagoa izan perdigoien tamaina adierazteko zenbakia, orduan eta txikiagoa da haren diametroa. Hala, 10 zenbakiko edo hamarreko perdigoia 9koa baino txikiagoa da, 9koa 8koa baino txikiagoa, eta horrela, hurrenez hurren.

Egin behar den ehiza motaren arabera eta erabili behar den armaren arabera aukeratu behar da, beti, kartutxo mota. Segundoko 350 m ingurukoa da eskopeta-kartutxo gehienek beren ibilbidearen lehen 20 metroan duten batez besteko **abiadura**. Oro har, aski da kartutxo mota horren eraginkortasuna ehiza xeheko ohiko jardueran, eta komeni da kontuan izatea kartutxoak aukeratzeko orduan; izan ere, perdigoien abiadura eta, beraz, inpaktuaren energia handitzeak, urruneko tiroetan emaitza hobea izateko, nabarmen indar dezake armaren atzerakoa ere.



Perdigoien sailkapena, tamainaren arabera*

Kopurua	Diametroa	Kopurua	Diametroa	Kopurua	Diametroa
00000	5,25	1	4	7	2,5
0000	5	2	3,75	8	2,25
000	4,75	3	3,5	9	2
00	4,5	4	3,25	10	1,75
0	4,25	5	3	11	1,5
		6	2,75	12	1,25

* Perdigoiek tamaina desberdinak dituzte, eta haiek zenbakien bidez (00000tik 12ra) sailkatzen uzten du horrek. Perdigo batetik hurrengora tamainan dagoen aldea 0,25 mm da, eta, hortaz, perdigoia zenbakia handitu ahala txikiagotu egiten da haren tamaina.

Eskopetaren "chokea" da oso garrantzitsua ehiza modalitatearen eta ehizatu beharreko espeziearen arabera, hau da, eskopetaren kanoi-muturren barneko estutzea. Oro har, azken 5 cm-tan egiten da estutze hori, eta 0 mm-tik 1 mm-ra bitartekoa izaten da, nahiz eta fabrikatzaile batzuek 1,2 mm-rainokoa ere egiten duten. Honako hauek dira chokerik ohikoenak: laurdena, erdia, hiru laurdena eta "full choke" deritzana edo choke osoa (1 mm-ko estutzea), eta 4, 3, 2 eta 1 izarrekin (edo bestelako ikur batzuekin) adierazten dira kanoian edo "kanoi-ahoa". Jakina, 0 mm-ko chokea kanoi erabat zilindriko bati dagokio.

Perdigoikada kontzentratzea da chokearen funtzioa; zenbat eta choke handiagoa, orduan eta kontzentratze handiagoa, eta horrek tiroaren eraginkortasuna handitzen du distantzia luzean. Kanoi motzeko eskopetek, nola gehiago sakabatatzen dituzten perdigoiak, distantzia berean antzeko perdigo-banaketa lortzeko, kanoi luzeek baino choke maila handiagoa behar dute.



Kontuan izan behar da choke maila bakoitza hobeki egokitzen zaiola dagokion ehiza motari, eta, beraz, erabilera oker batek honako hauek ekar ditzake berekin: eraginkortasun txikia distantzia luzeko tiroetan (choke irekiak), tiro asko huts egitea, edota ehizakia hondatzea distantzia laburretan ("full choke"). Agian, ahalik eta egoera gehienetara egokitzeko, choke ertaina izango da gomendagarriena eskopeta bakarrarekin ehizatzen duenarentzat. Dena den, oso urrats pertsonala da eskopeta zehatz bat eta choke zehatz batzuk (fabrikatzean jarriak edo trukagarriak) aukeratzea, eta aukeratze horrek esperientzia eta norberak maizenik egiten duen ehiza modalitatean oinarritu behar du.

Ehiza larrian ere erabil daiteke eskopeta, balazko kartuxoekin bada, baina erabilera horrek hainbat muga eta arazo ditu. Balazko kartuxoa askotan erabiltzeak eskopetaren chokea kaltetuko du seguruena; horregatik, chokea

honda ez dadin, "kanoi zilindrikoa" edo "kanoi zilindriko hobetua" erabiltzea gomendatzen da, eta "Brenneke" motako balak erabiltzea, halaber.

Bestalde, nahitaez sutauts geldoak erabilia, eta balaren pisu handiagoagatik eta eskopeta-kanoiaren ezaugarriengatik, eskopeta-balaren indarra, irismena eta doitasuna askoz txikiagoak dira ehiza larrian erabili ohi diren errifleenak baino. Alde horien ideia kuantitatibo hurbil bat izateko, aski da ondokoa jakitea: 40 gramoko eskopeta-bala batek, segundoko 350 m-ko abiaduran (horixe baita abiadura normal bat lehenengo 20 metroetan), 250 kilogrametroko energia du gutxi gorabehera; 10 gramoko errifle-bala batek, berriz, segundoko 900 m-ko abiaduran doala, 413 kilo-

grametroko energia du. Kilogrametroa, bidenabar esanda, lan- edo -energia-unitate bat da, kilo bateko masa bat metro bateko garaieratik erortzen utzita eskuratzen den energiaren baliokidea. Lehenago aipatutako arrazoiengatik, eskopeta-bala baten doitasuna 30 metro inguruan dabil; hala ere, kanoi berezia duten eta "Brenneke" balak erabiltzen dituzten eskopeta jakin batzuek nahiko doitasun onargarriak eskain ditzakete 85 metroko distantzian, eta baita urrunago ere.

Chokearen graduazioa 12 kalibrerako

Izena	Izarrak	Estutzea
Choke osoa	+	0,8 – 1 mm
Hiru laurdeneko chokea	++	0,6 – 0,8 mm
Choke erdia	+++	0,3 – 0,6 mm
Choke laiurdena	++++	0,2 – 0,4 mm
Zilindrikoa	+++++	0,1 – 0,2 mm

ERRIFLEAK

Ehiza larrian erabiltzeko su-armarik egokienak dira. Ezaugarri nagusi batek bereizten ditu eskopetetatik, kalibrea eta mekanismoak alde batera utzita: marra kiribil bartz dute marratuta arima. Ezaugarri horrek errotazio-mugimendu bat ematen dio jaurtigaiari, eta horrek bere ibilbidetik ez zeharkatzen laguntzen dio hari. Horren ondorioz, tiroaren doitasuna nabarmenki handitzen da.

Erabili beharreko munizioak jaurtigai hedakorra –ireki egiten da ehizakia jotzean– edukitzea komeni da, bi arrazoiengatik: Ehizatu nahi den espeziearen arabera arma eta munizioa erabili behar dira, animaliak alferrikako oinazeri izan ez dezan. Horri dagokionez, ez da ahaztu behar debekatuta dagoela bala leherkorrak eta 22 kalibreko errifleak erabiltzea.

Errifle izen generikoaren barnean, errifle mota ugari bereiz ditzakegu:

- **Morroiloduna:** ohikoena. Eskuz eragitekoa da: morroilo itxurako gailu baten bidez, erabilitako bala-zorroa botatzen du tiro egin ondoren, eta beste kartutxo bat sartzen, errekamaran.
- **Palankaduna:** eskuz eragitekoa, halaber: erabilitako bala-zorroa bota eta beste bala bat errekamaran sartzeko, katuaren atzealdean kokatutako gailu bati eragin behar zaio, ireki-itxi mugimendu bat egiten dela.
- **Irristailuduna** ("ponpa" edo "tronboi" sistema): sistema hori eskopetetan ere erabiltzen da; kanoiaren azpian kokatutako eta eskuz eragiten zaion irristailu erako mekanismo baten bidez botatzen du bala-zorro hutsa eta sartzen du beste bala bat errekamaran.
- **Espresa:** sistema kulunkari edo baskulantea du, eskopetenaren antzekoa; bi kanoi ditu, eta, horri esker, aldiko bi tiro egin ditzake gehienez ere, bien artean oso tarte txikia dela.
- **Erdiautomatikoa:** tiro ugaro egin ditzake bata bestearen ondoren, soilik katuari eraginda (eskopeta automatikoaren –errepikapenezkoa– mekanismo bera).



Honela adierazten dira europar kalibreak: bi zenbaki, tartean "x" sinbolo bat dutela, milimetrotan adierazita; lehenengo zenbakiak balaren diametroa adierazten du, eta bigarrenak, bala-zorroaren luzera. Amerikar kalibreek hazbete-milarenetan adierazten dute balaren diametroa; horrezaz gainera, marka eta "magnum" den edo adierazten dute. Nola errifleetan hala eskopetetan "magnum" motako munizioa erabiltzeari dagokionez, kontuan izan behar da sutauts-



karga handiagoaren ondorio dela mota horretako jaurtigaiei abiadura handiagoa, eta horrek presio handiagoak eragiten dituela errekararen. Beraz, ziur egon behar dugu gure arma egokia dela munizio mota hori jaurtitzeko.

Kalibre jakin baterako, normala da fabrikatzaileek pisu desberdineko balak eskaintzea ehiztariei, ehizatu beharreko espeziearen arabera.

Kalibreak*

mm	Europar kalibreak	Kalibre anglosaxoiak
6	6x62 Frerés; 6,5x55; 6,5x57; 6,5x57 ®; 6,5x64; 6,5x68	243 W; 244 R; 250.3000 Savage; 257 Whaterby Mag; 264 W.M
7	7x57 Muser; 7x57 ®; 7x64 Brenn; 7x65 ®; 7x75 V.Hofe	270 W; 280 R; 30-30 W; 30-06 Springfield; 308 W; 7mm-08 R
8	8x57 J; 8x57 RJ; 8x57 JS; 8x57 JSR; 8x64 Brenneke; 8x65 RS; 8x68 S	338 W.M
9	9,3x62; 9,3x62 RWS; 9,3x64; 9,3x94 ®	35 Whelen

*Hamarreko gutxi batzuk dira, benetan, erabiltzen diren kalibreak, eta 6 mm-tik behera, berriz, ez dute interes handirik ehizarako, nahiz eta batzuk zelata-ehizarako erabil daitezkeen. Argigarria da kalibrea jaurtigaiei mm-tako lodieraren arabera multzokatzea.

ARMA ETA MUNIZIOA AUKERATZEA

Ondoko hauek izan behar dira kontuan, besteak beste, ehiza-arma eta -munizioa aukeratzean: pertsona bakoitzaren gaitasun fisikoak, egin behar den ehiza modalitatea, ehizan jardun behar den ingurunearen ezaugarriak eta, jakina, bota nahi den ehiza-espezia. Adibidez, arma edo kalibre jakin bat oso eraginkorra izan daiteke basurde bat zelatan edo itxaronaldian ehizatzeke, eta eskasa, aldiz, ehizaki bera uxaldian edo monterian ehizatzeke. Bestalde, eta esate baterako, galeperra ehizatzeke perdigoia eperra ehizatzekeoa baino txikiagoa izango da, ziur.

Eskopeta erabiltzen da ehiza xehean, eta munizio gisa, berriz, perdigoizko kartutxoak, debekatuta baitago bala erabiltzea. Ehizaki txikiei perdigoiak jaurtitzeko asmatutako arma da eskopeta. 25-40 metrora egiten zaie tiro haiei. Perdigoiak sakabanatzen hasten dira kanoiaren ahotik irteten bezain laster, eta, horri esker, sorta zabal bat osatzen dute. Horrek errazago harrapatzen du ehizaki txikia, zenbait perdigoik jotzen baitute hura, eta hori gertakari bakana litzateke jaurtigi bakararekin, edo guztiz ezinezkoa.

Dagokion neurriko perdigoia erabili behar da ehiza xeheko espezie bakoitzarekin. Oro har, zenbat eta handiagoa eta gogorragoa izan animalia, orduan eta perdigo lodiagoa beharko dugu. Ildo horretan, baliteke ehiza-denboraldiaren amaieran hasieran baino perdigo handiagoa behar izatea espezie bera ehizatzeke, zeren bai bailiteke ehizakia gogorrago izatea orduan denboraldiaren hasieran baino, eta, beraz, energia handiagoko inpaktua beharko luke.

12a da ehiza-kalibre nagusia. Hala ere, azken boladan gero eta gehiago erabiltzen da 20a. Arma ona eta interesgarria da hura ehizarako, arina eta kirolerako egokia, baina, jakina, 12ak baino gutxiago hiltzen du, beruneztatze-dentsitate txikiagoa baitu. 16ko kalibreari dagokionez, harrigarria da nola haren erabilera ia erabat ezkutatu den, lehen oso estimatua baitzen talde-ehizan eta udan galeperra ehizatzeke; orain, ordea, ia ez da muniziorik harentzat, eta hari buruzko eskaintza oso mugatua da.

Bala erabiltzen da ehiza larrian, perdigoia erabiltzea debekatuta baitago. Eta erriflea da armarik ohikoena ehiza mota horretan, nahiz eta balazko kartutxoak kargatutako eskopetak ere erabiltzen diren batzuetan. Ehizakiari jaurtigi bakar bat botatzeko gai den arma bat bilatzen da, beraz, eta tiro horrek doitasun handia behar du. Mila horretan, eskopetak mugak ditu, irismen eraginkor txikia baitu; lehenik, eskopeta gehienek arima leuna dutelako (badira arima marratua

duinak ere, baina ez daude oso hedatuta), eta marratu gabeko kanoi batetik irteten den balak alde batera egiten du berehala, eta doitasuna galtzen; bestetik, jaurtigaiaren abiadura dugu: oso txikia da distantzia luzeetarako, arima marratuko armen metalezko kartutxoekin alderatuta (ez da sekula ahaztu behar esaera zaharra: “abiadurak hil egiten du, eta asko, gainera”).).

Iruditzen zaigu, maiz, eskopeta-bala bat askoz eraginkorragoa dela, bere kalibre lodiagatik, 30-06ko bala bat baino, baina ahazten zaigu ehizakia toki egokian jotzea dela garrantzitsua hura bota nahi badugu. Bada, 45-50 metrotik aurrera, erriflea eskopeta baino askoz gehiago da, eta, arrazoi horregatik, distantzia laburreko ehizan erabiltzeko bakarrik da egokia eskopeta.

Ehiza xehean, oro har, ehizakia mugitzen ari dela soilik egin daiteke tiro; ehiza larrian, berriz, geldirik dagoen animalia-ri ere tiro egin dakioke. Horregatik, eta espezie bakoitzaren tamaina desberdinagatik, are ardura handiagoaz aukeratu behar dira espezie bakoitza ehizatzeko arma eta munizioa.

Ehiza xeherako kalibreen eta munizioen laburpena

Espeziea	Kalibrea (eskopeta)	Tiro-distantzia (m)	Chokea	Perdigoia (zk.)	Karga (gramoak)
Eperra	12	< 40	++++ / ++	8-6	34-36
Eperra (uxaldian)	12	< 30	+++ / +++++	8-7	30-32
Erbia	12	< 40	++++ / ++	7-5	34-36
Untxia	12	< 30	++++ / +++	9-7	32-34
Galeperra	12-20	< 30	+++++ / +++++	11-9	30-32
Oilagorra	12	< 30	+++++ / +++++	10-8	34-36
Usoa (postutik)	12	< 40	+++ / +	5-6	34-36
Azeria	12	< 40	+++ / +	0-3	40-50
Antzara	12	< 40	+++ / +	3-5	34-36
Basahatea	12	< 40	+++ / +	5-6	34-36

Ehiza larrirako kalibreen eta munizioen laburpena

Espeziea	Kalibrea (erriflea)	Tiro-distantzia (m)	Karga (grainak)
Orkatza	6-7 mm	< 200	100-150
Basurdea	7-9,3 mm (magnuma ere bai, uxaldian)	< 200	150-250
Oreina	7-9,3 mm (magnuma ere bai, uxaldian)	< 200	150-250

6.2.- TXAKURRAK ETA EHIZA

Etxekotu genuenean sartu zen ehiza-txakurra giza espeziearen bizitzan. Otsoa (harrapari enblematikoa) gizakiaren adiskide egin zenean gertatu zen hori, lana eta ehizan harrapatutakoa partekatze elkartu baitziren biak.

Gaur egun, ehiztariak txakurra du laguntzailerik onena, haren usaimen harrigarria ezinbestekoa baitzaio ehizan jarduteko. Txakurraren dohain horri esker, zauritutako ehizakiak aurki ditzake ehiztariak, zeren haiek landan abandonatuta geldituko bailirateke bestela.

Txakur-arrazak zein bere lanera egokitu dira astiro-astiro. Klima, lur, eta ehiza-behar desberdin ugaritara ohitu izanaren ondorio logikoa da hori. Txakurrak arrazaka sailkatzea nahiko gauza berria da, XIX. mendearen hondarrean sortu baitziren arrazok (normalean europarrak) hobetzeko elkarteak.

Ehizari buruzko 2/2011 Legeak dio Eusko Jaurlaritzak zenbait txakur-arrazarekin eta haien gurutzatzeekin ehizatzea debeka dezakeela, araudiaren arabera.

Ehizarako dituzten ezaugarriak begiratu, lau talde handitan sailka ditzakegu txakur-arrazak:

- 1º.- Txakur erakusleak
 - Ingelesak
 - Kontinentalak
- 2º.- Arrasto-txakurrak
 - Arrasto bizia
 - Odol-arrastoa
- 3º.- Jazarpen-txakurrak
 - Lur gaineko ehiza
 - Lur azpiko ehiza
- 4º.- Txakur jasotzaileak eta altxatzaileak

Euskadin ehizarako dagoen zaletasun handiaren barnean, badira hemengo bertoko ehiza-txakur arraza batzuk, hala nola **Gasteizko patxoia** eta **Enkarterriko billanoa**. Badira oraindik beste arraza batzuk ere; laguntza handia eman dигute ehizan, baina garrantzi txikia izan dute arraza berezi gisa: euskal edo **iparraldeko ehiza-txakurra**, **txinbo-txakurra** eta **urtxakurra**. Bestalde, **Nafarroako patxoia** da Nafarroako ehiza-txakur arraza autoktono bakarra, eta ugaritzen ari da berriro.

6.2.1.-TXAKUR ERAKUSLEAK

Ez dira antzinakoenak, baina bai, agian, ezagunenak, eskopetaz eta txakurraren laguntzaz ehizatzen duen ehiztariarentzat. Honako hau dute ezaugarri nagusia: mugitu gabe egoten dira ehizakiaren usaina aditzen dutenean.

Mediterraneo aldean dute jatorria, eta Iberiar penintsulak zerikusi handia izan du haien sorreran, jatorrian eta ondorengo hedapenean. Gaur egun, bi talde handitan bereizten dira txakur erakusleak: batetik, usaimen luzeko txakurrak (ingelesak), eta, bestetik, ehiza mota guztietarako balio dutenak (kontinentalak).

TXAKUR ERAKUSLE INGELESAK

Oro har, berezitasun nagusi bat dute arraza ingelesek: beste txakurrek baino urrunago bilatzen eta gelditzen dute ehiza.

Ehiza-txakur erakusle ingelesek oso urrunera usaintzen dute ehiza, eta, ez baditugu ongi menderatzen, traba gerta daitezke lagungarri baino gehiago. Izan ere, sobera aurreratzen badira eperretan dabilzala, tiro barrutik kanpora atera dezakete ehizakia, baldin eta ez badute lehenengo aldiz usaintzean erakusten. Gainera, txar samarrak dira ehizakia jasotzen, ez baitira batere trebeak zauritutako ehizakien edo eperren arrastoak jarraitzen. Haien izaerak txakur-heziketa on bat behar du, eta haien suhertasunak, eguneroko ariketa.



Pointerra

Pointerra ile motzeko txakurra da. Oso ondo egokitzen da klima mediterraneora; neguan, ordea, gantz-geruza on bat behar du ipar-zonetan, hotzak gogor erasaten baitio.

Setterrak oso txakur zailduak dira, eta bereziki egokiak, mendian, basoan eta beste latitude batzuetan baino hezetasun handiagoa den tokietan ibiltzeko. Espainian, setter ingelesa da hedatuena ehizarako; Irlandakoa eta gordona, aldiz, gutxiago erabiltzen dira. Setterrak, oro har, gaizki egokitzen dira berora.



Setterra

Setterrei erdiraino moztu ohi zaie ilea udan, eta arretaz zaindu behar da galeperretan dabiltzanean galbururik edo laharrik geldirik ez dakien behatzen artean, horrek kalteak eragin baitiezazkieke hanketan.

Irlandako setterrak oso biziak dira, eta diziplina gutxikoen fama dute. Lanean, ordea, biziki gogorrek eta saiatsuak dira.

Gordon setterra ehiza-txakur bikaina da, bereziki urik falta ez den lurretan ehizan jarduteko. Aurrekoak baino geldoagoa da. Gehiago ehizatzen du eskopetaren laguntzarekin. Espainian, ez dira ugari, baina direnen errendimendua oso ona da.

TXAKUR ERAKUSLE KONTINENTALAK

Europako herrialdeetan eta eskualdeetan ingurunera egokitzetik sortu dira guztiak. Ezagunenak, zalantzarik gabe, bracoak dira, eta, horiekin batera, ile luzeko txakur frantsesak edo spanielak aipa litezke. Bracoak, oro har, ile motzeko txakurrak dira. Oso ongi moldatzen dira, bai aireko arrastoa, bai lurrekoan.

Ehiza mota guztietarako sortuta eta aukeratuta daudenez, ez dute lumadun ehizakiekiko halako zaletasun berezirik, ingelesek bezala; ongi aurkitzen dute animalia iledunen usaina, ia-ia ehiza-txakur normalak dira horretan, eta lumadun ehizakiei ere ederki jarraitzen diete arrastoa.

Bracoa esatea txakur zintzoa esatea da; oso gogorrek eta ehiztari finak dira, ondo moldatzen dira uretan, eta bikainak dira ehizakia jasotzen. Hala ere, oso oker dabil txakur kontinental batengan txakur ingeles baten usaimena aurkitu nahi duena, maila horretan braco guztiek muga handiak baitituzte besteen aldean. Bracoak, ordea, errazago menderatzen dira. Ehizakiak jasotzen, ez dute parekorik, eta oso kontuan izan behar da edozein ehiza motatarako duten gaitasuna, Iberiar penintsulako mendietan ehizatzeako orduan.



Alemaniko bracoa

Honako hauek dira braco arrazarik ospetsuenak:

- **Burgosko eper-txakurra**, Espainiako arraza autoktono bat. Gaur egun, arraza hobetzeko ahalegin handiak ari dira egiten, eta, dagoeneko, ageri dira emaitza on batzuk. Oso txakur lasaia da; trebatu beharrik gabe ehizatzen du, eta senez jasotzen, ehizakia. Alde batera utzi behar dira ale astunegiak, eta ezpain nahiz kokospe lerdetsuak, begi gorrituak eta gorpuzkera baldarra dituztenak, deuseztatu egin nahi baitira endekapen-ezaugarriok. Bera da Europako txakurrik antzinakoena, Portugalgo eper-txakurrekin eta Italiako bracoarekin batera. Ehiza-txakur arruntarena du odolaren parte bat. Txakur aparta da ehiza lasaia atsegin zaien eta lur mota guztietarako txakur bat nahi duten ehiztarientzat.
- **Portugalgo eper-txakurra** txakur erdi-lasterkaria da; ertaina, tamainaz, usaimen onekoa eta, Iberiar penintsulan eperra ehizatzeo, oso erakuste egokia duena. Nabarmen hobetu dute arraza, aukeraketa zorrotz baten bidez.
- **Italiako bracoa** oso antzinako arraza bat da, ez oso ezaguna Espainian. Trostaria eta erdi-lasterkaria da, Burgosko eper-txakurren antzera.
- **Frantziako bracoa** Iberiar penintsulako txakurrekin lotura zuten antzinako beste batzuen ahaide da. Ehiza-txakur ona da, nahiko lasaia eta usaimen onekoa. Espainian ez da oso ezaguna.
- **Alemaniko bracoa**. Ehiza mota guztietara ondoen egokitzen den eta Espainian gehien ezagutzen den braco-arrazetako bat, beharbada. Ehiza-txakur ona da, eta edozertarako gai; usaimen ona du, eta ez dio muzin egiten ehiza larriari. Burgoseko eper-txakurren genetikarekin aukeratuta, eta pointer txakurren odol parte neurtu bat erantsita, Alemaniko bracoak edozein ehiztari gogobete dezake. Oso ongi jasotzen ditu ehizakiak, eta fama ona du eguneroko jardunean.
- **Hungariako bracoa** ere, bada gure lurraldeetan, baina ez da oso arraza hedatua. Jatorriz eta aukeraketaz, oso antz handia du jadanik galduta dauden braco batzuen eta odol-arrastoko ehiza-txakur batzuen lerroekin. Usaimen-txakurra da, Alemaniakoa baino apur bat motelagoa, eta ederki erakusten eta jasotzen ditu ehizakiak.
- **Bretainiako spaniela** (edo Epagneul Bretón). Oso hedaturik dago Espainian, eta "txakur txiki handia" deitzen dute. Alde txar bat du beregan, alde on bati lotuta: tamaina. Txikia denez, ez da oso ongi moldatzen uztondo handien arteko ehizan; hala ere, mendi-txakur bikaina da, eta oso gutxi irabazten diote untxi-ehizan. Txakur sentibera da, eta jakin egin behar da hura tratatzen. Ongi jasotzen ditu ehizakiak, eta ez dio muzin egiten urari.



Epagneul Bretón

- **Drahthaarra (Deutsch Drahthaar).** Haren izenak “alanbre-ile alemana” esan nahi du, eta aldaera bat da Erdialdeko Europako antzinako uretako grifoiaren aldean, zeina azken hirurogeita hamar urtean aukeratu baitute Alemanian. Inon den ehiza-txakurrik gogorrenetako bat da. Izaera gogorra du, eta heziketa egokia eman behar zaio. Ezagutzen dutenek bakarrik egiazta dezaketen sen bat du ehizarako. Ile motzeko txakurrek baino beharrezkoagoa du ura. Lu-madun ehizakiak, iledunak eta ehiza larria, guztiak ehizatzen ditu.
- **Korthals griffoia.** Arraza moderno bat da, Holandarra jatorriz. Drahthaarren antzekoa, egokitzeko erraztasunari eta kanpo-itxurari dagokienez, nahiz eta hark baino buru luzeagoa eta askoz iletuagoa daukan. Ehiza xehea gus-tatzen zaio; batez ere, iledun espezieak, hala nola erbia. Ez da aise beldurtzen uretan, eta jasotzaile ona da.

Ezin dugu zerrenda honetatik kanpo utzi Nafarroako ehiza-txakur arraza autoktono bakarra: **Nafarroako patxoia**. Txakur erakusle kontinental bat da; ile motza du eta itxura baldarra, eta, zenbaitetan, erdibituta ageri du sudurra. Espainiako eper-txakurren arrasto-bokazio sendoa du. Ongi erakusten ditu ehizakiak, eta aise jarraitzen aireko arrastoak. Espezia-lista da lur malkartsuetan, eta adoretua, sasietan; oso metodikoa da, erraz ikasten du, eta sobera urrundu gabe ehi-zatzen. Galdutzat ematen zen arraza 70eko hamarkadan; zorionez, ordea, patxoi hori gero eta ospetsuagoa da.

Baina **Gasteizko patxoia** izan zen Nafarroakoa baino lehenago. Munduko txakur-arrazarik antzinakoenetako bat zen arren, erabat galdu da. Txakur erakusle sendo bat zen; ile motza zuen, eta ilajea, gaztaina-kolorekoa edo gorrixka; orban zuri batzuk ere bazituen kopetan, aurpegian, lepoan, aurreko hanketan, bularrean eta sabelean.

6.2.2.- ARRASTO TXAKURRAK

Txakur batek usaimena erabiltzen badu, animalia-aren batek lurrean utzitako aztarnari edo usainari jarraitzeko, eta noizean behin “hots” egiten badu atzemandako usainak artetatuta, arrasto-txakur baten aitzinean gaude. Esan ohi da “ehiza-txakur guztiak arrasto-txakurak dira, baina arrasto-txakur guztiak ez dira ehiza-txakurak”. Espainian, ile motzeko txakurrei deitzen zaie ehiza-txakurak; haiek, aldiz, Kantauri itsasoaren ertzeko eta Pirinioetako antzinako ehiza-txakurren ondorengoak dira. Beste herri batzuetako beste zenbait arrasto-txakurri ere ehiza-txakur deitzen zaie, halaxe jokatzeko baitute, nahiz eta beste adar eta odol batzuetakoak diren.

ARRASTO BIZIKO TXAKURRAK

Iledun ehizakien –basurdea, erbia, orkatza, oreina, azeria, etab.– arrastoari jarraitzen diote.

Honako hau dute ezaugarri nagusia: ehizakien apatxetatik eta iletik askatutako eta naturan gelditzen diren usaindun substantzia lurrunkorrak hautematen dituzte. Ehiza harrapatzeko eta hiltzeko agintzen die senak, eta, horregatik, arrastoari jarraitzeko seta eta grina dituzte armarik preziatuenak.

Alde handia da arrasto-txakur batzuegandik besteengana, gorpuzkeran, tamainan, zaunkan, etab.; ugariak dira, halaber, haien ehizatze moduak, zeren bakarka erabil baitaitezke, edo uhalarekin; baita taldetan ere, txakur taldeak eratuta, eta, kasu horretan, talde gisa eta txakurak libre direla egiten dira ahalegina eta galeren kontuak.

Eskuarki, arrasto-txakurak edozein animalia-ri jarrai diezaioke, untxi txikiari nahiz “benado” handiari, baina ez dute ehiza-txakur guztiek zaletasun bera arrasto mota zehatz baten aldera, zeren txakur batzuek uko egiten baitiote usain zehatz batzuei jarraitzeari; adibidez, basurdearenari; aitzitik, orkatzak usain gozo bat du txakur guztientzat, eta, horre-gatik, amorratuta jarraitzen diote.

Arrasto-txakurrek lotura bakarra dute ehiztariarekin, oro har: zaunka. Txakurra ezagutuz gero, ehiztariak zaunkatik igartzen du txakurra nola ari den bizitzen ehizako une oro: arrastoari ondo jarraitzen dion, hura galdu duen edo, aitzitik, berriro ere aurkitu duen.

Espainian, arrasto-txakurak oso nahasita daude, eta jokaera hori errotik kendu behar litzateke poliki-poliki; hau da, ehiza-lan jakin baterako odol-adarrik egokienak aukeratu eta garbitu behar lirateke, nahasketa egokiak eginez arraza taldeak ahalik eta gehien bereizten direla.



Ehiza-txakurra

Arrasto-txakurren artean, badira hainbat mota, arraza garbiak barne. Oso hanka motzak dituzte guztiek ere, gorputza-zen tamainarekin alderatuta. Mekanismo genetiko horri "bassetismo" deitzen zaio, eta honako arraza hauek sortu ditu, besteak beste: basset hound deritzana, Normandiako basset artoistarra, Britainiako basset ile-horia eta Gaskoinako basset urdina. Bassetak oso estimatuak dira mendiko ehizan, eta batzuk espezialista bikainak dira untxi-ehizan ere.

Bada arrasto-txakur bat (edo, hobeki esanda, erdi arrastokoa), odol-arrastoei oso lan ona egiten duena: teckela. Oso ongi lan egiten du mendian, fox-terrierrarekin batera. Azeria bere zuloan harrapatzeko ere erabiltzen dituzte bi arrazok.

Arraza berezi gisa garrantzi eskasa badu ere, bada euskal edo iparraldeko ehiza-txakurra deritzana ere. Kantabria eta Nafarroa artekoa zen jatorriz, baina Araba iparraldeko txakurrek dute famarik handiena. Basurde-ehizan erabiltzen dira gehienak. Gorputz luzeagokoak eta belarri handiagokoak dira, espainiar ehiza-txakurra baino.

ODOL ARRASTOKO TXAKURRAK

Ez dira oso ezagunak, oraindik, gure geografian. Odol-arrastoei jarraitzeko, izan ere, ehiza-txakurrak edo griffoiak erabiltzen baitira. Tiroa jaso duten eta zauriturik gertatu diren ehizaki larriak (oreinak, basurdeak...) bilatzeko erabiltzen dira odol-arrastoko ehiza-txakurrak. Animaliek utzitako odol-arrastoari jarraitzen diote txakurrok. Beste txakur arraza batzuek jartzen dutena baino askoz arreta txikiagoarekin jarraitzen dira arrasto biziak.

Hannoverreko ehiza-txakurra eta Bavariako ehiza-txakurra dira odol-arrastoko txakurrik ezagunenak. Azken hori, bide-nabar esanda, duela gutxi sartu zuten Espainian. Ia hauteman ezinezko odol-arrastoak utzi dituzten ehizakiak aurkitzeko erabiltzen da.

Ehiza-txakur guztiek bezala, trebakuntza zehatz bat behar dute, eta ez da uste izan behar dena txakurrak egiterik.

6.2.3.- JAZARPEN TXAKURRAK

Usaimenaren, ikusmenaren, entzumenaren eta abiaduraren bitartez ehizakia harrapatu asmoz haren atzetik ibiltzen diren txakurrak jotzen dira jazarpen-txakur.

LUR GAINEKO EHIZA

Galgoak, podenkoak eta txakur harrapariak. Ikusmena eta usaimena erabiltzen dituzte ehizan, eta, podenkoaren kasuan, entzumen ere bai.

Galgoak edozein motatako animaliari jarraitzen dio, baina erbiak lasterka ehizatzeke erabiltzen da gehienbat. Txakur horrek ikusmena besterik ez du erabiltzen, eta, ehizakia agerian ez duenean, gelditu egiten da.

Podenkoea aparteko ehiza-txakur bat da, jazarpen-txakur mediterraneoaren lorea. Bada Portugalgo aldaera oso preziatu bat ere. Hainbat tamaina ditu (sasi-txakurrak, untxi-txakurrak eta mendi-txakurrak). Arrasto berriari jarraituta ere ehizatzen du, eta, nahiz eta arrasto-txakurrek baino gutxiago jarraitu, abisatu egiten du ehizakia altxatzean edo ikustean. Bakarka nahiz taldean ehizatzen dute podenkoek; talde txikiak osatuta, ehiza xeherako bada, eta talde handi bat osatuta, ehiza larriko (talde handi horiek 11 txakur bikote izaten dituzte, hau da, 22 txakur).

Txakur harrapariak ehiza larrian erabiltzen dira normalean, ehizakia harrapatzeke eta hari eusteko. Espainiar alanoak nabarmentzen dira hor, orain gutxi aukeratuak, bai eta Argentinako dobatxakurrak ere, eta artzakurren eta podenkoen arteko gurutzatze ia finkatuak, hots, artzakur arinak edo mendiko artzakurrak deritzetenak.

Jazarpen-txakurren eta, batik bat, heltze-txakurren atal honetan, Enkarterriko billanoa aipatu behar da: Euskadiko ehiza-txakur arraza autoktono bakanetako bat, baina azienda erabiltzeko "asmatu" zena, nagusiki. Enkarterrikoa (Bizkaia) da jatorriz, eta Kantabria, Araba eta Burgos inguruko eskualdeetakoak. Antzinako billanoa (txikiagoa) eta alanoa (zeharo galdua) gurutzatuta sortu zuten: bi arrazen ezaugarriak onenak batu nahi baitzituzten, mendiko azien-
da erabiltzeko.

Oso aspalditik erabiltzen dituzte, iparraldeko ibar malkartsuetan montxina arrazako behiak (basatiak) harrapatzeke eta erabiltzeko, horixe baita Bizkaiko eskualde horretako ohiturarik errotuenetako bat. Galtzeko zorian izan zen arraza, 1997an 60 ale soilik baitziren. Orduantxe hasi ziren berreskuratzen, ordea, urte berean Enkarterrietako Billanoen Elkarte Nazionala sortuta.



Enkarterriko billanoa

LUR AZPIKO EHIZA

Azeria bere lur azpiko zuloan harrapatzeke erabiltzen dira lur azpiko ehiza-txakurrak. Txakurrok azeriaren zuloan sartzen dira, eta borrokan hasten animalia horrekin; azkenean, kanpora irtenarazten diote, eta orduan bota dezake ehiztariak. Ehiza-mota horretan, isil-isilik egon behar du ehiztariak. Azeriak gizakiaren presentzia sumatzen badu zuloaren kanpoan, izan ere, askoz lan handiago emango dio terrier txakurrari; hiltzeraino borrokatuko da zulo-barruan, irteteko beldurrez.

Alemaniko ehiza-terrierrak (jagdterrierrak), fox-terrierrak eta Jack Russell terrierrak erabiltzen dira gehien ehiza mota horretan. Azeri-zuloan txakur bakarrari sarrarazita egiten da ehiza hori. Teckelak ere gaitasun handia du lur azpiko zuloetan ehizatzeke; beren hanka motzek buruhauste handiak sortzen dizkiete batzuetan, ordea, galerietako koskak gainditu ezin dituztelako.

Inoiz, trabatuta eta irten ezinik geldi daiteke txakurra. Lurra

zulatu behar da orduan, hura ateratzeko. Gero eta gehiago egiten da lur azpiko ehiza hori. Tresna ontzat jotzen da azeria kontrolpean atxikitzeko, kanido hori oso ugaria baita leku askotan.

6.2.4.-TXAKUR JASOTZAILEAK ETA ALTXATZAILEAK

Txakur horiek aireko edo lurreko arrastoaren bidez bilatzen dute ehizakia; gero, bere atsedena edo babes-lekutik ateratzen dute hura, baina ez dute erakusten. Ehiza larriko ehizakiak jasotzeko ere erabiltzen dira txakurrok.

Jasotzaile nagusiak arraza ingelesetakoak dira: cocker spaniela, springer spaniela, labrador retrieverra edo golden retrieverra. Uxatze- eta jasotze-txakur gisa erabiltzen dira uxaldi-ehizan, gehienetan fairsaiak, eperrak eta lagopodoak botatzeko.

Txakur jasotzaileak berezko dohain bat du tiroz botatuko ehizakiak tokirik zailenetan bilatzeko eta jasotzeko; uretan ere sartzen da, behar izanez gero. Gure inguruan, gutxi erabiltzen dira txakur horiek, oro har; txakur erakusle kontinentalak (Bretainiako spaniela, bracoa, drahthaarra...) erabiltzen dituzte haien orde, beren balio-aniztasunagatik ongi funtzionatzen baitute, bai arrasto-txakur gisa, bai jasotzaile gisa.

Bada txakur mota gutxi ezagun eta jadanik galdu bat: txinbo-txakurra. Oso informazio gutxi da hartaz. Txinbo-txori preziatuak ehizatzen erabiltzen zituzten XIX. mendearen hondarreko eta XX. mendearen hasierako bilbotarrek. Goitizen bat ere etorri zaie hortik bilbotarrei.

Beste mende batzuetan euskal baleazaleek eta marinelek biziki estimatzen zuten beste txakur-arraza bat: urtxakurra. Hark era askotako lanak egiten zituen: amarratze-lanetan lagundu, sareak jasotzean itsasora ihesi zihoazen arrainak harrapatu, saguak ehizatu itsasontzian eta, jakina, marinelei lagun egin itsas bidaia luzeetan.

6.2.5.- TXAKURREN BESTE ALDERDI BATZUK

EHIZA TXAKURREI BURUZKO DATU TEKNIKO JAKINGARRI BATZUK

- **Enea (ernaldia): 60-63 egun, lehen estaltzetik zenbatuta..**
 - Lehen aldiz ohara: 8. hiletik 10.era bitartean.
 - Lehen estaltzea: bigarren urtetik aurrera.
 - Garai emankorra: menstruazioa amaitu eta handik astebetera, gutxi gorabehera.
 - Estaltze kopurua: ar berak bi aldiz estaltzea onena, bien artean egun bateko atsedena eginda.
- **Arra (garai emankorra): urtebetetik zahartu arte.**
 - Ugaltzaile gisa garairik onena: hemezortzigarren hiletik zortzi urtera.
- **Txakurkumea (edoskitzea): titia kendu arte.**
 - 1- 1. parasito-kentzea: 10-12 egunera.
 - 2. parasito-kentzea: 30 egunera.
 - 1. txertoa: 7-9 astera.
 - 2. txertoa: 13-15 astera.
 - Birtxertatzeak: 4-5 hilera eta urtero.
 - Amorrua: urtean behin (oso gomendagarria ehiza-txakur guztientzat, oro har, eta lur azpiko ehizakoentzat, bereziki). Azerien bitartez kutsatzen da amorrua.



ANIMALIEI BURUZKO ETA ISTRIPUETAN ERABILTZEKO KONTZEPTU BATZUK

- **Temperatura normala:** 38,8 °C.
- **Elikadura:** jan prestatu konposatuak edo etxeko jana (baztertu era guztietako hezurrak).
- **Buztana eta ezproiak moztea:** jaio eta 48 ordura.
- **Ura:** beti eskura.
- **Bizitegia:** lurretik isolatutako, ongi babestutako eta egurrezko nahiz isolatzaile termikozko etxola.
- **Istripuak:**
 - Autoz zapaltzea: zainetatik kortikoideak sartu eta al baitariarengana eraman.
 - Ustekabeko tiroa: zauria garbitu eta lotu; bihotzerako tonikoa eman, eta al baitariarengana eraman.
 - Bero-kolpea autoan: arnasketa artifiziala egin, saihetsak zapalduz; ura bota belarrietan eta hanketan, poliki-poliki; geldi-geldi eta itzalean eduki. Edukiz gero, seruma eman, eta profesional baten kontsultara eraman lehenbailehen.
- **Gure txakurrak beste txakur batzuei edo pertsoneri hozka egin:** zorrotz desinfektatu erasandako zona. Sekula ez hil txakurra; zalantzarik badugu haren erantzunez, al baitariari deitu, animalia zaintzapean ipin dezan. Amorraren kasuan, diagnostiko zehatza izango dugu, eta beharrezko denbora, neurri profilaktikoak hartzeko.
- **Sugegorriak txakurrari heldu:** baldin eta hanka batean heldu badio, hori da ohikoena eta, tornikete bat egin txakurrari, trapu edo eskuzapi batekin, edena sartu dion tokia baino zentimetro batzuk gorago; torniketea goratuz joan poliki-poliki, odola, astiro bada ere, ibil dadin. Edonola ere, al baitari batengana eraman hura berehala. Jakina, sugegorriak pertsona bati heldu badio, hark ospitale batera joan behar du lehenbailehen.

TXAKURRAK IDENTIFIKATZEA ETA KONTROLATZEA

Ehiza-txakurrei dagokienez, lege, nahitaezkoa da txakurrak erroldatzea, matrikulatzea eta txertatzea. Era berean, derrigorrezkoa da gizakiekin batera bizitzeko beharrezkoak diren osasun- eta garbitasun-baldintzetan edukitzea animaliak. EAEn, nahitaezkoa da identifikatzeko sistema elektroniko baten bidez erroldatzea animalia; hau da, "txip" bat ipini behar zaio.


Bestalde, landan txakurra lagun dugula gabiltzanean, ehizan edo ez, zorrotz bete behar dira legeak horren inguruan agindutakoak. Ezin diogu utzi txakurrari landan bere kasa eta zaintzarik gabe ibiltzen, kalte egin diezaike eta fauna espezieei, haien kumeei edo arrautzei. Ehiza-lur batean, honako kasu hauetan jotzen da txakurra zainpetik kanpo dagoela: 50 metrotik gora urruntzen denean, landaretzarik ez den zonetan, nahiz eta lagun duen pertsonaren agerian egon, edo 15 metrotik gora urruntzen denean, animalia ezkuta dezaketen landaretza zonetan. Kasu horretan, txakur-rrarekin doan pertsonak ehiza-lizentziarik ez badauka, lizentziarik gabe ehizatzearen erantzule izango da, eta baimenik gabe edo, hala badagokio, debekualdian ehizatzearen erantzule.

Ehizarako eskubidea duten lurretan eta garaietan bakarrik erabil daitezke ehiza-txakurrak. Ildo horretan, gaitutako landetan eta administrazio eskudunak ezarritako moduan trebatuko dira txakurrak.

Txakur basati edo basatuei dagokienez, indarrean dagoen araudiak eskaintzen du biderik haiek ehizakitzat jotzeko. Administrazioak berariaz baimendu behar du bide hori, eta hark ezarriko ditu, halaber, animalia horiek akabatze baldintzak. Horri dagokionez, Euskadiko Ehiza Legea onartu aurretik, araudiak garbi dio ezin direla ehiza espezieetat hartu lepokoan 15 cm² baino handiagoko identifikazio-xafla daramaten txakurrak, ez eta lepokorik ez daramatenak ere, baldin eta ustiaketa arrunteko ehiza-lurretan badaude, edo ustiaketa bereziko lurretan 50 metro baino barrurago sartzen ez badira.



Drahthaar emea kumeekin





EHIZAREN LIBURUA

7. KAPITULUA

ETIKA, SEGURTASUNA ETA JOKAERA

► 7.- ETIKA, SEGURTASUNA ETA JOKAERA

Ehizak, osagai dituen elementuengatik (pertsonak, animaliak, habitatak, armak...), barne-kodea dei genezakeen araudi bat du. Haren barnean jasota dauden alderdi guztiei esker, ehizak jarduera segurua eta etikoki garbia izan behar du, bai ehizatzeo eran, bai landan dabilen ehiztariaren jokaerari dagokionez.

Aipatu esparru horrek, araudi batzuen arabera, baditu lege-inplikazio batzuk, hau da, bada etikaren espiritua, segurtasuna eta jokaera jasotzen dituen legeria bat, eta bete egin behar da. Halere, beste alderdi batzuk logikarekin, zentzuarekin eta heziketarekin daude lotuta, hots, arrazoi-menaren dohainak berekin dakartzan ezaugarriekin. Ildo horretan, aipagarria da Europar Batasuneko Ministroen Batzordeak Estatu Kideei egindako R (85) 17 zenbakiko gomendioa, ehiztarien prestakuntzari buruzkoa. Hark oso modu zehatz, arin eta argian azaltzen ditu ehiztari guztiek kontuan hartu beharreko iradokizunak. Ikus ditzagun:



I.- BETE ITZAZU EHIZA ESKUBIDEAK DITUEN MUGAK: ESPEZIEEN ETA INGURUMENAREN BEHAR EKOLOGIKOETAN OINARRITZEN DIRA

1.- Ehiza daitezkeen espezieei bakarrik egin behar diezu tiro; ehiza espezie ez direnei tiro egitea lotsagarria da.





- 2.- Ez lotu ehizaren plazera arrakasta kuantitatibo bati. Ez da hobea animalia gehiago botatzen dituen, baizik eta kopuruaren aurretik kalitatea jartzen duena.
- 3.- Errespetatu itzazu ehiza-denboraldiak eta modalitateak, bai eta baimendutako lurralde-mugak ere.

ERRESPETA EZAZU EHIZA


- 1.- Egin uko ehiza-espirituaren eta -etikaren aurkako edozein ehiza-ekintzari.
- 2.- Egin uko harrapaketa masiboko eta selektiboko bitartekoak erabiltzeari.



- 3.- Ez ehizatu "fortuna-egunetan", naturaren egoerak animaliak ahultzen dituenean edo bizirik irautea zailtzen dienean; ez ehizatu, ezta ere, egoera horrek talde handiegitan bilarazten dienean, hor harrapaketa masiboak edo gehiegizkoak egin bailitezke. Lagundu faunari (ez soilik ehizakoari) bizirik irauten aipatu salbuespen-egoeretan (ekaitzak, elurteak, suteak...).



- 4.- Identifikatu animalia, tiro egin baino lehen.





5.- Distantzia egokira eta baldintza normaletan bakarrik egin tiro.

6.- Ez eragin alferrikako oinazetik ehizakiei, haiekakoren bat zaurituta edo hilda uzten duzuela; halakoetan, antolatu bilaketa sistematiko bat.

7.- Erabil itzazu ahalik eta ongien akabatu dituzun ehizakiak.



8.- Ez ehizatu dirua irabazteko asmoz.

III.- SAIA ZAITEZ EHIZTARI TREBEA ETA ARDURATSUA IZATEN

- 1.- Jakin ezazu ahalik eta gehien espezieen ekologiaz.
- 2.- Har ezazu parte ehiztarien interesak babesten eta basa-bizitzaren kalitatea hobetzen diharduen elkarteren batean.



- 3.- Izan itzazu harremanak ehiza eta natura babesteko ardura duten agintariekin eta elkarteekin.
- 4.- Hitz egin ezazu ingurumena, nekazaritza eta basogintza antolaketako ardura dutenekin, eta saia zaitez beti gero eta kontzientzia handiagoa izan dadin natura-ingurunearen eta basa-faunaren kontserbazioan.
- 5.- Har ezazu parte basa-faunari buruzko ikerketa zientifikoetan.
- 6.- Lagun itzazu, aholkuen eta jarraibide onen bidez, gaztetan ehizaren munduan sartzen direnen heziketa eta jokae-ra ona.

IV.- KONTURA ZAITEZ GIZAKI GUZTION ONDARE NATURALAREN ARLOAN DUZUN ERANTZUKIZUNAZ



- 1.- Eskain arreta berezi bat espezie migratzaileei, eta ohar zaitez zure herritik igarotzen diren edo negua han ematen duten espezieen beharrez.
- 2.- Ahalegin zaitez herrialde bakoitzeko ohiko ehiza modalitateek zorrotz har dezaten kontuan espezie migratzaileen kontserbazioa.
- 3.- Har ezazu parte hegazti migratzaileei buruzko ikerketa zientifikoetan, eta, bereziki, erantzun iezaiezu ehiza kopuruari eta harrapatutako ehizakiei buruzko inkestei. Itzul itzazu ehizatutako edo hilik aurkitutako hegaztien eraztunak.

V.- ZEURE EKINTZEN ERANTZULE ZARA. ERRESPETATU ZORROTZ SEGURTASUN ARAUAK

1.- Ehiza-jardueratik kanpo:

- Utz arma beti deskargatuta; ahal bada, desmuntatuta eta haurren eskueratik urrun. Ardura bera hartu behar da munizioekin ere.
- Autoan zoazenean, arma desmuntatuta eta bere zorroan eraman.
- Egiazta ezazu arma ongi dabilela.



2.- Ehizan:


- Erabil itzazu armarik eta muniziorik egokienak, tiroak ahalik eta baldintzarik onenetan egiteko.
- Egiazta ezazu armaren kanoia ez dagoela buxatuta.
- Errespeta itzazu ehizaldi-arduradunaren aginduak.
- Fusila beti kanoiak lurrera begira dituzula prestatu.
- Sekula ez eraman fusila posizio horizontalean.
- Ireki eta deskargatu arma, oztoporen bat igaro aurretik.
- Deskarga ezazu fusila, eta utzi irekita, ehiza-ekintzen artean toki batetik bestera joan behar duzunean.
- Aurki ezazu zeure auzoen eta ehizaldian dabiltzan guztien kokapena; bai eta paseoan dabiltzanena ere. Egiazta ezazu, gainera, haiek ere badakitela zu non zauden.
- Ez sekula tirorik egin sasiarte batera, ez eta pertsona batenganantz, nahiz eta iruditua hura irismenetik kanpo dagoela. Begiratu, beti, jaurtigaiak non joko duen.

VI.- IZAN EZAZU BEGIRUNEA BESTEEKIN

1.- Ez ezazu kalterik egin soroetan edo basoetan (uzten erditik igaro, abereak artegatu, langak zabalik utzi...).



2.- Zaindu ondasun publikoak (adierazleak, seinaleak, telefonoen edo argindarraren hariak...).



3.- Izan zaitez atsegina eta lagunkoia naturaren gainerako erabiltzaileekin.

4.- Ez kutsatu: jaso itzazu zeure kartutxo hutsak eta beste hondakinak.

5.- Har ezazu parte ehizakiek uztetan eragiten dituzten kalteen prebentzioan.

6.- Saia zaitez, dagokizunean, aipatu kalteen ordain bizkor bat bermatzen.



VII.- EGIN EZAZU BAT KUDEAKETA ON BATEKIN

A) babestu eta ziurtatu ehiza populazioen kudeaketa egoki bat:



1.- Muga ezazu ehizatzen duzun ehizakien kopurua, populazioen dentsitate egoki bat gordetzen eta populazioi berritzen laguntzeko.

2.- Atxiki ezazu ehiza-populazio sano, askotariko, ingurumenarekin orekatu eta tokiko baldintzetara egokitu bat.

3.- Zain ezazu kontu handiz ehizaren bilakaera kuantitatiboa eta kualitatiboa.

4.- Aitor ezazu harraparien funtsezko eginkizuna.


5.- Abisatu berehala agintari eskudunei, gaitzen bat agertzen bada.

6.- Atxiki edo eratu behar adinako ehiza-populazioak tokiko anduietatik abiatuta, osasun- edo genetika-arazoak ekar ditzaketen gehiegizko birpopulazioak egin gabe.

7.- Akuila itzazu ehiztarien elkarteak, tokiko agintariekin negoziatu dezaten, eta ehiza-plan batzuk ezar daitezkeen. Plan horiek ehiza daitezkeen ehizaki kopuruak finkatuko lituzkete, betiere kudeaketa-arau onenak errespetatzen direla.

8.- Ez askatu ehizakirik justu ehizaldia hasi aurretik edo hartan zehar.

9.- Lagun ezazu isileko ehizaren aurkako borroka.



B) Babestu eta ziurtatu lurraldeen kudeaketa ona.

1.- Lagun ezazu habitat-dibertsitatea gordetzen, hura baita natura-aberastasunaren oinarria eta ehizaren etorkizuna. Horretarako, kontserba itzazu egun diren habitatak, edo lehengora itzazu, behar izanez gero.

2.- **Borroka zaitez eremu hezeen suntsipenaren aurka, ezinbestekoak baitira uretako ehizarako eta fauna migratzailearentzat.**

3.- Antola itzazu ehiza-lurrak faunak urte osoan dauzkan eskakizunak asetzeko eran.

4.- Ez sortu alferrikako eragozpenik animaliei ugaltze-garaian.

5.- Egin itzazu baterako urratsak nekazaritzako eta basogintzako profesionalekin, espezieentzat kaltegarriak diren jarduerak (tratamendu kimikoak, ezpondak berdintzea, berroak edo heskaiak kentzea, urmaelak eta zangak betetzea, uztondoak erretzea, etab.) mugatzeko.

SEGURTASUNA EHIZAN

Jarraian, eta soilik ehizako segurtasunaren ikuspegitik, zenbait aholku eskaintzen dira. Oso gogoan eduki behar dira beti, arma baten erabilerak eskatzen duen zuhurtziarekin ehizatu nahi denean. Aholkuetako batzuk lehen aipatu Gomendioan ere badaude jasota:

- Ez zuzendu inoiz ehiza-armarik pertsonenganantz, deskargatuta daudela uste izanda ere. "Armak deabruak kargatzen ditu" esaera zaharrak oso oinarri sendoa du, zorigaitzez, istripuen kopuruari begiratuz gero.
- Oso garrantzitsua da su-armaren kanoiak garbi eta zinkierarik (hostoak, lokatza, elurra...) gabe egon daitezen, arma lehertzea saihesteko.



- Ez egin tiro sekula zuhaitzen gerriei, eta sekula ez erabili haiek ehiza-barrutiaren seinaleak jartzeko zutointzat.
- Ez jo sasirik edo laharrik eskopeta edo errifle kargatu baten kanoiarekin, tiroa gerta daiteke ustekabea eta, are segurtasunak ipinita ere.
- Ez utzi muniziorik eguzkitan edo bero handiegia sor dezakeen ezeren aurrean. Berotze horrek, izan ere, presioaren handitze bat sortzen du, eta hura arriskutsua izan daiteke.
- Soilik baimendutako establezimenduek konponduko edo aldatuko dituzte ehizako armak.
- Ez da utzi behar armarik agerian autoen barnean, lapurretak saihesteko; baldin eta lapurretarik bada, armaren jabea izango da erantzulea.
- Ez dugu egon behar barrunbe publikoetan arma zorrotik kanpo eta muntatuta dugula; ezta hura deskargatuta bada ere.



- Eskopeta bat ixten dugunean, kanoiek lurrerantz begira egon behar dute beti.
- Ehiza eteten denean, deskargatu egin behar da arma beti.
- Ehizan ari garenean, kanoiak lurrerantz edo gorantz begira direla eraman behar da arma beti; inoiz ez horizontalean edo zeharka begira direla, lagun batenganantz zuzenduta egon daitezke eta. Ehizan bakarka ari garenean ere gorde behar da ohitura hori.
- Talde-ehizan ari garenean, ezinbestekoa da gainerako ehiztarien kokapena jakitea, eta haienganantz tiroa ez jaurtitzea.
- Errifle batekin tiro egitean, ez bota lur-arraseko tiroa, ez eta gauza gogorren kontra ere, errebotatu egin dezake eta.
- Ez da tiro egin behar, mugitzen dena zer den ziur jakin gabe; ez da tiro egin behar, ezta ere, tartean landareak direnean, eta haien atzean dagoena ikusi ezin dugunean.

- Postu finkotik paseko hegaztiak ehizatzen ari garenean, deskargatu eta zorroan sartu behar da arma, ehizaldia amaitu ondoren, oinez abiatu aurretik.
- Postu finkoetan, inora joan gabe egon behar da ehizaldiak dirauen bitartean; ezin da postuen artean ibili eskopeta muntatuta dugula, eta ehizaldi-arduradunaren esana egingo dugu beti.
- Gure aurkako noranzkoan datorren edo gurekin gurutzatzera doan ehiztari talde bat ikustean, nahitaezkoa dugu guztiok armak deskargatzea, bai bi taldeak bata bestetik 50 metrora baino gutxiagora daudenean, bai aurrez aurre diren bitartean.



- Bai ehiza larriko ehizaldietan, bai ehiza xehekoetan, monteria edo uxaldi modalitateetan egiten direnean, ezingo da tirorik jaurti, ez ehizaldia hasi baino lehen, ez amaitu ondoren. Bi une horiek adostutako seinaleekin adieraziko dira.
- Aurreko kasuan, debekaturik da ehiztariek eta haien laguntzaileek postua uztea edota beste batera aldatzea ehizaldiak dirauen artean. Kasu bereziren batean egin beharrik bada, antolatzaileari edo haren ordezkariari abisatuta egingo da.
- Debekaturik dago ehiza-postura heldu baino lehen eta handik alde egin ondoren armak kargatuta edukitzea.
- Erreparatu beti jaurtigaiairen jomugari, eta saia, tiroa huts eginez gero, jaurtigaiaik edo jaurtigaiek lurra jo dezaten.
- Monterietan, era berezi batean kokatuko dira postuak: ez lerro zuzenean, eta bai gainerako ehiztarien tiroetatik babestuta. Horretarako, lurraren formak eta oztopoak aprobetxatuko dira. Hori egiterik ez bada, bata bestetik 250 metrora baino gehiagora jarriko dira postuak.
- Uxaldietan, beste aukerarik ez denean eta ehiztariak suebakietan edo eremu basotsuen ertzetan jartzen direnean, postuak mendira begira eta lerroan ezarriko dira. Hala, behin postuen lerroa igaro dutenean egingo zaie tiro ihesi doazen animaliei. Izan ere, "animalia igaro ondoren" tiro egitea da seguruena.
- Postulari bakoitzak argi eta garbi azalduko du, ehizaldia hasi aurretik, zein den baimendutako tiro-eremua. Beraz, ehiztariek ez dute tirorik botako eremu horretatik kanpora; ez eta, bereziki, agerian dauzkaten gainerako postuetan.

rantz. Ildo horretan, ehiztari bakoitzak akordio bat iritsi behar du, begiz eta hitzez, hurbilen dituen postuekin, bere kokapena ongi markatzeko.

- Debebatuta dago armak erabiltzea segurtasun-eremuetan, hala nola errepideetan, erabilera publikoko bideetan, hiriguneetan eta herrietan, eta jendea bizi den tokietan.
- Oro har, debebatuta dago segurtasun-eremuetarantz tiro egitea, baldin eta ehiztaria ez badago jaurtigaiak irits dezakeen bidea baino urrunago haietatik, edota lurraren formak ez badu bermatzen tiroa ez dela haietaraino helduko.



- Debebatuta dago azienda dabilen edo azienda taldeak diren aldeetarantz tiro egitea, baldin eta tiroak irits dezakeen bidea baino urrunago ez badaude.
- Ehiza larriko uxaldi bati ekin aurretik, seinale batzuk ezarri behar dira, ehizaldian parte hartzen ez duten eta inguruetan ibil daitezkeen pertsonen abisatzeko. Ehizatza doazenen segurtasuna gordetzeko, gainera, ehiztari armatuek eta ehiza uxatzen ari direnek txaleko kolore bizikoak edo fosforeszenteak eduki behar dituzte jantzita eta agerian



EHIZAREN LIBURUA

GLOSARIOA

▷ **A**

Adar-eraztuna: basahuntz, sarrio edo mufloi baten adarra banatzen den zatietako bakoitza. Zati horietako bakoitza urteroko hazkuntza-eraztun bati dagokio.

Adar-galtzea: zerbido baten burutik eroritako adarra.

Adar-oina: zerbidoen kopeta-hezurrean ageri den apofisia. Horien gainean sortzen dira adarrak.

Adar-zimurrak: zerbidoen adarretan ageri diren punta-formako zimurdura luzeak.

Adarra: 1. bobidoen luzakin iraunkorra. Animaliaen bizitza guztian zehar hazten da.
2. zerbido arrek duten luzakin jauskorra. Urtero erori eta berria osatzen da, hiruzpalau hilabetetan.

Ahate murgilaria: jatekoa ur-azpian bilatzen duen ahatea. Espezie horiek uretan plisti-plasta hegatzten dira, eta oso hegada azkarra eta gartsua dute.

Albinismoa: pigmenturik eza azalean eta horren deribatuetan. Albinismoaren ondorioz sortzen dira ilaje edo lumaje zuriak.

Anatidoa: zisneek, antzarek eta ahateek osatzen duten hegazti-familia.

Animalia basatituak: etxe-abereak izanik, ihes egin eta naturan bizi direnak.

Arraun-lumak: hegaleko luma luzeak. Lehen eta bigarren arraun-lumak dira. Hegaz dabilela, hegaztiaren sostengu nagusia dira. Luma arraunlari ere deitzen zaie.

- *Lehen arraun-lumak:* hegalaen kanpoaldean daudenak.
- *Bigarren arraun-lumak:* hegalaen erdialdean daudenak.
- *Hirugarren arraun-lumak:* gorputzetik hurbilen dagoen hegalaen zatian daudenak.

Atzeko haginak: aurretik esne-hortzik izan ez duten haginak.

Aurreko haginak: esne-haginen ondoren ateratzen diren haginak.

B

Biometria: animaliei hartzen zaizkien neurriak eta pisuak (hegalaen luzera, gaingurutzean duten altuera, pisua eta abar).

Bobidoak: sarrioek, ahuntzek, mufloiek eta amotraguek osatzen duten ugaztun-familia.

E

Eskapularrak: sorbaldako lumak.

Estal-lumak: hegoa arraun-lumen gainetik estaltzen duten lumak. Estaltzen dituzten arraun-lumen arabera izendatzen dira (lehen mailakoak, bigarren mailakoak, hirugarren mailakoak), baita tamainaren arabera ere (handiak, ertainak, txikiak).

Etzaleku: animaliek edo animalia-taldeek gaua igarotzeko aukeratzen duten lekua. Oso ohikoak dira ur-hegaztiak edo araba-zozoak etzalekutan biltzea.

G

Galiforme: oiloek, basoilarrek, lagopodoek, eperrek, galeperrek, faisaiak eta indioilarrek osatutako hegazti-familia.

Garaiera: ugaztunek gaingurutzean duen altuera.

Gazteen sakabanatze-aldia: gazteek jaiolekua utzi eta norabide askotan egiten duten ihesa.

Gordelekua: zuloa, habia.

H

Habia-ihesleak: hegazti-espezie jakin batzuetako txitak, jaio eta segituan habia uzten dutenak.

Habiakoia: hegazti-espezie jakin batzuen txitak, habian denbora luze samarra igarotzen dutenak.

Hego-izpila: anatidoen hegaletan ageri den angeluzuzen koloreduna, bigarren mailako hegalaen diseinuei dagokiena.

Hosto-erorkorrak: neguan hostoak galtzen dituzten zuhaitzak eta zuhaixkak. Esaterako: haritza, pagoa, erkametz, makala, burzuntza, sahatsa eta abar.

Hosto-iraunkorrak: urte guztian zehar hostoak berdeak dituzten zuhaitzak. Esaterako: konifero gehienak (pinuak, haginak, izeiak), arteak, gorostiak eta abar.

I

Igurzkia: zerbidoek beren adakerak marruskatzeko erabiltzen duten zurezko landare-zurtoinaren zatia.

Ilauna: ugaztunen azala estaltzen duen ile-geruza trinkoa eta kizkurra. Ilauna bero-isolatzailea da, ile luzearen azpian.

Induskadura: basurdeak, jatekoaren bila dabilela, lurrean uzten duen induste- edo zulo-formako arrastoa.

Ipurtxuntxurra: hegaztien atzealdeko muturreko gorputz-atala, gorputzak buztanarekin bat egiten duen lekuan.

Isats motza: isatsik ez duen edo isats motza duen erbia.

J

Jantzia: lumajearen eta ilajearen sinonimoa.

K


Karunkula: hegazti batzuek buruaren zati batzuetan (betzulotan, mokoan, kopetan) ageri duten eskrezentzia haragiduna edo adarduna.

Kontrapasa: hegazti migratzaileak kumeak hazteko lekura itzultzen diren garaia; udaberriko migrazioa edo ezteiaurreko migrazioa ere deitzen zaio.

Korbidoak: beleek, bele txikiek, miek, mika urdinek, erroiek, ipar-beleek, eskinosoek eta belatxingek osatutako hegazti-familia.

Koroa: oreinen adakeraren mutur-multzoa.

Kubitua: besaurreko bi hezur luzeetako bat, besaurrearen kanpoaldean dagoena.



L

Lagomorfoak: untziek eta erbiek osatutako ugaztun-ordena.

Lekuratzeta: garaiz kanpoko gertakaria, sasoiko ihesaldiaren antzekoa, baina etengabea. Hilabetetan eta urtetan luza daiteke, noranzko zehatzik gabe.

Lema-lumak: isatseko luma luzeak (12 dira, ia espezie guztietan). Lemari ere deitzen zaie.

Letaginak: zenbait ugaztunen betortzen izena. Basurdeetan, beheko betortzei deitzen zaie horrela.

Lumaje itzala: anatido arrek herrenaldi-garaian izaten duten kolore apaleko lumajea. Hegan egiteko lumen aldaketarekin batera (herrenaldia), arrek gorputzeko lumak ere berritzen dituzte: aldaketa horren ondorioz, luma berriak ilunak eta arreak dira, emeen lumen antzekoak. Lumaje horrek anatidoak berriz ere hegan egiteko gai diren arte irautean du. Orduan, gorputzeko lumak berriz aldatu eta ohiko kolore distiratsuak berreskuratzen dituzte.

M

Mantua: lumaz betetako bizkarraren zatia, lepoaren eta buztanaren artean.

Marraduna: hala deitzen zaie 6 hilabete baino gutxiago dituzten basurdeei. Marra horiak eta beltzak izaten dituzte.

Marrualdi: oreinen araldia. Garai horretan, arrek marru handiak egiten dituzte.

Melanismoa: azalean edo horren deribatuen gehiegizko pigmentu iluna (melanina) izatea; ondorioz, ilajea edo lumaje beltza izaten da.

Migrazioa: urtaroen arabera leku batetik bestera joatea. Espezie jakin batzuen ezaugarria da. Nomadek edo transhumanteek ez bezala, espezie migratzaileak distantzia handiak egiten dituzte, aldizka. Gainera, populazio gehiena mugitzen da. Gertaera autonomoa da (hegaztiak nahi dutelako mugitzen dira) eta nolabaiteko antagonismoa ere beharrezkoa da bizileku alternatiboen artean.

Mikaldia: anatidoen berezko muda. Lumaje guztia batera eta erabat aldatzen dute. Garai horretan, anatidoek hegan egiteko gaitasuna galtzen dute. Uda-amaieran gertatzen da, kumeak hazi ondoren.

Mikrougaztunak: 120 gramo baino gutxiagoko pisua duten ugaztunak: marraskariak –saguak, arratoiak, muxarrak, sator txikiak, eta abar (urtxintxak izan ezik)–eta intsektujaleak –satorrak, satitsuak, ur-satitsuak, etab (trikuak izan ezik)– biltzen ditu.

Monogamia: estalketa-modu jakin bat, arrak eme bakarra hartzen du.

Muda: ileak eta lumak berritzeko prozesua.

Murgildu (buru-lepoak): ur-azaleko ahateek duten ohiko jateko modua. Burua eta lepoa uretan sartu eta gorputza kanpoan uzten dute, posizio bertikalean.

Mutur bakarreko adardun oreinak: urtebeteko edo bi urteko orein gaztea.

Mutur: oreinen eta orkatzen adarretan ikus ditzakegun erdiko eta goiko puntak.

N

Negupasa: iparraldeko latitudeetatik edo beste latitude batzuetatik datozen hegaztiak, negua leku beroetan igarotzen dutenak. Negupasa-eremuak espezie batek negua igarotzen duen lekuak dira.

Negutarrak: leku jakin batean neguan bakarrik ikus daitezkeen espezieak.

Nomadismoa: animaliaren mugimenduaren irregularitasuna. Nomadak diren animaliek epe batzuk leku jakin batean igarotzen dituzte eta, ondoren, beste leku batera joaten dira. Lekuratzetan ez bezala, nomadismoa animaliaren urteroko ziklo biologikoaren arabera gertatzen da.

O

Orein-azala: zerbidoen adakeratik erortzen den azala edo "belusa", gorputza landareen aurka marruskatzen duteanean. Zerbidoen adakera estaltzen du osatzen ari denean, eta hori elikatzeke odol-hodiak ditu. Adakera osatuta da goenean, lehortu eta erori egiten da.

Ornogabeak: bizkarrezurrik gabeko fauna; besteak beste, moluskuak, nematodoak, intsektuak, araknidoak eta krustazeoak.

Orroaldia: hala deitzen zaio adarzabalen araldiari. Garai horretan, arrek marru handiak egiten dituzte.

P

Pala: adarzabalaren adarraren zati laua.

Pasea: hegazti migratzaileek negualdia igarotzeko lekuetara egiten duten bidaia. udazken-migrazio edo ezteiondoko migrazio ere deitzen zaio.

Poligamia: prozesu honen bidez, arrak hainbat eme hartu (poliginia) edo emeak hainbat ar hartzen ditu (poliandria).

Popa: ahateen atzealdea.

S

Sasoiko ihesaldia: hegaztiak egiten duten leku-aldaketa, eguraldi txarraren aurrean (bai hotz handia dagoelako, bai lehorte izugarria dagoelako).

Sedentarioa: urte osoan eremu geografiko berean bizi den espeziea edo populazioa.

Sexu-dimorfismoa: espezie bateko arren eta emeen artean zenbait desberdintasun daudela (formaren, diseinuaren eta kolorearen aldetik, besteak beste) adierazten duen hitza; esaterako, anatidoetan edo zerbidoetan.

Sexuen arteko erlazioa: adiera horrek populazio jakin baten baitako ar- eta eme-kopurua lotzen du. 1:1 erlazioak eme bakoitzeko ar bat dagoela esan nahi du.

T

Taldekeria: espezie bereko taldeen eraketa bultzatzen duen jokabide gizartekoia.


Topekaria: zerbidoen adarren oinarritik hurbilen dagoen aurreko muturra. Araldian arrek borrokarako erabiltzen dute.

Tatezka ibiltzea: lurretik korrika egitea; hegaztiek esaten da eta, bereziki, eperrez.

Transhumantzia: faunaren altitude-mugimenduak, mendi-eremuetan gertatzen den baliabideen ekoizpenaren eta horien eskuragarritasunaren arteko denbora-desfasea dela-eta.

Txanoa: animalien buruaren goiko zatia. hegaztien kasuan, txapela ere deitzen zaio.

U



Udako espezieak: udaberrian eta udan bakarrik ikus daitezkeen espezieak (adibidez: usapala eta galeperra gurean). negutarren aurkako kontzeptua.

Udazkenaldia: mediterraneo inguruko lekuetan udazkenean gertatzen da. Sasoi horretan, ornogabeen jarduna oso bizia da eta zelaia berdatu egiten dira. Fruitu ugari ere sortzen dira garai horretan, tenperatura egokiak eta euri ugariak direla-eta.

Ur-azaleko ahatea: ahate honek burua eta lepoa uretan sartuta dituela jaten du, jarrera bertikalean. uretatik jauzi batez hasten dira hegaz eta hegala luzeak ditu.

Urkioloia: bi urteko zerbido arra, urkila-formako bi puntako adarra duena.

Z

Zakil-zurdak: ugaztun ar batzuek zakilean duten ile-xerloa.

Zekotrofia: prozesu honen bidez zenbait animaliak beren gorozkiak jaten dituzte. honela, untziek eta erbiek landareen zelulosa digeritzen dute, elikagai berbera digestio-tututik bi aldiz igaroz. lehenengo aldian, aurre-digestio prozesu bat gertatzen da heste itsuan.

Zerbidoak: oreinek, orkatzek eta adarabalek osatutako ugaztun-familia.

Zeroma: hegazti batzuen mokoaren oinarrian ageri den irtengune haragitsua; esaterako, harraparien edo usoen mokoan.

Zingiratsuak: hezeguneekin lotutako espezieak.

Zizare-antzekoa: hainbat ahate-espezieen lumajearen ageri den uhin-moduko diseinua.

Zorroztaginak: basurdeen goi-letaginak.

Zurda: apodun eta haragijale batzuek bizkarrean duten ile-zerrenda tentea. eskuarki, araldian ikus daiteke, ar helduetan.

